

## ARISTOTELESEN METAFISIKA ETA BERE GAKOAK

Aristotelesen Metafisika aurkeztean --zorionez eta lehen aldiz euskaraturik agertzen dena--, halako konplikazio eta zailtasun batzuk dituen obra dela irakurleari gogoraraztetik hasiko naiz, nola egituraz hala edukiz. Bere egituraren ikuspuntutik, osatzen duten hamalau liburuek tratatu baterakoi bat ez eratzetik dator zailtasunik handiena. Zerbait izatekotan areago dira idatzitxo independenteen multzo bat, beren gai-ahaidetasunarengatik obra bakar batean taldekatu zirenak, partez Aristotelesek berak, partez ondorengo peripatetikoek. Oro har, liburu hauek apunteak dira, Aristotelesek bere ikastaldietarako erabiltzen zituenak. Ikastaldi edo metodo bakoitza (méthodos) edo liburu bakar bati egokitzen zaio (horrela gertatzen da 1.XII.arekin), edota haietako taldetxo bati (adibidez, VII-VIII-IX. liburuak), kasuen arabera. Areago oraindik, behin baino gehiagotan ikastaldi bera emango zuenez, zentzuzkoa da uste izatea (eta badago testuan aztarnarik hori uste izateko) Aristotelesek aldatu, gehitu edo ezabatu egiten zituela esaldi edo paragrafoak behin eta berriz. Gaur eguneko edozein irakaslek ezaguna du jokaera hori bere esperientzia propioz.

Aristotelesen Metafisikak, beraz, ez du idazkuntza-batasunik, ez da egileak osotasun sistematikoki egituratu gisara kontzebitu eta idatziriko liburua. Garrantzizko zirkunstantzia horrek berehalaxe honako auzi hau planteatzen du: zer neurritaraino du koherentzia gaur egun liburuen ordena sekuentzialak? Horien edukiei bagagozkie, gure iritziz, honetara erantzun liteke: 1.II (a), itxuraz fisikako ikastaldi bati sarrera eskaintzen diona, 1.V ( ) hiztegi filosofiko independente bat duena, eta 1. XI (K) Metafisikako liburu guztien zerrenda laburtua eskaintzen duena, Fisikako zenbait pasarteren aterakinarekin batera. Hiru liburu horiek ez dira egokitzen, beraz, obraren ordena sekuentzialera. Hala eta guztiz ere, eta horretan sartzekoak direla uste izanez gero, nekez aurki lekieke leku hoberik (edo hain txarra ez denik) bere garaian izendatu zitzaiena eta gaur egun daukatena baino. (b) Gainerako hamaika liburuei dagokienez, kokaturik agertzen diren ordena funtsean arrazoizkoa da: izan ere, bere ordenazioa gai-izaerazko halako sekuentzia bati dagokio.

“Idazkuntza-batasunik” ez izatea era nahasian asoziatzen da, sarritan, aristoteliar metafisikaren batasunaren arazo filosofikoarekin. Kasu horietan ekiboko bat sortzen da, nahiz eta argitzen erraza izan. Izan ere, “aristoteliar metafisika” esamoldea bi zentzutan erabil daiteke. Lehenik, Metafisika aipa lezake, hau da, hamalau liburuz osaturiko aristoteliar obra hori. Obra idatzi hori den heinean batasunik gabea da, inolako zalantzarik gabe eta arestian adierazi dugunez. Baina “aristoteliar metafisika” erabil liteke gainera eta bigarren lekuan, Aristotelesen pentsamendu metafisikoa, obra horretan dauden ideia filosofikoak adierazteko. (Bigarren zentzu horretan, adibidez, Kanten edo Hegelen, edo beste edozein filosofo espekulatzaileren metafisikaz hitz egin daiteke, nahiz eta Metafisika izenburuko obrarik inoiz idatzi ez zuten). Zilegi bekit irakurleari jakinaraztea aristoteliar metafisikaren batasunaren arazoa --edo batasunik ezarena-- aipaturiko bigarren zentzuan dagokiola. Eta ez da galdu behar begietatik lehen zentzuan batasunik ez izateak (idazkuntza-batasunean) ez duela izan behar ezinbestean batasun-gabeziarik bigarren zentzuan (pentsamendu-batasunean). Gogoan izan bedi gure egunotan sarria den honako jokaera hau: autore batek bildu eta argitaratu egiten du bolumen batean gai jakin bati buruzko artikuluko sorta bat; artikuluko horiek bizitzako inguruabar desberdinetan idatziak dira, eta agian hamarkadatan zehar. Bolumen horrek ez du izango, noski, idazkuntza-batasunik. Beste auzi bat da pentsamendu-batasunik duen ala ez jakitea: hori artikuluko batzuetatik besteetara autoreak bere ideiak edo jarrera doktrinalak aldatu izanaren edo ez izanaren baitan egongo da. Bigarren zentzu horretan metafisikak duen batasunaz berriz ere jardungo dugu.

## II

Pentsalari handi baten obra erabakigarri batek tradizio batean errotua izatearen, hartatik elikatu eta hari erantzutearen, eta pentsamenduari ikuspegi berriak irekitzearen ezaugarri bikoitza aurkezten du. Horrela gertatzen da Aristotelesen Metafisikaren kasuan.

‘Metafisika’ hitza ez da Aristotelesen obran ageri. Ondoren eta eskola peripatetikoaren baitan asmatutako hitza da eta titulu gisara Metafisika osatzen duten liburu-bilduma, baita obra lantzen duen gai-esparrua ere izendatzeko erabili izan da.

‘Metafisika’, grekoz *metà tà physiká*, preposizio batez (*metá*) eta *physikós* neutro pluraleko akusatiboko adjektiboaz osaturiko esamoldea da. *Physikós* adjektiboa *physis*-etik dator eta “natura” esan nahi du. Beraz, *tà physiká*, izaki naturalak dira. Bestalde, natura ideiak bi ezaugarri ditu filosofia grekoaren hasieratik. Lehenik, kontzeptu orobesarkatzailea da: izaki guztiak, batere salbuespenik gabe --zeru-lurrak, jainko--gizakiak-- naturakoak dira. Bigarren, natura nozioa etenezinki loturik dago jatorri eta sorreraren, hazkuntza eta garapenaren, aldaketa eta mugimenduaren ideiei. Izaki guztiek, bada, dute jatorri bat eta diren hori izatera sorrera eta aldaketazko prozesu baten bitartez iritsi dira.

Natura ideia hori dago hasieratik filosofia grekoaren buruzagitza eta orientabidean. Lehen filosofoen obrek (eskuarki “presokratiko” deituek) *Perì physeôs* zuten izenburua, hau da, Naturari buruz. Horietan (poetek mitikoki egiten zuten bezala, Hesiodok bereziki) kosmosaren, gaur eguneko ordenaren sorrera arrazionalki esplikatzeke asmoa zuten: lehenik, unibertsoaren sorrera, baina halaber eta ondoren, gizakiaren sorrera eta azkenik gizartearen sorrera. Ez dago ezer, bada, naturaz kanpo, izaki “natural”-ak (*tà physiká*) izaki guztiak dira.

Baina ‘metafisika’ hitzean *metá* preposizioa *tà physiká*-ren aurretik ageri da. Preposizio horrek, aztertzen ari garen esamoldearen barruan, ezin du “-ren ondoren” besterik adierazi, oro har, zerbaiten ondoren edo haraindi dagoenaren aipamena eginez serie ordenatu batean, denborazkoa edo ez-denborazkoa izan litekeen ordena batean. Baldin eta ‘meta-fisika’ denboraren erreferentziarik gabe interpretatzen bada, ordena ontologiko bat konnotatuko du eta izaki naturalez, fisikoez, haraindi dauden errealitateak adieraziko ditu. Alabaina, ba al dago errealitaterik *physis*az haraindi, naturaz kanpo dagoenik? Presokratikoentzat ez, noski (Parmenidesen salbuespen bakanaz kanpo). Platonentzat bai, ordea. Unibertsoaren sorrera azaltzean, Timeon, Platonek beharrezkotzat jo zuen hiru kausa edo printzipio sartzea: materia/espazioa, Formak edo Ideiak (paradigma bezala) eta Demiurgoa (Adimendu ordenatzailea). Materia (mugimendu betiereko kaotiko, irregularrez afektatua, berez) printzipio eratzailea da eta, ondorioz, unibertsoarekiko inmanentea. Ideiak eta Adimendua ez dira

unibertsoaren parte, berarekiko transzendente dira. Natura esplikatzen du, hartaz “haratago” dauden printzipioetara jotzen du. Ideiak edo Formak ez dira naturaren esparrukoak, ez baitute sorrerarik eta ez baitaude ezein aldaketa edo prozesuren menpean. Hertsiki hitz eginez, meta-fisikoak dira.

Metá preposizioa, gainerakoan, “-ren ondoren” bezala interpreta daiteke (eta interpretatu izan da) denborazko segida batean. Kasu horretan, ‘metafisika’ hitza erabiliko litzateke izaki fisiko, naturalen azterketaren ondoren aztertu beharreko errealitateak aipatzeko. Hitzak, orduan, ezaguerak eskuratzean dagoen ordenaren berri emango luke. Alabaina, bide horretatik berriro Platonengana goaz. Izan ere, platondar Errepublikan agintarientzat ezarritako ikasketa-planak azkenean Ideien azterketan du gailurra eta, azken finean, Ongiaren Ideia subiranoan, gainerako zientziak eta, matematikak oso bereziki ikasi ondoren. Ideien azterketa --eta Ongiarena Ideia goren bezala-- Platonek “dialektiko” izendatzen du. Platonen dialektika, beraz, meta-fisika izango litzateke.

Metà preposizioaz proposaturiko bi interpretazioak ez dira, inondik ere, elkarrekiko baztertzailerik. Alderantziz. Metafisikaren bi ezaugarritzeok tradizionalki koordinagarritzat (1) jo izan dira, eta koordinaturik ageri dira, ikusita daukagunez, Platonen egitasmo epistemologiko eta hezitzailean. ‘Metafisika’ hitzarekin, errealitate goren eta perfektuenera azterketa aipatzen da, sorrerarik gabeko errealitateena (betierekoena), aldaketa eta mugimendurik ez dutenena. Errealitate perfektuenera direnez gero, eta grekoek ‘jainkozko’ adjektiboa izaki perfektuenera ezartzeko joera dutenez, zeinahi direla ere horiek, ez du ezer berezirik errealitate horiek “jainkozko” ezaugarria hartzea. Hortik dator, berehalaxe ikusiko dugunez, Aristotelesek teologiaz, zientzia teologikoz hitz egitea.

### III

Zientzia goren eta oinarrikoaren dimentsio “teologiko-platonikoa” jadanik Metafisikaren lehen liburuan (A) agertzen da. Horretan zientzia gorenari “jakituria”

(sophía) izendatzen da. Zientzia hori, “zeinaren bila gabiltzan” (I 2, 893221), zientzia teoriko bat da, zeinaren objektua “lehen printzipioak eta kausak” (ib. 982b9-10) diren. Jakite unibertsal bat da gauza guztiak “modu jakin batez”, “ahal den neurrian” (ib. 982a8-9, 21-22), ezagutu behar dituen, ez beren xehetasunetan eta kasuz kasu, baina bai osotasunean eta oinarrizko ezaugarrietan. Aristotelesek jakite horri “jainkozko” kalifikazioa ematen dio, bere objektua jainkozkoa den heinean (lehen errealitateak, lehen printzipioak), baita bere jabekuntza betea Jainkoari giza adimenari baino areago dagokion heinean (ib. 982a8-10). “Jakituria” izenarekin, beraz, aldi berean unibertsaltasunak eta primordialtasunak ezaugarritzen duen jakite bat proposatzen da.

Beste abagune batzuetan Aristotelesek, esan bezala, teologiaz, “zientzia teologikoa”z hitz egiten du. Horri buruzko pasarte garrantzitsu bat 1.VI (E) liburuko lehen kapituluan aurkitzen da, eta bertan Aristotelesek zientzia teorikoen azalpen bat eskaintzen du fisika, matematika eta teologian sailkatzen ditu. Fisika arduratzen da higiezinak ez diren errealitateez (physisaren erresumakoak dira sorrera eta higidura) materiatic bereizirik existitzeko gai ez direnez; matematikak, beren aldetik, higiezinak diren baina materiatic bereizirik existitzeko gauza ez diren errealitateez arduratzen dira; teologia, azkenik, aldi berean higiezinak eta bereizirik existitzeko gai direnez, materiagabeez, arduratzen da (VI 1, 1026a13-16)2.

Zientzia teorikoen sailkapen hirualdeko hau, zalantzarik gabe, hats platondarrekoa da. Sistema platondarrean erabateko egokiera du, zeren Platonek hiru maila bereizten baitzituen errealitatean: izaki fisikoak, izaki matematikoak eta ideiak. Horren aurrean, Aristotelesek uko egin zion objektu matematikoen subsistentziari (ez baitira existitzen berenez, abstrakzioz baizik) eta, hala eta guztiz ere, antzinatean eta erdi aroan zehar interpretazio ugari eragingo zituen sailkapenari eutsi zion.

Oso garrantzitsua da, gainerakoan, Aristotelesek zientzia teorikoen sailkapen hirualdeko hori sarrarazten duen testuinguruari behar bezalako arreta eskaintzea. Pasarte horretan Aristotelesek galdetzen dio bere buruari zientzia horietako zein hartu behar den lehen zientziazat. Pitagorismoak matematikei eman zien lehentasuna (baita Platonek ere, neurri batean, printzipioen doktrina “matematikoki” garatu eta ideiak “zenbaki ideal”-etatik azaltzean). Aristotelesek argi eta garbi arbuiatzen du matematikak lehen

zientziazat har daitezkeelakoa bi arrazoiengatik: objektu matematikoez (zenbakiak, figurek) izaki fisikoez kanpo ez dutelako izate errealik eta, ondorioz, izaki erreal, prozesu eta higidura errealean kausa erreal izan ezin daitezkeelako. Hortik dator Aristotelesekin, pasarte horretan, bi hautagai bakarrik hartzea lehen zientziaren duintasunerako: fisika eta teologia. Presokratikoez fisikari eman zioten maila hori. Eta zentzuzkoa da horrela jokatu izana, zeren lehenago aditzera eman dugunez, izaki guztiak physisaren erresumakotzat baitzeuzkaten. Inguruabar horietan Aristotelesen diagnostikoa argia da. “baldin eta ez badago beste izakirik fisikoki eratuez kanpo, fisika izango da lehen zientzia. Baldin, aitzitik, izaki higikorren bat existitzen bada, hori [sc. zientzia teologikoa] aurrekoa izango da, eta lehen filosofia...” (VI 1, 102a29-30).

Ba al dago izaki materiagabe eta higiezinik? Zalantzarik gabe, baina ez Platonekin eta Akademiako beste kide batzuek proposaturiko mota eta ezaugarriak dituen (Ideiak, izaki matematikoak). Horri buruzko aristoteliar doktrina, haren teologia, era sistematikoan aurkezturik dago Metafisikaren 1.XII ( ). Jadanik Fisikan Aristotelesek garaturik zeukan argudiatze xehe bat erakusteko higidura --eta, horregatik, physisaz-- azken printzipiotzat higidura eragiteko gai den errealitate bat onartuz bakarrik azal daitekeela, nahiz eta hura bera higiduran ez egon, higitu gabe higiarazle den errealitate bat (higiarazle higiezina). Metafisikaren 1.XII ( ) argudiatze parez pareko bat, sinpleagoa, zuzenago eta estilizatuagoa aurkitzen dugu: denbora, esaten zaigu, betierekoa da. Beharrezkoa da izatea, beraz, higidura betiereko bat, zeren denbora higiduratik bereizteazina baita. Alabaina, ibilbide zirkularreko higidura bakarrik izan daiteke betierekoa, hasiera eta bukaerarik ez duena. Bada, beraz, higidura zirkular betiereko bat zero-esfera gorenarena baizik ez dena, “higiduran egon gabe higitzen den zerbaitek” higitua” (XII, 6-7).

Aristoteles ez da mugatzen “higiarazle higiezin” horren existentzia baieztatzeraz, baizik eta orrialde distiratsu eta gartsuak eskaintzen dizkio zer izaki-mota dagokion frogatzeari. Horretarako materia/forma eta potentzia/akto eskema teorikoetara jotzen du. Entitate gorena materiagabeko forma da, forma materiagabea, eta potentzia gabeko aktoa da, aktotasun garbia, aktibitatea. Aristoteliar filosofiaren printzipioen arabera,

lehen izakia “higiezina” izateak ez du esan nahi “aktibitategabea” denik. Bere aktotasun aktuatze betea da, perfektua. Lehen entitatea izaki biziduna da, bizidun zoriontsua, betierekoa eta perfektua. Dagokion aktibitate bizia ez da begetatiboa ez sentigarria (zeren aktibitate horiek gorputz-organismo bati baitagozkio), intelektual hutsa baizik: bere aktibitatea pentsatzea da, pentsamenduzko akto betierekoa da, bere burua pentsatzen duen pentsamendua, aristoteliar formula ospetsu eta ospatuaren arabera: “bere pentsamendua pentsamenduaren pentsamendu da” (XII 9, 1074b34-35). Lehen entitateak bere burua pentsatzen du, eta bere burua soilik. ez du ezagutzen ez pentsatzen “erakarpenez” higitzen duen mundua, onari higitzea dagokionez, desira- eta irrika-objektu bezala (XII 7, 1072b3).

Lehen entitate hori Jainkoa da (ib. 7, 1072b30). hartatik, printzipio eta azken kausa bezala, “esekita daude zerua eta natura” (1072b14-15). Physisa, natura berez fisikoa, naturala ez den printzipio baten menpean edo baitan dago.

#### IV

Metafisikan zehar posible da, beraz, lehen zientzia kausen eta azken printzipioen zientzia bezala definitzen eta garatzen duen pentsamendu-lerro bat berrezagutu eta jarraitzea eta “teologia” gisara zehazten dena, fisikaz bestelako zientzia eta hura baino goragokoa, zerenez azken printzipioa ez baitagozkie physisari, hartaz “harantzago” baitago.

Baina gauzak ez dira hain sinpleak. 1. IV ( ), c. 1-en hasieran supituki Metafisikan zientzia bat sartzen da Aristotelesen pentsamendu metafisikoari norabide desberdin bat ezartzeko itxura duena: “Bada --dio Aristotelesek-- badena, zerbait den heinean aztertzen duen zientzia bat, eta, berez, dagozkion atributuak” (1003a21-22). “Badena, zerbait den heinean” grekoz esaten da τὸ ὄν ἔστι ὅτι. Ὅτι hitza eînai aditzaren partizipioa da ‘izan’ aditzari dagokiona. Grekoz ez bezala, latinez ‘izan’ (esse) aditzak ez zeukan orainaldiko partizipiorik eta asmatu egin behar izan zuen bat ens-entis, halako moldez, non aristoteliar formula τὸ ὄν ἔστι ὅτι latinez ens qua ens itzuli eta egonkortu zen, “ente

en tanto que ente” gaztelaniaz eta antzeko formula gisa gainerako hizkuntza latindarretan.

Zientzia edo azterketa hori, zeinaren existentzia Aristotelesek hanpaduraz aitortzen duen eta “ontologia” ongi dei genezakeen, bere unibertsaltasunak ezaugarritzen du. Badena (entea) aztertzen du murrizketarik gabe, eta “zerbait baden heinean “aztertzen du: ez lur edo su den heinean, edo zenbaki edo lerro (kasu horretan berriro zientzia partikularren baten sailera itzuliko ginateke, fisikara eta matematikara hurrenez hurren: IV 2, 1004b6), baizik eta baden heinean, soilik eta besterik gabe. Bere unibertsaltasun-uziarengatik, zientzia hori zientzia partikularrei kontrajartzen zaie, hala nola errealitatearen parte bat mugarritzen duten fisikari edo matematikari, badenaren alor bat, bere propietateak aztertzeko (IV 1, 1003a22-26) eta VI 1, 1025b7-10).

Antologia definitu ondoren, haren existentzia hanpaduraz baieztatuz, Aristoteles berehalaxe arduratzen da haren posibilitateaz ere. Posible al da erreala den oro, baden oro, zientzia baterakoi eta koherente baten barruan kontsideratzea? Badugu, noski, hitz bat, izan aditzaren partizipioa (τὸ ὄν, entea, badena) erreala den guztiari aplikagarria, eta badiren gauza guztiei eta bakoitzari ere bai, nolanahikoak direla ere. Bere hizkuntza propioaz gogoeta eginez --eta aurreko filosofoen gogoetetan oinarrituz-- Aristotelesek aitortzen du ‘izan’ aditza presente dagoela, esplizituki edo inplizituki, gauzei buruzko diskurtso guztian, guztiaz esan liteke badela, eta honelako edo halako dela, honetara edo hartara dela. Baina ez da zuhurra hitzen iruzurpean erortzea. Kontsideratu nahi dugun guztiari ezartzeko moduko termino bat egoteak ez da aski dagokion azterketa edo zientziaren batasuna bermatzeko. Nahi dugun zientzia “bat” izan dadin beharrezko da delako termino hori unibokoa izatea, esanahi bakar eta bera izatea. Izan ere, terminoa unibokoa ez bada, ekibokoa baizik, esanahi desberdinekin erabiltzen bada, esanahietako bakoitzak objektu-eremu desberdin bat zedarrituko du. Aristoteles, bestalde, jabeturik dago ‘izan’ aditzak (bere forma guztietan eta, ondorioz, baita partizipioan ere) esanahi ugari dituela. Guztiari aplikatzen zaio, baina ez beti zentzu berean. Ez da, beraz, unibokoa: ‘izan’, ‘baden zerbait’ era askotara esaten da, adierazten du hanpaduraz Aristotelesek (cf. IV 2, 1003a33). Izateko zentzuen aniztasun hori lehenik, kategorietan agertzen da. Sokrates gizakia dela eta Sokrates jakintsua dela diogunean, ‘da’ horrek ez du zentzu bera, Aristotelesen arabera: lehen kasuan kopula eroale bat da Sokrates zer den (esentzia) adierazteko, bigarreanean, ez zer den, baizik nolakoa den (nolakotasuna). Kategoriek adierazten dute ‘izate’-zentzuen oinarritzko aniztasuna. Horien aipamena



egiten dute Aristotelesek bereizten dituen beste ‘izate’-zentzu batzuek, adibidez, V liburuan ( ), 7. kapituluan. Aristotelesek bereizten dituen ‘izate’-zentzu horien artean garrantzi filosofiko apartekoa dute “potentzian izateak” (hau da, potentzialki zerbait izateak) eta ‘aktoan izateak’ (hau da, aktualki zerbait izateak, era efektiboan zerbait izateak).

Alabaina, baldin ‘izan’ ez bada termino uniboko bat, nola eska liteke badenaren zientzia unibertsal bat, zerbait baden heinean? Zailtasuna, zalantzarik gabe, larritasun handienekoa da ontologiaren egitasmoa hasieratik beretik trabatzeko modukoa. Aristotelesek, ordea, ez du atzera egiten, baizik eta aurre egiten dio ‘izan’-zentzuen aniztasunaren azterketa distiratsu eta original baten bitartez. Horretarako adibide batera jotzen du, gerora ontologiaren ondare --eta topiko-- izatera pasatu denera: ‘osasuntsu’ hitzarenera. ‘Osasuntsu’ hitza, adierazten du Aristotelesek, gauza desberdinei aplikatzen zaie, organismoari, koloreari, jakiei eta klimari, eta kasu bakoitzean zentzu desberdinarekin: organismo batez diogu osasuntsua dela osasuna duelako, koloreaz diogu osasunaren zeinu delako eta azkenik, jaki eta klima batzuek diogu osasungarriak direlako. ‘Osasuntsu’, beraz, “era askotara” esaten da. Hala eta guztiz ere eta desberdintasunak gorabehera, bere erabilpen eta esanahi guztien artean bada halako koherentzia bat, bada halako batasun bat beren osasun-erreferentzia komunean oinarritua. Batasun-mota hori badago ‘izan’ aditzaren kasuan ere. Aristotelesek honetara adierazten du: (...) (IV 2, 1003b6-10).

Horrela bada, nahiz eta ‘izan’ unibokoa ez den, bere esanahi anitzek ez dute termino ekiboko huts bihurtzen, zeren horiek guztiak bateraturik geratzen baitira termino bakar batekiko beren erreferentzia komunarengatik. Esanahi horiek guztiek igortzen duten terminoa entitatea, ousía da. Erreferentzia-unitate hori (Aristotelesek pròs hén, “batekiko erreferentzia” deitzen duena eta erdi aroko eskolastikak zorigaitzez “atribuziozko analogia” deituko zuena) aski da kasu bakoitzean zientziaren batasuna, kasu honetan ontologiaren batasuna bermatzeko. Alabaina, batasun-mota hau gertatzen den lehen termino bat dago (zeinetara gainerako guztiek igortzen duten) eta aipaturiko

zientziari dagokio lehentasunez hori aztertzea...; beraz, hori entitatea bada, filosofoak entitateen printzipio eta kausen jabe izan behar du” (ib. 1003b16-19).

Ontologiak, beraz, entitatearen, ousíaren azterketari lotu behar zaio. Eta auzi bikoitza dagokio. Lehenik, zer den entitatea. Bigarrenik, zer entitate-mota dauden, materialak (fisikoak, naturalak) soilik dauden edota materiagabeak ere badauden, eta zein den horien izateko era propioa.

Auzi horietako azkenaren aipamena dagoeneko gorago egina daukagu, eta oraindik ere kontuan hartu beharko dugu. Horietako lehena, bestalde, Aristotelesek Metafisikako VII-VIII-IX. liburuetan lantzen du, IV. liburuarekiko jarraipenean. Bere trataeran, ousía hitzak (hizkuntza greko arruntean eta bere erabilpen filosofikoan) aplikazio desberdinak har ditzakeelako konstataziotik abiatzen da. Oro har, ousía terminoa oinarritzko errealitatea izendatzeko erabiltzen da, errealitatearen esparruan oinarritzkoa dena. Horrela, aditzera ematen du Aristotelesek, gauzez hitz egiten denean, ousía deitzen zaio “esentzia”-ri, baita “unibertsal”-ari, “genero”-ari eta “subjektu”-ari ere (VII 2, 1028b32-35).

Ousía hitzaren aplikazio horien artean Aristotelesek, lehenik, subjektuari dagokiona kontsideratzen du, zeren, bere iritziz, subjektu izatea ousía nozioaren lehentasunezko zertzelada baita (1. VII, 3. k.). Jadanik Kategoriak bere obran azpimarratua zuen zertzelada hori ousía definitzean “subjektu batez esaten ez dena ezta subjektu batean gertatzen ez dena, adibidez, giza banakoan edo zaldian (Kat. 5, 2a12-14). Ousía edo entitatea subjektua da, nola ikuspuntu logikotik (ez da subjektu batez esaten, beti subjektu da eta inoiz ez predikatu) nola ikuspuntu errealetik (ez da subjektu batean gertatzen, beti determinazioen subjektu da eta inoiz ez beste gauza baten determinazioa).

Subjektu bezala ezaugarritzeak badirudi ezinbestean daramala ousía, bere zentzu errotiko eta propioenean, azken materia dela. Izan ere, determinazioak kentze-prozesu baten bitartez azkenik determinazio oroz gabeturiko subjektu bateraino, subjektu zehaztugabe bateraino iritsiko ginateke. Ousía nozioa lantzean Aristotelesek baztertu

egiten du, hala ere, ondorio hori eta oinarritzat daukan arrazonamendua, zeren, bere iritziz, ousíatzat soilik kontsidera daiteke (hau da, izaki oinarritzko zentzuan) erabat den zerbait, eta indeterminatua ez da erabat. Entitatea edo ousía, beraz, subjektu da, baina ez edozein subjektu-mota: zerbait “bereizia” izan behar du (choristón) eta “determinatua” (tóde tí), materiak ez ditu zertzelada horiek, zeina, bere horretan, ez baita inoiz bereizirik existitzen, determinazioez biluzirik, eta, berez , ez baitu inolako determinaziorik ere.

Arrazonamendu honek bere burua teoria hilemorfiko ezagunean kokatzera darama Aristoteles: materia, berez, indeterminatua da; materia determinatzen duena, materia zerbait determinatua izanarazten duena forma da. Ousía, beraz, entitate edo substantzia hilemorfikoki eratua da: giza banako bat edo zaldi bat. Kategorietan emandako adibideen arabera, hau da, espezie naturaletakoak diren banakoek. Materia eta formaz osaturiko banakoa hartu behar da, beraz, ousíatzat materia baino arrazoi eta eskubide gehiagorekin. Eta bere aldetik, Aristotelesek beste pauso bat, pauso erabakigarri bat emanez gehitzen du: forma hartu behar da ousíatzat konposatua baino arrazoi eta eskubide gehiagorekin.

Azken baieztapen horrek aristoteliar ontologia “formen ontologia” gisara taxutzen du. Eta zer da forma (eîdos)? Aristotelesek galdera horri emandako erantzuna behar bezala ulertzeko kontuan izatea komeni da berak sarritan egiten duen bereizkuntza bat gauzak kontsideratzeko bi eren artean, auzi bati heltzeko bi ikuspunturen artean, ikuspuntu “logikoa” (logikôs) eta ikuspuntu “fisikoa” (physikôs): horietako lehenean gauzari buruz hitz egiteko dugun erari egiten zaio kontu, bigarreanean gauza beraren izateko era propioari egiten zaio kontu. Horrela bada, ikuspuntu “logiko”-tik (VII 1, 1029b13) forma gauzaren esentzia da, bere kontzeptuan artikulatzen ditugun eta bere definizioan adierazten ditugun zertzelada horiek: horrela, “bizidun-animalia-arrazoidun” gisa gizakia kontzeptualizatu eta definitzen dugunean. Ikuspuntu “fisiko”-tik, hau da, gauzatik beratik, forma akto da, aktibitate: gizaki izatea (bizidun-animalia-arrazoidun bat izatea), erreal eta efektiboki izatea, dagozkion jarduerak burutzea da. Gizaki izatea elikatu, hazi, ugaltu (bizidun), sentitu, gura izan, lekualdatu (animalia) eta, azkenik,

pentsatu, hitz egitea, eta abar (arrazoidun) da. Forma (eîdos), beraz, espezie natural bateko banako bati egikaritzea dagozkion funtzio edo jarduera-multzoa da.

Forma akto gisara definitzean, Aristotelesek bereizkuntza garrantzitsu bat dauka gogamenean bi akto-motaren artean, zeinak hurrenez hurren “akto inperfektu” eta “akto perfektu” deitzen dituen. Inperfektuak (bukatugabeak, osatugabeak) dira jardueraz bestelako helburua duten jarduerak, etxe bat eraikitzea edo eskultura bat lantzea. Jarduera horiek atertu egiten dira, helburua lortu bezain laster, etxea eraiki eta estatu landu ondoren. Jarduera perfektuak, alderantziz, ez dute beren buruaz aparteko helbururik eta, ez dute atertu beharrik. Bistakoa denez, formak bigarren mota horretako jarduerak dira. Formen aktualizazioa bere baitan helburu bat da. Aristoteliar unibertsoa bat da, atergabeko eta doako aktualizazioan dagoen formazko, espeziezko unibertso bat da.

## V

Metafisikan landutako oinarritzko gaiez eskaini berria dugun aurkezpenak berehalaxe sortzen du Aristotelesen pentsamenduaren “batasuna”-ren arazoa azalpenaren hasieran planteatzen genuen terminotan. Izatez, Metafisikako liburuetan badirudi bi lehen zientziaren edo oinarritzkoaren bi kontzepzio desberdini eusten zaiela, alde batetik, ontologia “badenaren, zerbait baden heinean” lantzen duen zientzia, eta bestetik, teologia entitate higiezin(ar)en zientzia gisara. Ontologia, printzipioz, unibertsala da, den guztiaz arduratzen da, errealitateko ezein alorretara mugatu gabe. Aitzitik, teologia, printzipioz, badirudi zientzia partikular gisara aurkezten dela, bere objektua errealitatearen parte bat den heinean, eta hortik zientzia teorikoen sailkapenean beste zientzia partikular batzuen (matematika, fisika) aurrean eta ondoan agertzea, horiekin errealitateko esparru desberdinak “banatuz”. Ezaugarritze horien arabera gehitu beharko litzateke ontologia eta teologia ez direla zientzia desberdinak soilik, baita elkarren artean ezin uztartuzko zientziak ere.

Metafisikaren batasunaren arazoa interesgune nagusietakoa izan da aristoteliar azterketetan XX. mendean zehar, batez ere W. Jaegerren (1923) monografia handia argitaratu zenetik. Metafisikaren bi kontzepzio bateraezin direlakotik abiatuz, W. Jaegerrek ahaleginak egin zituen horiek Metafisikako liburuetan duten bizikidetza

bitxia azaltzeko Aristotelesen pentsamenduak aldi desberdinetatik igaroz bilakaera bat izan zuelako hipotesira joz: metafisikaren kontzepzio “teologikoa” antzinagoko aldi batekoa bide da, eta orientazio nabarmenki platondarra du, nonbait, aldiz “ontologia” gisara duen kontzepzioa gerokoagoa bide da eta Aristotelesen azken pentsamendua islatzen du horri buruz. W. Jaegerrek, bada, ukatu egin zuen metafisikaren batasuna horren interpretazio “dualista” bat eskainiz. Aristotelisten ikerkuntzan izan duen eragina, baita haren proposamenak erabat edo partez onartzen ez dituztenengan ere apartekoa izan da.

W. Jaegerren liburua agertu eta gutxi gorabehera handik hiru hamarkada geroago erreakzio gogor bat gertatu zen metafisikaren interpretazio “baterakoi” baten alde. Erreakzio horren ordezkari kualifikatu gisara, besteak beste, J. Owens (1952) aipatu behar da. Aristotelista horrek --eta beste batzuek berarekin-- sustengatu dute lehen zientzia bakar bat dagoela Metafisikan, eta bi ikuspegiak (teologikoa eta ontologikoa) ezin hobeki artikulatzen direla “batekiko erreferentzia” (πρὸς ἑν) formula logiko-matematikoa behin eta berriz aplikatuz. Lehen une batean “batekiko erreferentzia” “badena, zerbait den heinean” horretatik ousiara, entitatera igortzen du, zeren hori “lehena” baita baden guztiarekiko. Bigarren une batean, “batekiko erreferentzia” jadanik entitatearen aplikatuko litzateke entitateetatik entitate gorenera igorritz zeren hori, bestalde, “lehena” baita entitate guztiekiko. Interpretazio distiratsu eta iradokigarria da, zalantzarik gabe, baina ez zailtasunik gabea. Izan ere --Metafisikaren edozein irakurle arretatsuk ohartuko duenez-- Aristotelesek ez du inoiz πρὸς ἑν esamoldea entitateen eta lehen entitatearen (aipaturiko uneetan bigarrenaren) artean dagoen lotura aipatzeko erabiltzen. Eta erabiltzen ez badu segur aski da errealtate-mota desberdinen artean dagoen dependentziazko erlazioa (akzidenteak, determinazioak) eta entitatea ohargarriro desberdina da entitateen eta lehen entitatearen artean existitzen denarekiko.

Aristotelesen Metafisikaren aurkezpen honen marko barruan ez dago behar adinako zabaltasunez garatzerik auzi garrantzitsu horren aspektu guztiak (4). Hala eta guztiz ere, bi kontsiderazio proposatuko dizkiot irakurleari, nire iritziz, metafisikaren interpretazio “baterakoi” baten aldekoak direnak.

Lehenik, komeni da kontuan izatea Aristoteles bera jabeturik dagoela arazoaz eta soluzio baterakoi bat ematen saiatzen dela.. Funtsezko testua honako pasarte honetan aurkitzen da; lehen zati bat aipatu dugu, baina orain osorik emango dugu: (...), (VI 1, 1026a29-32). Testu honek argiro erakusten du Aristotelesek unibertsaltasuna primordialtasunarekin lotzen duela: “unibertsala izango da horretara: lehena izateagatik”(5) Argudiatzearen logika ukaezina da. Entitate guztiak naturalak, fisikoak balira (physisaren esparrukoak), fisika izango litzateke lehen zientzia eta, horregatik, unibertsala: horri legokioke ex hypothesi, baden guztiaren azterketa, horren printzipio eta egiturena. Aristotelesek ez du aurkitzen, beraz, inolako eragozpenik unibertsaltasuna (berak ulertzen duenez) errealtate-mota jakin baten azterketarekin lotzeko, lehen errealtatea baldin bada behintzat. Gorago ikusita daukagu Metafisikako 1. I (A)-n “jakituria”, aldi berean, jakite unibertsal eta jainkozkoari buruzko jakite bezala ezaugarritzen zela, hau da, kausen eta lehen printzipioena bezala.

Bigarren, ez da oharkabea utzi behar Aristotelesek ousíari, entitateari buruzko ikerketa bideratzeko duen era, ontologiak hori aztertzen aritu behar duela finkatu duelarik (VII 1, 1028b2-7). Berehalaxe, Platon, Espeusipo eta Xenokratesen jarrera desberdinei buruzko aipu laburra egin ondoren entitate ideal eta matematikoak direla eta, Aristotelesek honetara adierazten du bere asmoa: (VII 2, 1028b27-32). Testu honek agerian jartzen du ikerketa ontologikoak, ousían zentratzean, lehen entitatea zein den eta nolakoa den aztertzea jartzen duela helburutzat.

Dialektika platondarrean bezala aristoteliar metafisikan errealdaren kontsiderazio “unibertsala”a ez da lehen entitatearen azterketatik bereizgarria. Unibertsoak osotasun antolatu bat eratzen duenez gero, zeinean errealtatearen esparru desberdinak “hierarkizaturik” dauden, lehen entitate(ar)en ezagutzak errealdaren printzipioak eta egiturak egokiago ulertzeko aukera ematen du. Horrela, Ez-kontraesate Printzipioaren eskakizun ontologikoak (ez logiko hutsak) hobeki ulertzen dira lehen entitatearen ikuspegitik, erabat autoidentiko denetik, zeinean betetzen baitira eskakizun horiek betetasun guztian (cf. 1. IV, 3 eta hh. kk.). Eta materia/forma eta potentzia/akto egiturak ere hobeki ulertzen dira lehen entitatearen ikuspegitik, forma inmateriala (materia gabea) baita eta jarduera osoa, perfektua (potentzialtasunik gabea).

Tomás Calvo Martínez

Filosofia Grekoko Katedraduna. Universidad Complutense.

## OHARRAK

1) Ikus bedi, adibide gisara beste askoren artean, Akinoren honako esplizitazio hau: “horregatik, jainkoaz ari den metafisika, filosofian irakasten den azken partea da” (Jentilen aurkako Suma, 1.I, 4. k.).

2) Pasarte honetako testuaz eta bere interpretazioaz, horri buruzko nire itzulpena ikus daiteke (T. Calvo, 1994) eta orrialde-oinean dagokion oharra.

3) Aristotelesek ez dio nolako izenik ematen “badenaren”, baden heinean entearen zientzia unibertsal horri. Mendeak igaro ahala, eta filosofia arrazionalista modernoaren baitan, ‘ontologia’ hitza sortuko da hori izendatzeko. Hitz hori Aristotelesek erabilitako partizipiotik (ὄν-όντος) hain zuzen eraikita dagoenez gero, kasuari ongi egokitzen zaion izendapena iruditzen zaigu, eta horregatik darabilgu erabili ere.

4) Irakurleak gai horren tratamendu xeheago bat aurki lezake Metafisikaren itzulpen oharrez hornituari egin nion “Sarrera”n (T. Calvo, 1994).

5) W. Jaegerrek uste du testu horretako azken hitzak Aristotelesek gerora ezin uztartuzkoa uztartu nahian egindako gehitze bat dela. Bere iritziz, lerro horiek gehitzeak oraindik nabariago uzten du metafisikaren bi kontzepzio horien bateraezintasuna, zientzia partikular bati, metafisika “berezi” bati, metafisika “orokor” bati bakarrik dagozkion ezaugarriak egoztean. W. Jaegerren azalpen hori --orokorrean bere interpretazioa ere bai-- aurreiritzi larri baten menpean dago: Aristotelesen ontologiaren eta teologiaren arteko erlazioa modernitateaz geroztik proposaturiko metaphysica

generalis eta metaphysicae specialesen artean daudenen mota berekoa dela. Gainerakoan, nahiz eta onartu testuaren azken hitzak geroko gehitze bat dela, gertakari horrek ez luke baliogabetuko horiek gehitzean Aristotelesek planteaturiko auziari soluzio bat emateko asmoa zuelakoa.

## OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

### I. Iruzkinak eta itzulpenak

#### 1. Iruzkin grekoak:

Alexander: Alexandri Afrodisiensis In Aristotelis Metaphysica Commentaria, ed., Hayduck, Berlin, Reimer, 1891 (“Commentaria in Aristotelem graeca” serieko I. Liburukia, de. Berlingo Akademia).

#### 2. Iruzkin latindarrak:

Tomas Akinokoa: Sti. Tomae Aquinatis In duodecim libros Metaphysicorum Aristotelis expositio (de. M.-R. Cathala), 3<sup>o</sup> de., Torino, Marietti, 1977.

Pedro Fonseca: Commentariorum Petri Fonsecae...In libros Metaphysicorum Aristotelis tomi quatuor, Kolonia, 1615 (berrinp. Hildesheim, Olms, 1964).

#### 3. Edizio eta itzulpen garaikide iruzkinduak:



T. Calvo (1994), Aristoteles. Metafísica. Madril, Ed. Gredos.

G. Reale (1993) Aristotele. La Metafisica, 3 liburukia. Milano, Vita e Pensiero.

W. D. Ross (1924) Aristotle's Metaphysics, 2 libk. Oxford, Clarendon Press.  
(University Press, 1948)

J. Tricot (1933), Aristote. Métaphysique, 2 libk. Paris, Vrin. (ed. berriak 1953, 1962).

## II. Monografiak

P. Aubenque (1962), Le Problème de l'être chez Aristote, Paris, PUF (= El Problema del ser en Aristóteles. Madril, Taurus, 1974).

L. Cencillo (1958), Hyle. Origen, concepto y funciones de la materia en el Corpus Aristotelicum. Madril, C.S.I.C.

V. Décarie (1961), L'objet de la Métaphysique selon Aristote. Paris. Vrin.

V. Gómez Pin (1984), El orden aristotélico. Barcelona, Ariel.

W. Jaeger (1923), Aristoteles. Grundlegung einer Geschichte seiner Entwicklung. (= Aristóteles. México, F. C. E., 1946).

J. Owens (1952), The Doctrine of Being in the Aristotelian Metaphysics. Toronto, Pontifical Institute of Mediaeval Studies ( 3º ed. berrikusia, 1972)

## LEHENENGO LIBURUA (A)

### I

980a) Gizaki guztiek berez dute jakiteko guraria. Horren adierazle da sentimenei egiten diegun estimua, berez baititugu estimatzen, beren baliagarritasuna alde batera utzita, eta beste edozein baino gehiago, 25) ikusmena. Eta ez bakarrik ekintzari begira, zeren, ezer egin behar ez badugu ere, nahiago izaten baitugu ikusmena, esan genezake, gainerako sentimenak baino. Eta hau da arrazoia: sentimenetan berak laguntzen digula gehien gauzak ezagutzen eta horien alderdi ezberdin asko erakusten dizkigula.

Animaliak sentsaziorako berezko gaitasunarekin jaiotzen dira; baina horretatik ez da batzuegan oroimena sortzen; beste batzuegan, ordea, bai. Horregatik izaten dira azken hauek oroimenik ez dutenak baino 980b) zuhurragoak eta ikasteko gaitasun handiagokoak; zuhurrak dira, ikasi gabe ere soinuak entzuteko gauza ez direnak (erlea, adibidez, eta antzeko beste animaliak, baldin badaude); ikasi, berriz, oroimenaz gain 25) entzuteko sentimen hau dutenek ikasten dute.

Gainerako animaliak irudiei eta oroitzapenei esker bizi dira, esperientzian ezer gutxi parte hartuz. Baina gizakiak arteari eta arrazonamenduei esker ere bizi dira. Izan ere, esperientzia oroimenetik sortzen da gizakientzat, gauza beraren oroitzapen anitzek esperientzia bat 981a) bera osatzen eta nabarmentzen baitute. Eta esperientziak zientziaren eta artearen

oso antzekoa dirudi, baina zientzia eta artea esperientziaren bidez iristen dira gizakiengana. 5) Izan ere, Polok dioen bezala -eta ongi esanda-, esperientziak sortu zuen artea, eta esperientzia-ezak asturua.

Esperientziazko pertzepzio anitzen ondorioz antzeko gauzen gaineko nozio orokor bat ateratzen denean sortzen da artea. Izan ere, Kaliasi eta Sokratesi, eta beste gizabanako askori halaber, gaixotasun jakin batek jota egonik, erremedio jakin batek on egin ziela jakitea esperientzia-10) kontua da. Baina arte-kontua da klase berebete sailkatutako eta gaixotasun jakin batek jotako guztiei -hala nola, flematikoei, behazuntsuei nahiz sukartiei- on egin ziela jakitea.

Badirudi arazo praktikoetarako esperientzia ez dela ezertan artea baino balio gutxiagokoa; aitzitik, esperientzia dutenek esperientziarik gabe 15) ezagutza teorikoa dutenek baino arrakasta handiagoa ere izaten dutela ikusten dugu; (honen arrazoia hau da: banakoen ezagutza dela esperientzia eta artea, berriz, gauza orokorra; eta ekintza eta genesi guztiak banakoari dagozkio, ez baitu sendagileak gizakia sendatzen, akzidentalki ez bada, baizik eta Kalias, edo Sokrates, edo honela deituriko beste edozein, zeina 20) gainera gizakia baita; beraz, norbaitek esperientziarik gabe ezagutza teorikoa badu eta orokortasuna ezagutzen badu, baina honen baitan dagoen banakoa ezagutzen ez badu, askotan huts egingo du sendatzerakoan, banakoa baita senda daitekeena.) Baina era berean, jakitea eta ulertzea esperientziari baino gehiago arteari dagozkiola uste dugu, eta jakitsuagotzat hartzen ditugu arte-gizonak esperientzia-gizonak baino, jakinduria kasu guztietan jakiteari dagokiola pentsatuz. Eta hori, lehenengok kausa dakitelako eta besteek ez. Esperientzia-gizonek 30) gertakaria ezagutzen dute, baina ez zergatia;

besteek, berriz, zergatia eta kausa ezagutzen dituzte. Horregatik, obra-981b) maisuak kasu bakoitzean langile hutsak baino baliotsuago, ikasiago eta jakintsuagotzat ditugu, egiten ari direnaren kausak badakizkitelako [Besteek zenbait bizigabek bezala egiten dute: jakin gabe egiten dute egitekoa, esaterako, suak erre; baina bizigabeek berezko joera batengatik egiten dituzte honelakoak eta langileek, ohituraz].

Horrela, bada, ez dira haiek jakintsuagotzat hartzen beren trebetasun praktikoagatik, ezagutza teorikoa dutelako eta kausak ezagutzen dituztelako baizik. Orokorrean, dakiena eta ez dakiena bereizten dituen irakatsi ahal izatea da, eta horregatik pentsatzen dugu artea zientzia gehiago dela esperientzia baino; hauek <artearen dutenak> irakasteko gai baitira, eta besteak ez. Gainera, sentimenetan ez dugu bat bera ere jakinduriatzat hartzen, banakoen ezagutza biderik gorena diren arren, ez baitute ezeren zergatia esaten; adibidez, sua beroa dela <esaten dute>, baina ez zergatik den beroa. Beraz, litekeena da sentimenezko ezagutza arruntaz kanpo lehenengoz arteren bat aurkitu zuena gizakiak mirestua izana, ez bakarrik aurkikuntza horietakoren bat baliagarria izateagatik, gainerako gizakiengandik nabarmendu zen jakintsua izateagatik baizik; eta litekeena da orobat behin arte ugari aurkituta -batzuk betebeharrak asetzeko, beste batzuk bizitzaren atsegina lortzeko-, azkeneko arte hauen aurkitzaileak beste haienak baino jakintsuagotzat hartu izanak, hauen zientzien helburua ez zelako baliagarritasuna. Hemendik aurrera, honelako zientzia guztiak ezarrita, plazerra edo betebeharrak asetzeko ez diren zientziak aurkitu ziren, gizakiek lehendabiziz aisia izan zuten leku horietan. Horregatik osatu ziren lehenengoz matematika-arteak Egipton, han apaizen kastak aisia bazuen eta. [Jadanik esana da Etikan<sup>1</sup> zein den artearen eta zientziaren eta antzeko ezagutzen arteko desberdintasuna;

izan ere, gure oraingo azalpenaren helburua hau da: jakinduria deritzan hori, denen ustez, kausa lehenez eta printzipioez arduratzen dela <adieraztea>]. Hori dela eta, lehen esan bezala, esperientzia-gizona edozein sentrazio dutenak baino jakintsuagotzat hartzen da; orobat arte-982a) gizona esperientzia-gizonaren aldean, obra-maisua langile hutsaren aldean eta zientzia teoretikoak zientzia ekoizlen aldean. Argi dago, bada, jakinduria printzipio eta kausa batzuei buruzko zientzia dela.

## II

Zientzia honen bila gabiltzanez gero, ikertzekoa litzateke 5) jakinduria zein printzipioren eta zein kausaren zientzia den. Jakintsuari buruz ditugun ideiak kontutan hartzen badira, baliteke hauen bidez argiago geratzea.

Hasiera batean, jakintsua, ahal den neurrian, orojakile dela pentsatzen dugu, ezagutza haien zientzia banan-banan ez badu ere. 10) Ondoren hartzen dugu jakintsutzat zailak diren gauzak -gizakientzat ezagutzen errazak ez direnak- ezagut ditzakeen hori, sentimenez hautematea denon ahalmena baita eta, beraz, erraza, baina ez da jakinduria. Gainera jakintsuagoa da edozein zientzian kausak zorrotzago dakizkiena 15) eta irakasgarriago erakusten dituen. Eta zientzietan, hurbilago da jakinduria izatetik berarengatik eta jakinminarengatik aukeratua dena emaitzengatik aukeratzen dena baino, eta zientzia nagusia hurbilago da jakinduria izatetik menpekoa baino, ez baitu jakintsuak agindurik jaso behar, eman baizik, eta ez beste bat obeditu, hain jakintsua ez denak jakintsua obeditu baizik.

20) Honelakoak eta honenbeste dira, bada, jakinduriari eta jakintsuari buruz ditugun ideiak. Hauen artean, dena jakitea ezinbestez dagokio zientzia unibertsala goren mailan duenari, honek ezagutzen baititu, nolabait, haren azpian dauden gauza guztiak.

Eta, hain zuzen ere, unibertsalena da gizakientzat ezagutzen 25) zailena, sentimenetatik urrunena baita. Bestalde, zientzietan zehatzenak, printzipio lehenei dagozkienak dira batez ere, printzipio gutxiagotik abiatzen direnak gehitzaileak deiturikoak baino zehatzagoak baitira, hala nola aritmetika geometria baino. Gainera irakasgarriagoa da kausen zientzia, irakasten dutenak kasu bakoitzeko kausak erakusten 982b) dituztenak baitira; eta beren baitarako jakitea eta ezagutzea ezagungarrien denaren zientziari dagokio bereziki, jakitea jakite hutsagatik aukeratzen duenak nahiago izango baitu zientzia gorena, haxe baita zientziarik ezagungarriena; eta ezagungarriena printzipio lehenak eta 5) kausak dira, hauen bidez eta hauetatik ezagutzen baitira gainerakoak, ez haiek haien menpe daudenen bidez. Eta zientzietan nagusia -eta menpekoa baino nagusiagoa- egin behar bakoitzaren helburu den hori zein den ezagutzen duena da, hots, gauza bakoitzaren ongia eta, orokorrean, natura osoaren on gorena. Beraz, esandako guztiagatik, aztertutako izena 10) <jakinduria> zientzia berari dagokio, honek printzipio lehenei eta kausei buruz ikertu egin behar baitu; eta ongia eta helburu den hori kausen arteko bat da.

Agerian dago filosofatu zuten lehenengoetatik ere ez dela zientzia ekoizle bat, gizakiak, orain eta hasieran, lilurarengatik hasi baitziren filosofatzen: hasiera batean, gauza arruntek sortzen duten harriduraren aurrean liluraturik; ondoren, pixkanaka-pixkanaka aurrera 15) egin ahala, gauza konplexuagoen aurrean zalantzan egonik, esaterako ilargiaren, eguzkiaren eta izarren eta unibertsoaren genesiaren fenomenoaren aurrean.

Baina zalantzan eta liluraturik dagoenak onartzen du ez dakiela (hortik mitozalea ere, nolabait, filosofo izatea, mitoa liluraz josita baitago). 20) Beraz, ez-jakitetik ihes egiteagatik filosofatu bazuten, agerian dago jakiteagatik eta ez inongo baliagarritasunarengatik ekin ziotela ezagutzeari. Eta horren lekuko da gertatutakoa: beharrezko gauza gehientsuak eta dibertsioaren eta bizitzaren atseginerako ezagutzak lortuak zirenean ekin baitzitzaion halako disziplina bat bilatzeari. Argi dago, bada, hau ez dugula 25) beste inolako baliagarritasunarengatik bilatzen; gizaki askea, bere baitarako eta ez besteren baitarako dela diogun bezala, hau da zientzien artean askea den bakarra, zientzia hau bakarrik baita bere baitarako dena. Horregatik pentsa liteke hura edukitzea ez dela gizakiak bere-bere duen 30) zerbait, gizakien natura alderdi askotan baita esklabo; beraz, Simonidesek dioenaren arabera:

30a) "Jainko batek bakarrik izango luke pribilegio hori"<sup>2</sup>

31) baina gizon batentzat ez da duina berari dagokion zientzia ez 983a) bilatzea. Honela, bada, olerkariak esanak zentzurik balu eta jainkozkoa berez bekaiztia balitz, kasu honetan inoiz baino handiagoa litzateke <bekaizkeria>, eta horretan nabarmentzen diren guztiak zorigaitzekoak lirateke. Baina jainkozkoa ezin da bekaiztia izan; aitzitik, esaerak dioen bezala:

3a) "Gezur asko esaten dute olerkariak"<sup>3</sup>

4) eta <zientzia> hau baino estimagarriagorik dagoenik ere ez da 5) pentsatu behar, Jainkozkoena estimagarriena ere bada-eta. Honelako zientzia bat bi zentzutuan litzateke bakarra: zientzien artean jainkozkoa delako jainko batek edukiko lukeena nagusiki, eta jainkotasunaz arduratuko litzatekeelako.

Eta <zientzia> honek bakarrik betetzen ditu bi ezaugarriok, jainkoa, 10) denen ustez, kausetako bat eta printzipioren bat delako, eta honelako zientzia jainkoak izango lukeelako, berak bakarrik edo berak nagusiki. Horrela, bada, <zientzia> guztiak dira hau baino beharrezkoagoak, baina hobe, bat bera ere ez.

Zientzia honen erdiespenak, nolabait, hasierako ikerketen kontrako aldera eraman behar gaitu, hauek denak hasten baitira, esan bezala, gauzak diren modukoak direlako liluratuta, hala nola 15) txontxongiloekin [kausa oraindik ikusi ez dutenentzat], eguzkiaren birekin edota diagonalaren neurtezintasunarekin (liluragarria baita denentzat -kausa oraindik ikusi ez dutenentzat- unitaterik txikienaz ere zerbait neurtu ezin izatea). Baina esaerak dioen bezala, amaitu behar da kontrako eta hobe den jarrerarekin, kasu hauetan ere, behin ulertu ondoren, gertatu ohi den bezala; geometrialari bat ez bailuke ezerk 20) diagonalara neurgarria izateak baino gehiago liluratuko.

Esana dago, beraz, zein den bilatzen ari garen zientziaren izaera, eta zein den bilaketak eta ikerketa osoak behar duen helburua.

### III

25) Agerian dago kausa lehenen zientzia lortu behar dugula (gauza bat ezagutzen baitugu kausa lehena ezagutzen dugula uste dugunean); baina kausak lau zentzutan esaten dira: kausa horietako bat substantzia edo esentzia dela esaten dugu (zergatikoa, azken finean, definiziora zuzentzen baita, eta zergatikoa lehena kausa eta printzipioa da); 30) beste <kausa> bat materia edo azpigaia da; hirugarrena, mugimenduaren sorburua den hori, eta laugarrena, azken honen kontrako kausa, helburu den hori edo ongia (hau baita genesi eta mugimendu ororen 983b) helburua). <Kausa> hauen inguruan Fisikan nahikoa aztertu den arren,



haatik den guztia ikertzero gure aurretik hurbildu zirenak eta egiari buruz filosofatu zutenak kontuan hartuko ditugu.

Argi dago haiek ere zenbait printzipioz eta kausaz hitz egiten 5) dutela; haiengana jotzen badugu, etekinen bat <hortuko dugu> oraingo ikerketarako: edo beste kausa-motaren bat aurkitu, edo arestian aipatutakoetan gehiago sinestuko dugu.

Filosofatu zuten lehenengoen artean, gehienek gauza guztien printzipio bakarrak materia-izaerakoak zirela uste izan zuten; diren guztien osagai den hori, haien sorburu lehena eta azkenean ustelduraren amaiera dena -substantziak iraunez bere ezaugarrietan aldatu arren-, hori, 10) direnen osagai eta printzipioa da haien ustez; horregatik uste dute ezer ez dela ez sortu, ezta deuseztatu ere egiten, honelako izaera beti mantentzen da-eta; era berean ez dugu esaten Sokratesek erabateko izatea duenik ederra 15) edo musikaria izatera iristen denean, ezta deuseztatu denik ere ezaugarri hauek galtzen baditu, azpigiak, Sokratesek berak, irauten duelako; eta horrelaxe beste gainerako gauzeekin, beti izaten baita errealitatearen bat, edo bat baino gehiago, gainerako sorburua dena, 20) errealitate hori mantenduz. Baina honelako printzipioaren zenbatekoari eta espezieari dagokienez, ez dute denek gauza bera esaten.

Talesek, honelako filosofiaren aitzindariak, ura dela esaten du (hau dela eta, lurra ur gainean dagoela ere adierazi zuen). Horrela uste zuen, agian, izaki guztien elikagaiak hezeak direla ikusten zuelako, eta berotasuna bera ere uretatik sortu eta uretan bizi dela (gauza guztien 25) sorburua gauza guztien printzipioa baita). Horrexegatik hartu zuen ideia hau, gauza guztien haziak ere izaera hezea dutelako, eta ura, gauza hezeentzat, haien izaeraren printzipioa delako.

Batzuen ustez jainkotasunaz eztabaidatu zuten lehenengoez ere -antzinakoek eta gaurko belaunalditik oso urrun dauden horiek- horrelako iritzia izan zuten naturari buruz, Ozeano eta Tetis genesiaren 30) gurasoak egin baitzituzten, eta jainkoen juramentuaren lekukoa, ura -[olerkariak] Estigia deiturikoa-. Zaharrena baita estimagarriena, eta juramentuaren lekukoa, estimagarriena.

984a) Hala ere, ez dago batere garbi naturari buruzko <iritzi> hau hasierako eta antzinako iritzia izan zen ala ez; dena dela, Talesek kausa lehenaz horrela adierazi omen zuen (ez bailuke inork Hipon, bere balio eskaseko pentsamenduarengatik, hauen artean sartzea onartuko); 5) Anaximenesek eta Diogenesek airea uraren aurrekoa dela eta gorputz bakunen printzipio nagusia airea dela baieztatzen dute; Hipaso Metapontotarrak eta Heraklito Efesotarrak, sua; Enpedoklesek, laurak, esandako hiruroi laugarren <printzipio> bezala lurra gehituz (hauek beti irauten baitute eta ez dira bilakatzen, biderketaz eta murrizketaz ez bada, 10) batasun bat osatzeko elkartzuz edo batasun <honetatik> bananduz).

Anaxagoras Klazomeniarrak, Enpedoklesen aurrekoa adinez baina ondorengoa lanez, printzipioak amaigabeak direla esaten du; antzeko zatiz osatutako ia gauza guztiak, ura eta sua bezalaxe, horrela sortu eta 15) deuseztatzen direla esaten baitu, elkarketaren eta banaketaren bidez bakarrik, eta ez direla bestela ere sortzen ezta deuseztatzen ere, betierekotasunean iraun baizik. Adierazpen hauen arabera batek pentsa lezake kausa bakarra materia izaerakoa deiturikoa dela; eta zentzu horretan aurrera egin ahala, arazoak berak hedatu zien bidea eta bilaketan jarraitzea behartu: genesi eta usteldura guztiak printzipio batetik -edo bat baino 20) gehiagotik- gertatzen direla egia bada, zergatik gertatzen da hau, eta zein da kausa?

Ez baitu, dudarik gabe, azpigaia berak bere burua aldarazten; esan nahi dut, adibidez, egurra eta brontzea ez direla beraiek beren aldaketaren kausa; era berean egurrak ez duela ohea egiten ezta brontzeak estatua ere; aitzitik, 25) aldaketaren kausa beste zerbait da. Hau bilatzea beste printzipioa bilatzea dela esan genezake, mugimenduaren sorburua den hori, alegia.

Hasiera-hasieratik honelako ikerketari ekin ziotenek eta azpigaia bat dela baieztatu zutenek ez zuten zailtasun hau kontuan hartu, baina 30) azpigaia bat dela esaten duten horietako batzuek, bilaketa honetan gaindituak izan balira bezala, bata geldia dela esaten dute, baita natura osoa ere, ez bakarrik genesiari eta usteldurari dagokienez (hau antzinako kontua baita eta horretan denak etorri ziren bat), beste aldaketa orori dagokionez baizik; eta hau da filosofo hauen berezitasuna.

984b) Horrela, bada, dena bata dela baieztatzen dutenen artean inor ez zen honelako kausaz ohartu, Parmenides ez bada, akaso; eta honek bata bakarrik ez, kausak nolabait bi direla onartzen zuen neurrian. Aitzitik, 5) printzipio bat baino gehiago ezartzen dutenei, beroa eta hotza edo sua eta lurra ezartzen dituztenei baino errazago egiten zaie adieraztea, hauek suari izaera mugiarazlea egozten baitiote, eta urari eta lurrari eta honelakoei, kontrako izaera.

Hauen ondoren eta behin honelako printzipioak ezarrita, den guztiaren izaera sortzeko nahikoa ez zirenez gero, berriro ere, esan bezala, 10) egiak berak beharturik, hurrengo printzipioa bilatu zuten.

Diren guztien artean ongia eta ederkia izatearen edo bilakatzearen kausa ezin da, dudarik gabe, ez sua, ez lurra ezta honelako besterik ere izan; eta, seguruenik, haiek ez zuten hori sinestu. Bestalde, ez zen batere egokia honelako arazoa kasualitateari eta asturuari egozte.

15) Beraz, norbaitek Adimena animalengan bezalaxe naturan ere badagoela esan zuenean, hura munduaren ordenaren eta ordena osoaren kausa zelarik, zuhur agertu zen aurrekoen iritzi hutsalen aldean. Zinez dakigu Anaxagorasek bere egin zituela ikuspuntu hauek, Hermotimos Klazomeniarrak lehenagotik esanak zituela dirudien arren.

20) Horrela pentsatzen zutenek ezarri zuten ongiaren kausa aldi berean den guztiaren printzipioa dela eta den guztiaren mugimenduaren sorburua.

#### IV

Norbaitek suposa lezake Hesiodo izan zela honelakorik bilatu zuen lehenengoa, edota Maitasuna edo Desioa den guztiaren printzipio 25) bezala ezarri zituen beste edozein, Parmenidesek egiten duen bezala. Honek, unibertsoaren genesisia antolatzean,

"jainko guztien aurretik

Maitasuna sortu zuen"<sup>4</sup>

esaten baitu, eta Hesiodok:

"Gauza guztien aurretik Kaosa izan zen,

ondoren sabel zabaleko Lurra...

eta Maitasuna, hilezkor diren guztien artetik

naibarmendu egiten dena."<sup>5</sup>

30) den guztian gauzak mugiarazi eta bilduko dituen kausa bat izan behar duela suposatuz, alegia. Baina erabaki dezagun aurrerago filosofo hauek lehentasunaren arabera nola sailkatu.

Naturan ongiaren kontrakoa ere badagoela agerian zegoenez, ez bakarrik ordena eta edertasuna, nahaskeria eta itsusikeria ere bai, eta 985a) gaiztakeriak ontasunak baino eta gauza itsusiak ederrak baino ugariagoak direnez, beste batek Adiskidetasuna eta Gorrotoa tartekatu zituen, bata batzuen eta bestea besteen kausak bezala. Izan ere, baten batek Enpedoklesen pentsamendua jarraitu eta ulertu egiten badu, eta ez haren hizketa-modu baldarra, gauza ederren kausa Adiskidetasuna dela eta gauza 5) itsusiena Gorrotoa dela aurkituko du.

Horrela, bada, norbaitek esango balu Gaizkia eta Ongia printzipioak direla eta gainera lehenengoz esan zuena Enpedokles izan zela, ongi esango luke, seguruenik, gauza on guztien kausa Ongia bera baldin bada, eta gauza txarrena Gaizkia baldin bada.

10) Agerian dago, esaten dugun bezala, filosofo hauek ordurarte guk Fisikan<sup>6</sup> definitutako kausetatik bi aipatu zituztela: materia eta mugimenduaren sorburua den hori; baina nahasiki eta inolako argitasunik gabe, borroketan prestakuntzarik ez dutenek egiten duten moduan, hauek han-hemenka ibiltzen direnean kolpe onak ere ematen baitituzte askotan;

15) baina ez dirudi filosofo hauek zientzia dela medio egiten dutenik, ezta beste horiek esaten dutena dakitenik ere, agerian baitago ez dituztela kausa hauek ia erabiltzen, edo oso gutxi. Anaxagoras, hain zuzen ere, Adimenaz baliatzen da kosmogenesia egiteko, eta nahitaezkoa den zerbaiten kausa ez dakienean, orduan Adimenarena ateratzen du; baina beste kasuetan edozeri 20) egozten dio gertatu denaren kausa Adimenari egotzi baino lehen; Enpedoklesek honek baino gehiagotan erabiltzen ditu kausak -nolanahi ere ez behar hainbat- eta erabiltzen dituen kasuetan ez da bat etortzen bere buruarekin, haren ustez askotan Adiskidetasunak banatu egiten baitu, eta 25) Gorrotoak, berriz, elkartu: gorrotoak eraginda, Osotasuna osagaietan zatitzen denean, sua batasun batean biltzen da, baita gainerako osagaiak ere; baina Adiskidetasunak eraginda berriro batasunean elkartzen direnean, nahitaez banatzen dira berriro ere bakoitzaren zatiak.

Enpedokles, bada, aurrekoen aldean lehenengoa izan zen kausa 30) honetan bereizketa sartu zuena, mugimenduaren printzipio bakar bat ezarri beharrean, bi eta kontrajarriak hartuz, eta materia izaerakoak deituriko osagaiak lau direla esaten ere lehenengoa izan zen.

(Hala ere, laurak, bi bakarrik bailiran erabiltzen ditu: batetik, sua bere 985b) baitan, eta bestetik, haren kontrakoak -lurra, airea eta ura- izaera bakar bat bezala; hau uler daiteke haren Olerkia irakurriz.)

Hauexek eta honenbeste dira, gure ustez, filosofo honek ezarritako printzipioak.

Leukipok eta bere laguna den Demokritok osagaiak Betea eta Hutsa direla esaten dute [batari "den-a" eta besteari "ez den-a" deituz], 5) Betea eta Sendoa "den-a" izanik, eta Hutsa, "ez den-a" (horregatik esaten dute "den-a", "ez den-a" baino gehiago ez dela, Gorputza Hutsa baino gehiago ere ez delako) eta hauexek direla den guztiaren kausa, hau materia den aldetik.

10) Azpigaia den substantziaren batasuna baieztatzen dutenek gainerako gauzak substantzia honen afekzioetatik sortarazten dituzten bezala -Trinkoa eta Arina afekzioen printzipioak direla ezarritik- era berean desberdintasunak gainerako gauzen kausak direla ere baieztatzen dute filosofo hauek. Desberdintasun hauek hiru dira haien ustez: irudia, ordena 15) eta egoera, baieztatzen baitute "dena" konformazio, ukipen eta birarengatik bakarrik bereizten dela. Baina konformazioa irudia da, ukipena ordena, eta bira egoera; horrela, bada, A eta N irudiz desberdintzen dira, AN eta NA, ordenaz, eta Z eta N, egoeraz. Baina mugimenduari dagokionez, den guztian nondik eta nola emango den, filosofo hauek ere besteek bezalaxe alde batera utzi zuten, axolarik gabe.

20) Badirudi bi kausei buruzko ikerketa, esan bezala, honaino eramán dutela gure aurrekoek.

## V

Filosofo hauen garaian, baita hauek baino lehenago ere, Pitagorikoak deiturikoak lehenengoak izan ziren matematikak lantzen, 25) hauek aurrera eramanez; eta hauetan hazita, matematiken printzipioak den guztiaren printzipioak direla uste izan zuten. Eta hauen artean berez lehenengoak zenbakiak direnez gero, eta den eta bilakatzen den guztiarekin hauetan suaren, lurraren eta uraren baitan baino berdintasun gehiago ikusten omen zutenez (zenbakien afekzio jakin bat Zuzentasuna zen, beste bat Arima eta Adimena, eta beste bat Aukera, eta 30) nolabait esateko, berdin gainerako guztiak), eta gainera harmonien afekzio eta proportzioak zenbakietan ikusten zituztenez -gainerako gauzak beren berezko izaera osoan zenbakien antzekoak agertzen baitziren eta 986a) zenbakiak natura osoaren lehenengoak baitziren-, orduan zenbakien osagaiak den guztiaren osagaiak direla pentsatu zuten, eta ortzi osoa harmonia eta zenbakia zela.

Horrela, bada, batetik zenbakiak eta harmoniak, bestetik Ortziko 5) afekzioak eta atalak eta ordena osoa hartuz, bi hauen artean aurkitzen zituzten egokitzapen guztiak bildu eta haien sisteman antolatu zituzten. Eta inon zerbait falta bazen, sutsu desiratzen zuten aurkitzea haien doktrina osoa ongi lotuta gera zedin. Adibidez, hamarrekoa burutua dela eta zenbakien izaera osoa hartzen duela dirudienez gero, Ortzian higitzen diren 10) Gorputzak ere hamar direla esaten dute, eta agerian daudenak bederatzi bakarrik direnez gero, hamargarrena Antilurra ezartzen dute.

Baina askoz zehatzago azaldu dugu hau jadanik beste leku batzuetan<sup>7</sup>. Orain berriz aipatzen baditugu, ezartzen dituzten printzipioak zeintzuk diren eta hauek nola erortzen diren aipatutako kausetan ulertzeko da.

15) Izan ere, badirudi hauek ere pentsatzen dutela zenbakia printzipioa dela, den guztiaren materia bezala ez ezik afekzioak eta

egokiera bezala ere, eta zenbakiaren osagaiak Bikoitia eta Bakoitia direla, bata mugatua eta bestea mugagabea, eta Bata bi hauetatik sortzen dela (bikoitia eta bakoitia baita) eta zenbakia Batetik eratortzen dela eta ortzi osoa, jadanik 20) esanda dagoen bezala, zenbakiek eratua dela.

Baina filosofo hauexen arteko beste batzuek printzipioak hamar direla esaten dute, binaka sailkatuta:

Mugatua Mugagabea

Bakoitia Bikoitia

Batekoa Anitza

Eskubia Ezkerra

Arra Emea

Geldirik Mugimenduan

Zuzena Makurra

Argitasuna Iluntasuna

Ona Txarra

Karratua Laukizuzena

Badirudi Alkmeon Krotoniarrak ere horrela pentsatzen zuela eta, dudarik gabe, edo honek Pitagorikoengandik hartu zuen doktrina hau, edo haiek Alkmeonengandik, Alkmeonek [heldutasunera iritsi zen Pitagoras 30) zaharra zenean] Pitagorikoen antzera azaldu baitzuen bere doktrina: giza kontu gehienak bi direla esaten du baina ez haiek bezala kontrakoak zehatz-mehatz adieraziz, burura datozkion bezala baizik; adibidez, txuria-beltza, gozoa-mingotsa, ona-txarra, handia-txikia. Honek zehaztu gabe hitz egin zuen gainerako kontrakoez; Pitagorikoek, berriz, zenbat eta zeintzuk 986b) ziren adierazi zuten. Beraz, harengandik <Alkmeonengandik> eta hauengandik <Pitagorikoengandik>



atera daiteke den guztiaren printzipioak kontrakoak direla; baina zenbat eta zeintzuk diren, hauengandik bakarrik. Hala ere, hauek ez zuten argi 5) zehaztu nola lotu daitezkeen aipatutako kausekin, osagaiak materia izaerakoak bailiran kokatu zituztela badirudi ere; hauetatik -berebaitakoak diren osagaietatik- substantzia osatua eta eratua dela esaten dute.

Esandakoa kontuan hartuz, nahikoa antzeman daiteke naturaren 10) osagaien aniztasuna aipatzen duten aintzinakoen pentsamendua. Batzuek, ordea, Osotasuna izaera bakar bat balitz bezala adierazi zuten, baina baliagarritasunari dagokionez edo naturarekiko egokitasunari dagokionez ez ziren denak bat etorri. Baina hauetaz hitz egitea ez da inolaz ere egokitzen oraingo kausei buruzko ikerketarekin (filosofo hauek ez dute 15) zenbait naturaren filosofok bezala adierazten, hauek "den-a" bat dela ezartzen badute ere, genesisia Batetik -hau materiatzat harturik- sortarazten baitute; eta Osotasuna sortaraztean, mugimendua gehitzen duten bitartean, filosofo hauek, berriz, geldia dela esaten dute). Hala ere, hona hemen oraingo ikerketari dagokiona.

Badirudi Parmenidesek Bata kontzeptua den aldetik aipatu duela eta Melisok, materia den aldetik (hau dela eta, bata mugatua dela esaten du 20) eta besteak mugagabea dela). Xenofanesez, batasunaren doktrina hau haiek baino lehenago aipatu zuenak, (Parmenides bere ikaslea izan zela esaten baita) ez zuen ezer argitu; eta ez du ematen bi izaera hauei heldu 25) zienik ere; aitzitik, ortzi osoari begiratuta Bata Jainkoa dela baieztatzen du.

<Filosofo> hauek, bada, esan dugun bezala, oraingo ikerketarako albo batera utzi behar ditugu; hauetako bi, Xenofanes eta Meliso, arruntegiak izateagatik; Parmenidesek, osteraz, hareago ikusten omen zuela ematen du: "den-a"z gain "ez den-a" ezer ez dela sinestuta, gauza bakar bat 30) dela pentsatzen du nahitaez, "den-a", alegia, eta besterik ez (honi buruz argiago hitz egin dugu Fisikan<sup>8</sup>);

baina fenomenoak kontuan hartzera behartuta, eta kontzeptua den aldetik Bata dela eta sententzioa den aldetik, berriz, Anitza delako ustetan, honek ere ezartzen du bi direla kausak eta bi direla printzipioak: Beroa eta Hotza, sua eta lurra, esaterako; eta hauetatik beroa "dena" ren aldera kokatzen du eta hotza, ostera, "ez-dena"ren aldera.

987a) Esandakoarengatik eta gai honetaz eztabaidatu zuten jakintsuengandik hau jaso dugu:

Lehenengo filosofoentzat printzipioa gorputzezkoa da (ura, sua eta 5) honelakoak gorputzak baitira); batzuentzat gorputzezko printzipioa bat da, eta beste batzuentzat, anitza, batzuek eta besteek materia izaeratzat hartzen badituzte ere. Kausa hau ezartzen duten batzuek mugimenduaren sorburua dena ere gehitzen dute, kausa hau ere batzuentzat bat eta beste batzuentzat bi izanik. Italiarrak heldu arte, bada, eta hauek kontutan izan 10) gabe, gainerakoek oso modu ilunean hitz egin zuten kausa hauetaz, nahiz eta, esan dugun bezala, bi kausa erabiltzera iritsi ziren, zeren bigarren kausa, mugimenduaren sorburua dena, batzuek bat dela baieztatzen baitute eta beste batzuek, bi.

Pitagorikoek zentzu berean baieztatu zuten printzipioak bi direla, baina beraiena den ñabardura berezia gehitu zuten: ez zuten uste izan 15) Mugagabea eta Mugatua [eta Bata] beste honenbeste izaera desberdin direnik, sua edo lurra edo bestelako zerbait bezala, Mugagabea Bera eta Bata Bera predikatzen direnen gauza horien substantzia direla baizik, eta hortik zenbakia ere gauza guztien substantzia izatea. Izan ere, horrela adierazi

20) zuten kausei buruz, eta sinpleegi burutu bazuten ere, arinki definitzen zutelako, zerkiari buruz hitz egiten eta definitzen hasi ziren; horrela, lehenengo gauza, non aipatutako definizioa ematen zen, huraxe dela gauzaren substantzia pentsatzen zuten, norbaitek bikoitza lehenengoz bikoan ematen delako bikoitza eta diada gauza bera dela pentsatuko balu bezala.

Baina, dudarik gabe, ez da gauza bera bikoitza izatea eta diada izatea; bestela, Batekoa gauza anitz izango da, beraiei gertatu zitzaiena, hain zuzen ere.

Hauxe da, bada, lehenengo [eta gainerako] filosofoengandik jaso daitekeena.

VI

Aipatutako filosofien ondoren, Platonen doktrina heldu zen, 30) gauza askotan filosofo hauen jarraipena dena, baina Italiarren filosofiaz aparte eduki bereziak ere badituena. Izan ere, gaztetatik eta lehenengoz ohituta Kratilloekin eta iritzi heraklitoarrekin - sentsazio guztiak etengabeko isurketan daudela eta hauei buruzko zientziarik ez dagoela, hain zuzen ere-, geroago ere horrela eutsi zion iritzi honi.

987b) Bestalde Sokrates, etika kontuetan arduratuta eta inola ere ez naturan bere osotasunean, baina horietan unibertsalaren bila aritua, eta 5) pentsamendua definizioetan jartzen lehenengoa izanda, onartu zuen Platonek, baina Kratilloren eta Heraklitoen eraginarengatik pentsatu zuen Platonek hura <unibertsala> bestelako gauza batzuetan ematen dela eta ez sentimenezko gauzetan, ezinezkoa baita definizio arrunta sentimenezko gauzaren bati egokitzea, ez etengabeko aldaketan daudenei, behintzat. Platonek Ideiak izendatu zituen hauek, eta sentimenezko gauzak hauetatik aparte daudela baina guztiak hauen arabera esaten direla gehitu zuen, parte hartzearen bidez baitira elkarren artean sinoni-moak eta Formekiko 10) izenkideak gauza anitz. Bestalde, partehartzeari dagokionez, izena baino ez zuen aldatu Platonek, Pitagorikoek den guztia zenbakiekiko mimesiz dela esaten baitute eta Platonek, berriz, partehartzez, izena aldatuz; baina bai haiek eta bai honek ikertu gabe utzi zuten Formen partehartzea edo mimesia zer ote den. Gainera, sentimenezko gauzez eta Formez aparte, Errealitate Matematikoak ere badira, haien bitartean, sentimenezko 15) gauzetatik betierekoak eta geldiak izateagatik bereziak eta Formetatik antzeko asko izateagatik bereziak;

aitzitik, Forma bakoitza, Forma bera eta bakarra da. Eta Formak gainerako gauzen kausak direnez, haien osagaiak den guztiaren osagaiak 20) direla pentsatu zuen; materia den aldetik, bada, Handia eta Txikia direla printzipioak, eta substantzia den aldetik, Bata, <printzipio> haietatik eta Batarekiko partehartzearen bidez baitira Formak [Zenbakiak].

Bestalde, Bata substantzia dela eta beste zerbait denari ez zaiola Bata esaten esan zuen Platonek, Pitagorikoen antzera, eta hauek bezalaxe 25) Zenbakiak direla gainerako gauzen substantziaren kausak.

Baina Amaigabea Bata bezala jartzearen ordeztu Diada jartzea eta Amaigabea Handitik eta Txikitik sortzea dira Platonen ñabardura bereziak. Eta gainera berak zenbakiak sentimenezko gauzez aparte jartzen ditu, eta Pitagorikoek, berriz, gauzak beraiek Zenbakiak direla esaten dute, eta ez dituzte errealitate matematikoak haien bitartean jartzen. Izan ere, Bata eta Zenbakiak gauzez aparte jartzea -eta ez Pitagorikoek bezala- eta Formen 30) sartzapena, esakuneen ikerketarengatik gertatu zen (aurrekoek ez baitzuten dialektikaren berri izan); eta beste izaera diada jartzea, zenbakiak -lehenengoak izan ezik- beregandik egoki (molderen batetik bezalaxe) 988a) sortzeagatik gertatu zen. Hala eta guztiz ere, kontrakoa gertatzen da, horrela ez baita zentzuzkoa. Izan ere, filosofo hauek materiatic sortzen dute gauza anitz, baina Formak behin bakarrik sortarazten du; eta begi bistan dago materia bakar batetik mahai bakar bat <sortzen dela>, baina Forma inprimatzen duenak, bat bakarra izanik ere, asko egiten du.

5) Gauza bera gertatzen zaio arrari emearekiko: emea uztarketa bakar batek ernaldtu egiten du, baina arrak, berriz, <eme> asko ernalt dezake. Hala ere hauek printzipio haien imitazio dira.

Platonek, hain zuzen, honelako bereizketak egin zituen ikertzen ari garenari buruz. Beraz, esandakoarengatik agerian dago bi kausaz bakarrik baliatu zela: Zerkiari dagokionaz eta materiari dagokionaz (Formak 10) Zerkiaren kausak baitira gainerako gauzentzat eta Bata, berriz, Formentzat); eta zein den subjektua den materia, zeinaz sentimenezko gauzei dagokienez Formak eta Formei dagokienez Bata esaten baitira, huraxe dela esaten du Diada, Handia eta Txikia; bi osagaioi, batari Ongiaren 15) kausa gaineratu zion eta besteari, Gaizkiarena, eta hau lortzen -esan dugun bezala- saiatu ziren aurreko filosofo batzuk, besteak beste Enpedokles eta Anaxagoras.

## VII

Hitz gutxitan eta labur azaldu dugu printzipioei buruz eta egiaz nortzuek hitz egin duten eta nola. Alabaina, haiengandik hauxe atera dugu:

20) Printzipioari eta kausari buruz hitz egin dutenek ez dutela bat bera ere aipatu guk, Fisikan, definitu ditugunetan ez dagoenik; aitzitik, badirudi denek, nolabait, heldu egin dietela hauei, nahiz eta nahasirik. Izan ere, batzuek printzipioa aipatzen dute materia den aldetik, bat izan edo bat baino gehiago suposatzen dutelarik, gorpuztun nahiz gorpuzgabe dela 25) ezartzen dutelarik, (hala nola Platonek Handia eta Txikia aipatzean; Italiarrek Mugagabea; Enpedoklesek Sua, Lurra, Ura eta Aire, eta Anaxagorasek homeomerien amaigabetasuna; hauek denek aipatu dute honelako kausa, baita Aire, edo Sua, edo Ura, edo Sua baino trinkoago 30) baina Aire baino sotilagoa dena aipatu dutenek ere, osagai lehena honelakoxea dela esan duten batzuk ere baitira).

Hauek, bada, kausa hau bakarrik aipatu zuten; beste batzuek, ordea, mugimenduaren sorburua den hori ere bai (esaterako, Adiskidetasuna eta Gorrotoa, edo Adimena edo Maitasuna printzipio egiten dituztenak). Baina esentzia eta substantzia ez ditu inork 35) argi azaldu, gehien esan dutenak Formak ezartzen dituztenak izanik 988b) (ez baitzituzten onartzen, ez Formak sentimenezko gauzentzako materia bezala, ez Bata Formentzako materia bezala ere, ezta mugimenduaren printzipioa Formetan duela sorburua ere -are gehiago, gelditasuna eta atsedena kausak direla esaten dute; aitzitik, Formak gainerako gauzentzat esentzia direla adierazten dute, eta Bata Formentzat.)

5) Bestalde, ekintzen eta aldaketen eta mugimenduen helburua den horri, nolabait, esaten diote kausa, baina ez diote, ez horrelaxe deitzen, ezta berez duen zentzuan ere aipatzen. Izan ere, Adimena edo Adiskidetasuna aipatzen dituztenek Ongitzat hartzen dituzte kausa hauek, baina ez dute esaten den guztitik zerbait denik edo hauengatik sortzen 10) denik, mugimenduak haietatik datozela baizik. Modu berean, Bata edo "den-a" honelako izaera direla esaten dutenek substantziaren kausa direla esaten dute, baina ez izatearen edo sortzearen kausa direnik; honela, bada, Ongia kausa dela esan-ez esan geratzen dira: ez baitute zentzu absolutuan 15) esaten, akzidentalean baizik.

Beraz, kausei buruz -zenbat eta nolakoak diren- zehatz adierazi ote dugun, hauek guztiak dira lekuko, antza denez, bestelako kausa bat bera ere ezin aipatu zutelako; hartara, argi dago printzipioak horrela bilatu behar direla denak, edo bestela antzeko modu batez.

20) Filosofo hauen printzipioei buruzko adierazpenak eta nola pentsatzen zuten ikusteko, azter ditzagun ondoren hauen inguruan sor daitezkeen aporiak.

## VIII

Osotasuna bat dela eta materia den aldetik izaera bakarren bat dagoela, eta hau gorpuztuna eta luze-zabala dela ezartzen dutenak, argi 25) dago oker daudela, gorputzen osagaiak bakarrik ezartzen baitituzte, gorpuzgabekoenak ez [gorpuzgabekoak ere diren arren]. Eta genesiari eta usteldurari buruzko kausak esaten saiatzean, eta gauza guztiei buruz fisikoki hitz egitean, mugimenduaren kausa ezabatzen dute; oker daude, halaber, ez substantzia eta ez zerkia ezeren kausa ez egiteagatik, eta hauez 30) guztiez gain gorputz bakunetako bat -Lurra izan ezik- printzipio bezala arinegi ezartzeagatik, aztertu gabe gorputz hauen elkarrekiko genesia nola gauzatzen den -Suaz, Uraz, Lurraz eta Aireaz ari naiz-, elkarrengandik sortzen baitira hauek, batzuk elkarketaz, beste batzuk banaketaz, eta hau, aurrekoa ala ondorengoa izateari dagokionez, garrantzi handikoa da. 35) Pentsa liteke, hain zuzen ere, osagaietan osagaiena dela bere 989a) baitatik elkarketaren bidez gainerakoa sortzen duen lehen hori, eta hau gorputzen artetik zatirik txikienetakoa eta sotilena litzateke (hori dela eta, printzipio bezala Sua ezartzen dutenak lirateke arrazonamendu honi egokien heltzen diotenak; baina gainerako guztiak ere bat datoz gorputzen osagaia dela esatean. Eta, zinez, osagaia bat dela esaten dutenen arteko inork ez du uste izan osagaia Lurra denik, bere zatien handitasunarengatik, argi denez; baina beste hiru osagaiek izan dute defendatzailerena bat; batzuek Sua, beste batzuek Ura eta beste batzuek Airea dela baieztatzen dute; baina 10) zergatik ez dute Lurra ere badela baieztatzen, gizaki gehienek <baieztatzen duten> bezalaxe? Dena lurra dela esaten baitute, Hesiodok ere gorputzetatik sortu zen lehenengoa Lurra dela esaten du-eta. Hain da antzinakoa eta herrikoia ideia hau!)

Beraz, arrazonamendu honen arabera, bada, ez litzateke ongi esana hauetakoren bat -Sua izan ezik- onartzen dutenena, ezta Airea baino 15) trinkoagoa baina Ura baino sotilagoa den zerbait dela ezartzen dutenena

ere. Baina genesiaren aldetik ondorengoa dena izaera aldetik aurrekoa baldin bada, eta osatutakoa eta nahastutakoa genesiaren aldetik ondorengoak baldin badira, esandakoaren kontrakoa gertatuko da: Ura Airearen aurrekoa izango da eta Lurra, Urarena.

Aipatzen ari garen kausa, bakarra dela ezartzen dutenei buruz, bego aurretik esandakoa. Eta gauza bera norbaitek bat baino gehiago ezartzen 20) baldin badu, adibidez Enpedokles, materia lau gorputz direla esaten duena, honi zailtasun berberak azaltzen baitzaizkio derrigorrez, baita zailtasun bereziak ere. Izan ere, gorputzak elkarrengandik sortzen direla ikusten dugu; beraz, gorputzak berak ez du beti Sua eta Lurra izaten jarraitzen (hauei buruz Fisikari buruzko idatzietan hitz egin da)<sup>9</sup>. Eta 25) mugitzen diren gauzen kausari dagokionez, bat ezarri behar den ala bi, pentsatu behar da ez dela ez zuzena, ezta erabat egokia ere hitz egitea. Azken batean, honela hitz egiten dutenek derrigorrez ezabatzen dute aldaketa, hotza ez baita berotik sortuko, ezta beroa hotzetik ere, zeren zerbaitek jasango bailituzke kontrakook berak, eta izaera bakar bat litzateke Su eta Lur bilakatuko litzatekeena; hark <Enpedoklesekin> ez du esaten (zein ote hau).

30) Bestalde, norbaitek suposatzen badu Anaxagorasek bi osagai ezarri zituela, honek berak artikulatu ez zuen arrazonamendu baten arabera suposatuko du seguraski, nahiz eta <Anaxagorasekin> hori proposa zezaketenei derrigorrez onartuko ziekeen. Izan ere, hasiera batean gauza guztiak nahasturik zeudela esatea lekuz kanpoko da, besteak beste aurretik 989b) nahastu gabe izan behar zutelako, eta edozer ezin daitekeelako berez beste edozerekin kasualitatez nahastu, eta horrez gain afekzioak eta akzidenteak den guztitik aparte egongo liratekeelako (nahastuta dauden gauzen beraien artean bereizketa ere baitago); hala ere, baten batek 5) jarraituko balu <Anaximandrok> esan nahi duena artikulatzen, baliteke agerian geratzea modu berri batez hitz egiten duela, argi baitago ezer bereiztuta ez zegoenean, egiazko ezer esaterik ez zegoela substantzia hartaz; esan nahi dut, adibidez, ez zela ez txuria, ez beltza, ez grisa, ezta bestelako 10) kolore batekoa ere, nahitaez kolorgea baizik;



bestela, kolore hauetakoren bat izango zukeen-eta. Halaber eta arrazoi honexegatik ere, zaporegabea zen, eta ez zuen honen antzeko besterik, ezin baitzuen ez inongo koaliterik eduki, ez kantitaterik, ezta zer izan ere; bestela, forma bereziak deitutakoren bat izango zukeen, baina hau 15) ezinezkoa da gauza guztiak nahasturik egonda, ordurako bereizita beharko zuketena eta. Aitzitik, dena nahastuta zegoela esaten du, Adimena izan ezik, hau bakarrik nahastu gabe eta garbi zegoelarik.

Honela, bada, honetatik guztitik honako printzipioak ezartzen ditu: Bata (hau bakuna eta nahastugabea da) eta Bestea, hau zehaztu aurretik Zehaztugabea bezala eta inongo Formetan parte hartu baino lehen ezagutzen dugunaren antzera. Beraz, ez du zuzen, ezta argi ere adierazten; 20) hala ere, esan nahi duenak antza handia du geroagoko doktrinekin eta, batez ere, orain indarrean daudenekin.

Baina <filosofo> hauek genesiari eta usteldurari eta mugimenduari dagokienarekin bakarrik daude ohituta, ia bakarrik honelako substantziari dagokionez ikertzen baitituzte printzipioak eta kausak. Aitzitik, beren teoria den guztiari buruz egiten dutenek, den 25) guztitik batzuk sentimenezkoak direla, baina beste batzuk sentimenezkoak ez direla ezartzen dutenek, argi dago bi genero hauei buruz egiten dutela ikerketa; horregatik komeni da gehiago lantzea orain interesatzen zaigunaren ikerketarako hauek zer esaten duten ongi eta zer ez.

30) Izan ere, Pitagorikoak deiturikoak naturaren filosofoak baino printzipio eta osagai urrunagoz baliatzen dira (arrazoia zera da, ez dituztela hauek sentimenezko gauzetatik hartu, den guztitik Errealitate Matematikoak -Astronomiari dagozkionak izan ezik- mugimendugabeak baitira); hala ere, naturari buruzkoak dira haien eztabaida eta ikasketa 990a) guztiak; Ortziaren genesia azaltzen dute, eta honen zatiei, eta afekzioei eta iharduerei dagokiena zorrotz aztertzen dute, hauetan printzipioak eta kausak ahitzen dituztelarik,

gainerako naturaren filosofoekin bat bailetozen hauek "den-a" sentimenezko errealitatea eta Ortzi deiturikoak inguratzen duena <dela esaten dutenean>.

5) Hala ere, esan bezala, printzipioak eta kausak nahikoa direla esaten dute den guztitik nagusienetara ere igotzeko, eta hauetara naturari buruzko azalpenetara baino gehiago egokitzen direla. Baina ez dute inola ere esaten, Muga eta Mugagabea, eta Bakoitia eta Bikoitia bakarrik direlarik azpigai, mugimendua nola sortuko den; edo nola den posible mugimendu 10) eta aldaketarik gabe genesia eta usteldura izatea ere, edo ortzian zehar mugitzen diren gorputzen iharduerak ere; gainera, norbaitek onesten badie edo erakusten badu luze-zabalera printzipio horietatik sortzen dela, hala ere, nola izango dira gorputzetatik batzuk arinak eta beste batzuk astunak? Suposatzen eta esaten dutena kontuan hartuz gero, ez dute gehiago esaten gorputz matematikoez sentimenezko gauzez baino.

15) Beraz, Suari, edo Lurrari edo honelako beste gorputzei buruz ez dute ezer esan, sentimenezko gauzei buruz, ene ustez, ezer berezirik aipatzen ez dutelako. Gainera, nola onar daiteke Zenbakiaren afekzioak eta 20) Zenbakia bera ortzian diren eta -hasieratik eta orain- sortzen diren gauzen kausak izatea, eta mundua osatzen duen Zenbaki honetaz aparte bestelako zenbaki bat bera ere ez izatea? Iritzia eta Aukera alde horrextan jartzen dituztenean, eta pixka bat gorago edo beherago Zuzengabekeria eta Bereizketa edo Nahasketa, eta hau frogatzeko hauetako bakoitza zenbaki bat 25) dela esaten dutenean (baina toki hori jada osaturiko luze-zabaleraz beterik dago, afekzio horiek toki bakoitzari dagozkiolako), orduan zenbaki bera ote da ortzian dagoen hori <eta> gauza hauetako bakoitzarekin bat egiten omen duena, edo bestelako <zenbaki> bat ote da?

Platonek, alabaina, beste bat dela baieztatzen du; hala ere, berak ere 30) uste du gauza hauek eta beren kausak zenbakiak direla, baina kausak zenbaki adigarriak direla eta <gauza> horiek, berriz, sentimenezkoak.

## IX

Utz ditzagun orain albo batera Pitagorikoak (nahikoa baita hauekiko izan dugun ardura)<sup>10</sup>.

990b) Ideiak kausak bezala ezartzen dituztenek, lehenengoz alde honetako gauzen kausak ulertzen saiatzean, beste honenbeste errealitate desberdin tartekatu zuten, norbaitek hauek zenbatu nahian errealitate gutxi izateagatik ezinezkoa zela pentsatuko baitzukeen, eta errealitate gehiago erantsi ondoren zenbatzea baitzukeen. Izan ere Formak eta gauza hauek -zeintzuen kausak bilatzen baitituzte eta zeintzuetatik errealitate haietara 5) iritsi baitziren- ia beste horrenbeste dira, edo ez gutxiago, gauza bakoitzarentzat izenkide den zerbait baitago [eta substantziez aparte], eta gainerako gauzentzat "bat askoren gainean", bai hemengo gauzentzat, bai betierekoentzat. Gainera Formak badirela frogatzeko erabiltzen ditugun 10) argumentuetatik batek berak ere ez du argi adierazten, argumentu batzuetatik ez baita derrigorrez silogismo bat sortzen, eta beste batzuetatik, berriz, <formarik> ez duten gauzen Formak ere sortzen dira gure ustez.

Zientzien arrazonamenduen arabera, zientziek lantzen dituzten gauza horien guztien Formak izango dira, eta "bat askoren gainean" argumentuaren arabera, ezeztapenak ere bai; eta usteldutakoaz zerbait 15) pentsatzea dagoen neurrian, ustelgarrien Formez ere bai, hauen irudikapenen bat baitago. Gainera, arrazonamendu zorrotzenak hartuz, batzuek erlazioen Ideiak

ezartzen dituzte, nahiz eta bere baitan genero izatea ukatzen dugun, eta beste batzuek "hirugarren gizakia" baieztatzen dute. Azken batean, Formei buruzko arrazonamenduek errealitateak, zeintzuen izatea Ideiena baino nahiago 20) baitugu [Formak baieztatzen ditugunok], ezabatzen dituzte, gertatzen baita Diada ez dela lehenengoa, Zenbakia baizik, erlatiboa bere baitan den-aren aurrekoa dela, eta Ideien doktrinari jarraituz haien printzipioekin kontrajarriak diren ondorio horiek guztiak.

Gainera Ideiak badirela esaten dugun suposizioaren arabera, ez dira substantzien Formak bakarrik izango, baizik eta beste gauza askorenak ere bai (alabaina, pentsamenduaren bata ez dagokie substantziei bakarrik, baizik gainerako gauzei ere bai, eta zientziak ez dira substantziarenak 25) bakarrik, baizik eta bestelako gauzenak ere bai, eta honelako beste hamaika ondorio gertatzen da); baina haiei buruzko doktrinaren ezinbesteko ondorioen arabera, Formak parte hartzeko modukoak badira, substantzien Ideiak bakarrik izango dira, ezinbestez, ez baita haietan 30) akzidentalki parte hartzen, <Ideia> bakoitzean -azpigai batez esaten ez den aldetik- parte hartu baizik. (Esan nahi dut, adibidez, zerbaitek Bikoitza Bere Baitan den horretan parte hartzen badu, Betiereko den horretan ere parte hartzen duela, baina akzidentalki, akzidentalki baita Bikoitza Betierekoa)

Beraz, Formak substantzia izango dira; baina substantzia adierazten dutenak gauza berberak dira han eta hemen. Bestela, zer esan 991a) nahi ote du hauetaz aparte zerbait dagoela, "bat askoren gainean" baieztatzeak? Eta Ideien espeziea eta hauetan parte hartzen duten gauzena espezie bera baldin bada, zerbait baterako izango da (izan ere, zergatik diada ustelgarrien eta anitz eta betierekoak direnen artean ote da diada bakarra eta bera, eta ez honen eta beste baten artean?)

5) Baina espeziea bera ez bada, izenkideak izango dira, norbaitek Kaliasi nahiz egur-puska bati "gizakia" deituko balie bezala,

bien artean baterako ezer ere antzeman gabe. Baina arazo guztien artean 10) hau litzateke larriena: zer gaineratzen ote dieten Formek sentimenezko gauzei, bai betierekoei, bai sortu eta usteltzen direnei, hauentzat ez baitira ez mugimenduaren ezta inongo aldaketaren kausak ere. Egia esan, ez dute inongo laguntzarik ematen ez gainerako gauzen zientziarako (Formak ez baitira hauen substantzia; bestela haietan lirateke eta) ezta beraien izaterako 15) ere, parte hartzen duten gauzetan berebaitakoak ez direlarik. Horrela balitz, pentsa liteke zuria zuriarekin nahastuta bezala direla kausak, baina adierazpen hau -Anaxagorasek lehenengoz eta Eudoxosek eta beste batzuek geroago adierazi zutena- oso erraz bota daiteke atzera (erraza baita honelako iritziaren kontra zailtasun konponezin asko biltzea). Eta, egia esan, gainerako gauzak formatatik sortzen direla ez dago <sortu> bere ohiko 20) zentzuetan inola ere esaterik. Baina Formak ereduak direla eta gainerako gauzek haietan parte hartzen dutela esatea, huskeriak esatea eta metafora poetikoak egitea da. Alabaina, zer egile da begirada Ideietan jarritz iharduten duena? Izan ere, baliteke <zerbait> beste edozeren antzekoa izatea 25) edo izatera iristea, haren arabera moldeatua izan gabe, eta horrela, bada, Sokrates izan ala izan ez, norbait Sokrates bezalakoa izatera irits liteke; argi dago berdin litzatekeela Sokrates Betierekoa balitz. Eta gauza beraren eredu bat baino gehiago izango da, eta beraz, Formak ere bai; adibidez, gizakiarentzat, Animalia eta Hankabikoa izango dira Formak, eta hauekin batera Gizakia Bera ere bai. Gainera, Formak ez dira sentimenezko gauzen 30) eredu bakarrik izango, baizik eta haienak beraienak ere bai; adibidez generoa, Formen generoa den aldetik. Beraz, gauza bera izango da eredu eta irudia.

991b) Gainera ezinezkoa dirudi substantzia eta gauza hori, zeinaren substantzia baita, bananduta emateak. Beraz, nola egon litezke bananduta Ideiak, gauzen substantzia izanik? Baina Fedonen Formak izatearen zein bilakatzearen kausak direla esaten da; hala

ere, Formak izan arren, parte hartzen duten gauzak ez dira sortzen 5) mugiarazlea izango dena ez bada, eta beste gauza asko sortzen dira -etxe bat, adibidez, eta eraztun bat-, zeintzuek ukatzen baitugu Formak daudenik. Beraz, argi dago litekeena dela gainerako gauzak ere izatea eta izatera iristea honelako kausengatik, arestian esandako gauzen kausengatik, alegia.

Gainera, zenbakiak Formak badira, nola izango dira kausak? Agian den guztia bestelako zenbakiak direlako, esaterako zenbaki hau gizaki bat, 10) eta beste hau Sokrates, eta beste hau Kalias? Zer dela eta haiek hauen kausa izatea? Batzuk betierekoak izateak eta besteak ez izateak ez baitu <egoera> ezertan bereiztuko. Eta hemengo hauek zenbaki-proportzioak direlako baldin bada, soinu-akorde bat bezala, argi dago badagoela bederen gauza bat, zeinaz proportzioak baitira. Eta hau zerbait baldin bada, hots, 15) materia, agerian dago zenbakiak beraiek izango direla beste batekiko proportzioren batzuk. Esan nahi dut, adibidez, Kalias Suaren, Lurraren, Uraren eta Airearen zenbaki-proportzioa baldin bada, dagokion Ideia ere izango dela beste azpigai batzuen zenbakia, eta Gizakia Bera, zenbakiren bat izan ala izan ez, gauza batzuen zenbaki-proportzio bat izango dela, eta ez 20) zenbakia, eta honexegatik ez da zenbakiren bat izango. Gainera zenbaki askotatik zenbaki bat sortzen da, baina Formetatik Forma bat, nola? Eta zenbakietatik beraietatik sortzen ez bada <zenbakia>, zenbakian dauden unitateetatik baizik -hamar milakoan dauden unitateak, adibidez-, nolakoak dira unitateak? Espezie berekoak baldin badira, zentzugabekeria asko gertatuko da, eta gauza bera espezie berekoak ez badira, bai elkarren artean, 25) bai gainerako guztiak guztiekiko ere. Eta zertan bereiziko dira afekziogabeak baldin badira? <Hipotesi> hauek ez baitira zentzuzkoak, ezta <unitateaz> pentsatzen dugunarekin bat etorri ere; gainera beste zenbaki-genero bat tartekatu beharra dago, aritmetikak lantzen duen hori, hain zuzen ere, baita zenbaitek "bitartekoak" deituriko errealitate horiek guztiak 30) ere. Baina nola, edo zein printzipiotatik datoz errealitate hauek? Edo zergatik izango ote dira hemengo hauen eta Formen bitartean? 992a) Gainera, diadan dagoen unitate bakoitza aurreko diada batetik etorriko litzateke,

eta hau ezinezkoa da. Gainera, zergatik da bat zenbakia, osatua baldin bada? Esandakoaz gain, unitateak elkarren artean desberdinak badira, hitz 5) egin beharko da osagaiak lau edo bi direla esaten duten horien moduan. Baina hauetako batek berak ere ez du osagaia baterakoa izendatzen -gorputza, adibidez-, Sua eta Lurra baizik, gorputza zerbait baterakoa izan ala izan ez. Hala ere, hauek hitz egiten dute Bata homeomerikoa bailitzan, Sua eta Lurra bezala; baina horrela baldin bada, zenbakiak ez dira substantziak izango; aitzitik, argi dago Bata Bere Baitan bat baldin badago, eta berau 10) printzipioa bada, zentzu batean baino gehiagotan esaten dela Bata; bestela ezinezkoa da.

Baina substantziak printzipioetara zuzendu nahirik, Luzerak Motzetik eta Luzetik ezartzen ditugu, hots, nolabaiteko Txiki eta Handi batetik, eta azalera bat, Zabaletik eta Estutik, eta gorputza, Altutik eta Baxutik; hala ere, nola izango ote du azalerak lerroa edo gorputz solidoak 15) lerroa eta azalera? Bestelako generoak dira-eta Zabala eta Estua, eta Altua eta Baxua; beraz, zenbakia hauetan ez dagoen bezala, Askoa eta Gutxia bestelako generokoak direlako, argi dago Goiko generoetako bat ere ez dela Behekoetan izango. Haatik, Zabala ere ez da Altuaren generoa, bestela gorputza azaleraren bat litzateke-eta.

20) Gainera, nondik sortuak izango dira puntuak? Genero hauen kontra, alabaina, Platonek ere borrokatzen zuen, nozio geometriko bat direla suposatuz, baina "lerroaren printzipioa" deitzen zion eta askotan proposatzen zituen "lerro zatietzak". Hala ere, hauek mugaren bat izan behar dute; beraz, lerroa sortzen den argumentu beretik sortzen da puntua.

25) Nahiz eta, azken batean, Jakinduriak fenomenoek kausa bilatzen duen, ez gara honetaz arduratu (ezer esaten ez baitugu aldaketaren printzipioaren sorburuaren kausaz), eta fenomenoek substantzia esaten dugulakoan, bestelako substantziak daudela esaten dugu. Baina hauek fenomenoek substantziak nola diren azaltzean hutsalkeriak esaten ditugu, partehartzea, lehen esaten genuen bezala, ez baita ezer.

Eta zientzietan kausa dela ikusten dugun hori -zeinarengatik Adimen 30) Osoak eta Natura Osoak iharduten baitute-, kausa berau ere -printzipioetako bat dela esaten duguna- ez dagokie inolaz ere Formei. Aitzitik, gaur egunekoentzat Matematikak bilakatu dira Filosofia, nahiz eta 992b) haiek [Matematikak] gainerakoari begira landu behar direla esaten duten. Gainera pentsa liteke azpigaia den substantzia -materia den aldetik- matematikoegia dela, eta materia baino gehiago substantziaren eta materiaren predikazio bat eta diferentzia bat dela, adibidez Handia eta 5) Txikia, naturaren filosofoek Trinkoa eta Arina aipatzen dituzten bezala, hauek azpigaiaren lehenengo desberdintasunak direla baieztatuz, nolabaiteko Gehiegikeria eta Eskasia direlarik.

Mugimenduari dagokionez, desberdintasun hauek mugimendua baldin badira, argi dago Formak mugituko direla; bestela, nondik dator [mugimendua]? Alabaina, Naturari buruzko ikerketa osoa ezabatua gelditzen da.

Eta erraza omen dena, gauza guztiak bat direla erakustea, alegia, ez 10) da gauzatzen; erakusketa-frogaren bidez ez da gauzatzen gauza guztiak bat direnik, Bata Bere Baitan bat dagoela baizik, eta hau, dena onesten bada; baina hau ere ez, Orokortasuna genero bat dela onesten ez bada, eta hau kasu batzuetan ezinezkoa da. Baina zenbakien ondorengo errealitateak -luzerak, azalerak eta gorputz solidoak- inongo azalpenik gabe geratzen dira, 15) ez nolakoak diren edo nolakoak izan daitezkeen, ezta zer ahalmen duten ere; izan ere, hauek ez daitezke Formak izan (ez baitira zenbakiak), ezta bitarteko errealitateak ere (hauek matematikoak baitira), ezta errealitate ustelgarriak ere; aitzitik, hau berriro azaltzen da beste laugarren genero bat bezala. Orokorrean, "den-a"ren zentzu anitzak bereiztuak ez badira, den guztiaren osagaiak bilatzea ezinezkoa da, batez ere zeintzuk diren haien 20) osagaiak aurkitzea honela bilatzen bada; zeintzuk diren egitearen, edo jasatearen, edo zuzenaren osagaiak aurkitzea guztiz ezinezkoa baita. Eta ahalezkoa balitz, substantziarena bakarrik izango litzateke.



Beraz, den guztiaren osagaiak bilatzea edo ezagutzen direla ustea, huts egitea da. Bestalde, nola ezagut litzake batek gauza guztien osagaiak? Argi 25) dago ezin izan daitekeela aurretiko ezagutzarik. Geometria ikastekotan dagoenak bestelako aurretiko ezagutzak izan ditzake, baina zientzia honi dagozkion gauzez eta ikasteko dituen ezak batere ez dakien bezala, horrelaxe gertatzen da gainerako zientzietan; beraz, batzuek esaten duten bezala, gauza guztien zientziaren bat baldin bada, berau ikastekotan dagoenak ez du 30) inongo aurretiko ezagutzarik izango. Hala eta guztiz ere, ikaskuntza oro aurretiko ezagutzen bidez -erabatekoak ala partzialak- gauzatzen da, hala-nola demostrazioaren bidezkoa, definizioen bidezkoa (definizioaren elementuak aldeztu aurretik ezagutu eta ulertterazak izan behar baitira), baita indukzioaren bidezkoa ere.

993a) Aitzitik, zientzia hori sortzetikoa balitz, harritzekoa litzateke zientzietan zientziena edukita ez konturatzea. Gainera, nola ezagut lezake batek zeintzuk diren osagaiak, eta nola egongo da ziur? Izan ere, hau aporia bat da, eztabaidatu bailiteke silaba batzuei buruz bezalaxe: batzuek za 5) silabaren osagaiak s, d eta a, direla esaten dute; beste batzuek, berriz, beste soinu bat dela, eta ez dela ezagunetako bat. Gainera, nola ezagut litzake batek sententziaren bidez atzematen diren gauzak sententzia ez badu? Hala eta guztiz ere, horrela beharko luke, gauza guztien osagaiak osagai berberak baldin badira, osatuak diren ahotsak berezko osagaiak dituzten bezala.

X

Lehenago esandakoaren arabera, argi dago denek bilatzen omen dituztela Fisikan aipatutako kausak, eta hauetaz aparte ez gendakeela bat bera ere aipatzerik. Baina haiek nahasirik azaldu zituzten, eta denak lehenago izan ziren aipatuak zentzu batean, baina beste zentzu batean inola 15) ere ez.

Izan ere, [lehenengo] filosofiak, jaioberria eta † hasieretan izateagatik, hizketa-modu totela omen zuen gauza guztiak azaltzeko. Horrela, bada, Enpedoklesekin hezurra proportzioa dela medio dela esaten du, eta proportzioa gauzaren esentzia eta substantzia dela. Baina era berean proportzioa izan behar dira haragia eta <gorputzaren> beste alde guztiak ere, 20) edo bestela bat bera ere ez, proportzioarengatik izango baitira haragia eta hezurra eta gorputzaren beste alde guztiak ere, eta ez hark<[Enpedoklesekin> esaten duen materiarengatik, Sua, Lurra, Ura eta Airearengatik, alegia. Bestalde, hau beste norbaitek esan izan balio, <Enpedokles> bat etorriko zatekeen derrigorrez; baina berak ez du argi azaldu.

Gauza hauei buruz, alabaina, lehendik ere argibideak eman dira. 25) Hala ere, itzul gaitezen berriro gauza hauei beraiei buruz sor daitezkeen aporia horietara, agian hauetatik irtenbideren bat aurki baikenezake ondorengo aporietarako.

**BIGARREN LIBURUA (a)**

**I**

30) Egiari buruzko azterketa, zaila da zentzu batean, beste zentzu batean, erraza. Horren adierazle da ezinezkoa dela inork modu

egokian garaitzea, ezta 993b) erabat huts egitea ere; aitzitik, <filosofo> bakoitzak zerbait esaten du Naturari buruz, eta bakoitzak <egiari> ezer ez edo gutxi gaineratzen badio ere, guztiak batekin garrantzizko zerbait sortzen da. Beraz, "Zeinek huts 5) egin lezake tiroa ate baten kontra?" esaera zaharraren bidez esateko moduan gaudela suertatzen baldin bada, orduan zentzu horretan erraza omen da; hala ere, zerbait bere osotasunean izateak baina horren zati bat ezin garaitzeak ihardueraren zailtasuna erakusten du. Agian zailtasuna bi 10) zentzutan ematen denez, baliteke haren kausa gauzetan ez izatea, guregan baizik, saguzaharren begiak egunaren argitan bezalaxe, horrelakoa baita gure arimaren adimena berez begi-bistakoenak diren gauzen aurrean. Eta zuzena da esker onekoa izatea horiekin bakarrik ezezik (zeintzuen iritziak konpartitzeko prest bailegoke baten bat), modu arinagoz iritzia eman dutenekin ere; alabaina, hauek ere aportazioren bat egin dute, gure adimenezko gaitasuna ihardunarazi baitzuten.

15) Izan ere, Timoteo izan ez balitz, melodia asko falta genuke; eta Frinis izan ez balitz, ez zatekeen Timoteo izango. Eta berdin egiari buruzko iritzia eman dutenekin: batzuegandik zenbait iritzi jaso dugu, eta beste batzuk, berriz, haiek sortzearen kausa izan dira.

20) Eta Filosofiari egiaren zientzia deitzea ere zuzena da, zientzia teoretikoaren xedea egia baita, eta praktikoarena, berriz, eginkizuna. Praktikoek gauza nola ematen den aztertzen badute ere, ez dute kausa bere baitan kontutan hartzen, zerbaitekiko eta uneari loturik baizik. Baina ez dugu egia ezagutzen kausa ezagutzen ez badugu. Kasu bakoitzean, gainerako gauzeekin konparatuz, bereziki du berezko izaera halako horrek, 25) zeinarengatik gainerakoak ere izenkideak baitira (adibidez, Sua beroena da, berau baita beroaren kausa gainerakoentzat).

Beraz, egiazkoena izango da bere ondorengo gauzentzat egia izatearen kausa dena. Hortik betiereko den guztiaren printzipioak nahitaez egiazkoenak izatea beti (ez baitira behin-behineko izaten egiazkoak, ez baitago beren izatearen kausa bat bera ere; aitzitik, hauek<dira> 30) gainerakoen kausa). Beraz, gauzak izatea duen neurrian, horrelaxe du egia.

## II

994a) Argi dago printzipioren bat, behintzat, badagoela, eta den guztiaren kausak amaigabeak ez direla, ez bata bestearen ondoan jarriarik, ez espezieari dagokionez. Alabaina, ezinezkoa da materiari dagokionez honelako bat beste halako batetik etortzea, eta honela amaigabeki (adibidez, Haragia Lurretik, Lurra Airetik, Aire Sutik, eta horrela etengabe), ezta 5) mugimenduaren sorburuaren printzipioari dagokionez ere (adibidez, gizakia Aireak mugiarazia izatea, hau Eguzkiak, Eguzkia Gorrotoak, eta prozesu honek inongo mugarik ez izatea); era berean, helburuari dagokionez ere, hau ezin da amaigabeko prozesua izan; adibidez, paseeran ibiltzea osasunerako, hau zoriontasunerako, zoriontasuna beste zerbaitetarako, eta horrela gauza bat beste baterako izatea beti; eta gauza bera 10) esentziari dagokionez, bitarteko gauzentzat, azkeneko eta aurreneko bat dutenentzat, beharrezkoa baita aurrenekoa bere ondorengoaren kausa izatea. Eta esan beharko bagenu hiruotatik zein den kausa, lehenengoa esango genuke, eta, jakina, ez azkenekoa; azkenekoa ez baita ezeren kausa, 15) eta bitartekoa ere ez, baten kausa bakarrik baita (eta hau bat ala bat baino gehiago izan, edo amaigabeak edo mugatuak izan, berdin da).

Honelako amaigabeen -eta orokorrean amaigabearen- zati guztiak berdin dira bitartekoak oraingo hau izan arte. Beraz, lehenengorik ez baldin badago, ez dago inolaz ere inolako kausarik.

20) Baina beherantz ere ez dago amaigabeko prozesu izaterik, goian printzipio bat baldin bada, hau da, Sutik Ura baldin badator, honetatik Lurra, eta horrela beste genero bat sortzen baldin bada beti,

bi modutan etortzen baita honelako bat beste halako batetik [ez honelako hau halako horren ondoren datorrela esaten den moduan, adibidez Joko Olinpikoak Istmiarretatik datozela]: edo gizona bere bilakaeran haur batengandik datorrela esaten den moduan, edo Uretatik Airea datorrela esaten den moduan.

25) Gizona haurrarendik datorrela esaten dugun bezala, sortutakoa sortzen ari den horretatik dator, edo garatutakoa garatzen ari den horretatik (bitartekoa beti izaten baita, eta genesisia izatearen eta ez izatearen artean bezala, era berean sortzen ari dena ere "den-a"ren eta "ez den-a"ren artean dago; alabaina, ikasten ari dena aditua egiten ari da, eta 30) hortik aditua ikasten ari denarengandik datorrela esatea).

Uretatik Airea datorrela esaten den moduan, bietako bat usteldu egiten da; hortik aipatutako lehenengo moduan haiek elkarrekiko itzulera 994b) ez izatea: gizon batengandik ez dator haur bat (genesitik ez baita sortzen ari dena sortzen, genesiaren ondorengoa baizik; eta horrela, eguna goiztiritik dator, honen ondorengoa delako. Hortik goiztiria egunetik ez etortzea). Aipatutako beste moduan, ordea, badago elkarrekiko itzulera. Bestalde, ezinezkoa da bi modutan, batean zein bestean, amaigabeko prozesu izatea: lehenengoan, bitarteko errealitateak izanik, amaiera izan 5) behar dutelako nahitaez; bigarrenean, elkarrekiko itzulera egiten dutelako, baten usteldura bestearen genesisia delako.

Honez gain, ezinezkoa da lehenengoa den hori, betierekoa izanik, usteltzea; izan ere, gorantzeko genesisia amaigabea ez denez, lehenengoa izan zen hori, zeinaren ustelduratik zerbait sortu baitzen, ezin betierekoa izan. Gainera, helburua amaiera da, eta helburua da beste batentzat ez den 10) hori, gainerakoak helburuarentzat direlarik. Beraz, azkeneko jakin bat baldin badago, prozesua ez da amaigabea izango; baina honelakorik ez badago, ez da helbururik izango.

Amaigabeko prozesua baieztatzen dutenak ez dira konturatzen Ongiaren izaera ezabatzen dutela (hala ere, ez litzateke inor ezer egiten 15) ahaleginduko muga batera iristeko ez balitz). Eta den guztian ere ez litzateke Adimenik izango. Adimena duen horrek beti egiten baitu zerbaitetarako, eta horixe da muga. Xedea muga baita.

Bestalde, esentziak ere ez du onartzen esakune zabalagoko beste definizio batera zuzendua izatea, aurreko definizioa beti izaten baita 20) ondorengoa baino gehiago, eta lehenengoa ez badago, hurrengoa ere ez. Eta horrela hitz egiten dutenek zientzia ezabatzen dute, definizioaren osagai zatiezinetara iritsi baino lehen ez baitago jakiterik. Eta ezagutzerik ere ez dago; izan ere, nola uler daitezke zentzu honetan amaigabeak direnak? Alabaina, lerroarekin ez da gauza bera gertatzen: hau etengabe zati 25) daiteke, baina ez dago ulertzerik zatiketa eten gabe (hau dela eta, lerroa amaigabe zatituz gero ezin zenbatu zatiak). Baina materia mugimenduan dagoen horretan ere ulertu behar da. Eta amaigabe den ezerk ere ez du izaterik; bestela, amaigabetasuna ez da amaigabea.

Bestalde, kausen espezieak kopuruz amaigabeak balira ez 30) litzateke ezagutzerik izango, kausak ezagutu ditugunean bakarrik uste baitugu dakigula. Baina gehiketaren bidez amaigabe dena ez dago denbora mugatuan zeharkatzerik.

### III

Entzuten diren ikasgaien arrakasta ohituretan datza. Ohi dugun 995a) bezala hitz egitea estimatzen dugu, eta beste modu batez esandakoek ez dirudite beraiek, ohitura faltagatik ezezagunagoak eta arrotzagoak baizik, ohikoa ulerterraza baita. Ohikoak zenbateko indar duen, legeek jartzen dute agerian: hauetan, ohiturarengatik, alegizkoek eta umekeriek beraiei 5) buruzko ezagutzak baino indar gehiago dute. Batzuek ez dute esana onartzen matematikoki hitz egiten ez bada; beste batzuek, eredu bidez ez bada; eta beste batzuek, olerkari baten testigantza tartekatzea estimatzen

dute. Lehenek dena zorrotz nahi dute; besteei, berriz, neketsu egiten zaie 10) zorrozatasuna, arrazonamenduak lotzeko ezintasunarengatik, edo xehetasunarengatik, zorrozatasunak honelako zerbait du eta. Beraz, itunetan bezala arrazonamenduetan ere xehetasuna zekena da batzuentzat. Horregatik jakin behar da alde zurretik kasu bakoitzean nola erakutsi, lekuz kanpokoak baita zientzia eta zientziaren metodoak biak batera bilatzea. Baina ez dira ez bata, ez bestea, ulerterrazak.

15) Gainera matematikaren zorrozatasuna ez dago gauza guztietan eskatzerik, materiari ez duten gauzetan baizik. Horregatik ez da Fisikari dagokion metodoa, Natura osoak, ziurraski, materia baitu. Hori dela eta aztertu behar da lehenengoz Natura zer den. Eta, bide batez, Fisika zertaz arduratzen den ere argituko da [eta ea zientzia bakar bati edo bat baino gehiagori dagokion kausak eta printzipioak ikastea].

HIRUGARREN LIBURUA (B)

I

Bilatzen ari garen zientzia dela eta, beharrezkoa da aurrena hel 25) diezaiegun lehenengoz aporiara eraman gaituzten gai horiei. Gure aztergaiak dira horiek, zeintzuek batzuek bestelako iritzia izan baitute, eta hauetaz aparte guk atzeman ez dugun baten bat baldin badago.

Baina aporiak konpondu nahi dituztenentzat baliogarria da <aporiak> xehetasunez zeharkatzea, ondorengo konponbidea aurreneko 30) aporien askapena baita, eta korapiloa ezagutu gabe ez dago askatzerik; baina pentsamenduaren aporiak agerian jartzen du arazoaren korapiloa, aporian dagoen aldetik, honi, loturik daudenei bezalaxe gertatzen baitaio: batari zein besteei ezinezkoa egiten zaie aurrera joatea. Horregatik da beharrezkoa alde zurretik zailtasun guztiak aztertzea: aipaturako arrazoiengatik,

eta aurretik aporiak zeharkatu gabe bilatzen dutenak nora joan behar 35) duten ez dakitenak bezalakoak direlako; eta hauez gain, jakin ere ez 995b) dakitelako bilatzen ari direna aurkitu duten ala ez, xedea ez baita agerikoa hauentzat, baina bai aurretik aporian egon denarentzat. Gainera, auzietan bezala, erabakitzeke egoera hobean dago nahitaez kontrakarien argumentu guztiak entzun dituenak.

5) Lehenengo aporia aurkezpenean zeharkatu ditugun arazoei dagokie: kausak aztertzea zientzia bakar bati dagokio ala zientzia askori? Eta zientziari, substantziaren lehenengo printzipioak bakarrik aztertzea dagokio, ala baita frogapenetan denek abiapuntutzat hartzen dituzten printzipioak ere? Esaterako, ba al dago gauza bat eta gauza bera baieztatzerik eta ukatzerik, biak batera, ala ez? Eta honelako beste printzipioak.

10) Eta zientziari substantzia egokitzekeotan, zientzia bakar bati dagozkio substantzia guztiak, ala bati baino gehiagori? Eta zientzia bati baino gehiagori egokitzekeotan, denak genero berekoak al dira, ala batzuei jakinduria izena eman behar eta beste zenbaitzuei besteren bat?

Eta nahitaez aztertu beharrekoen artean, honako hau dugu: sentimenezko substantziak soilik direla baieztatu behar al da, ala hauetaz 15) aparte ba al da bestelakorik? Eta substantzien genero bakar bat al dago, ala bat baino gehiago, Formak eta hauen eta sentimenezko gauzen artean errealitate matematikoak ezartzen dituztenek dioten bezala? Esan bezala, arazo hauek ikertu behar dira, eta ea gure azterketari substantziak 20) bakarrik dagozkion ala substantzien berezko akzidenteak ere bai; eta gainera, zein zientziari dagokion ikertzea hauek guztiak: Berbera eta Bestelakoa, Antzekoa eta Desberdina, Kontrakotasuna, Aurrekoa eta Ondorengoa, eta honelako guztiak, hots, Dialektikoak beren ikerketa iritzi hutsetan oinarrituz ikertzen saiatzen diren horiek; are gehiago, gauza 25) hauen berezko akzidenteak ere kontutan hartu behar dira,



eta ez bakarrik bakoitza zer den, baizik eta bakoitzak kontrako bakar bat duen ala ez.

Eta printzipioak eta osagaiak generoak al dira, ala gauza 30) bakoitzaren berebaitako zatiak? Eta generoak baldin badira, banakoetan azkenak al dira, ala lehenengoak? Adibidez: zein da printzipioa eta zein da banakotik bereiztuen dagoena, animalia ala gizakia?

Eta aztertu eta landu behar da, batez ere, ea materiatic aparte berezko kausa den zerbait dagoen ala ez, eta hau banangarria den ala ez; eta kopuru aldetik bat ala bat baino gehiago den, eta osatua denaz aparte -osatua esaten dut materiaren zerbait predikatzen denean- zerbait dagoen ala ez, edo zerbaitetarik bai eta beste zerbaitetarik ez, eta zeintzuk diren honelakoak.

996a) Gainera, printzipioak -esakunetakoak nahiz azpigaietakoak- zer dira, matematikoki ala espezifikoki zehaztuak? Eta ustelgarri diren gauzenak eta ustelgaitz direnenak berberak al dira, ala desberdinak? Eta denak al dira ustelgaitzak, ala ustelgarri direnenak ustelgarriak dira?

5) Denetan zailena eta aporia handienara eramaten duena zera da: Bata eta "Den-a", Pitagorikoek eta Platonek esaten zuten bezala, den guztiaren substantzia baino ez al dira, ala bestelako zerbait da azpigaia, Enpedoklesek Adiskidetasuna, beste norbaitek Sua, beste batek Ura edo Airearen direla esaten duten bezala?

10) Eta printzipioak unibertsalak al dira, ala banakako gauzak bezalakoak? Eta potentzian al dira, ala egintzan? Bestelako zentzuan al dira, ala mugimenduaren arabera? Izan ere, arazo hauek aporia handia sor dezakete.

Eta hauez gain, zenbakiak, luzerak, irudiak eta puntuak, substantziak al dira, ala ez? Eta substantziak baldin badira, sentimenezko

gauzetatik bananduta al 15) daude, ala berebaitakoak dira haietan? Gauza hauei guztiei dagokienez, egiaren irtenbidea aurkitzea zaila izan ezezik, aporiak egoki eta arrazoibidez zeharkatzea ere ez da erraza.

## II

Ikus dezagun aurrena aipatu genuen lehenengo arazoari dagokiona: ea kausen genero guztiak aztertzea zientzia bakar bati dagokion ala bati baino gehiagori.

20) Nola liteke zientzia bakar bati egokitzea printzipioak ezagutzea, hauek kontrakoak ez badira? Gainera, gauza askoren baitan ez dira printzipio guztiak aurkitzen; izan ere, nola liteke geldiak diren gauzetan mugimenduaren printzipioren bat izatea, edo Ongiaren izaera izatea (bere baitan ona den guztia eta berezko duen izaeragatik xedea baldin 25) bada eta, beraz, kausa bat -berau gainerako gauza guztiak sortu eta izatearen zergatia delako- eta, bestalde, xedea eta helburua ekintza baten xedea izanik), ekintza guztiak mugimenduaren bidez egiten badira?

Beraz, geldiak diren gauzetan ezinezkoa litzateke printzipioa mugimendua izatea, ezta bere baitan ona den ezer izatea ere. Hau dela eta, Matematiketan ere ez da kausa honen bidez ezer frogatzen, ezta 30) demostrazio bat bera ere ez dago hobe ala txarragoa izateagatik; aitzitik, inor ez da ezertan gogoratzen gauza guztiokin, eta horrexegatik Sofistetako batzuek -Aristipok, esaterako- gaitzesten zituzten Matematikak. Izan ere, gainerako arteetan (artisautzan, zurgintzan eta zapatagintzan, esaterako) dena esaten da hobe ala txarragoa izateagatik, baina Matematikek ez dute aipamenik egiten gauza onei eta txarrei buruz.

996b) Hala ere, kausen zientziak bat baino gehiago baldin badira eta bakoitzari printzipio desberdin bat baldin badagokio, zein zientzia ote da bilatzen ari garen hori, edo zientzia hauek dituztenen arteko zeinek du 5) bilatzen ari garen eginkizunaren ezagutza gorena? Litekeena baita era guztietako kausak gauza baten baitan ematea,

esaterako etxe batean: honetan mugimenduaren sorburua artea eta etxegilea dira; helburua, berriz, eginkizuna; materia, lurra eta harriak, eta Forma, kontzeptua.

Beraz, aurretik egindako zehaztasunetatik abiatuz -zientzietatik zeini deitu behar zaion Jakinduria, alegia-, zentzuzkoa da zientzia bakoitza 10) horrela izendatzea. Hau nagusia eta aitzindariena izanik eta gainerako zientziek, haren morrontzan, kontrakorik ezin egin diotelarik, hauxe litzateke Xedearen eta Ongiaren zientzia (berau baita gainerakoen helburua); baina zientzia hau kausa lehenena eta ezagugarrien denarena bezala zehaztua izan den aldetik, berau Substantziarena litzateke, gauza bera 15) modu askotan ezagut badaiteke ere, gehiago daki gure ustez gauza denarengatik ezagutzen duenak, ez-denarengatik ezagutzen duenak baino; eta denarengatik ezagutzen dutenen artetik, batak besteak baino gehiago ezagutzen duela esaten dugu bereziki zerkia ezagutzen duenaz, eta ez zenbatekoa den, edo nolakoa den, edo zer iharduera edo zein afekzio 20) dagozkion <ezagutzen dituenaz>. Gainera, beste kasuetan ere, gauza bat jakitea -baita froga daitezkeen horiek ere- hura zer den dakigunean ematen dela uste dugu (esate baterako, zer da baliokide den laukizuzen batetik abiatuta karratu bat eraikitzea? Laukizuzenaren bi alde bategarriak aurkitzea. Eta gauza bera gainerako kasuetan); bestalde, genesiei eta ekintzei eta aldaketa orori dagokionez, mugimenduaren printzipioa dakigunean ere 25) gauzatzen da <jakitea>, baina mugimendua ez da xedea, eta honekin kontrajarria dago. Beraz, badirudi zientzia desberdinei dagokiela kausa bakoitza aztertzea.

Bestalde, eztabaidagarria da printzipio erakusleak zientzia bati dagozkion ala bati baino gehiagori (printzipio erakusleak izendatzen ditut frogatzeko denek erabiltzen dituzten iritzi arrunt horiek), adibidez, dena 30) baieztatu ala ukatu egin behar dela, eta ezinezkoa dela aldi berean izatea eta ez izatea, eta honela beste premisa horiek. Printzipio hauen zientzia eta substantziarena bat bakarra al da, ala zientzia desberdinak dira? Eta bat bakarra ez bada bilatzen ari garena, zein zientzia aldarrikatu behar dugu?

Baina zientzia bakar bati egokitzea ez da zentzuzkoa; izan ere, zer dela eta egokitu bereziki geometriari printzipio hauek ulertzea, eta ez beste 35) edozein zientziari? Hala ere, beste edozein zientziari egokitzen bazaio, 997a) zientzia guztiei egokitzea ezinezkoa denez, gainerako zientziei ez dagokien bezalaxe substantziak aztertzen dituen zientziari ere ez dagokio printzipio horiek ezagutzea. Gainera, nola izango da printzipio hauen zientzia bat? Izan ere, printzipio bakoitza zer den badakigu jakin (beste arteak, behintzat, printzipio hauetaz baliatzen dira, hauek ezagunak bailiran).

5) Eta printzipio hauei buruzko zientzia erakuslea baldin badago, beharrezkoa izango da generoren bat azpigaia izatea, eta printzipio batzuk afekzioak izatea, eta beste batzuk, axiomak (ezinezkoa baita printzipio guztiek demostrazioa edukitzea), nahitaez demostrazioak behar baitu premisa batzuetatik abiatu, zerbaiti buruzkoa izan eta zerbaitena izan. 10) Horrela, bada, frogatzen den guztiak genero bakarren bat izango du, zientzia erakusle guztiak baliatzen baitira axiomez.

Baina substantziaren zientzia eta printzipio hauena desberdinak badira, zein da, berez, nagusia eta lehena? Axiomak unibertsalenak eta gauza guztien printzipioak baitira; eta filosofoari ez badagokio, zein besteri egokituko zaio printzipio hauen egitasuna eta faltsutasuna aztertzea? 15) Azken batean, substantzia guztien zientzia bat bakarra al da, ala bat baino gehiago? Eta bat bakarra ez bada, zientzia hau nolako substantziarena ote da? Guztiena bat bakarra izatea ez da zentzuzkoa, zientzia erakusle bakar bati egokituko bailitzaizkioke akzidente guztiak, zientzia erakusle 20) orok aztertzen baititu azpigairen baten berezko akzidenteak, iritzi arruntetatik abiatuz.

Zientzia berberari dagokio, bada, iritzi berberetatik abiatuz, genero batek berak dituen berezko akzidenteak aztertzea. Beraz, aztertzen den hori zientzia bakar bati dagokio, eta abiapuntuak diren iritzi horiek ere zientzia bakar bati dagozkio, nahiz zientzia bera izan, nahiz zientzia desberdinak izan; orduan, akzidenteak ere zientzia bakar bati dagozkio, bai zientzia 25) hauexek aztertzen badituzte, bai bi hauetaz osaturiko zientzia bakar batek ere.

Gainera, azterketa substantziei buruzkoa baino ez al da, ala huen akzidenteei buruzkoa ere bada? Adibide bat jarriko dut: solidoa substantzia bat baldin bada, eta lerroak eta azalerak ere bai, huen ezagutza eta genero bakoitzaren akzidenteak, zeintzuek Matematikak beren 30) demostrazioak egiten baitituzte, zientzia berberari al dagozkio, ala zientzia desberdinei? Izan ere, zientzia berberari badagozkio, substantziarena ere zientzia erakusle bat izango da; baina ez dirudi zerkiaren demostraziorik dagoenik. Baina zientzia desberdinei badagozkie, zein izango da substantziaren akzidenteak aztertzen dituen? Oso zaila da hau aztertzea.

Eta sentimenezko substantziak bakarrik daudela baieztatu behar 35) al da, ala hauek aparte bestelakorik badagoela? Eta substantzien 997b) generoa bat al da, ala bat baino gehiago, Formak eta Bitarteko Errealitateak aipatzen dituztenek baieztatzen duten bezala (haien ustez zientzia matematikoak haietaz arduratzen dira-eta)?

Zein zentzutan esaten dugun Formak berezko kausak eta 5) substantziak direla esana da jadanik haiei buruzko lehenengo azalpenetan<sup>11</sup>.

Era askotako zailtasunak badira ere, ezer ez lekuz kanpokoagorik hau esatea baino: Ortziko izaerez aparte zenbait izaera badagoela, eta hauek sentimenezko errealitateak bezalakoak direla, haiek betierekoak eta hauek, berriz, ustelgarriak. Gizakia Bere Baitan, Zaldia Bere Baitan eta Osasuna Bere Baitan baieztatzen dituzte besterik argitu gabe, giza itxureko 10) jainkoak baieztatzen dituztenen antzera eginez; haiek betiereko gizakiak baino ez baitzuten egiten, eta hauek, Formak direla-eta, betiereko sentimenezko errealitateak bakarrik.

Gainera, Formez eta sentimenezko gauzez aparte Bitarteko Errealitateak ezartzen badira, aporia asko izango da, argi baitago Lerro beraiez eta 15) sentimenezkoez aparte beste lerro batzuk izango direla, eta gauza bera gainerako genero bakoitzari dagokionez. Hau dela eta, Astronomia zientzia matematiko bat izanik, sentimenezko ortziaz aparte beste ortzi bat ere izango da, eta beste eguzki bat, eta beste ilargi bat, eta gauza bera ortzian 20) dauden gainerako gorputzekin. Baina nola sinets litezke hauek guztiak? Geldia izatea ez baita zentzuzkoa; baina mugikorra izatea ere ezinezkoa da, guztiz. Eta berdin gertatzen da Optikak lantzen dituen gauzei dagokienez eta Harmoniarekin Matematiketan, ezinezkoa baita, arrazoi berberengatik, hauek sentimenezkoez aparte izatea; izan ere, Bitarteko Errealitate Sentimenezkoak eta Bitarteko Sentsazioak baldin badira, argi dago Animalien beraien eta animalia ustelgarrien artean beste animalia batzuk izango direla.

25) Norbaiti honako aporia hau suerta lekiok: den guztiaren artean zer bilatu behar dute zientzia hauek?

Geodesiaren eta Geometriaren arteko berezitasun bakarra haxe baldin bada, alegia, bata sentsazioen bidez jasotzen ditugun gauza horietaz arduratzen dela, eta bestea sentimenezkoak ez diren horietaz, orduan argi dago Medikuntzaz aparte, eta gainerako zientziez aparte, beste zientzia bat 30) izango dela Medikuntzaren beraren eta Sentimenezko Medikuntzaren artean. Hala ere, nola izan daiteke hau? Beste errealitate osasuntsu batzuk izango bailirateke sentimenezkoez eta berez osasuntsu denaz aparte. Aldi berean, geodesia sentimenezko eta ustelgarri diren luze-zabalez arduratzea ere ez da egia, hauek ustelduta, orduan hura ustelduko bailitzateke.

Eta Astronomia ere ez litzateke sentimenezko luze-zabalez 35) arduratuko, ezta gainean dugun ortziaz ere, sentimenezko lerroak ez 998a) baitira geometrak esaten duen bezalakoak (sentimenezko gauzetan bat bera ere ez baita hain zuzena, ezta hain borobila ere: zirkunferentziak ez baitu tangentea puntu batean ukitzen, Protagoras geometrak gezurtatzean 5) esaten zuen bezala baizik), eta ortziko mugimenduak eta birak ere ez dira Astronomiak neurtzen dituenak bezalakoak; eta ikurrek ere ez dute astroen izaera bera.

Baina badira batzuk Formen eta sentimenezko errealitateen artean Bitartekoak deituriko errealitate hauek baieztatzen dituztenak, baina ez sentimenezkoez aparte, beren baitan baizik. Sortzen diren ezintasun guztiak 10) zeharkatzeak azalpen luzea beharko luke, baina nahikoa da ondokoak aztertzea.

Izan ere, ez da zentzuzkoa Bitarteko Errealitateak bakarrik horrela izatea; aitzitik, argi dago Formak ere sentimenezko gauzetan izan litezkeela (argumentu berak balio baitu batzuentzat zein besteentzat); gainera, bi solido leku berean egongo lirateke nahitaez, eta ez lirateke geldiak izango, 15) sentimenezko gauzetan direlarik, hauek mugikorrak baitira. Azken batean, zertarako ezarri Errealitate hauek badirela, baina sentimenezko gauzetan direla? Aipatutako zentzugabekeria berberak suertatuko baitira: ortziaz aparte, beste ortzi bat izango da, baina ez harengandik bananduta, leku berean baizik, eta hau ezinezkoa da, guztiz.

### III

20) Honen guztiaren inguruan, bada, egia lortzeko nola kokatu behar den jakiteak aporia handia sortzen du; izan ere, printzipioei dagokienez, generoak hartu behar al dira osagaitzat eta printzipiotzat? Ala, hobeki esanda, generoak gauza bakoitzak berebaitako dituen lehenengo osagaiak al dira? Esate baterako, soinu artikulatuaren osagaiak eta printzipioak, soinu artikulatuak osatzen dituzten lehen osagai horiek omen 25) dira, baina ez soinu artikulatua genero bezala hartuta.

Eta proposizio geometrikoei dagokienez, haien osagaiak izendatzen ditugu horiek, zeintzuen demostrazioak gainerako demostrazioen baitan -edo guztien baitan, edo gehienen baitan- baitaude. Gainera, gorputzen osagaiak bat baino gehiago direla esaten dutenek eta bat 30) dela esaten dutenek ere, gorputzak osatu eta eraikitzen dituzten zati horiek direla printzipioak baieztatzen dute, esaterako Enpedoklesentzat Sua, Ura eta hauekin batera ematen direnak dira osagaiak,

den guztiaren baitako zatiak baitira hauek; baina ez ditu den guztiaren generotzat hartzen.

Hauetaz gain, gainerako gauzen izaera ere aztertu nahi izanez 998b) gero, ohe bat, adibidez, hau eraiki eta osatzen duten zatiak ezagutu ondoren ezagutzen da honen izaera.

Arrazonamendu hauen ondorioz, printzipioak ez lirateke den guztiaren generoak; baina gauza bakoitza definizioen bidez ezagutzen 5) badugu, eta printzipioak definizioen generoak badira, definizioen printzipioak ere generoak dira, nahitaez.

Den guztiaren zientzia lortzea baldin bada espezien zientzia lortzea -espezieak zeintzuen bidez den guztia izendatzen baita-, orduan generoak dira, dudarik gabe, espezien printzipioak. Bestalde, agerian dago den guztiaren osagaiak Bata, edo Den-a, Handia eta Txikia direla esaten dutenetako batzuek generotzat hartzen dituztela hauek. Hala ere, 10) printzipioez ere ez dago bi zentzuotan hitz egiterik, substantziaren esakunea bat baita, eta generoen bidezko definizioa eta berebaitako zatiak kontutan hartuz esaten dena desberdinak izango dira. Gainera, generoak printzipioetan printzipioenak badira ere, zeintzuk hartu behar dira 15) printzipiotzat, lehenengo generoak ala azkenekoak, hauek banakoez predikatzen direnak izanik? Hau ere eztabaidagarria da. Izan ere, unibertsalak printzipioetan printzipioenak baldin badira beti, agerian dago genero gorenak izango direla printzipioak, genero gorenak gauza guztiez esaten baitira.

20) Den guztiaren printzipioak lehenengo genero beste izango dira; beraz, Bata eta Den-a printzipioak eta substantziak izango dira, hauek esaten baitira bereziki den guztiaz. Baina Bata eta Den-a ezin dira den guztiaren genero bat izan. Izan ere, beharrezkoa da genero bakoitzaren 25) diferentziak ere izatea, eta bakoitza bat izatea;



baina, bestalde, ezinezkoa da generoaren espezieak berezko diferentziez predikatzea, ezta generoa bere espezierik gabe ere. Beraz, Bata eta Den-a generoa balira, diferentzia bat bera ere ez litzateke ez bat, ezta den zerbait ere izango. Baina generoak ez badira, printzipioak ere ez dira izango, generoak printzipioak baldin badira.

Gainera, Bitarteko Errealitateak, beren diferentziekin bat eginik, 30) generoak izango dira, <espezie> zatiezinetaraino heldu arte (dena dela, <Platoniarren ustez> batzuek badirela esaten omen dute, beste batzuek, ez).

Gainera, diferentziak generoak baino gehiago izango dira printzipio; baina diferentziak ere printzipioak badira, printzipioak, nolabait esateko, amaigabeak izango dira, batez ere lehenengo generoa 999a) printzipio ezartzen bada. Baina, batetik, Bata printzipio oinarritzkoagoa baldin bada, eta Bat zatiezina dena baldin bada, eta zatiezina den guztia kantitatearen arabera edo espeziearen arabera baldin bada zatiezina, eta espeziearen arabera zatiezina dena aurrekoa baldin bada, eta, bestetik, generoak espezetan banatzen baldin badira, orduan arrazoi 5) gehiagoz izango da bat predikatzen den azken espeziea, gizakia ez baita gizabanakoen generoa.

Gainera, aurrekoa eta ondorengoa suertatzen diren gauza horietan, ezinezkoa da haien baitan dagoena haietaz aparteko zerbait izatea (esaterako, zenbakietan lehena Diada baldin bada, ez da zenbakiren bat izango zenbakien espeziez aparte. Eta berdin irudiari dagokionez: ez dago 10) irudi bat ere irudien espeziez aparte. Eta hauetan ez badago, are gutxiago izango dira espeziez aparte gainerako gauzen generoak, generoak izatekotan badirudi bereziki gauza haienak izango direla eta).

Baina banakoetan ez dago ez aurrekorik, ez ondorengorik. Gainera, onena eta txarrena ematen den gauzetan, onena izaten da beti aurrekoa. Beraz, gauza hauei dagokienez ere ez da generorik izango.

15) Hauetatik guztietatik, bada, agerian geratzen da banakoez predikatzen direnak generoak baino neurri handiagoz direla printzipio. Baina, halaber, printzipio hauek nola ulertu behar diren ez da erraza esaten. Izan ere, beharrezkoa da printzipioa eta kausa gauzez -zeintzuen kausa baita- aparte izatea, eta haiengandik bereizi ahal izatea. Baina, bestalde, 20) zergatik onartu banakoaz aparte honelako zerbait dagoela, unibertsalki eta denetaz predikatzen delako ez bada?

Baina horregatik baldin bada, zenbat eta unibertsalago, orduan eta gehiago dela printzipio ezarri beharko da, eta honen ondorioz, lehenengo generoak printzipioak izango dira.

#### IV

Hauekin batera badago aporia bat, denetan zailena eta aztertu 25) beharrezkoa dena; huraxe lantzea derrigorrezkoa dugu orain.

Banakoez aparte ezer ez badago eta banakoak amaigabeak baldin badira, nola lor daiteke amaigabe denaren zientzia? Gauza guztiak ezagutzen baititugu nolabaiteko batasuna, berberatasuna eta orokortasuna duten neurrian. Hala ere, hau beharrezkoa bada, eta banakoez aparte zerbait 30) izatea beharrezkoa bada, beharrezkoa izango da generoak banakoez aparte izatea, azkenekoak zein lehenengoak; baina aporia zeharkatzean arestian ikusi dugu hau ezinezkoa dela.

Gainera, osatua denaz aparte zerbait baldin badago (batez ere materiaz zerbait predikatzen denean), orduan gauza guztiez aparte izan behar al da zerbait, ala gauza batzuez aparte bai, eta beste batzuez aparte ez, 999b) ala bat bera ere ez?

Izan ere, banakoez aparte ezer ez badago, ez da ezer ezagungarririk izango; aitzitik, gauza guztiak izango dira sentimenezkoak, eta ez da ezeren zientziarik izango, sentsazioa zientzia dela esaten ez bada, behintzat. Gainera, ez da ezer betiereko izango, ezta geldia ere (sentimenezko gauza 5) guztiak usteltzen baitira eta mugimenduan baitaude). Hala ere, betiereko ezer ez badago, genesisia izaterik ere ez da izango, beharrezkoa baita sortutakoa den zerbait izatea, baita sorburua den zerbait ere, eta hauetan azkena sortu gabea izatea, prozesua nonbait eten baldin bada eta Ez Den-etik sortzea ezinezkoa baldin bada. Gainera, genesisia eta mugimendua baldin badira, muga bat izatea ere beharrezkoa da (ez baita mugagabe den inolako 10) mugimendurik, mugimendu orok amaiera baitu, eta ezinezkoa da sortu ezinezkoa dena sortzea; eta sortutakoa bada izan, nahitaez sortua izan zen ordutik). Gainera, materia sortu gabea izateagatik baldin bada <betiherekoa>, 15) are gehiago substantzia, hau haren bilakaera baita.

Baina ez baldin badira ez hau, ez hura, ez da inola ere ezer izango; eta hau ezinezkoa baldin bada, nahitaez izango da zerbait osatuaz aparte: konfigurazioa, forma.

Bestalde, hau ezarritz gero, aporia hau sortuko da: zein gauzatan ezarriko den eta zeintzuetan ez, agerian baitago gauza guztietan onartezina 20) dela, ez baikenuke banako etxez aparte etxeren bat dagoenik ezarriko.

Eta hauez gain, bat izango al da gauza guztien substantzia, adibidez, gizakiena? Baina hau lekuz kanpo dago, gauza guztiak bat baitira haien substantzia bat baldin bada. Orduan, asko eta desberdinak izango al dira? Hau ere zentzugabea da. Gainera, materia nola bilakaten da hauetako bakoitza, eta osatua dena nolatan da bi gauza hauek?

Eta printzipioei dagokienez, honako aporia hau ere sor daiteke: 25) bat baldin badira espezifikoki, aritmetikoki ez da ezer bat izango, ez Bata Bere Baitan, ez Den-a. Eta nola liteke ezagutzea gauza guztien gainean bat den zerbait ez baldin badago? Bestalde printzipio bakoitza aritmetikoki bat eta bakarra baldin bada, eta ez sentimenezko gauzetan bezala (beste printzipio desberdin bat badagoela gauza desberdin bakoitzean, adibidez, 30) silaba jakin baten printzipioak, espezifikoki berbera den silaba honen printzipioak ere dira espezifikoki beraiek, baina aritmetikoki desberdinak); orduan, horrela ez bada, eta den guztiaren printzipioak aritmetikoki bat baldin badira, ez da osagaietaz aparte beste ezer izango, "aritmetikoki bat" esatea edo "banako" esatea ez baitira ezertan bereizten. Izan ere, "banako" 1000a) esaten diogu "aritmetikoki bat" denari, eta "unibertsala", berriz, hauen gainean dagoenari. Horrela, bada, soinu artikulatuen osagaiak aritmetikoki zehaztuak balira, letra guztien kopurua nahitaez izan beharko litzateke osagai beste, bi letra berdin edo kopuru aldetik osagaiak baino gehiago izaterik ez dagoelako.

5) Ezertan garrantzi gutxiagokoa ez den aporia hau, bai garaikideek, bai aurrekoek, albo batera utzia izan da: ustelgarri direnen printzipioak eta ustelgaitz direnenak, printzipio beraiek al dira, ala desberdinak? Izan ere, beraiek baldin badira, nolatan dira gauza batzuk ustelgarriak eta beste batzuk ustelgaitzak, eta kausa zein da? Hesiodoren jarraitzaileek eta teologo horiek guztiek beraiek onets zezaketena bakarrik 10) hartu zuten kontuan, baina gurekin axolagabe izan ziren (printzipioak jainkoak eginda eta sortutakoa jainkoengandik sortzen dela esanda, nektarra eta anbrosia dastatu ez dituztenak hilkorrak direla baieztatzen dute; argi dago izen hauek ezagunak zirela haientzat. Baina kausa hauen 15) azalpenari berari dagokionez, gure gainetik hitz egin zuten; izan ere, gogoko dituztelako hartzen badituzte, nektarra eta anbrosia ez dira izatearen inolako kausa izango; baina haien izatearen kausa baldin badira, nola izan daitezke betierekoak elikadura behar badute?)

Baina ez du merezi kontakizun mitikoak arreta handiz ikertzea. 20) Ordea demostrazioen bidez argudiatzen dutenengandik jaso behar da informazioa, galdetuz ea diren gauzetatik zergatik diren batzuk berez betierekoak, eta beste batzuk, ustelgarriak, denak printzipio beraietatik sortuak baldin badira. Eta kausa aipatzen ez dutenez gero, eta, gainera, horrela izatea zentzuzkoa ez denez, argi dago gauza hauen printzipioak eta 25) hauen kausak ere ezin izango direla berberak izan. Eta bere buruarekin bat omen datorren harexek ere, Enpedoklese, huts egite bera egin zuen. Batetik, printzipio bat ezarri zuen, Gorrotoa, ustelgarri denaren kausa; bestetik, Gorrotoak gauzak sortarazten omen ditu, Bata salbu, gainerako gauza guztiak -Jainkoa izan ezik- bere baitatik sortuak baitira. Izan ere, honela dio:

"Haïetatik, ziren guztiak eta diren guztiak,  
30) zuhaitzak ernamuindu, gizonak eta emakumeak ere bai,  
basapiztiak eta hegaztiak,  
uretan elikatzen diren arrainak,

baita bizialdi luzeko jainkoak ere."<sup>12</sup>

Eta hitz hauek kontuan izan gabe ere, begi-bistakoa da: gauzetan 1000b) Gorrotoa ez balitz, denak bat izango lirateke-eta, Empedoklesek dioen bezala. Baina gauza guztiak batu egin zirenean, orduan

"nagusitu zen gorrotoa"<sup>13</sup>

eta, haren ustez, horregatik gertatzen da jainkoa, zoriontsuena bada ere, 5) gainerako guztiak baino adimen gutxiagokoa dela, ez baitu dena ezagutzen; izan ere, Gorrotoa falta du, eta antzeko denaren ezagutza antzeko denaren bidez egiten da:

"Lurra ikusten baitugu -esaten du- lurraren bidez,  
ura uraren bidez, jainkozko eterra eterraren bidez,  
samurtasuna samurtasunaren bidez eta Gorrotoa,

azkenik, zorigaitzeko Gorrotoaren bidez."<sup>14</sup>

10) Baina gure abiapuntura itzuliz, hau behintzat argi dago: Empedoklesentzat Gorrotoa ez da ustelduraren kausa izatearena baino neurri handiagoz; era berean, Adiskidetasuna ere ez da izatearen kausa, Baterantz biltzean gainerako gauza guztiak usteltzen baititu. Eta, aldi berean, aldaketaren beraren kausaz ez du ezer esaten, berez horrelakoa dela baizik:

"Gorroto Handia gorputz-ataletan garatu zenean

15) ohoretan altxatu zen, denbora amaituta,  
juramentu zabalak biei ezarritako epea kunplituta",<sup>15</sup>

aldatzea nahitaezkoa dela adieraziz, baina aldaketa honen kausarik argitu gabe. Hala ere, hau dena koherentziaz esaten duen bakarra, behintzat, bera da, den guztitik ez baititu batzuk ustelgarriak egiten eta beste batzuk 20) ustelgaitzak, baizik eta denak -osagaiak izan ezik- ustelgarriak.

Baina orain aipatzen ari garen aporia zera da, zergatik diren gauza batzuk ustelgarriak eta beste batzuk ez, printzipio beraietatik sortuak badira.

Honekin guztiarekin esana dago printzipioak ezin daitezkeela berberak izan. Baina printzipio desberdinak baldin badira, orduan aporia bat sortzen da: hauek ustelgaitzak al dira, ala ustelgarriak? Izan ere, ustelgarriak 25) baldin badira, argi dago hauek ere beste zenbait printzipiotatik sortuak izan behar dutela (gauza guztiak usteltzen baitira haien sorburu diren horietara itzuliz), eta honen ondorioz, printzipio aurretiko beste printzipio batzuk badirela gertatzen da. Eta hau ez da posible, ez prozesua eten egiten bada, ezta amaigabe jarraitzen badu ere. Gainera, nola izango dira gauza ustelgarriak, printzipioak deuseztatuak badira? Bestalde, printzipioak ustelgaitzak baldin badira, hauetatik sortuak direnak -hauek ustelgaitzak izanik- zergatik izango dira ustelgarriak, eta beste zenbaitetatik sortuak 30) direnak, berriz, ustelgaitzak? Hau ez da zentuzkoa: edo ezinezkoa da, edo azalpen gehiago behar du. Gainera, ez da inor saiatu printzipio 1001a) desberdinak direla frogatzen; alderantziz, gauza guztien printzipioak berberak direla baieztatzen dute, baina aporian sortutako lehenengo arazoa azaleratu besterik ez dute egiten, hau kontu txikia bailitzan.

Baina denetan zailena ulertzen eta egia ezagutzeko beharrezkoena 5) dena hau da: "Den-a" eta "Bata" den guztiaren substantziak al dira? Eta zerbait den bakoitza "Bata" nahiz "Den-a" al dira, bestelako ezer izan gabe? Edota aztertu behar al da "Den-a" eta "Bata" zer diren, beren baitan bestelako izaera bateko azpigairik bailegoan? Izan ere, batzuen ustez lehenengo izaera dute, beste batzuen ustez, berriz, bigarrena.

10) Hain zuzen ere, Platonek eta Pitagorikoek ez dute uste "Den-a eta "Bata" beste zerbait direnik; aitzitik, beraien izaera hauxe dela esaten dute, beraien substantzia "Bata"rena eta "Dena"rena delarik.

Bestalde, Naturaren filosofoak <daude>. Enpedoklesek, adibidez, "Bata" zer den adierazten du, azalpena ezagunago den zerbaitetara zuzenduko bailuen; honek Adiskidetasuna omen dela baieztatzen du 15) (Adiskidetasuna baita, behintzat, bat izatearen kausa gauza guztientzat). Beste batzuek, Sua ezartzen dute. Beste batzuek, "Bat" hau eta "Den-a" Airea dela esaten dute, hau den guztiaren izatea eta sorburua dena. Eta honelaxe diote osagai gehiago ezartzen dutenek; hauek ere, nahitaez esan behar dute 20) "Bata" eta "Dena" diren printzipioak beste direla. Baina "Bata" eta "Dena" nolabaiteko substantzia direla onartzen ez bada, orduan gainerako unibertsaletatik bat bera ere ez da substantzia izango (horiek baitira unibertsaletan unibertsalenak, eta Bata Bere Baitan eta Den-a Bere Baitan zerbait ez baldin badira, orduan kostata izango da gainerako gauzetatik 25) banako deiturikoez aparteko ezer); eta Bata substantzia ez baldin bada, argi dago zenbakia ere ez dela den guztitik bereizitako izaera bat izango. (Izan ere, zenbakiak unitateak ditu eta unitatea bat bezalako zerbait da, hain zuzen.) Baina Bata Bere Baitan eta Den-a Bere Baitan baldin badira, hauen substantzia Bata eta Den-a izango da nahitaez, ez baitago unibertsalki predika daitekeen besterik, berauek ez badira.

30) Hala ere, Den-a Bere Baitan eta Bata Bere Baitan baldin badira, orduan aporia handia izango da honakoa, nola izan daitekeen haietaz aparteko beste zerbait; esan nahi dut nola daitekeen den guztia bat baino gehiago izatea. Izan ere, "den"-az besterik ez dago, eta horrela, Parmenidesek esandakoaren arabera, nahitaez gertatuko da den guztia bat 1001b) izango dela, eta Bat hau Den-a izango dela. Bi posibilitateok gogaikarriak dira, biak ala biak: nahiz Bata substantzia izan ez, nahiz Bata Bere Baitan izan, ezinezkoa da zenbakia substantzia izatea. Eta substantzia ez bada, jadanik esana dago zergatia; eta substantzia baldin bada, Den-ari 5) dagokion aporia bera izango dugu:

Bataz aparte, nondik sortuko da beste "bat" bat? Derrigorrezkoa litzateke, bada, hau "ez-bat" izatea. Baina den guztia, edo bat, edo asko dira, bakoitza bat delarik.

Gainera, Bata Bere Baitan zatiezina baldin bada, orduan Zenonen sententziaren arabera ez da ezer izango, Zenonen ustez gehiketaren eta kenketaren bidez, handiago eta txikiago egiten ez duena ez baita den 10) zerbait, den-a luze-zabal bat delakoan, argi denez. Eta luze-zabal bat baldin bada, gorputzekoa da, honek norabide guztietan izatea baitu. Aitzitik, gainerako luze-zabalek -azalera eta lerroa, esaterako- handitu egiten dute gehiketa modu batez egiten bada, beste modu batez egiten bada, ordea, ez; eta puntuak eta unitateak, inola ere ez. Baina Zenon bere gauzak ikusteko moduan traketsa denez, baliteke zatiezina den zerbait ere izatea, 15) eta horrela bada, erantzun dakioke Zenoni: zatiezina den zerbait gehituta ez da handiago egingo, baina bai gehiago izango. Baina nola sortuko da luze-zabal bat Bat horretatik, edo horrelako bat baino gehiagotatik? Hau, lerroa puntuetatik sortzen dela esatea bezala litzateke. Bestalde, batzuek esaten duten bezala, zenbakia Bata Bere Baitatik eta bat ez 20) den beste zerbaitetik sortzen dela suposatzen baldin bada, hala ere, ikertzekoa izango da zergatik eta nola daitezkeen sortutakoa batzuetan zenbaki eta beste batzuetan luze-zabala izatea, ez-bat dena Desberdintasuna eta izaera bera bazen. Izan ere, ez dago argi luze-zabalak nola sor daitezkeen Batetik eta Desberdintasunetik, ezta nola sor daitezkeen zenbakiren batetik 25) eta Desberdintasunetik ere.

V

Aurrekoekin zerikusirik duen aporia zera da: zenbakiak, gorputzak, azalera eta puntuak substantziak al dira, ala ez? Izan ere, ez baldin badira, ez dugu ulertuko den-a zer den, ezta den guztiaren substantziak zer diren ere. Afekzioek, mugimenduek, erlazioek, 30) antolamenduek eta proportzioek ez dirudite ezeren substantzia adierazten dutenik (hauek denak azpigairen batez baieztatzen baitira, eta bat bera ere ez da "honako hau"). Bestalde, substantzia neurri handiagoz adierazten omen duten gauza hauei dagokienez -Ura, Lurra, Sua eta 1002a) Aire, zeintzuek osatzen baitira gorputz konposatuak-



hauen beroak eta hotzak eta honelako afekzioak ez dira substantziak; aitzitik, afekzio hauek jasan dituen gorputzak berak bakarrik irauten du "den zerbait" eta substantziaren bat bezala. Baina, bestalde, gorputza azalera 5) baino neurri txikiagoz da substantzia, azalera lerroa baino, eta lerroa, unitatea eta puntua baino, hauen bidez zehazten baita gorputza, eta badirudi hauek izan daitezkeela gorputzik gabe, baina gorputza, ordea, ezinezkoa da haiek gabe.

Hori dela eta, filosofo gehienek eta lehenengoen ere substantzia eta 10) den-a gorputza zela uste izan zuten, eta gainerako gauzak gorputzaren afekzioak zirela; honen ondorioz, gorputzen printzipioak den guztiaren printzipioak ere baziren <haien ustez>; ondorengoek, ordea, haiek baino jakitsuagoak zirenek ere, zenbakiak zirela uste izan zuten. Alabaina, esan bezala, azalera, lerroa eta puntua substantziak ez baldin badira, ezer ez da, inolaz ere, substantzia izango, ezer ez da den-a izango, haien akzidenteez ezin baitute "den guztia" izendatu.

15) Hala ere, hau onartzen baldin bada, luzerak eta puntuak gorputzak baino neurri handiagoz direla substantzia, alegia, baina, bestalde, hauek zein gorputzetan izan daitezkeen ikusten ez badugu (sentimenezko gauzetan ezinezkoa baita hauek izatea), orduan ez da inolako substantziarik izango. Gainera hauek denak gorputzaren zatiketak direla dirudi, bata zabaleraren arabera, bestea sakoneraren arabera, beste hori, luzeraren 20) arabera. Honez gain, berdin aurkitzen da edozein irudi gorputzean, eta honen ondorioz, harrian bertan Hermes bat ez baldin badago, orduan kuboan ere ez da kubo-erdia zehaztutako zerbait bezala izango. Era berean, azalerarik ere ez da izango (baten bat izatekotan kubo-erdia zehazten duena 25) ere izango litzateke-eta). Eta gauza bera lerroari, puntuari eta unitateari dagokienez, gorputza substantzia baldin bada neurri gorenez eta gorputza baino neurri handiagoz gauza haiek baldin badira substantzia, baina berauek ez baldin badira substantziak, orduan ez dugu ulertuko den-a eta den guztiaren substantzia zer diren, aipatutakoez gain, genesiari eta usteldurari dagokiena ere irrazional suertatzen baita.

30) Izan ere, lehendik ez zegoen substantzia orain baldin badago eta lehen bazegoena orain ez baldin badago, badirudi substantziak sortu eta deuseztatzearekin batera jasaten dituela aldaketa hauek. Baina puntuak, lerroak eta azalerak ezin dira ez sortu, ez deuseztatu, batzuetan badirelarik izan, beste batzuetan, ez.

1002b) Gorputzak batu edo zatitzen direnean, batzuetan bat sortzen da batzean, eta bi zatitzean. Honen ondorioz, batu ondoren jadanik ez dago <bi> ustelduta baizik, eta zatitu ondoren, lehen ez zirenak badira orain (puntuak, zatiezina dena, hain zuzen ere, ez baita bitan zatitu); baina 5) sortu eta deuseztatzen badira, nondik sortzen dira? Alabaina, antzeko gauza bat gertatzen da denborari dagokionez orainarekin, hau ere ezin baita sortu eta deuseztatu, eta hala eta guztiz ere beste bat dela ematen du beti, nolabaiteko substantzia bat ez delarik. Eta argi dago berdin gertatzen dela puntuei, lerroei eta azalerei dagokienez, arrazonamendua bera baita: denak 10) dira, neurri berean, edo mugak edo zatiketak.

## VI

Orokorrean, aporia izan liteke sentimenezko gauzez eta bitartekoez aparte zergatik bilatu behar den bestelakorik, adibidez baieztatzen ditugun Formak. Baldin eta Errealitate Matematikoak hemen 15) ematen direnekin beste zerbaitetan bereizten direlako bada, Forma bereko asko izateagatik ez dira ezertan bereizten, eta honen ondorioz haien printzipioak ez dira aritmetikoki zehaztuak izango (hemengo letra guztien printzipioak aritmetikoki zehaztuak ez diren bezala, baina bai espezifikoki, honako silaba honenak edo harako soinu artikulatu harenak kontuan hartu 20) ezean, hauen printzipioak aritmetikoki ere izango baitira zehaztuak,

eta gauza bera Bitartekoei dagokienez ere, Forma bereko gauzak hemen ere mugagabeak baitira).

Beraz, sentimenezko gauzez eta Errealitate Matematikoez aparte besterik ez baldin badago -batzuek Formak izendatzen dituzten horiek bezalakoak, alegia-, ez da aritmetikoki bat den substantziarik izango, espezifikoki baizik, eta den guztiaren printzipioak ere ez dira aritmetikoki 25) zehaztuak izango, espezifikoki baizik. Eta hau nahitaezkoa baldin bada, Formak badirela ezartzea ere nahitaezkoa izango da. Izan ere, hau baieztatzen dutenek zuzen artikulatzen ez badute ere, hauxe da esan nahi 30) dutena, eta nahitaez esan behar dutena: Forma bakoitza substantziaren bat dela, eta bat bera ere ez akzidentalki. Hala ere, Formak badirela eta printzipioak aritmetikoki -baina ez espezifikoki- bat direla ezarri gero, jadanik esanak ditugu nahitaez suertatzen diren zentzugabekeriak<sup>16</sup>.

Aporia hauetatik gertu dago beste aporia hau, ea osagaiak potentzian diren ala beste modu batean. Beste modu batean baldin 1003a) badira, orduan printzipioen aurretiko beste zerbait izango da (potentzia kausa haren aurrekoa baita, eta potentzian den guztia ez da nahitaez modu hartan gauzatzen). Baina osagaiak potentzian baldin badira, 5) baliteke den guztia ez izatea; izan ere, oraindik ez dena ere izan daiteke, ez-dena izatera iristen delako, baina izaterik ez duen ezer ez da izatera iristen.

Honelakoak dira printzipioei dagozkien konpondu beharreko aporiak, ea printzipioak unibertsalak diren ala banako izendatzen ditugun horietakoak. Unibertsalak baldin badira, ez dira substantziak izango (baterako diren predikatuetatik batek ere ez baitu "honako hau" adierazten, 10) honen nolakotasuna baizik, eta substantziak, ordea, "honako hau" adierazten du). Baina baterako predikatua "honako hau" baldin bada eta predikatzen diren gauzetatik kanpo jarri behar bada,

orduan Sokrates izaki asko izango litzateke: berau, gizakia eta animalia, predikatu bakoitzak "honako bat" adierazten baldin badu. Beraz, printzipioak unibertsalak badira, honelakoak gertatuko dira. Eta unibertsalak ez badira, banako gauzak bezalakoak baizik, ez dira 15) ezagungarriak izango, zientzia beti baita unibertsala; ondorioz, printzipioen aurrekoak diren beste printzipio batzuk -unibertsalki predikatzen direnak- izango dira, haien zientzia izatekotan.

#### LAUGARREN LIBURUA (G)

##### I

20) Badago zientzia bat "den-a den aldetik" eta berez honi dagokiona aztertzen duena. Zientzia hau ez da partikular izendatzen ditugun horietakoa, gainerako zientzietatik batek ere ez baitu "den-a den aldetik" orokorrean ikertzen; aitzitik, honen zatiren bat xehatuta, zati honi dagozkion akzidenteak aztertzen ditu, esaterako zientzia matematikoak.

25) Eta printzipioak eta kausa gorenak bilatzen ari garenez gero, argi dago hauek berezko den izaeraren batenak direla nahitaez. Hain zuzen ere, den guztiaren osagaiak bilatzen zituztenak ere honako printzipioak bilatzen ari baldin baziren, osagaiek ere izan behar zuten den-arenak 30) "den-a den aldetik", eta ez akzidentalki. Horregatik guk ere "den-a den aldetik" honen kausa lehenak ulertu behar ditugu.

##### II

"Den-a" zentzu askotan esaten da, baina gauza bakar bati eta izaera bakarren bati dagokionean, eta ez izenkidetasunarengatik, osasuntsu dena 35) zentzu guztietan osasunari dagokion bezala baizik: honek mantendu egiten duelako, horrek sortu, beste hura osasunaren ezaugarria delako,

1003b) halako hura osasuna jasotzeko gai delako. Era berean sendagilea sendakuntzari dagokio (izan ere, sendagile esaten zaio bati sendatzeko zientzia duelako, beste bati horretarako berezko duen gaitasunarengatik, halako bati sendakuntzaren obra izateagatik, eta hauen antzeko moduan esaten diren bestelako gauzak ere aurkituko ditugu).

5) Horrela, bada, "den-a" ere zentzu askotan esaten da, baina guztietan printzipio bakar bati dagokio. Izan ere, diren guztiak izendatzen dira batzuk substantziak direlako, beste batzuk substantziaren afekzioak direlako, beste batzuk, berriz, substantziarako bidea, edo usteldurak, edo gabeziak, edo nolakotasunak, edo eragileak, edo sortzaileak direlako, substantziarenak edo substantziari dagokionez esaten ditugunenak, edo 10) hauetako baten edo substantziaren ezeztapenak direlako. Horregatik "ez den-a" ere ez den zerbait badela esaten dugu.

Horrela, bada, osasuntsu den guztiaren zientzia bakarra dagoen bezalaxe, gainerako gauzetan ere gauza bera gertatzen da. Izan ere, gauza bati dagokionaz esaten direnak ez ezik izaera bakar bati dagozkionaz ere aztertzea 15) dagokio zientzia bakar bati, hauek ere, nolabait, gauza bakar bati dagozkiola esaten baita. Argi dago, beraz, "den guztiak den aldetik" ere aztertzea zientia bakar bati dagokiola.

Alabaina, zientziari dagokio nagusiki kasu guztietan lehenengo dena, gainerakoen sustengu den hori, zeinarengatik izendatzen baitira besteak. Beraz, hori substantzia baldin bada, substantzienak dira filosofoak ezagutu beharreko printzipioak eta kausak.

20) Bestalde, kasu guztietan genero bakoitzari sentrazio bakarra eta zientzia bakarra dagokio; adibidez, Gramatikak, bat bakarra izanik ere, soinu artikulatu guztiak aztertzen ditu. Horregatik generikoki bat den zientziari "den-a den aldetik" horren espezie guztiak dagozkio, eta espezien espezieak.

[Baina Den-a eta Bata gauza bera eta izaera bakar bat baldin badira elkarrekin egokitzen direlako -printzipioa eta kausa bezalaxe-, baina ez 25) nozio bakar baten bidez adieraten direlako (alabaina, ez du axolarik

berdintzat hartzea; aitzitik, lana erraztuko digu honek); "gizaki bat", "gizaki dena" eta "gizakia" gauza bera baitira, eta hitza bikoiztuz ez da ezertan bereizten 30) "gizaki bat" eta "gizaki den bat" esatea. Argi dago Den-a eta Bata ez direla banatzen, ez genesian, ez ustelduran ere, eta berdin gertatzen da Bataren kasuan. Horrela, bada, agerian dago gehiketak kasu hauetan gauza bera adierazten duela, eta Bata ez dela den-az aparteko besterik; gainera, gauza bakoitzaren substantzia bat da "ez akzidentalki", eta era berean "den zerbait" ere bada. Beraz, zenbat Bataren espezie, hainbat Den-arena, eta 35) hauen zerkia aztertzea -esan nahi dut, adibidez, Berdina denarena, Antzekoa denarena eta honelakoenak- generikoki bera den zientzia honi dagokio. Eta kontrako ia guztiak bil daitezke printzipio honetan. Baina 1004a) hauek aztertzeke hel diezaiozun Kontrakoen Aukeraketan<sup>17</sup> esandakoari.]

Eta filosofiaren zatiak substantziak beste dira. Beraz, nahitaez 5) izango dira lehenengoa den bat eta ondorengoa, Den-a [eta Bata] berehala suertatzen baitira generoetan banaturik, eta horregatik zientziak ere batera datoz hauekin generoetan banatzen, filosofoa matematiko deiturikoa bezalakoa baita, Matematikak ere zatiak dituelako, eta Matematiketan badago lehena den zientzia bat, eta bigarrena den beste bat, eta gainerakoak jarraian, bata bestearen ondoren.

10) Baina kontrakoen azterketa zientzia bakar bati dagokionez, eta Batasunaren kontrakoa Aniztasuna denez [ezeztapena eta gabezia aztertzea zientzia bakar bati dagokio, bi kasuetan atertzen dena Bata baita, zeinaren ezeztapena eta gabezia diren. Beraz, esan nahi dugu batasun hori ematen ez dela erabateko modu batez, edo ematen ez dela generoren batean. Azkeneko kasu honetan, hain zuzen ere, † Batari ezeztapenean ezartzen 15) zaionaz aparteko diferentzia bat ere egokitzen zaio †, haren ezeztapena eza baita, baina gabezia ere azpigai den izaeraren bat suertatzen da, zeinaren arabera izendaten baita gabezia], [Batasunaren kontrakoa baita Aniztasuna].

Beraz, aipatutako zientziari esandakoen kontrakoak ere badagozkio, hots, Bestea, Anteko ez dena, Desberdin dena, eta aipatzen diren beste kontrako guztiak, bai oposaketa hauen arabera, bai Aniztasunaren eta 20) Bataren arabera; hauen artean Kontrakotasuna ere badago, kontrakotasuna nolabaiteko diferentzia baita, eta diferentzia, berriz, Bestelakotasuna.

Honen ondorioz eta Bata zentzu askotan esaten denez, hauek denak ere zentzu askotan esango dira, nahiz eta denak ezagutzea zientzia bakar bati dagokion. Beste zientzia batzuei egokituko litzaieke, ez zentzu askotan esaten delako, baizik eta nozioak gauza bakar bati ez dagozkiolako 25) eta gauza bakar batean biltzen ez direlako. Baina gauza guztiak lehenengoa den horretan biltzen direnez (adibidez, bat izendatzen den guztia lehenengoa den Bat horri begira esaten da, eta berdin gertatzen dela esan behar da "gauza bera"ri, "bestea"ri eta "kontrako"ei dagokienez), gauza bakoitza esateko zentzu asko horiek bereiztuta, berdin azaldu beharko da predikazio bakoitzean lehenengo denari begira zein zentzutan esaten den 30) "lehenengo den horri begira", gauza batzuk izendatuko baitira honako hau dutelako; beste zenbait, honako hau egiten dutelako eta beste batzuk, antzeko moduen arabera izendatuko baitira.

Agerian dago (Aporietan<sup>18</sup> esana dagoen bezala), nozio hauei eta substantziari buruz arrazoitzea zientzia bakar bati dagokiola (hauxe bera zen aporietako bat) eta filosofoari dagokiola kontu hauei guztiei buruz 1004b) aztertu ahal izatea. Izan ere, filosofoari ez badagokio

"Sokrates" eta "Sokrates eserita" gauza bera ote diren, edo kontrako bakoitzarentzat gauza bakar bat ote dagoen, edo "kontrakoa" zer ote den edo zenbat zentzutan esaten den, zein ikertzaileri egokituko zaio? Eta berdin honelako gainerako gauzen inguruan ere. Hauek, hain zuzen ere, "bata bat 5) den aldetik" eta "den-a den aldetik" horien afekzio berezkoak direnez gero -eta ez zenbaki, edo lerro, edo sua diren aldetik-, argi dago zientzia hari dagokiola zer diren eta haien akzidenteak ezagutzea. Eta filosofatu gabe hauen inguruan ikertzen dutenek ez dute horregatik huts egiten, substantzia aurrekoa izanik honetaz ezer ulertzen ez dutelako baizik. 10) Gainera, Zenbakiak ere zenbaki den aldetik berezko afekzioak dituen bezala (esaterako, bakoititasuna eta bikoititasuna, neurgarritasuna, berdintasuna, gehiegikeria eta eza), eta hauek zenbakietan beren baitan zein hauen elkarrekiko harremanen arabera ematen direnez (eta gorpuz 15) solidoak, geldia denak, mugimenduan dagoenak, pisugabeak eta pisudunak beste berezitasun batzuk dituzten bezala), honelaxe "den-a den aldetik" honek ere baditu zenbait berezitasun, eta hauen inguruan du filosofoak egia ikertu behar. Honen adierazle zera da: dialektikoek eta sofistek filosofoaren itxura bera hartzen dute beren gain, Sofistika 20) jakinduria itxurazkoa bakarrik baita, eta dialektikoek gauza guztiei buruz eztabaidatzen dute. Eta baterakoa dute denek "den-a", eta honi guztiari buruz eztabaidatzen dute, hauek filosofiaren berezko kontuak direlako. Izan ere, Sofistika eta Dialektika Filosofia mugitzen den genero beraren inguruan mugitzen dira, baina Filosofia bere ahalmenaren izaeran bereizten da Dialektikaz, eta aurretik aukeratutako bizimoduan Sofistikaz.

25) Dialektika Filosofiak ezagutzen dituen gauzak frogatzen saiatzen da, eta Sofistikak jakinduria itxura du, baina benetakoa izan gabe. Gainera, kontrakoetan kidea den bestea gabezia da, eta guztiak zuzentzen dira "denerantz" eta "ez-denerantz", Baterantz eta Aniztasunerantz; adibidez, Gelditasuna Batari dagokio, Mugimendua, ordea, Aniztasunari. 30) Eta, bestalde, den guztia eta substantzia kontrakoez osaturik daudela esatean ia denak datoz bat, printzipioak



kontrakoak direla baieztaten baitute denek: batzuek, Bikoitia-Bakoitia; beste batzuek, Beroa-Hotza; beste batzuek, Muga-Mugagabea; beste zenbaitek, berriz, Adiskidetasuna-Gorrotoa. Eta gainerako kontrako guztiak ere badirudi Baterantz eta Aniztasunerantz 1005a) zuzentzen direla (nahikoa azaldu dugu zuzentze hau), eta besteek ezarritako printzipio guztiak ere, salbuespenik gabe, genero hauetan erortzen dira. Agerikoa da, beraz, hauetan ere "den-a den aldetik" aztertzea zientzia bakar bati dagokiola, gauza guztiak, edo kontrakoak edo 5) kontrakoetatik sortuak baitira, eta Bata eta Aniztasuna, kontrakoen printzipioak dira. Eta hauexek dira zientzia bakar bati dagozkionak, bat izatearen aldetik esaten badira ala ez, azkeneko kasua, seguruenik, egia delarik. Hala ere, Bata zentzu askotan esaten den arren, gainerako gauzak ere lehenengo batari begira esango dira, eta berdin kontrakoak. [Eta horregatik ]

10) [ "Den-a" edo "Bata" unibertsalak eta gauza guztiekiko gauza bera ez badira -eta seguruenik ez da horrela izango- batzuk bati begira esaten direlako eta beste batzuk, berriz, bata bestearen ondoren ematen direlako dute batasun hori]. Horregatik ez dagokio geometrialariari -hipotetikoki ez bada-, Kontrakoa, edo Burutua dena, edo Bata, edo Den-a, edo Gauza Bera edo Bestea zer diren aztertzea.

Beraz, argi dago zientzia bakar bati dagokiola "den-a den aldetik" 15) aztertzea, eta zerbait den aldetik dagozkion atributuak. Eta substantziak ez ezik hauei dagozkienak ere zientzia berak aztertzen ditu, jadanik esandakoak eta beste batzuei dagozkienak ere bai, hala nola Aurrekoa/Ondorengoa, Generoa/Espeziea, Osotasuna/Zatiak, eta honelakoak.

### III

Esan beharra dago matematiketan axiomak deiturikoen 20) azterketa eta substantziarena ea zientzia bakar bati dagozkion ala zientzia desberdinei. Agerian dago gauza hauei buruzko ierketa zientzia bakar bati dagokiola, hau da, filosofoarenari, hain zuzen, axiomak

substantzia guztietan ematen baitira, eta ez gainerako generoez aparteko genero partikular batean. Hain zuzen ere, denak baliatzen dira haietaz, "den-a den aldetik" haren printzipioak direlako, eta genero bakoitza 25) den zerbait delako. Baina komeni zaien neurrian baliatzen dira hauetaz, hots, beren demostrazioen objektua den generoa hedatzen den neurrian. Honen ondorioz eta axiomak zerbait diren aldetik den guztian ematen direnez (hauxe baita baterako dutena), axioma hauen azterketa ere "den-a den aldetik" ezagutzen duenari dagokio.

Horregatik zatikako ikerketa egiten dutenen artetik inor ez da -ez 30) geometrilari, ez aritmetikoa- axioma horiei buruz ezer esaten ausartzen, ea egia diren ala ez, baina fisikoen arteko batzuk bai, hauentzat hori ohiko eginkizuna delarik, Natura osoari buruz eta "den-a"ri buruz ikertzen zuten bakarrak zirela uste zutelako. Baina fisikoaren gainetik oraindik beste norbait dagoenez gero (Natura "den-a"ren genero bat baita), unibertsala denari buruzko eta substantzia lehenari buruzko azterketa egiten duenari 35) axioma hauei buruzko ikerketa ere egokituko litzaioke. Fisika ere nolabaiteko jakinduria da, baina ez lehena.

1005b) [Egiari buruz eztabaidatzen dutenen artean, batzuk egia nola onetsi behar den argitzen saiatzen dira, baina Analitikoak ezagutzen ez dituztelako. Izan ere, gai hauei heldu behar zaie Analitikoen alde 5) aurretiko ezagutza izanda, ez ikerketa bitartean ikasiz].

Argi dago filosofoari -substantzia osoari buruz aztertzen duenari, alegia- printzipio silogistikoei buruzko ikerketa ere dagokiola.

Eta zuzena da genero bakoitzari buruz gehien dakienak gaiaren printzipio sendoenak ezarri ahal izatea, eta honen ondorioz, "diren guztiak 10) diren aldetik" ezagutzen dituenak gauza guztien printzipio sendoenak ere aipa ditzake. Hau filosofoa da.

Eta denetan sendoena den printzipioa da hura, zeinetan oker egotea ezinezkoa den. Eta honelako printzipioak izan behar du, nahitaez, ezagunena

(denek huts egiten baitute ezagutzen ez dituzten gauzetan) eta ez 15) hipotetikoa, den zerbait ulertzen duenak nahitaez izan behar duen printzipio hori ez baita hipotesia. Edozer ezagutzen duenak, hain zuzen ere, nahitaez izan behar du ezagutu aurretik derrigorrezko ezagutza. Beraz, argi dago printzipio hau denetan sendoena dela. Ondoren esango dugu zein den printzipio hau.

Gauza bera, gauza beraren baitan, aldi berean eta modu berean 20) suertatzea eta ez suertatzea ezinezkoa da (eta zailtasun logikoei begira gaineratu genitzakeen zehaztasun guztiak izan bitez gaineratuak). Hauxe da, alabaina, printzipiorik sendoena, aipatutako definizioa betetzen baitu. Izan ere, ezinezkoa da inorentzat gauza bera badela eta ez dela sinestea, batzuen ustez Heraklitok dioen bezala, norberak esandako gauzak ere ez 25) baitira nahitaez sinestu behar. Hain zuzen ere, kontrakoak ezin badira aldi berean eta gauza beraren baitan eman (eta gaineratu diezaizkiogun proposamen honi ohiko zehaztasunak), eta iritzi baten iritzi kontraesankorra haren kontrakoa baldin bada, begibistakoa da ezinezkoa dela pertsona berak sinestea aldi berean gauza bera badela eta ez dela, 30) honetan oker dagoenak aldi berean izango bailituzke kontrako iritziak. Horregatik demostrazio guztiak azkeneko sineste honetara zuzentzen dira, hau baita, berez, gainerako axioma guztien printzipioa.

#### IV

35) Badira batzuk, esan bezala, gauza bera badela eta ez dela 1006a) onartzen dutenak eta, gainera, horrela dela uste dutenak. Naturaren filosofo asko ere honelako arrazonamenduaz baliatzen dira. Guk, ordea, arestian onartu dugu ezinezkoa dela aldi berean izatea eta ez izatea, eta hori 5) dela eta, printzipio guztietan sendoena huraxe dela frogatu dugu. Zenbaitek, alabaina, ezjakintasunarengatik eskatzen dute hori ere frogatzea.

Izan ere, zein gauzaren demostrazio bilatu behar den (eta zein ez) ez ezagutzea da ezjakintasuna, azken batean ezinezkoa baita gauza guztien demostrazioa izatea (mugarik gabeko prozesu batera sartzea litzateke, eta honen ondorioz horrela ere ez litzateke demostraziorik izango), eta zenbait 10) gauzaren demostrazio ez badira bilatu behar, honelako printzipioa baino behar gutxiagokorik ote den ezin esango lukete.

Baina hau ezinezkoa dela demostratzea errefusatuz egin daiteke, kontrakariak zerbait esaten badu. Eta ezer esaten ez badu, barregarria izango litzateke zer esan bilatzea esatekorik ez duenaren aurrean, ezer esaterik ez duen neurrian, honelako bat, honelakoa den aldetik, behintzat, landare bat 15) bezalakoa baita. Baina demostrazioa errefusatuz egitea eta demostrazioa egitea desberdinak direla diot, frogatzean printzipio-eskakizuna omen litzatekeelako, baina printzipio honen kausa beste bat balitz, errefusapena izango litzateke, ez demostrazioa.

Honelako argumentazio guztien abiapuntua ez da kontrakariari ea 20) gauza bat baden ala ez den esan dezala eskatzea (hau, dudarik gabe, printzipio-eskakizuna dela uler bailiteke), esanguratsu den zerbait, berarentzat zein bestearentzat, esan dezala eskatzea baizik. Eta hau nahitaezkoa izango da zerbait esan nahi badu; bestela, ez du honelako arrazonamendurik egingo, ez bere baitarako, ezta bestearentzat ere. Eta hau onartzen badu, demostrazioa izango da, jadanik zerbait zehaztua izango 25) baita. Baina erantzukizuna ez da demostrazioa egiten duenarena, demostrazioa sostengatzen duenarena baizik, argumentua ezabatzean huraxe sostengatzen baitu. [Gainera, honetan bat datorrena, jadanik etorri da bat demostrazioaz aparte egia den zerbait dagoela onartzean]; [beraz, ez dago esaterik ezer horrela eta ez-horrela denik].

Lehenengoz, argi dago hau behintzat berez egia dela: "izatea" eta 30) "ez izatea" aipatzeak baduela esanahi zehatza eta honen ondorioz ez dagoela esaterik ezer horrela eta ez-horrela denik.

Gainera, "gizakiak" esanahi bakarra baldin badu, hau izan bedi "hankabiko animalia". "Esanahi bakarra" diot hau adierazteko: gizakia "honelako hau" baldin bada, eta norbait gizakia baldin bada, orduan "honelako hau" izango da gizakiaren izatea. (Eta ez da ezertan aldatzen 1006b) norbaitek esanahi bat baino gehiago ezartzen baditu ere; esanahi hauek mugatuak izanik, kontzeptu bakoitzari izen desberdina jartzea nahikoa bailitzateke. Esaten ari naiz, adibidez, "gizakiak" esanahi bakarra duela baieztatu beharrean asko dituela baieztatzen bada, esanahi hauetako baten kontzeptua "hankabiko animalia" litzatekeela, eta beste asko ere bai, 5) baina kopuruz mugatuak. [Kontzeptu bakoitzaren arabera izen berezia jarriko bailitzateke]. Eta <kontrakariak> hauek jarri beharrean amaigabeko esanahiak direla ezarriko balu, begi-bistakoa da ez litzatekeela arrazonamendurik, esanahi batek ez adieraztea ezer ez adieraztea baita, eta 10) izenek esanahirik ez badute, elkarrekiko solasaldia ezabatu egiten da; eta egia esateko, nork bere buruarekikoa ere bai. Izan ere, ez dago ezer pentsatzerik gauza bat pentsatzen ez bada, eta zerbait pentsatzea badago, litekeena da honako honi izen bakar bat jartzea). Beraz, hasieran esan bezala, bego izenarentzat nolabaiteko esanahia eta berau bakarra. Gauzak horrela, ezinezkoa da "gizakia" izateak eta "ez-gizakia" izateak esanahi bera izatea, "gizakiaren" esanahia zerbaiten arabera izan 15) ezik bat baldin bada. (Izan ere, ez dugu uste esanahi bakarra eta bakar baten arabera esanahia gauza bera denik; bestela, "musikariak", "zuriak" eta "gizakiak" esanahi bera izango lukete, eta honen ondorioz gauza guztiak bat izango lirateke, sinonimoak, hain zuzen ere).

Eta ezinezkoa izango da gauza bera izatea eta ez izatea, izenkidetasunaren arabera ez bada, hots, guk "gizakia" izendatzen dugun 20) hori beste batzuek "ez-gizakia" izendatuko balute bezala. Baina sortzen zaigun aporia ez da ea gauza bera izan litekeen gizakia izatea eta ez izatea izenez, egitez baizik. Eta "gizakiak" eta "ez-gizakiak" esanahi desberdina ez badute,

argi dago gizakiaren izateak eta gizakiaren ez-izateak ere ez dutela esanahi desberdinik izango eta, ondorioz, "gizakiaren izatea" eta "ez-25) gizakiaren izatea" gauza bera izango dira, gauza bakar bat, hain zuzen ere, haxe baita gauza bakar bat adieraztea: "soinekoa" eta "jantzia" bezalaxe, kontzeptua bat bakarra baldin bada. Eta gauza bakar bat baldin badira, "gizakiaren izateak" eta "ez-gizakiaren izateak" esanahi bera izango dute.

Baina jadanik erakutsi dugu esanahi desberdinekoak direla. Horrela, bada, gizakia zer den egitan esatekotan, "hankabiko animalia" 30) izango da nahitaez (haxe baitzen "gizakiak" adierazten zuena). Eta hau nahitaezkoa baldin bada, ezinezkoa da honako hau hankabiko animalia ez izatea (nahitaezkoa izateak haxe adierazten baitu, ezinezkoa dela gizakia ez izatea). Beraz, aldi berean ezin egia izan gauza bera "gizakia dela" eta "gizakia ez dela" esatea.

1007a) Eta arrazonamendua bera da "gizakia ez izatearentzat" ere, "gizakiaren izateak" eta "ez-gizakiaren izateak" esanahi desberdina baitute, "zuria izatea" eta "gizakia izatea" desberdinak diren bezala. Izan ere, "gizakiaren izatea" eta "ez-gizakiaren izatea" neurri handiagoz dira kontrakariak, eta honen ondorioz esanahi desberdinekoak izango dira. Eta "zuriak" eta "gizakiak" gauza bera eta gauza bakarra adierazten dutela 5) esanez gero, aurretik esandakoa berriro ere esango dugu<sup>19</sup>, gauza guztiak -eta ez kontrakoak bakarrik- gauza bakar bat izango direla. Eta hau ezinezkoa baldin bada, esandakoa gertatuko da, galdetutakoari erantzuten badio.

Baina kontrakariari galdera soila egiten zaionean ezeztapenak ere gaineratzen baldin baditu, orduan ez dio galdetutakoari erantzuten, ezerk ez 10) baitu eragozten gauza bera "gizakia", "zuria" eta beste hamaika gauza izatea. Hala ere, hau gizaki bat dela esatea egia den ala ez galdetzean, esanahi bakarreko erantzuna eman behar da, eta ez gaineratu "zuria" eta "handia" ere badela, ezinezkoa baita akzidenteak banan-banan aipatzea, hauek amaigabeak direlarik. Horrela, bada, aipa bitez denak, ala bat ere ez.

15) Era berean, gizakia eta ez-gizakia gauza bera den ala ez galdetzen duenari ez zaio gaineratu behar aldi berean ez-gizakia ere

badela, beste akzidente 20) guztiak ere gaineratzen ez baldin badira, direnak eta ez direnak. Hala eta guztiz ere hau egiten bada, ez da arrazoitzen.

Laburbilduz: hau esaten dutenek substantzia eta esentzia ezabatzen dituzte, nahitaez baieztatu behar baitute gauza guztiak akzidenteak direla, eta gizakiaren izatea den hori edo animaliaaren izatea den hori, ez direla. Izan ere, gizakiaren izatea den zerbait baldin badago, hori ez da ez-25) gizakiaren izatea izango, ezta gizakiaren ez-izatea ere (hauek horren ezeztapenak izanik ere), gizakiaren izatearen esanahia bat bakarra baitzen, eta hau zerbaiten substantzia.

Eta gauza baten substantzia adieraztea zera da, gauza horren izatea bestelako ezer ez dela adieraztea; baina horretarako gizakiaren izatea den hori baldin bada ez-gizakiaren izatea, edo gizakiaren ez-izatea, orduan gizakiaren izatea bestelako zerbait izango da. Beraz, nahitaez baieztatu 30) beharko dute <filosofo hauek> honelako kontzeptua ez dagokiola inolako gauzari, baizik eta dena akzidentalki izango dela, substantzia eta akzidentea honetan bereizten baitira: zuria izatea akzidentala da gizakiarentzat, hau, hain zuzen ere, zuria delako, baina ez "zuria den hori" delako.

Baina gauza guztiak akzidentalki esaten badira, orduan ez da izango lehenengoa den hori, zeinetaz akzidenteak esaten baitira, eta 35) akzidenteak beti azpigairen baten kategoria bat adierazten baldin badu. 1007b) Eta horrela, nahitaez amaigabeko prozesua izango da. Baina hau ezinezkoa da, elkarren artean bi kategoria baino gehiago lotzen ez direlako.

Izan ere, akzidentea ez da akzidente baten akzidentea, biak azpigai berean batera ematen direlako ez bada; esan nahi dut, adibidez, "zuria" 5) "musikaria" dela eta hau "zuria" dela biak ala biak gizakiaren baitan akzidentalki ematen direlako; aitzitik, Sokrates ez da honelako musikaria, bi akzidenteok beste batengan ematen direlako, alegia. Horrela, bada, akzidente batzuk honela eta beste batzuk modu hartaz esaten direnez, honela esaten direnak - "zuria" Sokratesengan bezala- ezin amaigabeki gorantz joan: adibidez, "Sokrates zuria"ri ezin bestelako akzidenterik 10) gaineratu, horietatik guztietatik ez baita "bat den zerbait" sortzen.

Eta "zuria"ri ere ezin bestelako akzidenterik gaineratu - "musikaria", adibidez-, hau ez baita haren akzidentea hura honen akzidentea baino neurri handiagoz; eta aldi berean zehaztuta dago akzidente batzuk honela ematen direla eta beste batzuk "musikaria" Sokratesengan ematen den bezalaxe. Azkeneko modu honetaz ematen direnetan ez dago akzidentalki 15) beste akzidente baten baitan ematen den akzidenterik, baina bai beste modu hartan ematen direnetan. Beraz, dena ez da akzidentalki esango eta substantzia adierazten duen zerbait ere izango da orduan. Eta horrela baldin bada, frogatua dago jadanik kontraesanak aldi berean predikatzea ezinezkoa dela. Gainera kontraesan guztiak gauza beraren arabera eta aldi berean egia baldin badira, argi dago gauza guztiak bakar bat izango direla: gauza bera 20) izango dira trirremea, harresia eta gizakia, edozertaz edozer baieztatzea edo ezeztatzea baldin badago, Protagorasen arrazonamendua baieztatzen dutenei nahitaez gertatzen zaien bezala.

Baina norbaiti gizakia trirremea ez dela iruditzen bazaio, argi dago ez dela trirremea, eta kontraesana egia baldin bada, trirremea ere bada. Eta 25) Anaxagorasena gertatzen da, gauza guztiak nahasturik daudela<sup>20</sup>; honen ondorioz ez da benetan bat den ezer suertatzen. Hain zuzen ere, <filosofo hauek> zehaztugabe denaz hitz egiten omen dute, eta "den-a"z ari direlako ustetan, "ez den-a"z hitz egiten dute, zehaztugabe dena potentzian dagoena baita, ez entelekian dagoena. Hala ere, hauek onartu behar dute 30) gauza guztiei buruzko baieztapena edo ezeztapena, lekuz kanpoko bailitzateke gauza bakoitzari bere ezeztapena egokitzea eta bere baitan ez dagoen zerbaitena ez egokitzea; esaten ari naiz, adibidez, gizakia ez-gizakia dela benetan esaterik baldin badago, orduan argi dagoela trirremea edo ez-trirremea dela ere esatea badagoela. Izan ere, baieztapena egokia baldin bada, 35) ezeztapena ere nahitaez egokituko da.



Eta baieztapena egokia ez bada, ezeztapena are egokiagoa izango da. Eta 1008a) gauzaren beraren ezeztapena egokia bada, orduan trirremearena ere bai; eta hau egokia baldin bada, bere baieztapena ere bai.

Arrazonamendu hau defendatzen dutenei honelakoak gertatzen zaizkie, eta gainera ez dute baieztatzearen edo ezeztatzearen beharra. Izan 5) ere, gizakia eta ez-gizakia egia baldin badira, orduan argi dago ez dela gizakia, ezta ez-gizakia ere izango, bi baieztapen horiei bi ezeztapen hauek baitagozkie, eta hura bi horiez osaturiko bat bakarra dela hartuz gero, orduan honen kontrakoa ere bat bakarra izango da. Gainera, edo hau horrelakoa da gauza guztiei dagokienez (eta bada zerbait "zuria" eta "ez-zuria", "den-a" eta "ez den-a", eta era berean gainerako baieztapenei eta 10) ezeztapenei dagokienez), ala ez; edo batzuei dagokienez bai eta beste batzuei dagokienez, ordea, ez. Eta gauza guztiei ez badagozkie, hau onartuko dugu. Baina gauza guztiei badagozkie, berriro ere edo baieztatu daitezkeen horietaz ezeztatzea ere badago eta ezeztatu daitezkeen haietaz baieztatzea ere 15) badago, edo baieztatu daitezkeen horietaz ezeztatzea ere badago baina ezeztatu daitezkeen haietaz ez dago denetaz baieztapen egiterik. Eta horrela baldin bada, "ez den-a" den zerbait izango da ziur, eta hau iritzi sendoa izango da, eta ez-izatea zerbait sendoa eta ezagugarri baldin bada, ezagugarriago izango da kontrako baieztapena.

Baina ezeztatu daitezkeen guztia berdin baieztatu baldin badaiteke, nahitaez, edo bereizita esatean da egia -adibidez, zerbait zuria dela esan eta 20) gero zuria ez dela esan-, edo ez. Eta bereizita esatean egia ez bada, ez ditu gauza hauek ere esango, eta ez da ezer izango (eta nola liteke ez-direnak mintzatzea edo ibiltzea?), eta gauza guztiak gauza bakar bat izango dira, lehendik esana dagoen bezala, eta gauza bera izango dira gizakia, jainkoa, trirremea, <harria>, baita hauen kontraesanak ere (berdin egokitzen 25) baldin bazaizkio gauza bakoitzari,

ez dira elkarren artean ezertan bereiziko, eta berezitasunik baldin badago, haxe izango da egia eta berezko dena).

Modu berean, baieztapena eta ezeztapena bananduta esatean egiazkoak izan baldin badaitezke, berdin gertatuko da esandakoa; gainera denek esango lukete egia eta denek esango lukete gezurra, eta kontrakariak 30) berak ere gezurra esaten duela onartu beharko luke. Eta, aldi berean, agerian dago honen aurrean ikerketak ez duela ezertarako balio, ezer esaten ez duelako; ez baitu esaten "honela da" edo "honela ez da", "honela da eta honela ez da" baizik, ondoren biak ezeztatzeko, ez "honela da", ezta "honela ez da" ere. Izan ere, horrela esango ez balu, jadanik zerbait zehaztua izango litzateke. Gainera, baieztapena egia denean ezeztapena gezurra baldin bada, 35) eta hau egia denean baieztapena gezurra baldin bada, ezinezkoa da gauza 1008b) beraren baieztapena eta ezeztapena aldi berean egia izatea. Baina esan liteke agian hau printzipio-eskakizunak ezarritakoa dela.

Gainera, zerbait honela dela edo honela ez dela pentsatzen duena oker egongo ote da, eta bata zein bestea baieztatzen dituenak egia esango ote du? Honek egia esaten badu, zer esan nahi du den guztiaren izaera honelakoa dela esateak? Eta egia esaten ez badu, baina beste modu hartaz 5) pentsatzen duenak baino gertuago baldin badu egia, orduan den guztia hola edo hala izango da; eta hau egiazkoa izango da, eta ez aldi berean ezeztapena.

Baina denek esaten badute berdin egia eta gezurra, orduan honela pentsatzen duenarentzat ez da ahotik soinurik ateratzerik, ezta hitz egiterik ere izango, honako hau esaten baitu eta, aldi berean, ez baitu honako hau 10) esaten. Eta ezer pentsatzen ez badu, baizik eta berdin sinesten eta sinesten ez badu, orduan zertan bereiziko da landareetatik? Hortik ateratzen da argi asko inor ez dela horrela suertatzen, ez besteen arteko inor, ezta doktrina hau baieztatzen dutenen arteko inor ere. Hain zuzen ere, zergatik 15) abiatzen da Megara aldera, eta ez da bertan gelditzen, abiatu behar dela uste

badu? Eta egunsentiarekin batera ez da putzu baterantz edo amildegi baterantz abiatzen kasualitatez aurkitzen baditu; aitzitik, zuhur agertzen da, horietara erortzea ona dela eta, neurri berean, ona ez dela pentsatzen ez duelako. Argi dago, beraz, bata hobe dela eta bestea hobe dela pentsatzen duela. Eta 20) hau horrela baldin bada, bata gizakia dela eta bestea ez-gizakia dela eta bata gozoa dela eta bestea ez-gozoa dela ere pentsatu beharko du; gauza guztiak bilatu eta ulertzea ez baitzaio berdin, ura edatea eta gizaki bat ikustea hobe direlako ustetan berehala abiatzen bada hauek bilatzera. Hala ere, 25) berdin hartu beharko lituzke gizakia eta ez-gizakia gauza bera balira. Baina esan dugun bezala, ez dago inor gauza batzuekiko zuhur agertzen ez denik eta beste zenbait gauzekiko, ez. Horrela, dirudienez, denek uste dute gauzak erabatekoak direla, gauza guztiei dagokienez ez bada, bai behintzat onenari eta okerrenari dagokienez. Eta hau (ez ezagutzen dutelako, iritzia dutelako baizik) horrela baldin bada, are gehiago arduratu beharko litzateke 30) egiaz, osasunaz gaixorik dagoena sano dagoena baino gehiago arduratu den bezala; iritzia duena ezagutzen duenaren aurrean ez baita egiazi dagokionez osasuntsu suertatzen.

Gainera, gauza guztiak -neurri handi batez- honela eta ez-honela badira ere, gehiago eta gutxiago izatea, behintzat, den guztiaren izaerari dagokion zerbait da, ez baikenuke esango bia eta hirua berdin direnik bikoitiak, ezta laua bosta dela uste duena mila dela uste duena baino 35) okerrago dagoenik ere; eta neurri berdinez oker ez badaude, argi dago horietako bat neurri txikiagoz dagoela oker eta, honen ondorioz, neurri handiagoz esango duela egia. Beraz, neurri handiagoz den hori gertuago 1009a) baldin badago, egia izango da zerbait, zeinarengandik gertuago egongo den neurri handiagoz egia den hori. Eta horrelakorik ez badago, hala ere badago, behintzat, zerbait sendoago eta egiazkoago dena, eta neurrigabea den doktrina horretatik -pentsamenduari ezer zehaztea oztopatzen dion 5) doktrinatik, alegia- aldenduak egongo gara.

V

Iritzi beraren baitatik ere sortzen da Protagoraren doktrina, eta batak zein besteak berdin dute, nahitaez, izatea edo ez izatea. Izan ere, usteak eta fenomenoak denak egia baldin badira, gauza guztiak izango

dira, nahitaez, aldi berean egia eta gezurra (askok 10) baitute elkarrekiko iritzi kontrajarriak, eta haien uste berekoak ez direnak oker daudela pentsatzen dute; beraz, nahitaez gauza bera da eta ez da). Eta hau honela baldin bada, usteak nahitaez izango dira denak egiazkoak (oker daudenek eta egia esaten dutenek elkarren arteko kontrako 15) iritziak baitituzte; orduan, den guztia honela baldin bada, denek egia esango dute). Argi dago bi doktrinak pentsamendu beraren baitatik sortzen direla.

Hala ere, hauengana hurbiltzeko modua ez da denetan bera izaten, batzuek limurtzea behar baitute eta beste batzuek, ordea, indarraren poderioa. Izan ere, aporian egon ondoren honela pentsatzera iritsi diren horien ez-jakintasuna sendatzen erraza da (hauekiko enfrentamendua ez 20) baitagokio hitzari, pentsamenduari baizik). Baina berriketa arina egiten duten horien sendatzea soinu artikulatuan eta hitzetan esandakoa errefusatzuz lortzen da.

Iritzi hau -kontraesanak eta kontrakoak aldi berean suertatzen direla, hain zuzen ere-, sentimenezko gauzetatik etorri zaie aporian daudenei, kontrakoak beren baitatik sortzen diren gauzak direla 25) ikustean. Izan ere, ez-denak izatera iristerik ez badu, zerbait den horrek aurreizan behar zuen bi kontrakoak izanik, Anaxagorasek dena denetan nahasturik dagoela dioen bezala, eta baita Demokritok ere; honek Hutsa eta Betea edozertan berdin suertatzen direla dio, bata "den-a" eta bestea "ez-dena" direlarik.

30) Kontu hauetatik iritzia ateratzen dutenei zera esango diegu, nolabaiteko zentzu batean zuzen hitz egiten dutela, baina beste zentzu batean, ez. Izan ere, "den-a" bi zentzutan esaten da, eta honen ondorioz "ez-dena"ren baitatik izatera iristea zerbait, litekeena da zentzu batean, baina

beste zentzu batean, ez; eta baliteke gauza bera aldi berean "den zerbait" eta "ez-den zerbait" 35) izatea, baina ez zentzu beraren arabera. Izan ere, potentzian baliteke gauza bera aldi berean kontrakoak izatea, baina entelekian, ez. Gainera beste gauza bat onartzea ere eskatuko diegu hauei: diren guztien artean badagoela bestelako substantzia bat, zeinetan suertatzen den ez inongo mugimendurik, ez usteldurarik, ezta genesirik ere.

1009b) Era berean, fenomenoaren egia ere sentimenezko gauzetatik etorri zaio zenbaiti. Izan ere, egia gehiengo- edo gutxiengo-iritziaren arabera ez dela erabaki behar uste dute; eta gauza bera batzuei gozoa iruditzen zaien 5) bitartean beste batzuei, berriz, mingotsa egiten zaie; beraz, denak gaixorik edo denak burua galdurik baleude, eta bizpahiru sano eta zuhur baleude, orduan hauexek omen lirateke gaixorik eta burua galdurik daudenak, eta beste haiek, ordea, ez. Gainera, gauza berberei buruz, gainerako izaki bizidun askori eta guri kontrako inpresioak azaltzen zaizkigula uste dute; eta norberari ere, sententzia dela medio, gauzak ez zaizkiola beti berak 10) iruditzen. Horrela, bada, hauetatik zeintzuk diren egiazkoak eta zeintzuk faltsuak ez dago argi, ez baitira batzuk besteak baino neurri handiagoz egiazkoak, neurri berean baizik. Hortik Demokritok esatea ezer ez dela egiazkoa, edo guretzat behintzat ez dagoela argi. Eta sententziaren bidez azaltzen dena nahitaezko egia dela esaten dute, sententzia 15) pentsamendutzat hartzeagatik eta hau aldaketa bat dela baieztatzeagatik. Arrazoi hauengatik atxiki zitzaizkien honelako iritziei bai Enpedokles, bai Demokrito, baita -nolabait esateko- gainerako guztiak ere. Horrela, bada, egoera fisikoa aldatzean pentsamendua ere aldatzen dela baieztatzen du Enpedoklese:

"presentzian dagoenaren aurrean  
buru-ernetasuna handiagotzen da  
gizakiengan"<sup>21</sup>

19a) eta beste leku batean honela dio:

20) "haiek aldatzen diren neurrian,  
20a) neurri berean beti azaltzen zaizkie aldatuta  
20b) pentsamenduak."<sup>22</sup>

Modu berean adierazten du Parmenidesek ere:

22) "Izan ere, norberak duen atal malguen nahasturaren arabera azaltzen zaie adimena gizakiei, gauza bera baita pentsatzen duen hori eta atalen izaera gizakiengan, guztietan eta denetan,

25) nagusitzen dena pentsamendua baita."<sup>23</sup>

Eta Anaxagorasek bere lagun batzuei zuzendutako sententzia bat ere gogoratzen da: beraientzat "diren guztiak" haiek ulertzen dituzten bezalakoxeak izango dira. Eta Homerok ere iritzi hau adierazi duela esaten dute; honek idatzi zuenez, Hektor, kolpearengatik burua galdurik geratu 30) zenean, burutazio nahasiak zituela zetzan<sup>24</sup>, adierazi nahian burutazio nahasiak dituztenek ere arrazonatu egiten dutela, baina ez gauza bera. Argi dago, beraz, bata eta bestea arrazonamenduak baldin badira, "diren guztiak" ere izango direla aldi berean honela eta ez-honela. Eta ondorioa hemen larri askoa da: ahal den neurrian egia ikustera gehien 35) hurbildu direnek -egia gehien bilatu eta maite dutenek- honelako iritziak baldin badituzte eta egiari buruz adierazpen hauek egiten badituzte, 1010a) nola ez dute, bada, adorea galduko filosofatzen hasten direnek? Egia bilatzea ezinari ekitea izango da-eta.

Baina iritzi honen arrazoia hau izan zen: filosofo hauek den guztiaren egia ikertzen bazuten ere, "diren guztiak" sentimenezkoak bakarrik direla uste izan zuten. Baina sentimenezko gauzetan asko ematen 5) da zehaztugabe denaren izaera, hots, "dena"rena, esan genuen zentzuan. Horregatik hitz egiten dute zuzen, baina ez egiatan

(komenigarriago baita honela erantzutea, ez Epikarmok Xenofanesi bezala). Gainera, natura osoa mugimenduan dagoela eta bilakatzen ari denaren inguruan egia esaterik ez dagoela ikusirik, erabat eta denetan 10) bilakatzen ari denari buruz egia esaterik ez dagoela pentsatu zuten filosofo hauek. Eta nozio honetatik loratu zen aipaturiko iritzietatik zorrotzena, Heraklitori jarraitzen diotela baieztatzen dutenena, alegia, Kratilorena; honek azkenean ezer esan behar ez zelako ustea izan eta behatza bakarrik mugitzen zuen, eta Heraklitori ibai berean bi aldiz 15) murgiltzea ezinezkoa dela esateagatik kritika egiten zion, berak uste baitzuen behin ere ezin dela<sup>25</sup>.

Baina guk, arrazonamendu honi ere erantzungo diogu nolabait zentzuzkoa dela bilakatzen denak -bilakatzen ari den bitartean- izatea duelako ustea ez izatea, nahiz eta hau, hain zuzen ere, eztabaidagarria izan. Zerbait galtzen ari denak badu galdutakoaren zerbait, eta sortzen ari denaren 20) zerbaitek ere jadanik badu izatea, nahitaez; orokorrean, zerbait usteltzen baldin bada, oraindik ere den zerbait izango da, eta zerbait sortzen baldin bada, nahitaezkoa izango da nondik sortu eta zerk sortua den zerbait izatea, eta hau prozesu amaigabea ez izatea. Baina gauza hauek albo batera utzita, esan dezagun ez dela gauza bera kalitatearen arabera eta kantitatearen arabera bilakatzea; kantitatearen arabera, hain zuzen ere, bego ez irautea; 25) baina espeziearen arabera ezagutzen ditugu gauza guztiak.

Horrez gain, horrela pentsatzen dutenei zuzena da hau kritikatzeko: sentimenezko gauzetan beraietan ere kopuru txiki bakar bati bakarrik dagokiola horrela izatea ikusita ere, berdin egotzi ziotela unibertso osoari horrela izatea, gure inguruan hedatzen den sentimenezko tokia bakarrik 30) baita etengabe ustelduz eta sortuz ematen dena; baina hau, nolabait esateko, osotasunaren zati bat bera ere ez da; beraz, zuzenagoa litzateke sentimenezko gauzak zerutiarrei esker barkatzea, sentimenezkoengatik zerutiarrak kondenatzea baino. Gainera, argi dago filosofo hauen aurrean ere aspaldian esana dagoen gauza bera esango dugula<sup>26</sup>:

erakutsi beharko zaie geldia den izaera bat badela, eta honetaz 35) konbentzitu. Hala ere, gauzak aldi berean badirela eta ez direla baieztatzen dutenei, dena geldirik dagoela esatea egokiago zaie dena mugimenduan dagoela esatea baino, ez baitago zer bilakatuko, gauza guztiak gauza guztietan ematen baitira.

1010b) Eta egiari dagokionez, esan dezagun lehenik ageriko den guztia egiazkoa ez dela; propio denaren sentsazioa, behintzat, faltsua ez den arren, fantasia eta sentsazioa gauza bera ez direlako. Gainera, zuzena da harritzea aporia hauen aurrean: ea luzezabalerak eta koloreak urruti daudenei agertzen zaizkien bezalakoak ote diren ala gertuan daudenei 5) agertzen zaizkien bezalakoak; ea osasuntsu daudenei agertzen zaizkien bezalakoak ote diren ala gaixorik daudenei agertzen zaizkien bezalakoak ote; ea astunagoak ote diren ahulei astun egiten zaizkien gauzak ala sendoei astun egiten zaizkienak; eta ea egiazkoak ote diren lo daudenei egiazkoak iruditzen zaizkien gauzak ala esna daudenei egiazkoak iruditzen zaizkienak; agerian dago, behintzat, ez dutela honela pentsatzen; hain zuzen ere, bart Atenasen zegoela amets egin duelako, inortxo ere ez da 10) Odeoi aldera abiatuko Libian baldin badago.

Gainera, etorkizunari dagokionez, Platonek dioen bezala, sendagile baten iritzia eta ezjakin batena ez dira, inola ere, baliokideak, adibidez, gaixorik dagoena sendatuko ote den ala ez esateari dagokionez.

Eta sentsazioen beraien artean ez dira baliokideak propio denarena 15) eta bestearena, edo ondokoarena eta norberarena; aitzitik, koloreei dagokiena ikusmena da, ez dastamena, eta zaporeari dagokiona dastamena, ez ikusmena. Eta ahalmen bakoitzak ez du inola ere egiaztatzen denbora berean eta gauza berari buruz aldi berean honela eta ez-honela denik; eta 20) denbora desberdinetan ere ez dira kontraesanak afekzioari dagokienez, afekzioa akzidentea den gauzari dagokionez baizik.



Esaten ari naiz, adibidez, ardo bera bilakatzen bada, edo edaten duenaren gorputza bilakatzen bada, batean gozoa irudituko dela, ez-gozoa beste batean. Baina gozoa dena, gozoa den bitartean, behintzat, ez da sekula bilakatzen; 25) aitzitik, beti esango du berari dagokion egia, eta halakoa da, nahitaez, gozoa izango dena.

Hala ere, hau ezabatu egiten dute arrazonamendu hauek guztiek, ezeren substantziarik ez dagoen bezalaxe, nahitaezko den ezer ere ez dagoela ezartzean; nahitaezko dena ezin baita modu desberdinez izan, eta honen ondorioz, zerbait baldin bada nahitaez, orduan ez da honela eta ez-honela 30) izango. Eta, orokorrean, sentsazioa bakarrik balitz, ezer ez litzateke izango izaki animadunik izan ezean, ez bailitzateke sentsaziorik izango. Alabaina, ziurraski egia da ez liratekeela ez sentimenezko gauzak, ezta sentsazioak ere izango (hau sentitzen duenaren afekzioa baita); baina sentsazioa sortzen duten azpigai horiek ez izatea, sentsaziorik ez balego ere, 35) ezinezkoa da. Sentsazioa, jakina, ez baita berarena; aitzitik, badago sentsazioaz aparteko zerbait desberdin, eta hau nahitaez sentsazioaren aurrekoa da, mugiarazten duena baita, berez, mugitua denaren aurrekoa, 1011a) eta ez gutxiago hauek jarraian ematen direla esan arren.

## VI

Badira batzuk -bai doktrina hauekin sinestarazita daudenen artetik, baita doktrina hauek argumentaziorako bakarrik aipatzen dituztenen artetik ere- aporian suertatzen direnak; osasuntsua zein den 5) eta, orokorrean, gauza bakoitzaren epaiketa zuzena nork erabakiko galdetzean.

Baina honelako aporiak orain lo ala esna gaudeneko galdera bezalakoak dira, eta honelako aporia guztiak baliokide dira; filosofo hauek gauza 10) guztien argumentazioa eskatzen dute, printzipio bat bilatzen baitute, eta hau demostrazioz lortu ere; baina beren jokabidean sinestarazita ez daudela agerian uzten dute.

Hala ere, esaten genuen bezala<sup>27</sup>, hauxe da gertatzen zaiena, argumentaziorik ez duenaren argumentazioa bilatzen dutela, demostrazioaren printzipioa ez baita demostrazioa. Hauei, alabaina, hau sinestaraz lekieke erraz (ez baita zaila ulertzen).

Baina argumentazioan indarra bakarrik bilatzen dutenak 15) ezinezkoa dena ari dira bilatzen, kontraesanak esateko eskubidea eskatzen baitute kontraesanak esan orduko. Bestalde, gauza guztiak erlatiboak ez badira -batzuk berez eta berak baldin badira-, orduan ageriko den guztia ez da egiazkoa izango, agerikoa norbaitentzat baita agerikoa. Honen ondorioz, ageriko den guztia egiazkoa dela esaten duenak 20) erlatibo bihurtzen ditu diren guztiak.

Hori dela eta, argumentazioan indarra bilatzen dutenek eta, aldi berean, argumentazioaren baitan mantentzea eskatzen dutenek, kontuan izan behar dute ageriko den guztiak izaterik ez duela, baizik eta agerikoa agertzen zaionarentzat, agertzen denean eta agertzen den neurrian eta moduan. Eta argumentazioan mantentzen badira, baina ez honela, 25) berehala suertatuko dira kontraesanetan: baliteke pertsona berari zerbait eztea iruditzea ikusmenaren arabera, baina dastamenaren arabera ez, eta begiak bi izanik, baliteke hauei gauza bera ez iruditzea, biak desberdinak badira.

30) Gainera, aspaldian aipaturiko kausak direla eta, agerikoa egiazkoa dela baieztatzen dutenen aurrean, behintzat, †...† eta

ondorioz gauza guztiak berdin direla faltsuak eta egiazkoak -denei ez baitzaie gauza bera iruditzen, ezta pertsona berari beti gauza bera ere; aitzitik, askotan kontrako gauzak iruditzen zaizkie aldi berean 35) (behatzak gurutzatzean ukimenarentzat bi baitira, baina ikusmenarentzat, bat)-. Baina gauza berari dagokionez ez da inola ere 1011b) horrela suertatzen sentsazioaren arabera, zentzu berean eta aldi berean; honen ondorioz, sentsazio hau litzateke egiazkoa.

Baina agian horregatik esan beharko dute nahitaez -ez aporian daudelako, berriketa hutsa egiten dutelako baizik- ez "hau egiazkoa da", baizik eta "honentzat egiazkoa da". Eta lehendik esana dagoen bezala, nahitaezkoa zaie gauza guztiak erlatiboak direla baieztatzea, bai iritziari 5) dagokionez, bai sentsazioari dagokionez; honen ondorioz, ez da ezer sortua izan eta ez da ezer izango aldezturik aurretiko iritzia izan ezean. Eta ezer sortua izan edo izaten bada, argi dago gauza guztiak ezin direla iritziaren arabera izan.

†Gainera, gauza bakar bat baldin bada†, gauza baten arabera izango da, edo zerbait zehaztuaren arabera. Eta gauza bera erdia eta berdina baldin bada ere, "berdina", behintzat, ez da "bikoitza"ri dagokion 10) zerbait. Eta iritzi-emaileari dagokionez, gizakia eta irizkaia gauza bera baldin badira, orduan gizakia ez da iritzi-emailea izango, irizkaia baizik. Eta gauza bakoitza iritzi-emailearen arabera baldin bada, iritzi-emailea espezie mugagabeen arabera izango da.

Horrela, bada, kontrako baieztapenak aldi berean egiazkoak ez direla iritziaren sendoa dela azaltzeko, eta honela dela baieztatzen dutenei 15) zer suertatzen zaien eta zergatik baieztatzen duten azaltzeko, bego esandakoa.

Gainera, gauza berari buruzko kontraesana aldi berean egiazkoa izatea ezinezkoa denez, agerian dago gauza beraren baitan kontrakoak aldi berean suertatzea ere ezinezkoa dela. Izan ere, kontrakoen artean bata besteari gabezia da -ez kontrako baina neurri txikiagoz- eta substantziaren 20) gabezia, eta gabezia genero zehaztu baten ezeztapena da.

Beraz, aldi berean zinez baieztatzea eta ukatzea ezinezkoa baldin bada, orduan kontrakoak aldi berean suertatzea ere ezinezkoa izango da, biak ala biak nolabaiteko zentzuan ematen ez badira, behintzat, edo bata zentzu batean eta bestea zentzu absolutuan.

## VII

Bestalde, kontraesanen artean ezinezkoa da bitartekorik izatea; aitzitik, baten bati dagokionez, nahitaezkoa da horietako bat -izanak izan- edo baieztatzea edo ukatzea. Eta hau argi dago, hasiera batean, egiazkoa eta 25) faltsua zer den definitu dutenentzat. Izan ere, "den-a" ez dela edo "ez den-a" badela esatea faltsua da, eta "den-a" badela eta "ez den-a" ez dela esatea, ordea, egiazkoa da. Beraz, zerbait badela edo ez dela esaten duenak esango du egiazko zerbait edo faltsu den zerbait. Baina ez da esaten "den-a" ez denik edo denik, ezta "ez den-a" denik edo ez denik ere.

30) Gainera, kontraesanen artean izango da bitartekoa beltzaren eta zuriaren artean grisa dagoen bezala, edo gizakiaren eta zaldiaren artean ez bata, ez bestea ez dagoen bezala. Eta azkeneko modu honetaz izanez gero, ez litzateke bilakaerarik izango ( "ez-ona" izatetik "ona" izatera bilakatzen baita, edo "ona" izatetik "ez-ona" izatera); baina beti izaten da nabari <bilakaerak badirela> (bilakaerarik ez baita kontrako edo bitarteko sortzeko izan ezik). Baina bitartekorik baldin badago, izan liteke zuri bilakatzen den 1012a) zerbait ere "ez-zuria" denaren baitatik sortua ez dena, baina hau ez da ikusten.

Gainera, arrazoitu eta pentsatu egiten den guztia pentsamenduak, edo baieztatu edo ezeztatzen du -hau argi dago definizioz- egiazkoa edo faltsukeria esaten duenean; horrela, bada, baieztatzean edo ukatzean modu 5) batez lotzen duenean egiazkoa esaten du, eta beste modu batez lotzean, berriz, faltsukeria.

Honez gain, kontraesan guztiez aparte, nahitaez izango da <zerbait>, hau ez bada berriketa hutsarengatik esaten. Honen ondorioz, baten batek esan lezake ez egiazko, ezta ez-egiazko den zerbait ere, eta "den-a" eta "ez den-a"z aparteko zerbait izango da; beraz, genesi eta ustelduraz aparte nolabaiteko bilakaera bat ere izango da.

Are gehiago, ezeztapenak kontrakoa gaineratzen duen genero 10) horietan guztietan ere izango da <bitartekoa>; esaterako, zenbakietan

izango da ez bakoitia, ezta ez-bakoitia den zenbaki bat ere. Baina hau ezinezkoa da, definizioaz argi dagoenez.

Gainera, hau prozesu amaigabe baterantz abiatzen da eta den guztia "bat gehi erdi" ezezik gehiago ere izango dira. Izan ere, bitarteko hau berriz ukatzea izango da, baieztapenaren eta ezeztapenaren arabera, eta hau 15) ere zerbait izango da, bere substantzia beste bat baita.

Are gehiago, zerbait zuria ote den galdetuta norbaitek ezetz erantzun badu, izatea bera baino ez du ukatu, eta ezeztapena ez-izatea da.

Filosofo batzuek heldu diote iritzi honi beste zenbait paradoxari bezalaxe. Izan ere, arrazonamendu eztabaidariak askatzerik ez dutenean, 20) arrazonamenduari heldurik, ondorioa egiazkoa dela onartzen dute. Eta, hain zuzen ere, honako kausarengatik baieztatzen dute batzuek doktrina hau, beste batzuek, ordea, gauza guztien azalpena bilatzen dutelako. Hala ere hauen guztien printzipioa definiziotik abiatzen da, eta definizioa filosofo haiek nahitaez esanahi duen zerbait esatetik sortzen da. Izan ere, definizioa izango da nozioa, zeinaren adierazlea izena den.

25) Bestalde, badirudi Heraklitoren doktrinak, dena badela eta ez dela baieztatzean, gauza guztiak egiazkoak egiten dituela, eta Anaxagorasekin, berriz, kontraesanen artean bitarteko bat badela baieztatzean, dena faltsu egiten duela, nahasturik daudenean, nahastura ez baita, ez ona, ezta ez-ona ere, eta honen ondorioz ez dago egiazko ezer esaterik.

## VIII

Behin zehaztasun hauek eginda, agerian dago ezinezkoa dela 30) modu bakar batez zein orokorrean baieztatzen dena batzuek esaten duten bezala suertatzea, zenbaitek egiazko ezer ez dela baieztatzen dutelarik (denetan diagonalaren neurrigarritasunarekin bezalaxe gertatzeko eragozpenik ez dagoela diote) eta beste zenbaitek, berriz, dena egia dela baieztatzen dute. Izan ere, arrazonamendu hauek ia bat datoz Heraklitorenarekin, dena egiazkoa eta dena faltsua dela esaten duenak, 35) banan-banan hartuta ere baieztatzen baititu esakune hauek, eta honen ondorioz haiek ezinezkoak baldin badira, hauek ere ezinezkoak izango dira.

Gainera, begi-bistan dago badirela kontraesanak aldi berean egiazkoak izaterik ez dutenak -bestalde, ezta denak faltsuak izan ere, nahiz eta, esandakoarengatik, azkeneko hau neurri handiagoz litekeena dela iruditu-.

Baina aurreko arrazonamenduetan ere esana den bezalaxe, 5) doktrina hauen guztien aurrean eskatu behar da ez zerbait izatea ala ez izatea, zerbait adieraztea baizik, eta honen ondorioz definizio batetik abiatuko da eztabaida, "faltsua" edo "egiazkoa" izateak zer adierazten duen ezarri ondoren. Eta, bestalde, egiazko dena baieztatzea edo faltsu dena ezeztatzea besterik ez baldin bada, orduan ezinezkoa da gauza guztiak 10) faltsuak izatea, nahitaez izango baita egiazkoa kontraesanaren alde bietako bat.

Gainera, dena edo baieztatu edo ezeztatu behar baldin bada, ezinezkoa da biak ala biak faltsuak izatea, kontraesanaren alde bat baita faltsua. Eta doktrina hauekin guztiekin gertatzen da behin eta berriz errepikatzen dena: beraiek ezabatzen dute beren burua. Izan ere, dena 15) egiazkoa dela esaten duenak berearen kontrakoa ere egiazko egiten du, eta honen ondorioz berea ez-egiazko bilakatzen da (kontrakoak hau egiazkoa denik ukatzen baitu) eta beste aldetik, dena faltsua dela esaten duenak bere burua ere faltsutzat jotzen du. Baina salbuespen bezala bata kontrakoa proposatzen badu egiazkoa ez den bakarria bailitzan, eta besteak 20) berea faltsua ez bailitzan, neurri berean gertatuko zaie ari direla eskatzen esakune amaigabeak, egiazkoak nahiz faltsuak; egiazko esakunea egiazkoa dela esatea egiazkoa baita, eta hau prozesu amaigabea da.

[Bestalde, begi-bistan dago ez dutela egia esaten, ez gauza guztiak geldirik daudela baieztatzen dutenek, ezta gauza guztiak mugimenduan daudela baieztatzen dutenek ere. Izan ere, gauza guztiak geldirik badaude, berak 25) izango dira beti egiazkoak eta faltsuak, baina hau aldakor agertzen da (hau baieztatzen duen pertsona bera ere ez baitzen garai batean, eta hurrengo batean ez da izango). Bestalde, gauza guztiak mugimenduan badaude, ezer ez da egiazkoa izango eta, ondorioz, gauza guztiak faltsuak izango dira. Baina frogatuta dago hau ezinezkoa dela. Gainera, bilakatzen dena nahitaez izango da "den" zerbait, bilakaera zerbaitetik zerbaitera gertatzen baita. Hala ere, gauza guztiak ez daude batzuetan geldirik eta beste 30) batzuetan mugimenduan, ezer betierekotasunean iraun gabe. Izan ere, bada zerbait mugitzen diren gauzak mugiarazten dituen beti, eta Mugiarazle Lehena da, berez, geldia].

BOSGARREN LIBURUA (D)

I

"Printzipio" esaten zaio, lehenengoz, baten batek zerbait mugitu 35) ahal izateko duen abiapuntuari; adibidez, luzeraren eta bidearen 1013a) printzipioa haxe izango da alde honetatik, baina beste aldetik, beste hori.

Printzipio esaten zaio, bestalde, gauza bakoitzak ongien gertatzeko duen abiapuntuari; adibidez, ikasketa batean ez da lehenengotik edo gaiaren hasieratik hasi behar, batzuetan ikasterrazena den abiapuntutik baizik.

Eta printzipio esaten zaio zerbait egiteko gauzaren baitan dagoen 5) abiapuntu lehenari, adibidez: itsasuntzi batena gila da; etxe batena, zimendua, eta animaliena, batzuen ustez bihotza, beste batzuentzat burmuina eta beste zenbaitentzat, antzeko den edozein gorputz-atala.

Printzipio esaten zaio zerbait egiteko gauzaren baitan egon gabe honen abiapuntu lehena denari, mugimenduaren eta bilakaeraren berezko abiapuntua denari, alegia; adibidez: aita eta amarengandik sortzen da haurra, eta irainetik liskarra.

10) Printzipio esaten zaio bere nahiaz mugitzen diren gauzak mugitu eta bilakatzen direnak bilakatu egiten dituen horri, hirietan magistratuei, autoritateei, erregetzari eta tiraniei printzipio esaten zaien bezala; eta arteei ere bai, eta hauetan, neurri handiagoz, arkitektonikoei. Honez gain, gauza bat ezagungarri egiten duen abiapuntu lehena den horri 15) ere gauzaren printzipio esaten zaio; adibidez: demostrazioen printzipioak premisak dira.

Eta kausak ere beste honenbeste zentzutan esaten dira, kausa guztiak printzipioak baitira. Eta printzipio guztiek baterako dute zerbait izateko, edo sortzeko, edo ezagutzeko abiapuntu lehena izatea. Eta printzipio hauetatik, batzuk gauzaren berebaitakoak dira eta beste batzuk, 20) berebaitatik kanpokoak; horregatik dira printzipioak natura eta osagaia, pentsamendu eta nahimena, eta substantzia eta helburu den hori. Izan ere, ongia eta edertasuna askotan izaten dira ezagutzaren zein mugimenduaren printzipio.

## II

"Kausa" esaten zaio, lehenengo zentzu batean, zerbait sortzeko berebaitako den abiapuntuari; adibidez, brontzea gizan irudiarena da, zilarra 25) edalontziarena, eta hauen generoak ere bai. Beste zentzu batean, kausa esaten zaie formari eta ereduari, eta hauxe da esentziaren eta honen generoen definizioa (adibidez, zortzidun bitartearena bitik baterako proportzioa da eta, orokorrean, zenbakia), eta definizioaren zatiak ere bai. Honez gain, kausa esaten zaio bilakaeraren edo geldialdiaren 30) lehenengoa den printzipioaren abiapuntuari; adibidez, aholkua eman duena kausa da, eta aita haurrarena eta, orokorrean, egilea egindakoarena eta bilakaeraren eragilea bilakatutakoarena.



Bestalde, badago kausa xedea den aldetik: haxe da "helburu den hori"; adibidez, paseoan ibiltzearen kausa osasuna da. Izan ere, zer dela eta paseoan ibili? "Osasuna izateko" esaten dugu. Eta honela erantzunda, 35) kausa eman dugulakoan gaude.

Eta mugiarazlea beste bat izanda ere xedea lortu bitartean 1013b) sortzen diren horiek ere kausa dira; esaterako, osasunaren kausa argaltzea da, edo purgatzea, edo botikak edo medikuntza-tresnak, gauza hauek guztiak xedearengatik baitira, eta batzuk tresnak eta besteak ekintzak izatean datza elkarren arteko diferentzia.

Horrela, bada, kausak honelako zentzu hauetan esaten dira, gutxi 5) gora-behera. Baina kausak zentzu askotan esaten direnez, gauza berak kausa asko izatea gertatzen da, ez akzidentalki (adibidez, eskultura-arteak nahiz brontzea, giza irudiaren kausa dira giza irudia den aldetik, eta ez bestelako zerbaiten arabera; baina ez modu berean: bata materia den aldetik da kausa eta bestea, mugimenduaren abiapuntua den aldetik).

Eta elkarrekiko kausak ere badira (adibidez, ariketa fisikoa 10) ongizatearena da eta hau, ariketa fisikoarena; baina ez modu berean: bata xedea den aldetik da kausa eta bestea mugimenduaren printzipio den aldetik). Gainera, gauza bera kontrakoaren kausa da: bertan egonik kausa den honako hau ez dagoenean, batzuetan, kontrakoaren kausatzat hartzen baitugu; esaterako, untzi-galtzearen kausa untzizainaren falta dela uste 15) dugu, hura bertan egotea salbamenduaren kausa izanik. Biak ala biak dira kausak, bai bertan egotea, bai falta izatea, mugiarazleak diren aldetik.

Bestalde, orain aipatutako kausa guztiak argien ikusten diren lau kausa-klasetan sailkatzen dira. Izan ere, letrak silaben kausa dira, materia 20) tresnena, sua eta lurra eta honelako guztia gorputzena, zatiak osoarenak eta premisak konklusioarenak, gauzaren osagai diren aldetik. Eta hauetatik, batzuk azpigai diren aldetik dira kausa -zatiak, adibidez- eta beste batzuk esentzia diren aldetik -osoa, konposaketa eta formak, adibidez-.

Bestalde hazia, sendagilea, aholkua eman duena eta, orokorrean, 25) egile diren guztiak, bilakaeraren edo geldialdiaren printzipioaren abiapuntu

dira. Eta badira beste kausa batzuk gainerako gauzen xedearen eta ongiaren kausa diren aldetik, helburu den horrek onen eta gainerako gauzen xedea izan nahi baitu, eta ez bedi axola izan ongia bere baitan ala itxurazko ongia den esatea.

Horrela, bada, hauexek dira kausak eta honelakoa da haien espezien kopurua; eta kausen modalitateak kopuru aldetik asko diren arren, 30) hauek ere, laburbilduz, gutxi batzuk dira.

Kausak zentzu askotan esaten dira eta espezie berekoak direnen artean batzuk aurrekoak eta beste batzuk ondorengoak dira elkarrekiko; adibidez, sendagilea eta artetegilea osasunaren kausa dira, bikoitza eta zenbakia, zortzidun bitartearenak, eta beti bere baitan banako kausaren bat duen kausa guztiak izaten dira banako ondorioen kausa.

Honez gain, badago akzidentea den aldetiko kausak eta hauen 35) generoak; adibidez, giza irudiaren kausa: alde batetik, Polikleto da zentzu batean eta beste zentzu batean, irudigilea da, akzidentalki gertatzen 1014a) baita irudigilea Polikleto dela. Eta bere baitan akzidentea dutenak ere kausak dira; adibidez, giza irudiaren kausa gizaki bat da edo, orokorrean, animalia ere bada, Polikleto gizakia baita eta gizakia, animalia. Bestalde, akzidenteen artean ere badira elkarrekiko gertuago eta urrunago suertatzen direnak; adibidez, gizairudiaren kausa zuria eta musikaria direla esaten 5) baldin bada [eta ez bakarrik Polikleto edo gizakia].

Kausa guztiak zentzu propioan nahiz akzidentalean esateaz aparte, batzuk potentzian diren aldetik esaten dira eta beste batzuk egintzan; adibidez eraikitzearen kausa, arkitektoa edo eraikitzen ari dena dira. Eta 10) gauza bera esan daiteke kausak kausa izatearen ondorioez ere; adibidez, honelako gizairudiaren kausa denaz, edo giza irudiaren kausa

denaz edo, orokorrean, irudi baten kausa den horretaz; eta honelako brontzearen kausa denaz, edo brontzearen kausa denaz edo, orokorrean, materiaren kausa den horretaz. Eta gauza bera akzidente diren kausei dagokienez. Gainera, bai hauek, bai beste haiek, elkar loturik esan daitezke;

adibidez, ez Polikleto, ezta irudigile bat ere, Polikleto irudigilea baizik. 15) Baina, nolanahi ere, kausa hauek sei dira guztira, bakoitza bi zentzutan esaten delarik: izan ere, banako den aldetik edo genero den aldetik, akzidente den aldetik edo akzidentearen generoa den aldetik, elkar loturik 20) diren aldetik edo aipamen soila den aldetik, eta denak, edo egintzan direlarik edo potentzian. Bestalde, honako honetan bereizten dira: egintzan direnak eta banako kausak badira izan eta ez dira kausatzen dituzten gauzen ondorioekin batera; adibidez, sendatzen ari den hau eta sendatua izaten ari den hori, eraikitzen ari den etxegile hau eta eraikia izaten ari den etxe hori; aitzitik, 25) potentzian diren kausak ez dira beti aldi berean ematen, ez baitira aldi berean deuseztatzen etxea eta etxegilea.

### III

"Osagai" esaten zaio zerbait osatzeko berebaitako abiapuntu lehena den horri, espezifikoki beste espezie desberdinetan zatiezina denari; adibidez, soinu artikulatuaren osagaiak soinu artikulatua osatzen duten abiapuntuak dira eta soinua zatitzen deneko azkenak, hauek ezin baitira 30) espezifikoki bestelako soinu desberdinetan zatitu; aitzitik, zatituz gero, espezie berekoak izango dira zatiak, esaterako uraren zati bat ura da, baina silabaren zati bat ez da silaba. Eta gauza bera baieztatzen dute gorputzen osagaiak gorputzak zatitzen direneko azken zatiak direla esaten dutenek, azken zati hauek bestelako espezie desberdinetan zatitu ezin direlarik. Eta 35) halako zati bat izan ala bat baino gehiago izan, hauexek izendatzen dituzte osagai.

Honen antzera geometria-irudienak ere osagai izendatzen dira eta, orokorrean, demostrazioenak; demostrazio lehenak eta beste 1014b) demostrazio askoren baitan aurkitzen diren horiek baitira demostrazioen osagai izendatzen direnak.

Eta hemendik abiatuz eta metaforikoki esanda, bat eta txikia izanik gauza askotarako baliagarria dena ere osagai izendatzen dute;

5) horregatik esaten zaio osagai txikia, bakuna eta zatiezina denari. Hortik ateratzen da unibertsalenak osagaiak izatea, bakoitza bat eta bakuna izanik, berebaitako direlako gauza askotan -guztietan edo gehienetan-, eta "bata" eta "puntua" printzipioak omen dira batzuentzat.

Eta generoak deiturikoak unibertsalak eta zatiezinak direnez gero

10) (hauen definiziorik ez baitago), batzuek esaten dute generoak direla osagaiak, eta diferentzia baino neurri handiagoz, generoa diferentzia baino unibertsalagoa baita; diferentzia ematen den horretan generoa ere ematen da, baina generoa ematen den hartan ez da kasu guztietan diferentzia ematen. Eta hauek guztiek dute baterako gauza bakoitzaren osagaia 15) berebaitako den lehenengo hori izatea.

#### IV

"Natura" esaten zaio, zentzu batean, hazten diren gauzen genesiari; adibidez, norbaitek u -a luzatuz esaten badu. Beste zentzu batean, hazten dena hazteko lehenengo eta berebaitako den abiapuntuari. Gainera, natura esaten zaio naturaz diren gauzetan eta hauetan berez berebaitako den mugimendu lehenaren abiapuntuari.

20) Eta bestelako zerbaiten bidez -bai elkar-ukitzez eta batasun organikoz, bai garapenez, enbrioia bezalaxe- tamainaz handitzen diren gauzak ere hazi egiten direla esaten da. Baina batasun organikoa eta elkar-ukitzea bereizi egiten dira; elkar-ukitzean honetaz aparte ezer izatea ez da nahitaezkoa, baina batasun organikoan loturik dauden gauzetan, bietan badago zerbait bat eta gauza bera dena: honek egiten du elkar loturik egotea 25) eta ez bakarrik elkar-ukitzea, baita jarraipenaren eta kantitatearen arabera bat izatea ere, baina ez kalitatearen arabera.

Gainera, natura esaten zaio naturaz diren horietako edozein gauza izan edo sortzeko abiapuntu lehenari, hau formarik gabea eta bere berezko potentziaz aldaezina delarik; adibidez, brontzea giza irudiaren eta 30) brontzezko tresneriaren natura dela esaten da, egurra egurrezkoena.

Eta berdin gainerako gauzetan. Izan ere, gauza bakoitza haietaz dago egina, materia lehenak irauten duelarik, zentzu berean esaten baitute natura dela naturaz diren gauzen osagaiak ere: batzuek sua, beste batzuek lurra, hauek airea, beste horiek ura, zenbaitek honelako beste zerbaite, 35) batzuek hauetako baten bat eta beste batzuek, berriz, hauek denak.

Honez gain, natura esaten zaio beste zentzu batean naturaz diren gauzen substantziari; hauen adibide ditugu natura gauzen osaketa lehena 1015a) dela esaten dutenak, edo Enpedoklesekin dioena:

1a) "ez dago den guztiaren naturarik, baizik eta

2) nahastutakoaren nahastura eta bat egitea bakarrik,

2a) nahiz eta hau natura izendatu gizakiek."

Horregatik naturaz diren edo sortzen diren gauza horietaz ere, nahiz eta berez izateko edo sortzeko duten abiapuntua jadanik izan, ez dugu 5) oraindik esaten dagokien natura dutenik espezie eta forma ez badute. Beraz, batzuek eta besteak osatutakoa da naturaz, animaliak eta hauen zatiak bezala.

Baina natura materia lehena ezezik (hau bi zentzutan: edo lehena gauzari dagokionez edo lehena orokorrean; adibidez, brontzezko gauzei dagokienez, brontzea da lehena haiekiko, baina orokorrean, agian ura 10) izango da, urtu egiten den guztia ura baldin bada), natura espezie eta substantzia ere bada. Eta horixe da genesiaren xedea. Horregatik kasu honetan eta orokorrean esanahia zabalduz, substantzia orori esaten zaio natura, natura ere nolabaiteko substantzia bat baita.

Horrela, bada, esandakoarengatik, haxe da natura lehena eta 15) zentzu nagusian izendatua: mugimenduaren printzipioa beren baitan eta berezko duten gauzen substantzia; izan ere, materiari hura jasotzeko gai delako esaten zaio natura, eta genesiak eta hazkuntza harengandik sortutako mugimenduak direlako. Eta bera da naturaz diren guztien mugimenduaren printzipioa eta, nolabait, haien berebaitakoa, potentzian nahiz entelekian.

V

20) "Beharrezko" esaten zaio gauza hari, zeinaren faltak, ezinbesteko baldintza den aldetik, bizitza ezinezkoa egiten duen; adibidez, arnasketa eta elikadura beharrezkoak dira animaliaarentzat, haiek gabe ezinezkoa baita hau izatea.

"Beharrezko" ere bada gauza hori, zeinaren faltaz ezinezkoa den ongia izan edo sortu, edo gaizkia kanpora bota edo ezeztatu; adibidez, botika 25) edatea beharrezkoa da gaixorik ez egoteko, eta Eginarantz bidaiatzea dirua kobratzeko.

Honez gain, bortitza denari eta indarrari; hau, bestalde, joeraren eta nahiaren kontra eragotzi eta oztopatzen duena da. Izan ere, bortitza denari "beharrezko" esaten zaio, eta horregatik mingarria ere bada, Evenok ere dioenez:

29a) "beharrezko ekintza oro baita, berez, penagarria"<sup>28</sup>;

30) eta indarra nolabaiteko beharra da, Sofoklesek ere esaten duen bezala:

31) "baina indarrak honela egitera behartzen nau"<sup>29</sup>,

eta beharrak konbentzigitza den zerbait dirudi, arrazoiez, nahiaren eta arrazonamenduaren arabera mugimenduaren kontrakoa baita.

Gainera, beste modu batez ez daitekeena beharrezkoa da honela izatea. Eta beharrezkoaren esanahi honen arabera gainerako gauza 35) guztiak ere izendatzen dira, nolabait, beharrezkoak. Bortitza dena nahitaez egin edo jasan behar dela esaten da bortxakeria dela medio 1015b) joeraren arabera egitea ezinezkoa denean, beharra, hain zuzen ere, beste modu batez izatea ezinezkoa egiten duen hori bailitzan; eta gauza bera bizitzaren ezinbesteko baldintzei eta ongiari dagokienez. Izan ere, ongia kasu batzuetan eta bizitza eta izatea beste zenbaitetan ezinezkoak direnean 5) zenbait gauza falta badira, orduan hauek beharrezkoak dira eta kausa hau nolabaiteko beharra da.

Honez gain, demostrazioa beharrezko diren gauzetako bat da, ezinezkoa baita beste modu batez izatea erabateko demostrazioa egin bada. Eta honen kausa premisa lehenak dira, ezinezkoa baldin bada silogismoaren abiapuntuak beste modu batez izatea.

Horrela, bada, batzuetan zenbait gauza beharrezko izatearen kausa beste gauza bat izaten da, baina beste 10) zenbaitetan, ez; aitzitik, berauek izaten dira beste gauza batzuk nahitaez izatearen kausa.

Beraz, zentzu nagusian beharrezkoa den lehenengo gauza bakuna den hori da. Izan ere, honek izateko modu bat baino gehiago ezin du izan eta, ondorioz, ezin honela edo horrela izan -orduan izateko modu asko

izango bailituzke-. 15) Horrela, bada, betiereko eta geldiak diren gauzarik baldin badago, haietan ez da ezer bortitzik edo naturaren kontrakorik izango.

## VI

Zerbait "Bat" dela bai akzidentalki, bai berez, esaten da; akzidentalki, adibidez "Korisko" eta "musikaria", eta "Korisko musikaria" ere bai (gauza bera baita "Korisko" eta "musikaria", edo "Korisko 20) musikaria" esatea), eta "musikaria" eta "zuzena", eta "Korisko musikari zuzena" ere bai, gauza hauek guztiak akzidentalki direla bat esaten baita: "zuzena" eta "musikaria" akzidentalki ematen direlako bat den substantzia batean; "musikaria" eta "Korisko" hura honengan akzidentalki ematen delako; era berean, "Korisko musikaria" k Koriskorekin bat egiten du 25) zentzu batean, esakunearen zati bat - "musikaria"- akzidentalki ematen baita bestean - "Korisko"-; eta "Korisko musikaria" k ere bat egiten du "Korisko zuzena" rekin, esakune bakoitzaren zati bat akzidentalki ematen delako subjektu berean, hau bat delarik. Eta gauza bera gertatzen da akzidentea generoaz eta nolabaiteko unibertsal baten izenez esaten bada; 30) adibidez, "gizakia" eta "gizaki musikaria" gauza bera dela esaten bada, edo "musikaria" akzidentalki ematen delako gizakiarengan, hau substantzia bakar bat izanik, edo biak ala biak akzidentalki ematen direlako banako batengan, adibidez, Koriskorengan.

Baina biak ez dira zentzu berean ematen: bata, ziurraski, genero eta substantzian berebaitako zerbait den aldetik eta bestea, 35) substantziaren egoera eta afekzio den aldetik. Horrela, bada, akzidentalki bat dela esaten den guztia zentzu honetan esaten da. Berez direla bat esaten den gauzetatik, batzuk jarraian izateagatik 1016a) esaten da bat direla, esaterako egur sorta bat lokarriarengatik eta egurrak kolaz itsatsita egoteagatik. Eta lerroa, hautsia izanik ere jarraian

baldin bada, bat dela esaten da, gorputz-atalak bezalaxe, hanka bat eta beso bat, adibidez. Eta naturaz jarraian ematen direnak neurri handiagoz dira bat artez ematen direnak 5) baino. Eta jarraia esaten zaio horri, zeinaren mugimendua berez bat izan eta bestela izaterik ez duenari; eta mugimendua bat da zatiezina baldin bada, eta zatiezina denboraren arabera. Eta berez da jarraia bat den guztia, baina ez elkar-ukitzeaz; izan ere, egurrak elkar-ukituz jartzen badituzu ez duzu esango hori bat den zerbait denik, ez egur puska, ez gorputz bat, ezta 10) jarraia den ezer ere. Horrela, bada, guztiz jarraiak diren gauzak bat direla esaten da makurdura badute ere eta, neurri handiagoz, makurdurarik ez badute; adibidez, tibia-hezurra edo izterra hanka baino jarraiagoak dira, litekeena baita hankaren mugimendua bat bakarra ez izatea. Eta lerro zuzena neurri handiagoz da bat lerro hautsia baino; hain zuzen ere, lerro hautsia eta angeludunaz bat dela eta bat ez dela esaten dugu, litekeena baita 15) bere mugimendua baterakoa eta ez-baterakoa izatea; baina lerro zuzenarena beti izaten da baterakoa, eta ez dago luze-zabalera duen honen zatirik geldirik dagoenik beste zati bat mugimenduan dagoen bitartean, lerro hautsiarekin gertatzen den bezala.

Honez gain, beste zentzu batean "bat" esaten zaie espezifikoki desberdin ez den azpigai bat duten gauzei. Eta azpigaia ez da desberdina bere espeziea sentazioaren arabera zatiezina denean; eta azpigaia da, edo 20) lehenengoa edo xedeari dagokionez, azkenekoa. Izan ere, espeziearen arabera zatiezinak diren aldetik ardoa bat dela esaten da, eta ura ere bai, eta likido guztiak ere bat direla esaten da (olioa, ardoa, esaterako) eta urtu egiten diren gauzak ere bai, denek baitute azkeneko azpigai bera: denak baitira ura edo airea.

Genero bat duten gauzak ere bat direla esaten da, nahiz eta 25) kontrako desberdintasunez bereizi. Eta gauza hauek guztiak bat direla esaten da, desberdintasunen azpigaiaren generoa bat delako (esaterako zaldia, gizakia eta zakurra bat dira, denak animaliak direlako), materia bat dela esaten den bezalatsu.

Batzuetan honela esaten da gauza hauek bat direla eta beste batzuetan, berriz, goiko generoa bera dela esaten da, 30) eta generoaren



azkeneko espezieak baldin badira, espezie gorena; adibidez, isoszele eta aldekidea irudi bat eta irudi bera dira, biak ala biak triangeluak direlako, baina ez triangelu bera.

Gainera, bat esaten zaie horiei guztiei, zeintzuen definizioa -esentzia adierazten duen esakunea- hura adierazten duen beste edozein 35) esakunetatik zatiezina den (esakune oro baita, berez, zatigarria). Horrela, bada, "hazi egin dena" eta "murrizten dena" bat dira, definizioa bat baita, azaleretan espeziearen definizioa bat den bezala.

1016b) Orokorrean, <bat dira>gauza horiek, zeintzuez adimena -espeziea adigarri egiten duena- zatiezina den, eta adimenak banatzerik ez dituen, ez denborari, ez lekuari, ezta definizioari dagokienez ere; gauza hauek nagusiki dira bat, eta hauen artean substantziak diren horiek. Izan ere, orokorrean, zatiezinak diren gauza horiek guztiak, zatitzerik ez duten 5) aldetik, bat direla esaten da; adibidez, gizakia den aldetik baldin bada zerbait zatiezina, hori gizaki bat da; animalia den aldetik baldin bada, animalia bat da eta luze-zabalera den aldetik baldin bada, hori luze-zabalera bat da.

Horrela, bada, gauza gehienak edo zerbait egin, edo eduki, edo jasan edo bat den beste zerbaiti dagokienez esaten dira "bat"; bestalde, lehenengo zentzu batean, substantzia bakar bat duten gauzak direla bat 10) esaten da, bat jarraian emateagatik, edo espeziez edo definizioz; izan ere, anizkoitzat hartzen ditugu jarraian ematen ez diren gauzak, edo esentzia bakarrekoak ez direnak edo definizio bakarrekoak ez direnak.

Gainera, zentzu batean, bat dela esaten dugu edozertaz, honek kantitatea izanik, jarraian ematen bada, baina beste zentzu batean ez, oso bat osatzen ez badu, hots, espezie aldetik bat ez bada; adibidez, zapata-zatiak 15) edonola jarrita ikustean ez genuke esango "bat" osatzen dutenik, jarraian ematen direlako ez bada, baina bai zapata osatzeko moduan jarrita baldin badaude, jadanik nolabaiteko forma bat badute, alegia. Horregatik -eta lerroekin konparatuz- zirkunferentzia da nagusiki bat, osoa eta burutua delako.

"Bat izatea" nolabaiteko "zenbaki-printzipio izatea" da, neurketa lehena printzipio baita. Izan ere, genero bakoitza ezagutzeko dugun lehenengo ezagupidea neurketa lehena da. Beraz, Bata gauza bakoitzean 20) ezagungarria denaren printzipioa da. Baina, bestalde, Bata ez da gauza bera genero guztietan: hemengo honetan tonu-erdiko bitartea da, beste horretan bokala edo kontsonantea; desberdina da pisuaren unitatea eta beste bat da mugimenduarena. Baina kasu guztietan Bata da kantitatearen edo espeziearen arabera zatiezina dena. Horrela, bada, kantitatearen arabera 25) zatiezina denari "monada" esaten zaio erabatekoa eta posiziorik gabea baldin bada, "puntua" erabatekoa eta posizioduna baldin bada; "lerroa" dimentsio bakarrez zatigarria baldin bada, "azalera" bi dimentsioz baldin bada zatigarria eta "gorputza" kantitatearen arabera erabat eta hiru dimentsioz zatigarria dena. Eta alderantziz: bi dimentsioz zatigarria dena "azalera" da; dimentsio batez "lerroa"; eta kantitatearen arabera inola ere 30) zatigarri ez dena, "puntua" eta "monada": posiziorik ez badu, "monada", eta posizioa baldin badu, "puntua".

Beraz, gauza batzuk dira bat zenbakiaren arabera, beste batzuk espeziearen arabera; zenbait, generoaren arabera eta beste zenbait, analogiaz; zenbakiaren arabera materia bakarrekoak, espeziearen arabera definizio bakarrekoak, generoaren arabera, predikazioaren irudikapen bera dutenak 35) eta analogiaz, elkarrekiko proportzio bera duten horiek. Bestalde, ondorengo modalitateak aurrekoekin batera suertatzen dira beti; hain zuzen ere, zenbakiz bat diren gauzak espeziez ere bat izaten dira, baina espeziez bat direnak ez dira denak bat zenbakiz; era berean, espeziez bat diren guztiak 1017a) generoaz ere badira bat, baina generoz bat diren guztiak ez dira denak bat espeziez, baina bai analogiaz. Eta analogiaz bat diren guztiak ez dira denak bat generoz.

Agerian dago Anitza Bataren kontrako zentzuan esango dela; batzuetan gauzak jarraian ematen ez direlako, beste batzuetan materia -lehena edo burutua- espeziearen arabera zatigarria delako, eta beste zenbaitetan definizioak -esentzia esaten duten esakuneak- bat baino gehiago direlako.

## VII

"Den-a" bai akzidentalki, bai berez esaten da; akzidentalki, adibidez, "zuzena" "musikaria" dela esaten dugu, "gizakia" "musikaria" 10) dela eta "musikaria" "gizakia"; honen antzera musikaria etxea egiten ari dela esaten dugu, akzidentalki suertatzen zaiolako etxegileari musikaria izatea, edo musikariari etxegilea izatea ( "hau honelako gauza bat da" esateak honi "honelako gauza bat" akzidentalki suertatzen zaiola adierazten du); eta berdin esaten dugu aipatutakoei buruz.

15) Izan ere, gizakia musikaria dela eta musikaria gizakia dela esaten dugunean, edo zuria musikaria dela edo musikaria zuria dela esatean, azkeneko honetan biak akzidentalki suertatzen zaizkiolako subjektu berari esaten dugu, gizakia musikaria dela, hau "den-a"ren akzidentea delako eta musikaria gizakia dela gizakiari akzidentalki suertatzen zaiolako musikaria izatea (zentzu berean esaten da ez-zuria ere badela: akzidentalki hau suertatzen zaion hura baita).

20) Horrela, bada, akzidentalki suertatzen direla esaten diren gauzak honela esaten dira: edo biak "den" berberari suertatzen zaizkiolako, edo hura "den" zerbaitetan suertatzen delako, edo hura, zeinaren baitan predikatzen dena suertatzen den, bera delako.

Bestalde, predikatuaren irudiek adierazten dituzten gauza horietaz "berez" direla esaten da; izan ere, zenbat esateko modu, hainbat 25) izatearen esanahi. Gauzak horrela, predikatuen artetik batzuek zerkia, beste batzuek kalitatea, beste batzuek kantitatea, beste batzuek erlazioa, beste batzuek ekintza edo afekzioa, beste batzuek non eta beste batzuek noiz adierazten dutenez, "izateak" eta hauetako bakoitzak gauza bera adierazten dute.

Izan ere, ez dira ezertan bereizten "sendatzen den gizakia" eta "gizakia sendatzen da", ezta "paseeran eta egurra ebakitzen dabilen gizakia" 30) eta "gizaki bat paseeran eta egurra ebakitzen ari da" ere; eta gauza bera gainerako predikatuei dagokienez. Gainera, "izatea"k eta "da"k zerbait egiazkoa dela adierazten dute, eta "ez-izatea"k, egiazkoa ez dela, faltsua baizik, baieztapenean zein ezeztapenean; adibidez, "Sokrates musikaria da" esateak hori egiazkoa dela adierazten du, edo "Sokrates ez-zuria da" esateak hori egiazkoa dela;

35) baina "diagonala ez da neurgarria" esateak faltsua dela adierazten du. 1017b) Gainera, aipatutako hauei dagokienez, "izatea"k eta "den-a"k batzuetan potentzian eta beste batzuetan entelekian dena adierazten dute. Izan ere, "ikusle" esaten diogu ikus dezakeenari zein ikusten ari denari, eta berdin "ezagutzen du"; hau esaten diogu ezagutzaz balia daitekeenari zein baliatzen denari, eta "lasaia da" esaten diogu lasaitasuna jadanik beregan 5) duenari zein lasaitzeko gauza denari.

Eta berdin substantziei dagokienez; Hermes harrian dela esaten dugu, eta lerroan lerro-erdia dela, eta oraindik heldu ez dena garia dela. Baina beste leku batean<sup>30</sup> zehaztu beharko da noiz den zerbait potentzian eta noiz ez den oraindik.

## VIII

10) "Substantzia" izendatzen dira gorputz bakunak, adibidez, Lurra, Sua, Ura eta honelakoak; eta, orokorrean, gorputzak eta hauetaz osaturikoak, bai animaliak, bai jainkoak, baita hauen zatiak ere. Gauza hauek guztiak substantzia direla esaten da, ez subjektu baten arabera predikazio direlako, gainerako gauzak haien arabera predikatzen direlako baizik. Beste zentzu batean, substantzia izendatzen da subjektu baten arabera 15) predikatzen ez diren gauzetan izatearen kausa berebaitakoa dena, adibidez, arima animalia-arentzat.

Honez gain, substantzia izendatzen dira berebaitako diren zatiak, hauek mugatuak eta zerbait jakina adierazten badute, haien deuseztapena osoaren deuseztapena delarik; adibidez, azalera deuseztaturik gorputzik ez 20) dago, batzuek dioten bezala, eta lerroa deuseztaturik azalerarik ez. Eta, orokorrean, zenbaitentzat zenbakia honelakoa omen da (zenbakiak zehazten baititu gauza guztiak eta hura deuseztatuz gero ez dago ezer).

Gainera, esentzia ere -zeinaren esakunea definizioa den- gauza bakoitzaren substantzia dela esaten da.

Bestalde, substantzia bi zentzutan esaten dela gertatzen da: batetik azkeneko subjektua, beste ezereen arabera predikatzen ez dena;

25) bestetik, zehaztutako zerbait delarik ere banan daitekeena. Eta honelakoa da gauza bakoitzaren konfigurazioa eta forma.

## IX

"Gauza bera" akzidentalki esaten da kasu batzuetan; adibidez, "zuria" eta "musikaria" gauza bera dira akzidentalki ematen direlako gauza beraren baitan, eta "gizakia" eta "musikaria" akzidentalki ematen delako bata bestearengan, eta "musikaria gizakia da" akzidentalki ematen delako 30) gizakiarengan. Azkeneko hau eta aurreko bata zein bestea gauza bera dira, eta bata zein bestea eta hura, gauza bera dira, gizakia eta musikaria "gizaki musikaria" bezalakoak direla esaten baita, eta hau eta bi haiek gauza bera dira (horregatik ez dira haiek guztiak unibertsalki predikatzen; izan ere, "gizaki guztiak" eta "musikaria" gauza bera direla esatea ez da 35) egiazkoa, unibertsalki predikatzen diren gauzak berez baitira 1018a) berebaitakoak, baina akzidentalki predikatzen direnak ez dira berezkoak, nahiz eta banako soilei buruz predikatu. "Sokrates" eta "Sokrates musikaria" gauza bera omen dira, baina "Sokrates" ez zaio askori esaten, eta horregatik ez da esaten "Sokrates oro" "gizaki oro" esaten den bezala).

Beraz, gauza haiek honela direla "gauza bera" esaten da, eta beste 5) gauza batzuk, berriz, berez direla "gauza bera" esaten da, eta hau "bat" esaten den zentzu horietan guztietan. Izan ere, materia bakarreko gauzak -hau espeziearen arabera edo zenbakiaren arabera- gauza bera direla esaten da, baita substantzia bakarreko gauzak ere; beraz, agerian dago beratasuna izatearen nolabaiteko batasuna dela, edo aniztasun batena, edo aniztasuntzat hartutako izatearena; adibidez, gauza bat berarekiko gauza bera dela esaten denean, bi gauzat hartzen dira.

Bestalde, "beste batzuk" direla esaten zaie, edo espezie, edo 10) materia, edo substantziaren definizioa bat baino gehiago dutenei; orokorrean, "gauza bera" denari kontrajarriz esaten da "beste bat".

"Bereiziak" direla esaten zaie nolabait gauza bera izanik, "beste batzuk" diren gauza horiei, baina ez zenbakiz bakarrik, baizik eta espeziez, edo generoz, edo analogiaz. Hauez gain, generoa "beste bat" dutenei, eta kontrakoei, eta bestetasuna substantzian duten horiei.

15) "Antzekoak" esaten zaie zentzu guztietan gauza berak afektatuak diren gauzei, eta afekzio berak beste batzuk baino gehiago jasaten

dutenei, baita koalitate bakarrekoak direnei ere. Eta "antzekoak" esaten zaie kontrako gehienak edo nagusiak -zeintzuen bidez gauzak alda daitezkeen- dituzten gauzei. Eta antzekoei kontrajarriz "ez-antzekoak" esaten dira.

X

20) "Kontrajarriak" esaten zaie kontraesanari, kontrakoei, erlatiboei, gabeziari eta edukiari, genesien eta ustelduren abiapuntu eta helmuga diren azken muturrei, baita biak jasotzeko gai denaren baitan aldi berean izaterik ez duten horiek ere izendatzen dira "kontrajarriak", beraiek edo haien osagaiak. Izan ere, grisa eta zuria ez dira aldi berean gauza beraren 25) baitan ematen; beraz, kontrajarriak dira haien osagaiak.

"Kontrakoak" izendatzen dira generoz bereiziak direlarik aldi berean gauza beraren baitan izaterik ez duten gauzak; eta genero berekoak izanik, goren neurritz bereizten direnak; eta jasotzeko gai denaren beraren baitan ematen direlarik goren neurritz bereizten direnak; eta potentzia beraren menpe ematen direlarik goren neurri batez bereizten direnak, 30) baita gauza horiek, zeintzuen bereizketa goren mailakoa den, bai zentzu absolutuan, bai generoari dagokionez, bai espezieari dagokionez.

Gainerako gauzak izendatzen dira "kontrakoak" batzuk honelako kontrakoak edukitzeagatik, beste batzuk honelakoak jasotzeko gai izateagatik, beste batzuk honelakoak sortzeko edo jasateko gai izateagatik, edo sortzen edo jasaten dituztelako; beste batzuk honelako kontrakoen 35) galerak, edo eskuratzeak, edo edukiak edo gabeziak direlako.

Gainera, "bat" eta "den-a" zentzu askotan esaten direnez, beste horrenbeste gertatu behar nahitaez haien arabera esaten diren gainerako horiekin; beraz, "gauza bera", "beste bat" eta "kontrakoa" beste horrenbeste gauza izango dira kategoria bakoitzaren arabera.

[ "Beste batzuk espeziearen arabera" izendatzen dira genero 1018b) berekoak izanik elkarren menpe ez dauden horiek; eta genero berean ematen direlarik bereizi egiten direnak; baita substantzian kontrakotasuna duten horiek ere. Eta "elkarrekiko beste batzuk espeziearen

arabera" dira kontrakoak, 5) denak edo lehenengo zentzu batean izendatzen direnak, eta generoaren espezie azkenaren baitan beste definizio batzuk dituzten gauza horiek ere bai (adibidez, gizakia eta zaldia zatiezinak dira generoz, baina haien definizioak beste batzuk dira), baita substantzia beraren baitan ematen direlarik bereizi egiten direnak ere. Bestalde, hauei kontrajarritako gauzak espezie berekoak dira].

#### XI

10) "Aurrekoak" eta "ondorengoak" izendatzen dira gauza batzuk, genero bakoitzean lehenengo eta printzipio den zerbait izanik, printzipioren batetik gertuago izateagatik, printzipio hau zentzu absolutuan eta naturaz, edo erlatiboki, edo nonbait, edo batzuen arabera zehaztuta dagoelarik. Adibidez, gauza batzuk lekuaren arabera dira aurrekoak, naturaz zehaztutako lekuren batetik (erditik edo mutur batetik, esaterako), edo suertatutako zerbaitetik gertuago izateagatik. Urrutiago dagoena ondorengo da.

15) Beste gauza batzuk denboraren arabera (horrela, bada, batzuk orainetik urrutiago izateagatik, iraganean, adibidez; Troiako gerra Mediar gerren aurrekoa baita orainetik urrutiago dagoelako; beste batzuk, berriz, orainetik gertuago izateagatik, geroan, adibidez; Nemear Jokoak Pitiarren aurrekoak baitira, orainetik gertuago daudelako, oraina printzipiotzat eta lehenengotzat hartzen dugularik)

20) Beste gauza batzuk, mugimenduaren arabera (aurrekoa mugimendu lehenetik gertuago dagoena baita; esaterako, haurra gizonaren aurrekoa da. Hau ere nolabaiteko printzipio bat da, zentzu absolutuan.)

Beste gauza batzuk, potentziaren arabera (potentziaz nagusitzen dena, hau da, potenteena, aurrekoa baita. Eta honelakoa da hura, zeinaren nahimenaren araberako abiapuntutik ondorengo den beste zerbait nahitaez ateratzen den, alegia, hark mugitzen ez badu hau ez da mugitzen, 25) eta mugitzen badu, hau mugitu egiten da. Nahimena, hain zuzen ere, printzipio bat da.)

Beste gauza batzuk, ordenaren arabera (eta hauek dira bakarra eta zehatza den zerbaiti dagokionez, arau baten arabera kokatuta dauden horiek; adibidez, korifeoaren ondoan dagoen dantzaria hirugarren lekuan dagoenaren aurrekoa da, eta liraren azkenaurreko soka azkenaren aurrekoa da; batean korifeoa da printzipioa eta bestean erdiko soka, hain zuzen ere.)

30) Zentzu honetan esaten da gauza hauek aurrekoak direla, baina beste zentzu batean, ezagutzaz aurrekoa dena, "aurreko absolutu"tzat hartzen da. Honelakoen artean desberdinak dira nozioaren arabekoak eta sentsazioaren arabekoak: nozioaren arabera unibertsalak dira aurrekoak, eta sentsazioaren arabera, berriz, banakoak; eta nozioaren arabera akzidentea 35) osoaren aurrekoa da; adibidez, "musikaria" "gizaki musikaria"ren aurrekoa da, ez baita nozioaren osoa izango zati bat ez badago, nahiz eta musikaririk ezin izan musikaria den norbait ez bada.

Gainera, "aurrekoak" esaten zaie aurrekoak diren gauzen afekzioei; adibidez, zuzentasuna leuntasunaren aurrekoa da, bata lerroak berez duen afekzioa baita, eta bestea, azalerarena.

1019a) Horrela, bada, gauza batzuk aurrekoak eta ondorengoak direla honela esaten da, beste batzuk, naturaren eta substantziaren arabera direla esaten da, hots, beste gauzarik gabe izatea daukaten gauza horiek, baina ez haiek gabe izaterik ez duten horiek, Platonek erabili ohi zuen bereizketaz<sup>31</sup>. (Eta izatea zentzu askotan esaten denez, lehenengoz 5) subjektua da aurrekoa, eta horregatik da aurrekoa substantzia; gero, beste zentzu batez potentziaren arabera eta entelekiaren arabera; horrela, gauza batzuk potentziaren arabera dira aurrekoak eta beste batzuk, entelekiaren arabera; adibidez, lerro-erdia lerro osoaren aurrekoa da, zatia osoarena eta materia substantziarena, baina entelekiaren arabera ondorengoak dira, desegin ondoren izango baitira entelekian.)

10) Eta, nolabait, aurreko eta ondorengo direla izendatzen diren gauza guztiak hauen arabera esaten dira; izan ere, gauza batzuk izan daitezke besterik izan gabe genesian -esaterako, osoa zatirik gabe-, eta beste zenbait gauza ustelduran -esaterako, zatia osorik gabe-. Eta berdin gainerakoak.

## XII

15) "Potentzia" esaten zaio mugimenduaren edo bilakaeraren printzipioari, beste baten baitan dagoenari edo beste bat den aldetik bere baitan dagoenari; adibidez, eraikitzeke artea eraikitakoaren baitan ematen ez den potentzia bat da; aitzitik, sendatzeko artea sendatutakoaren baitan eman daiteke, baina ez sendatua den aldetik. Orokorrean, potentzia esaten zaio, alde batetik, bilakaeraren edo mugimenduaren printzipioari,



20) beste baten baitan edo beste bat den aldetik bere baitan dagoenari, eta beste alde batetik, beste batek edo norberak beste bat den aldetik bilakatua edo mugitua izateko duen gaitasunari; izan ere, afektatua afekzioaren batek afektatua izateko gaitasunaz esaten dugu potentzia, bai edozein afekzio izanda, bai edozein afekzio izan beharrean hoberako baldin bada.

Gainera, potentzia esaten zaio zerbait ongi burutzeko gaitasunari edo ongi burutzeko nahimenaren araberrako gaitasunari; izan ere, 25) zenbaitetan, ibili edo hizketan bakarrik eta ez ongi, edo nahi ez luketen bezala egiten duten horietaz hizketarako edo ibiltzeko gai ez direla esaten dugu. Eta berdin afekzioak jasateari dagokionez.

Gainera, "potentzia" izendatzen dira eduki horiek, zeintzuen arabera gauzak guztiz afektatzen diren, edo aldagaitzak, edo txarrerako aldagaitzak. Horrela, bada, gauzak puskatu, urratu, hautsi eta, orokorrean, 30) desegiten dira, baina ez beren potentziaz, potentzia-ezaz baizik, eta zerbaiten faltaz. Aitzitik, halako afekzioen aurrean aldagaitzak dira kostata eta ezer gutxi afektatuak diren gauzak, potentzia izateagatik, duten potentzia dela eta, edo dituzten nolabaiteko koalitatearengatik.

Eta "potentzia" zentzu hauetan guztietan esaten denez, "gai" esango zaio, lehenengoz, beste baten baitan edo bere baitan baina beste bat den aldetik mugimenduaren edo bilakaeraren printzipio bat duenari 35) (gelditasuna sor dezakeena ere nolabaiteko potentzia baita); beste zentzu 1019b) batean, "gai" da berebaitako honelako potentzia bat duen zerbait baldin badu; beste zentzu batean, nola edo hala, bilakatzeko gaitasunik -txarrerako nahiz onerako- baldin badu (izan ere, desegiten dena desegiteko 5) gai omen da, edo ez litzateke desegingo horretarako gai ez balitz; baina badu nolabaiteko joera, honelako afekzioaren kausa eta printzipioa, alegia. Eta badirudi gai izatea batzuetan zerbait edukitzeagatik dela, eta beste batzuetan, hori falta izateagatik dela. Beraz, "eza", nolabaiteko "edukia" baldin bada, gauza guztiak zerbait edukitzeagatik izango dira edo,

bestela, izenkidetasunez; honen ondorioz, edukiren bat edo printzipio bat edukitzeagatik da zerbait "gai", eta horixe falta edo eza izateagatik ere bai, 10) ezaren bat edukitzea litekeena baldin bada).

Beste zentzu batean, gauza bat da "gai" beste gauza batek edo gauza berak beste bat den aldetik hau desegiteko potentzia edo printzipioa ez izateagatik.

Eta gauza hauek guztiak dira "gai" haiek sortzea ala ez litekeena delako, ongi ala ez ongi litekeena delako. Izan ere, honelako potentzia izaki bizigabeetan ere ematen da, esaterako, tresnetan; horrela, bada, lira hau soinua ateratzeko gai dela esaten da, eta beste hori, ez, soinu ona 15) ateratzen ez badu.

"Inpotentzia" potentzia-eza da, hots, aipatu dugun honelako printzipio-eza, edo guztiz, edo berez izaten duenarentzat, edo jadanik berez izan beharko lukeenarentzat. Izan ere, ez luke inork esango haur bat, gizon bat eta eunuko bat ernaltzeko "ez-gai" zentzu berdinean direnik. Gainera, bi potentzia moten kontrajarritako inpotentzia bana dago, hots, mugiarazlea 20) bakarrik den potentziarena eta ongi mugiarazteko gai denarena. Eta gauza batzuk "inpotentzia" honen arabera direla "ahalgera" esaten da, eta beste batzuk, beste zentzu batean, ahalezkoa eta ezinezkoa bezala: ezinezkoa da hori, zeinaren kontrakoa nahitaez egiazkoa den (adibidez, ezinezkoa da diagonal neurgarria izatea; beraz, bere kontrakoa ez bakarrik egiazkoa, 25) baizik eta nahitaez da egiazkoa † neurtezina izatea;

orduan, diagonalala neurtezina dela faltsua izan ez ezik faltsua nahitaez ere bada. Honen kontrakoa, ahalezkoa, kontrakoa faltsua izatea nahitaezkoa ez denean izaten da; adibidez, litekeena da gizaki bat eserita egotea, ez baita nahitaez faltsua eserita ez egotea.

30) Horrela, bada, ahalezkoak zentzu batean, esana dagoen bezala, nahitaez faltsua ez dena adierazten du; beste zentzu batean, egiazkoa dena eta beste zentzu batean, egiazkoa izan daitekeena. Eta esanahia zabalduz, geometrian ikasten den hori ere potentzia izendatzen da.

35) Eta ahalezko hauek guztiak ez dira potentziaren arabekoak. Bestalde, potentziaren arabera ahalezko diren guztiak potentziaren lehenengo zentzu bati dagokionez esaten dira, hots, beste baten baitan edo, 1020a) beste bat den aldetik bere baitan ematen den bilakaeraren printzipioari dagokionez. Izan ere, gainerako gauzak ahalezko izendatzen dira, batzuk bestelakoa den zerbaitek honelako potentzia duelako, beste batzuk horrelakorik ez duelako eta beste zenbait, berriz, zehaztutako modu batez duelako. Eta berdin ahalgera direnekin.

Beraz, potentzia lehenaren definizio nagusia hauxe litzateke: 5) bilakaeraren printzipio arazlea, beste baten baitan edo gauza beraren baitan, hau beste bat den aldetik.

### XIII

"Kantitatea" esaten zaio berebaitako zatietan zatigarria denari, zati hauetako bakoitza, banaka hartuta, berez bat den zerbait eta zehaztutako zerbait direlarik. Horrela, bada, multzo bat kantitatea izango da kontagarria 10) baldin bada, eta luze-zabalera bat neurgarria baldin bada. Multzoa esaten zaio zati ez-jarraietan zatigarria denari eta luze-zabalera, berriz, zati jarraietan zatigarria denari. Bestalde, dimentsio bakarrean jarraia den luze-zabalera luzera da, bi dimentsioz jarraia dena, zabalera eta hiru dimentsioz jarraia dena, sakonera. Hauetatik, mugatua den multzoa zenbakia da, luzera lerroa da, zabalera azalera da eta sakonera, gorputza.

15) Gainera, zenbait gauza berez esaten dira kantitatea, beste batzuk, akzidentalki; adibidez, lerroa berez da nolabaiteko kantitatea eta musikaria, akzidentalki. Eta kantitatea berez diren gauzetatik, batzuk substantziaren arabera dira, esaterako lerroa nolabaiteko kantitate bat da (izan ere,

"nolabaiteko kantitatea" zer den, hori adierazten duen esakunearen baitan dago); beste batzuk honelako substantzia baten afekzio eta edukiak 20) dira, esaterako asko/gutxi, luze/motz, zabal/estu, altu/baxu, astun/arin, eta honelakoak. Baita handi eta txiki, handiago eta txikiago ere -berez hartuta zein elkarrekiko dutenaren arabera-kantitatearen berezko afekzioak dira, nahiz eta izen hauek beste gauza batzuetara zabaltzen diren.

25) Eta akzidentalki direla kantitate esaten diren horietatik, batzuk "musikaria" eta "zuria" nolabaiteko kantitatea direla esaten zen zentzuan esaten dira, beraien subjektu dena kantitate bat delako; beste batzuk, mugimendua eta denbora kantitate diren aldetik; izan ere, hauek kantitateak eta jarraiak direla esaten da hura, zeinaren afekzioak hauek 30) diren, zatigarria delako. Hauxe esan nahi dut: ez mugitzen dena, baizik eta mugimendua ematen den lekua; hau kantitatea izateagatik mugimendua ere bada, eta mugimendua izateagatik, denbora ere bai.

#### XIV

"Koalitatea" esaten zaio, zentzu batean, substantziaren diferentziari; adibidez, gizaki bat nolabaiteko koalitedun animalia da, hankabikoa delako, eta zaldi bat, lau hankakoa delako, eta zirkulua nolabaiteko koalitedun irudi bat da angelurik gabea delako; hain zuzen 35) ere, substantziaren arabera diferentzia koalitate bat da.

1020b) Ordea beste zentzu batean esaten da "koalitatea" gauza geldiez eta errealitate matematikoez ari garenan, esaterako; horrela, bada, zenbakiak nolabaiteko koalitateak dira; adibidez, zenbaki osatuak, 5) dimentsio bakarrean ematen ez direnak, baizik eta irudikazioa azaleran eta solidoan duten horiek (hainbestetan hainbeste, edo hainbestetan hainbestez hainbeste diren horiek) eta, orokorrean, kantitateaz aparte, substantzian ematen dena; izan ere, zenbaki bakoitzaren substantzia behingo batean ematen dena da; adibidez, sei zenbakiarena ez da bitan edo hirutan ematen dena, behingo batean ematen dena baizik, sei behingo batean baita sei.

Honez gain, mugimenduan dauden substantzien afekzio 10) horiek, adibidez, beroa eta hotza, zurtasuna eta belztasuna, astuntasuna eta arintasuna, eta honelako gauza horiek, zeintzuen arabera bilakatzen diren gauzen gorputzak aldatzen direla esaten den.

Gainera, bertutearen eta gaiztakeriaren eta, orokorrean, gaizkiaren eta ongiaren arabera [esaten da "koalitatea"].

Horrela, bada, bi zentzuren arabera esan liteke "koalitatea", gutxi 15) gora-behera, eta haietako bat da nagusia. Hain zuzen ere, koalitate lehena substantziaren diferentzia da (honelako zerbait ere bada zenbakietan ematen den koalitate zati bat: hau substantzien diferentzia bat baita, baina, edo mugitzen ez diren substantzienak edo ez-mugituak diren aldetik). Bigarren zentzu batean, mugitzen diren aldetik, mugimenduan dauden gauzen afekzioak dira koalitateak, baita mugimenduen diferentziak ere. Eta bertutea eta gaiztakeria ere afekzio hauetakoak dira, mugimenduaren eta 20) egintzen diferentziak adierazten baitituzte, eta hauen arabera mugimenduan dauden gauzek egin edo jasaten dute, ongi ala gaizki. Izan ere, honela mugitzeko edo ekiteko gai dena ona da, eta kontrako moduz mugitu edo egiteko gai dena, txarra.

Bestalde, onaren eta txarraren esanahia bizidunei dagokien 25) koalitatea da batez ere, eta hauen artetik, nahimena dutenei dagokie bereziki.

XV

"Erlatibo" esaten zaio, alde batetik, bikoitzari erdiarekiko, hirukoitzari herenarekiko eta, orokorrean, multiploari azpimultiploarekiko eta gainezka egiten duenari gainezka eginarekiko.

Beste alde batetik, berotzeko gai denari berogarri denarekiko, mozteko gai denari mozgarri denarekiko eta, orokorrean, aktibo denari 30) pasibo denarekiko.

Beste zentzu batean, neurgarri denari neurriarekiko, ezagungarri denari ezagutzarekiko eta sentimenezko denari sentsazioarekiko.

Lehenengoz aipatutakoak erlazio numerikoak dira, soilak edo zehatzak, zenbakien arabera edo bataren arabera, alegia (adibidez, 35) bikoitza bataren arabera zehaztutako zenbakia da eta multiploa, berriz, batarekiko zehaztugabeko erlazio numerikoa da, esaterako honelako edo 1021a) horrelako multiploa. Bestalde, oso bat gehi erdi osatutako zenbakiak osoa den horrekiko erlazio numeriko zehaztua du, eta oso bat gehi bat

numeradoretzat duen frakzio bat osaturiko zenbakiak, osoa den horrekiko erlazio numeriko zehaztugabea du, multiploa unitatearekiko bezalaxe. Eta gainezka egiten duenak gainezka eginarekiko erlazio numeriko erabat zehaztugabea du; zenbakia neurgarria baita, eta neurgarria ez 5) denaren arabera ez da zenbakirik esaten. Baina gainezka egiten duena gainezka eginarekiko "kantitate bera gehi zerbait" da, "zerbait" hau zehaztugabea delarik, izanak izan suertatzen baita kantitate bera ala ez). Horrela, bada, erlazio hauek guztiak numerikoak direla esaten da, eta zenbakiaren afekzioak direla, eta beste zentzu batean, "berdina", "antzekoa" 10) eta "gauza bera" ere bai. (Izan ere, hauek denak bataren arabera esaten dira, gauza bera baitira substantzia bakarreko horiek, antzekoak koalitate bakarrekoak, berdinak kantitate bakarrekoak; bestalde, bata zenbakiaren printzipio eta neurria da eta, ondorioz, hauek denak erlazio numerikoak izendatzen dira, zentzu berean ez bada ere).

Bestalde, aktibo dena eta pasibo dena potentzia aktiboarekiko eta potentzia pasiboarekiko izaten dira, eta potentzia hauen ekintzen arabera; adibidez, berotzeko gai dena berogarri denarekiko, hau egin dezakeelako eta, era berean, eragileak diren aldetik, berotzen ari dena berotua izaten ari denarekiko, eta mozten ari dena moztua izaten ari denarekiko.

Erlazio numerikoak, bestalde, ez dira ekintzetan ematen, beste 20) leku batean aipatu den zentzuan ez bada, baina haietan ez da mugimenduaren araberrak ekintzarik ematen. Eta potentziaren araberrak erlazioetatik, batzuk denbora desberdinen araberrak esaten dira, adibidez "egin zuena" "egina izan zenarekiko", eta "egingo duena" "egina izango denarekiko"; horrela ere esaten baita aita semearen aita dela, hark egin baitzuen eta honek nolabaiteko afekzioaren bat jaso zuelako. Gainera, gauza 25) batzuk potentzia-ezaren araberrak dira erlatiboak,

inpotentzia, esaterako, baita horrela izendatzen direnak ere, adibidez, ikustezina dena. Horrela, bada, zenbakiaren eta potentziaren arabera erlatibo direla esaten diren gauza guztiak erlatiboak dira beste zerbaitekiko esaten direlako, hain zuzen, [beraiek diren horixe bera], eta ez beste zerbait haien arabera delako. Aitzitik, neurgarria dena, ezagugarri dena eta pentsagarri dena erlatiboak direla esaten da beste zerbait haiekiko dela erlatiboa esaten 30) delako. Izan ere, pentsagarri denak gauza beraren pentsamendua badela adierazten du, baina pentsamendua ez da pentsamendua den horrekiko erlatiboa (bi aldiz esana bailitzateke gauza bera); era berean, ikusmena ere 1021b) zerbaiten ikusmena da, baina ez ikusmena den horrena (nahiz eta horrela esanda, hain zuzen, egia den); aitzitik, ikusmena erlatiboa da, kolore batekiko edo antzeko beste zerbaitekiko. Hartara, bada, bi aldiz esango da gauza bera: ikusmena ikusmena denarena dela.

Horrela, bada, berez direla erlatiboak esaten den gauzetatik batzuk esandako moduan esaten dira, eta beste batzuk, beren generoak horrelakoak 5) baldin badira; adibidez, medikuntza erlatiboa da bere generoa -zientzia- erlatiboa omen delako. Honez gain, haiek edukitzeagatik erlatibo direla esaten diren gauza horiek; adibidez, berdintasuna berez da erlatiboa, berdina dena erlatiboa delako, eta antzekotasuna, antzekoa dena erlatiboa delako.

Beste gauza batzuk akzidentalki dira erlatiboak; adibidez, gizakia erlatiboa da akzidentalki suertatzen zaiolako bikoitza izatea, hau erlatiboa izanik; edo zuria dena, subjektu beraren baitan akzidentalki suertatzen baldin bada bikoitza eta zuria izatea.

#### XVI

"Burutua" esaten zaio hari, zeinatik kanpo ezer aurkitzerik ez dagoen, ezta zati bat bera ere (adibidez, gauza bakoitzaren denbora burutua da berebaitatik kanpo denbora horren zatirik aurkitzerik ez baldin badago) 15) eta bertutearen eta ongiaren arabera, generoari dagokionez, gauditua ez den horri; adibidez, sendagile bat "burutua" da eta flauta-jole bat "burutua" da berezkoa duten bertutearen arabera ezer falta ez dutenean

(zentzu honetan eta hitzaren esanahia gauza txarretara zabalduz, "sikofante burutua" eta "lapur burutua" ere esaten ditugu, "onak" ere 20) izendatzen baititugu, esaterako, "lapur ona" eta "sikofante ona". Eta bertutea nolabaiteko burutzea da; izan ere, gauza bakoitza eta substantzia oro dira burutuak berezko bertutearen espeziearen arabera beren luze-zabalera naturalaren zatirik falta ez dutenean).

Gainera, xedea duten gauza horiek, hau zintzoa izanik, izendatzen 25) dira "burutuak", burutuak baitira xedea duten neurrian. Eta xedea muturretako bat denez, hitzaren esanahia gauza txarretara zabalduz, "suntsiketa burutua" eta "usteldura burutua" esaten dugu usteldurari eta gaizkiari ezer falta ez zaienean; izan ere, hauek beren muturrean daude. Horregatik esaten zaio "xedea" heriotzari, esanahia zabalduz, biak ala biak muturrak dira-eta. Eta xedea muturreko eta helburu den hori ere bada.

Horrela, bada, berez direla burutuak esaten diren gauzak zentzu 30) hauetaz esaten dira; batzuk, ongiaren arabera ezer falta ez dutelako, haiek gaindituko dituenik ere ez, ezta haietatik kanpo ezer aurkitzerik ere ez dagoelako; beste batzuk, orokorrean, genero bakoitzaren arabera gaindituko dituenik ez dagoelako, ezta haietatik kanpo ezer ez dagoelako ere.

Eta gainerako gauzak ere izendatzen dira "burutuak" hauen 1022) arabera: honelako zerbait egiteagatik edo edukitzeagatik, edo horri egokitzeagatik, edo lehenengo zentzuan "burutuak" izendatzen diren gauzekiko esaten direlako, nolabait esan ere.

## XVII

"Muga" esaten zaio gauza bakoitzaren muturrari, gauza lehenari, zeinatik kanpo bere ezer aurkitzerik ez dagoen; eta gauza lehenari, zeinaren 5) baitan dena dagoen.

Muga esaten zaio luze-zabalera baten forma izan daitekeenari, edo luze-zabalera duenari, baita gauza bakoitzaren xedeari ere (eta hau mugimenduaren eta ekintzaren helmuga dena da, ez hauen abiapuntua; baina batzuetan biak izaten dira muga, bai abiapuntu dena, bai helmuga dena).

Muga esaten zaio helburu den horri, eta gauza bakoitzaren substantziari, baita gauza bakoitzari dagokion esentziari ere, hauxe baita ezagutzaren muga. Eta ezagutzaren muga baldin bada, gauzaren muga ere bada.



10) Gauzak horrela, begi-bistakoa da "printzipio" esaten den zentzu guztietan esaten dela "muga" eta gehiagotan ere, printzipioa nolabaiteko muga bat baita, baina ez muga oro printzipio.

#### XVIII

"Araberakoa" zentzu askotan esaten da; zentzu batean, gauza 15) bakoitzaren espezie eta substantzia da; adibidez, onaren arabera Ongia bera da.

Beste zentzu batean esaten zaio horri, zeinaren baitan berez zerbait sor daitekeen; adibidez, kolorea azalera batean. Horrela, bada, "araberakoa", lehenengo zentzu batez esanda espeziea da; bigarrenaz, gauza bakoitzaren materia eta subjektu lehena bezalakoa da.

Orokorrean, "araberakoa" "kausa" dituen hainbat esanahi 20) izango ditu; izan ere, "Zer dela-eta <zeren arabera> etorri zen?" eta "Zertara etorri zen?" esaten da, eta "Zer dela-eta <zeren arabera> arrazonamendu bat zuzen ala oker egitea?" edo "Zein da arrazonamendu bat zuzen ala oker izatearen kausa?".

Gainera, "araberakoa" posizioaren arabera esaten da: "zeren arabera geratu den" edo "zeren arabera dabilen paseeran". Izan ere, gauza hauek guztiek posizio bat eta leku bat adierazten dute. Honen ondorioz, 25) "berez" ere zentzu askotan esango da nahitaez: zentzu batean "berez" gauza bakoitzari dagokion esentzia da; adibidez, Kalias berez da Kalias, hots, Kaliasi dagokion esentzia.

Beste zentzu batean "berez" dira zerkian ematen diren horiek; adibidez, Kalias berez da animalia, haren definizioaren baitan "animalia" baitago, Kalias nolabaiteko animalia da-eta.

Gainera, "berez" esaten da subjektuak bere baitan zuzenean edo 30) bere zatiren batean zerbait jaso badu; adibidez, azalera, zentzu honetan, berez da zuria, eta gizakia berez bizi da, arima gizakiaren zati bat baita, eta haren baitan zuzen ematen da bizia.

Beste zentzu batean "berez" esaten zaio beste kausarik ez duen horri; izan ere, gizakiaren kausak asko dira -animalia, hankabikoa-; hala ere, 35) gizakia berez da gizakia.

Beste zentzu batean, "berez" dira gauza bakar batean ematen diren horiek, eta bakar bat den aldetik; horregatik da "berez" banandutakoa.

## XIX

1022b) "Antolamendua", bai lekuaren arabera, bai potentziaren arabera, baita espeziearen arabera ere esaten zaio zatiak dituenaren kokapenari. Izan ere, hauek nolabaiteko posizioa (qevsi") izan behar dute, antolamendu hitzak berak (diavqesi") adierazten duen bezala.

## XX

"Edukia" esaten zaio, zentzu batean, adibidez, zerbait edukitzen duenaren eta edukiaren beraren egintzaren bati, nolabaiteko ekintza edo 5) mugimendu delarik. (Izan ere, norbaitek zerbait egiten duenean eta zerbait egina denean, bitartean egitea dago; era berean, soineko bat daukanaren eta edukitako soinekoaren artean "edukia" dago). Horrela, bada, agerikoa da ezinezkoa dela honelako edukia edukitzea (prozesu amaigabea izango bailitzateke edukitakoaren edukia edukitzerik balego).

10) Beste zentzu batean, "edukia" esaten zaio antolamenduari, zeinaren arabera antolatutakoa ongi ala gaizki antolatuta dagoen, berez nahiz beste zerbaiti dagokionez; adibidez, osasuna nolabaiteko "edukia" da, honelako antolamendua baita. Gainera, honelako antolamenduaren zati bat denari ere "edukia" esaten zaio; horregatik, zatien bertutea ere nolabaiteko "edukia" da.

## XXI

15) "Afekzioa" esaten zaio, zentzu batean, nolakotasunari, zeinaren arabera gauzak alda daitezkeen; adibidez, zuria eta beltza, gozoa eta mingotsa, astuntasuna eta arintasuna, eta honelakoak.

Beste zentzu batean, "afekzioa" esaten zaie nolakotasun hauen egintzei eta aldaketei. Eta hauetatik, kaltegarri diren aldaketei eta mugimenduei bereziki eta, are gehiago, mingarriak direnei.

20) Hauetaz gain, zoritxar eta sufrimendurik handienei ere "afekzioa" esaten zaie.

## XXII

"Eza" esaten da, zentzu batean, berez edukitzen den zerbait ez baldin badu batek, honako honi berez edukitzea ez badagokio ere; adibidez, landare batek begi-eza duela esaten da.

25) Beste zentzu batean esaten da berez dagokion zerbait -berari edo bere generoari-falta baldin badu; adibidez, gizakiitsuak eta satorrak modu desberdinez dute ikusmen-eza: lehenengoak berezkoa du eta bigarrenak, berriz, generoz.

Honez gain, berez dagokion zerbait falta baldin badu <esaten da "eza">, berez eduki behar duenean; izan ere, itsutasuna nolabaiteko eza bat da, baina bat ez da itsua izaten adin guztietan, baizik eta berez behar duen adinean ikusmena falta badu. 30) Berdin bere baitan, eta den-aren arabera, eta berari dagokionez eta dagokion moduz berez eduki behar duenari, honek ez baldin badu, "eza" esaten zaio. Eta zenbat a-aurrizkiaren bideko ukapen, hainbat modu "eza" esateko; horrela, bada, zerbait "desberdin" -a[nison- dela esaten da berez dagokion "berdintasuna" ez edukitzeagatik; "ikustezina" -ajovraton- inolako kolorerik ez edukitzeagatik, 35) edo ez behar bezala, eta "oingabe" -a[poun- inolako oinik ez edukitzeagatik, edo ez behar bezala. Gainera, zerbait txikia izateagatik ere bai; adibidez, "hezurrik 1023a) gabea" -a[puvrhnon- hau, nolabait, behar ez bezala edukitzea da-eta. Gainera, zerbait erraz egiteagatik, edo ongi ez egiteagatik ere bai; adibidez, zerbait "zatiezina" -a[tmhton- da, zatitu ez ezik erraz edo ongi zatitzerik ere ez dagoenean.

Honez gain, erabateko falta edukitzeagatik; izan ere, ez zaio "itsu" 5) esaten begi bakar batez ikusten duenari, bietan ikusmena falta duenari baizik. Horregatik dena ez da ona ala txarra, zuzena ala zuzengabea; bitartekoak ere badira-eta izan.

### XXIII

"Edukitzea" zentzu askotan esaten da; zentzu batean, norberaren naturaren arabera edo norberaren joeraren arabera eramatea da; horregatik 10) esaten da sukarrak daukala gizakia, tiranoek hiriak eta jantzita daudenek soinean daramatzaten jantziak.

Beste zentzu batean, zerbaitetan ematen den jasotzeko gai den horretaz esaten da "edukitzea"; adibidez, brontzeak giza irudiaren forma dauka eta gorputzak gaixotasuna.

Beste zentzu batean, edukiak bere baitan dituenak horiek dauzkala esaten 15) da; adibidez, pitxerrak edaria daukala esaten dugu, hiriak gizakiak dauzkala eta itsasuntziak, itsasgizonak; era berean, osoa denak zatiak dauzkala ere esaten dugu.

Honez gain, berezko duen joeraren arabera zerbaiti mugitzeko edo ekiteko eragozten dionak ere horixe daukala esaten da; adibidez,

zutabeek beren gaineko pisuak dauzkate eta, modu berean, 20) olerkariak Atlasi ortzia "edukiarazten" diote, bestela hau lur gainera eroriko litzateke, fisiologo batzuek baieztatzen duten bezala. Eta zentzu honetan ere gauzak elkar-lotzen dituenak loturiko gauza horiek dauzkala esaten da, berezko joeraren arabera haiek bananduko bailirateke-eta.

Eta "zerbaitetan egon" ere, bestalde, "edukitzea"ren antzeko eta egokitzen diren zentzuetan esaten da.

#### XXIV

25) "Abiapuntua" esaten zaio, zentzu batean, materia den aldetik zerbaiten abiapuntua denari, eta hau bi zentzutan: edo genero lehenaren arabera, edo forma azkenaren arabera; adibidez, abiapuntua esaten da urtu egiten diren gauza guztiek ura duten aldetik, baita giza irudiak brontzea duen aldetik ere. Beste zentzu batean, "abiapuntua" esaten zaio mugimendua sortu zuen printzipio lehenari (adibidez: nondik sortua da 30) liskarra? Irain batetik, hau izan baitzen liskarraren hasiera).

Beste zentzu batean, materiaz eta formaz osatutakoaz esaten da abiapuntua, zatiak osoa denaren baitatik sortzen diren aldetik, bertsoa Iliadatik eta harriak etxetik. Horrela, bada, forma da xedea, eta xedea duena burutua da.

35) Beste zentzu batean, forma zati batetik sortua den aldetik esaten da "abiapuntua"; adibidez, "gizakia" "hankabiko"tik dator eta silaba osagaitik, baina ez giza irudia brontzetik datorren moduan; osatutako 1023b) substantzia sentimenezko materiatic baitator, baina forma, formaren materiatic.

Horrela, bada, gauza hauek zentzu hauetan esaten dira "abiapuntua", eta beste batzuk, berriz, zatiren baten arabera hauetako moduren bat ematen baldin bada; adibidez, semea aitaren eta amarengandik 5) dator, eta landarea lurretik, gauza hauetako zatiren batetik datoz-eta.

Beste zentzu batean, "abiapuntua" duela esaten zaio denboran zehar ondoren ematen denari; adibidez, gaua egunetik dator eta ekaitza eguraldi onetik, lehenengoak besteen ondotik ematen direlako. Eta hauetatik, batzuk izendatzen dira "abiapuntu" elkarrenganako bilakaera suertatzen delako,

arestian aipatutakoetan bezala, eta beste batzuk denboraren arabera 10) jarraian emateagatik bakarrik; adibidez, ekinoziotik dator nabigazioa, ekinozioren ondoren sortu baitzen, eta Dionisiarretik Tageliarrak, Dionisiarren ondotik sortu baitziren.

#### XXV

"Zati" esaten zaio, zentzu batean, kantitatea -nola edo hala- zatitu ondoren sor litekeen horri (beti esaten baita kantitateari kendutakoa, kantitatea den aldetik, haren zatia dela; adibidez, bi hiruren zatia dela esaten 15) da, nolabait).

Baina beste zentzu batean, zatiak izendatzen dira neurritzat hartzen direnak bakarrik; horregatik esaten da bi hiruren zatia dela zentzu batean, baina beste zentzu batean, ez.

Gainera forma -kantitatea kontuan izan gabe- zatitu ondoren sor litezkeen horiek ere izendatzen dira "zatiak". Horregatik esaten da espezieak generoaren zatiak direla.

Hauetz gain, osoa zatitu edo osa dezaketen horiek ere dira zatiak, 20) osoa forma edo forma duena izanik; adibidez, brontzea (hau da, materia non forma ematen den), nahiz angelua dira brontzezko esferaren edo brontzezko kuboaren zatiak. Gainera, gauza bakoitza azaltzeko definizioa osatzen dutenak ere osoaren zatiak dira eta horregatik esaten da generoa ere espeziearen zatia dela, baina ez espeziea generoaren zatia dela esaten den 25) zentzuan.

#### XXVI

"Osoa" esaten zaio naturaz osoa dela izendatuta izateko inolako zatirik falta ez duenari eta edukiak nolabaiteko "bat" osatuz bere baitan dituenari ere bai, hau bi zentzutan izan daitekeelarik: edo banan-banan hartuta "bat" da gauza bakoitza, edo beraiek osatzen dute "bata". Horrela, bada, unibertsala -orokorrean nolabaiteko "oso bat" bezala predikatzen 30) dena- unibertsala da bere baitan gauza asko dituelarik haietako bakoitzaz predikatzen delako eta haietako bakoitza gauza bat delako; adibidez, "gizakia", "zaldia", "jainkoa", denak bizidunak direlako. Bestalde, "jarraia" eta "mugatua" zerbait osoa da zatiz osatutako unitate bat baldin bada, eta bereziki, zatiak potentzian ematen badira, edo bestela, egintzan. Eta honelako gauzetatik, naturaz direnak neurri handiagoz dira "osoak" artez 35) egindakoak baino, batasunari buruz esaten genuen bezalaxe<sup>32</sup>, osotasuna nolabaiteko

batasuna da-eta. 1024a) Gainera, kantitateak hasiera, erdia eta muturra dituelarik, "dena" esaten da posizioak bereizketarik sortzen ez duen neurrian, eta "osoa", bereizketa sortzen badu. Eta biak ala biak suerta daitezkeenean, "osoa" nahiz "dena" esaten da. Eta honelakoak dira zatien posizioa aldatuta ere natura bera izaten jarraitzen duten horiek, baina konfigurazioa, ez; 5) adibidez, argizaria eta soineko bat, hauetaz "osoa" nahiz "dena" esaten baita, biek ala biek izatea dute-eta. Era berean, uraz, likidoez eta zenbakiaz "dena" esaten da, eta ez "zenbaki osoa" eta "ur osoa", esanahia zabalduz ez bada, behintzat. Eta "gauza guztiak" "dena bat den aldetik" esaten den gauzez esaten da; eta hauei buruz "denak" esaten da zatiturik bezala hartzen 10) direnean: "zenbaki hau guztia", "monada hauek guztiak".

## XXVII

"Murriztua" esaten zaio kantitate duten gauzetatik ez edozeri, baizik eta zatigarri izan behar duen zerbaiti, osoa delarik. Izan ere, bi zenbakia ez da "murriztua" geratzen unitate bat kenduta (moztutakoa eta geratzen dena ez baitira inolaz ere berdin). Orokorrean, ez dago zenbaki 15) murrizturik, substantzia geratzea beharrezkoa baita. Pitxer batek "murriztua" izateko pitxerra behar du izan, baina zenbakia ez da, inolaz ere, bera izaten.

Hauez gain, zati desberdinez osatuak badira ere, gauza hauek guztiak ere ez dira "murriztuak" (izan ere, zenbakia honelakoa da, nolabait, zati desberdinak ditu-eta; adibidez, bia eta hirua); aitzitik, zatien posizioak inongo bereizketa sortzen ez duten gauzez ezin "murriztua" esan, adibidez ura edo sua; "murriztua" izateko beharrezkoa zaie substantziaren arabera 20) posizioa edukitzea. Gainera, jarraiak behar dute. Izan ere, harmonia zati desberdinek osatzen dute, hauek posizioa dutelarik eta, hala ere, ez da murriztua geratzen. Hauez gain, "osoa" diren gauza horiek ere ez dira murriztuak zatiren bat -edozein- falta badute; beharrezkoa da zati horiek ez izatea ez substantziaren goren, ezta edonon dagoen zerbait ere; adibidez, 25) pitxer batek jarria baldin badu ez da "murriztua", kirtena edo muturren bat falta ez badu; eta gizakiari ez zaio "murriztua" esaten haragia edo barea falta badu, baizik eta muturren bat falta badu,

eta ez edozein, osoa kendu ondoren berriz sortzen ez diren horietakoa baizik. Horregatik ez zaie burusoilei "murriztuak" esaten.

#### XXVIII

"Genero" esaten zaio, alde batetik, espezie bereko izakien 30) genesiari, hau jarraia baldin bada; adibidez, "gizakien generoa den bitartean" esaten da, hots, "gizakien genesia jarraia den bitartean".

Beste alde batetik, "genero" esaten zaio abiapuntu eta izateko mugimendu lehena den horri; horrela, batzuk generoz izendatzen dira heleniarrak eta beste batzuk, joniarrak, lehenengoez Heleno eta bigarrenek Ion dutelako sortzaile lehena. Eta neurri handiagoz sortzaileengandik jaso dutenak 35) materiatic jaso dutenak baino (generoa emearengandik jasotzen dutenak ere baitira; adibidez, Pirrarengandikakoak).

1024b) Gainera, generoa ere bada azalera azaleko irudien generoa den bezala eta solidoa, solidoena, irudiotako bakoitza edo honako azalera edo harako solidoa baita. Eta hauxe da bereizketen azpigaia.

Honez gain, definizioetan, generoa da ematen den lehena, 5) zerkiaren baitan esaten dena, alegia; horixe da generoa, zeinaren bereizketak koalitateak direla esaten den.

Generoa, hain zuzen ere, zentzu hauetan guztietan esaten da: espezie bereko genesia jarraiaren arabera, espezie berdinen mugiarazle lehenaren arabera eta materia den aldetik; izan ere, hori, zeinari bereizketa eta koalitatea dagozkion, horixe da azpigaia, materia deitzen duguna.

10) Heterogeneoak izendatzen dira azpigai lehena beste bat dutenak, eta elkarrengan burutzen ez direnak, ezta biak berberaren baitan ere; adibidez, espeziea eta materia heterogeneoak dira, baita "den-a"ren predikazioaren irudi desberdinen arabera esaten diren horiek ere (batzuek zerkia adierazten baitute, beste batzuek, koaliteren bat eta beste batzuek aurrean azaldu den bezala<sup>33</sup>), predikatu hauek ez baitira burutzen ez elkarrengan, ezta bat den zerbaitetan ere.

#### XXIX

"Faltsua" esaten da, zentzu batean, gauza bat faltsua dela esaten den bezala, edo bat ez etortzeagatik edo bat etortzea ezinezkoa izateagatik

20) ( "diagonala neurgarria da" edo "zu eserita zaude" esaten den bezala; izan ere, hauek faltsuak dira, bata beti eta bestea batzuetan, zentzu honetan "ez diren gauzak" baitira); baina beste zentzu batean faltsuak dira diren gauzak izanik, berez azaltzen direnak edo ez diren bezala, edo ez direna (adibidez, irudikazioa eta ametsak; hauek izan, badira zerbait, baina ez fantasia sortzen duen hori). 25) Horrela, bada, gauzak faltsuak direla esaten da, edo beraiek ez izateagatik, edo sortzen duten fantasia ez den zerbait izateagatik.

Bestalde, faltsua da -faltsua den aldetik- ez diren gauzen definizioa; horregatik da faltsua egiazkoari ez dagokion definizio oro; adibidez, zirkuluaren definizioa faltsua da triangeluari dagokionez. Eta definizio bakoitza, zentzu batean, bat da, esentzia definitzen duena, alegia, baina beste zentzu batean asko dira, nolabait gauza bera eta gauza bera gehi 30) atributuren bat gauza bera baita; adibidez, "Sokrates" eta "Sokrates musikaria" (definizio faltsua ez baita inondik inora ezeren definizioa). Horregatik ganoragabeki uste izan zuen Antistenek ezin dela ezer adierazi bere berezko definizioaz ez bada, definizio bat gauza bakoitzeko. Eta hortik ateratzen da kontraesanik ezin izatea, ezta ia huts egiterik ere. Hala ere, badago gauza bakoitzaren definizioa ematea, bere berezko definizioaz 35) ezezik beste zerbaitenaz ere; eta hau erabateko faltsukeriaz egin daiteke, baina baita egiazko moduz ere; adibidez, diadaren definizioaren bidez 1025a) zortzia bikoitza dela esaten dugunean.

Horrela, bada, gauza hauek zentzu honetan direla faltsuak esaten da. Baina gizakia faltsua dela esaten da honelako definizio faltsuez axolagabe eta nahita baliatzen denean, ez beste zerbaitengatik, faltsuak izateagatik baizik; eta besteengan honelako definizioak eragiten dituenan, 5) fantasia faltsua eragiten duten gauzak ere faltsuak izendatzen ditugun bezala.

Horregatik da gezurra Hippiasen esandakoa<sup>34</sup>, hots, pertsona bera faltsua eta egiazkoa dela; faltsukerien bidez engaina dezakeena faltsutzat hartzen baita (eta honelako pertsona bat dakiena baino ez da, hots, zuhurra dena); gainera, hobe da nahita okerra dena<sup>35</sup>. Baina faltsukeria hau 10) indukzioz lortzen du Hippiasek -herrenka nahita dabilena nahigabe dabilena baino hobe da baita-, "herrenka ibiltzea" "herrenarena egitea" bailitzan,



nahita balitz herrena okerragoa izango bailitzateke, ohiturekin gertatzen den bezalaxe.

XXX

"Akzidentea" zer baitetan ematen den horri esaten zaio, eta bere 5) adierazpena egiazkoa da, baina ez nahitaez, ezta gehienetan ere; adibidez, baten batek landare batentzako zuloa egitean altxorra aurkitzen badu. Altxor bat aurkitzea, hain zuzen ere, akzidentea da landarearentzako zuloa egiten duenarentzat, hau ez baita nahitaezko ondorioa edo jarraipena, ezta landatzen duenak gehienetan altxor bat aurkitzea ere.

20) Eta baliteke musikari bat zuria izatea, baina hau, ez nahitaez, ez gehienetan, gertatzen ez denez, "akzidente" izendatzen dugu. Beraz, zer baitean ematen den zer bait dagoenez, eta batzuk honelako lekuan eta momentuetan ematen direnez, akzidentea zer baitean ematen den edozer izango da, baina ez honako hau, holako momentua edo halako lekua izateagatik.

25) Gauzak horrela, ez dago akzidentearen kausa zehatzik, zoria izan ezik, eta hau zehaztugabea da. Baten batentzat akzidentala izen zen Eginara iristea, hara heltzeko intentzioa izan ezean ekaitza batek desbideratu edo piratek preso harturik heldu bazen. Akzidentea, beraz, gertatu ala izan daiteke, baina ez bera den aldetik, beste bat den aldetik baizik: ekaitza izan baitzen ez zihoan leku batera -Eginara- iristearen kausa.

30) Beste zentzu batean ere esaten da akzidentea; esaterako, substantziaren baitakoak izan gabe gauza bakoitzari berez dagozkion horiek, adibidez, triangeluan bi angelu zuzen izatea. Eta honelako akzidenteak betierekoak izan daitezke, baina bestelako akzidenteetatik, bat bera ere ez. Hala ere, honen azalpena beste leku batean <dago>.

## SEIGARREN LIBURUA (E)

### I

1025b) Den guztiaren printzipioak eta kausak bilatzen dira, baina argi dago "diren guztiak" diren aldetik. Izan ere, badago osasunaren eta ongizatearen kausaren bat, eta errealitate matematikoen printzipioak, 5) osagaiak eta kausak ere badira; orokorrean, adimeneko zientzia oro, edo pentsamenduarekin zerikusia dutenak, kauez eta printzipioez arduratzen dira, hauek zorrotzak nahiz azalekoak izan. Baina zientzia hauek guztiak "den" zerbaitera eta generoren batera zirkunskribatuta daudenez gero, honetaz arduratzen dira, eta ez "den-az" zentzu absolutuan, "den" zerbait 10) den aldetik, alegia; zerkiaz ez dute hitzik egiten; aitzitik, hau abiapuntutzat harturik -batzuek sentsazioentzat eskuragarri egin ondoren eta beste batzuek zerkia hipotesizat harturik-frogatzen dituzte, behar handiagoz ala arintasun gehiagoz, lantzen ari diren generoari dagozkion berebaitako ezaugarriak. Hau dela eta, begi-bistakoa da honelako 15) indukziotik ez dela substantziaren demostrazioa ateratzen, ezta zerkiaarena ere; hau azaltzeko modua beste bat da-eta.

Ez dute esaten, halaber, lantzen ari diren generoa ba ote den ala ez, pentsamenduari berari baitagokio zerkia eta "ba ote da?" azaltzea. Baina, bestalde, fisika ere "den-aren" nolabaiteko generoaz arduratzen denez

20) (mugimenduaren eta geldialdiaren printzipioa bere baitan duen substantziaz arduratzen da-eta), argi dago zientzia hau ez dela ez praktikoa, ezta ekoizlea ere (egin daitezkeen gauzen printzipioa egilearen baitan baitago, printzipioa adimena, artea edo nolabaiteko potentzia bat izanik, eta egitekoen printzipioa egilearen baitan dago eta nahimena da, egitekoa eta 25) nahia gauza bera baitira); beraz, pentsamendu oro praktikoa, ekoizlea edo teoretikoa baldin bada, fisika zientzia teoretikoa izango da.

Baina teoretiko mugitzeko gai den "den-a" jakin bati dagokionez eta substantziari dagokionez, hau definiziotzat harturik gehienetan, baina ez bakarrik banangarria den aldetik.

Eta ez da albo batera utzi behar esentzia eta definizioa nolakoak 30) diren, hau kontuan izan gabe ikerketak ez baitu inolako emaitzik ematen.

Bestalde, definitutakoa eta zerkia batzuetan sudur motza bezalakoa izaten da, eta beste zenbaitetan, ahur dena bezalakoa; eta hauen arteko aldea da, bestalde, sudur motza materiarekin batera hartua dela (sudur motza sudur ahurra baita), eta ahur dena, berriz, sentimenezko materiarik gabe ematen dela. Beraz, errealitate fisiko guztiak sudur motzaren moduan 1026a) esaten badira, adibidez sudurra, begia, aurpegia, haragia, hezurra, edo hitz batez esanda, animalia; hostoa, sustraia, azala eta, orokorrean, landarea (hauen definizio bat bera ere ezin mugimendurik gabe izan, beti 5) izaten baitu materia), argi dago fisikan zerkia nola ikertu eta definitu behar den, eta horregatik dagokio fisikariari ere nolabaiteko arima -materiarik gabe ematen ez den hori, hain zuzen ere-ikertzea.

Horrela, bada, agerian uzten du honek guztiak fisika zientzia teoretikoa dela. Baina matematikak ere teoretikoak dira. Eta gauza geldiez eta bananduez arduratzen diren ala ez oraingoz argi ez egon arren, agerian 10) dago matematiken adar batzuk, behintzat, geldiak eta bananduak diren aldetik ikertzen dituztela. Eta betierekoa, geldia eta banandua den zerbait baldin badago, agerian dago huraxe ezagutzea zientzia teoretiko bati dagokiola; ez, behintzat, fisikari [hau mugikor diren zenbait errealitatez arduratzen baita], ezta matematikei ere, bi zientzia hauen aurretikoa den beste bati baizik.

Fisika banangaitz diren gauzez arduratzen da, baina ez mugiezin diren horietaz, eta matematiken adar batzuk mugiezin diren gauzez, baina 15) banangarri diren horietaz, materiaren baitakoak diren aldetik.

Eta Zientzia Lehena, banangarri eta geldiak diren gauzez arduratzen da. Eta kausa guztiak betierekoak baldin badira nahitaez, neurri handiagoz honako hauek, jainkozkoen adierazpenei dagozkien kausak baitira.

Beraz, hiru izango dira filosofia teoretikoak: matematikak, fisika 20) eta teologia, argi baitago jainkozkoa nonbait ematekotan honelako naturaren baitan ematen dela, eta hiruretan estimagarrienak generorik estimagarrienaz arduratu behar duela. Horrela, bada, zientzia teoretikoak gainerakoak baino hobeak dira, eta teoretikoen artetik, teologia.

Izan ere, aporia hau sor liteke, ea filosofia lehena unibertsala den 25) ala generoren batez eta natura bakar batez arduratzen den (matematiketan ere ez baitira modu berean ematen disziplina guztiak: geometria eta astronomia nolabaiteko natura batez arduratzen dira eta matematika orokorra, berriz, baterakoa da ororentzat).

Gauzak horrela, naturaz osaturiko substantziez aparte bestelakorik ez baldin balego, fisika izango litzateke zientzia lehena. Ostera, nolabaiteko substantzia geldia baldin badago, hauxe izango da aurrekoa eta filosofia 30) lehena, eta lehena den aldetik, unibertsala. Eta honi, "den-a den aldetik" aztertzea egokituko zaio, eta zerkia eta zerkiari berez dagozkion atributuak ere bai.

## II

Baina "den-a", besterik gabe esanda, zentzu askotan esaten da: zentzu batean, akzidentalki den-a; beste zentzu batean, den-a egiazkoa den aldetik eta ez den-a faltsua den aldetik; gainera, hauetaz aparte, 35) predikazioaren irudiak, esaterako "zer", "nolakoa", "zenbatekoa", "non", "noiz" eta zentzu honetan adirazgarri den edozein; eta hauetaz 1026b) guztiez aparte, potentzian dena eta egintzan dena. Horrela, bada, "den-a" zentzu askotan esaten denez,

aurrena esan behar da akzidentalki denaz ez dagoela inolako azterketa egiterik; honen adierazle zera da, ez dagoela inolako zientziarik -ez 5) praktikorik, ez ekoizlerik, ez teoretikorik- kontuan hartzen duenik.

Etxegileak ere ez ditu etxearekin batera suertatzen diren gauza horiek guztiak egiten (hauek mugagabeak baitira; izan ere, etxea egindakoan ez dago batzuetan atsegina, beste batzuetan arriskutsua eta beste zenbaitetan, 10) onuragarria izateko inolako eragozpenik eta, nolabait esateko, den guztitik berezia izateko; hauetariko bat bera ere ez da etxegintzak egina); eta zentzu berean geometrak ere ez ditu irudien akzidenteak aztertzen, ezta "triangelua" eta "bi angelu zuzen dituen triangelua" gauza bera diren ala ez ere. Eta zentzuzkoa da hau gertatzea, akzidentea izen huts bat bezalakoa 15) baita; horregatik baieztatu zuen Platonek -eta zentzu batean, ez gaizki- sofistika "ez den-az" aritzen zela<sup>36</sup>. Hain zuzen ere, sofisten arrazoibideak, nolabait esateko, akzidenteari buruzkoak dira, bereziki: ea "musikaria" eta "gramatikaria" gauza bera diren ala ez, eta "Korisko musikaria" eta "Korisko" gauza bera den ala ez; eta ea den guztia, baina ez beti, izatera iritsi den: musikaria izanik gramatikaria izatera iritsi bada baten 20) bat, orduan gramatikaria izanik musikaria izatera iritsiko ote den ala ez, eta honelako arrazoibide horiek guztiak, akzidenteak "ez den-a"tik gertu dagoen zerbait baitirudi.

Eta hau agerian geratzen da honen moduko arrazonamenduekin: beste modu batekoak diren guztien generazioa eta usteldura badira izan, hain zuzen ere, baina akzidentalki direnen generaziorik eta usteldurarik ez 25) dago. Hala eta guztiz ere, eta ahal den neurrian, akzidenteari buruz esan behar dugu oraindik zein den bere natura eta zer kausa dela-eta baduen izatea; honekin batera baliteke argi uztea zergatik ez dagoen haren zientziarik. Eta diren guztien artetik, hain zuzen ere, batzuk beti berdin eta nahitaez ematen direnez - "nahitaez", ez "indarrez" esaten den zentzuan, 30) "ezin bestelakoa izan" esaten dugun zentzuan baizik-, eta beste batzuk ez nahitaez, ezta beti berdin ematen ez direnez ere - gehienetan baizik-,

hauxe da printzipioa eta hauxe da kausa akzidentearen izateaz. Izan ere, ez beti, ezta gehienetan ere ematen ez den hori, akzidentea horixe dela esaten dugu; adibidez, udaminean eguraldi txarra eta hotza egiten badu, hori akzidentalki ematen dela esaten dugu, baina ez sargoria eta beroa egiten 35) badu, hau beti edo gehienetan ematen delako eta beste hura, berriz, ez. Eta gizakia zuria izatea ere akzidentala da (hau ez baita ez beti, ezta 1027a) gehienetan ere ematen), baina animalia izatea ez da akzidentalki ematen. Eta etxegileak sendatzea ere akzidentala da, hau egitea ez dagokiolako berez etxegileari, sendagileari baizik, nahiz eta akzidentalki etxegilea sendagile izan. Eta sukaldariak, plazerra lortu nahirik, zerbait 5) osasungarri egin dezake, baina ez sukaldaritza dela medio; horregatik esaten dugu hau akzidentala dela eta sukaldariak nolabait egiten duela, baina ez zentzu absolutuan.

Badira potentzia batzuk gainerako gauzak egiten dituztenak, baina ez dago ez arterik, ez potentzia zehatzik akzidenteak egiten dituenik, akzidentalki diren edo suertatzen diren gauzen kausa ere akzidentalki ematen baita. Beraz, diren edo suertatzen diren gauza guztiak beti edo 10) nahitaez ematen ez direnez -gehienak gehienetan baizik-, "akzidentalki dena" nahitaez izaten da; adibidez, zuria dena ez da, ez beti, ez gehienetan, musikaria izaten, eta horrela suertatzen denean akzidentalki izango da (bestela gauza guztiak izango dira nahitaez).

Beraz, materia -hau gehienetan ematen ez den moduan suerta 15) daitekeen aldetik- izango da akzidentearen kausa.

Eta abiapuntutzat hauxe hartu behar dugu: ba al da ezer, ez beti, ez gehienetan, ematen ez denik?, edo hau ezinezkoa da? Beraz, gauza

hauetaz aparte, bada zerbait suertagarri eta akzidentala dena. Baina "gehienetan ematen dena" bada izan, eta "beti ematen dena" inolaz 20) ere ez; edo ba al dira betiereko diren gauzak? Hauetaz, hain zuzen ere, geroago arduratu behar da, baina akzidentearen zientziarik ez dagoela agerian dago. Izan ere, zientzia oro beti edo gehienetan ematen denaz arduratzen da; bestela, nola ikas liteke edo nola irakats lekiok beste bati? Hau zientziak zehaztua izan behar baitu, edo beti horrela izateagatik edo 25) gehienetan izateagatik; adibidez, ezti-ura sukarrak harturik dagoenarentzat gehienetan onuragarria da eta honetaz apartekorik ezin esan noiz ez, adibidez, ilberrian; ilberrian ere, beti edo gehienetan izango baita. Baina akzidentea hauetaz apartekoa da.

Horrela, bada, esana dago akzidentea zer den, zein kausa dela-eta, eta zergatik ez dagoen honi dagokion zientziarik.

### III

Agerian dago generazio eta usteldurarik gabe sortu eta ustel 30) daitezkeen printzipioak eta kausak badirela. Eta hau horrela ez bada, dena nahitaez izango da, nahitaezkoa baita generazioaren eta ustelduraren kausa ez-akzidentala izatea. Eta honelakorik izango da ala ez? Bai, bestelako hori sortzen bada; bestela, ez. Eta hori, beste hura sortzen bada. Eta horrela, 1027b) argi dago denbora mugatu bati etengabe denbora lapurtuz orain aldira iritsiko dela bat, eta honen ondorioz hau zendu egingo da [gaixotasunez edo] indarkeriaz, irten baldin bada, behintzat; eta hau egarriak baldin badago. Eta horrela iritsiko da orainaldira edo jadanik gertatu den 5) zerbaitera. Adibidez, egarriak baldin badago; eta hau, janari minak jan baditu; baina azkeneko hau suerta liteke ala ez; beraz, nahitaez zenduko da ala ez. Eta arrazonamendua bera da baten batek gertatutako gauzetara atzera-buelta eginez gero,

hau -gertatutakoaz ari naiz- jadanik zerbaitetan eman baita. Beraz, etorkizuneko gertaera oro nahitaez izango dira; adibidez, orain bizirik 10) dagoena hiltzea, zerbait sortu delako, esaterako, kontrakoak bere baitan. Baina gaixotasunez ala indarkeriaz zenduko den, oraindik ez da nahitaezkoa, baina bai horrelako zerbait sortzen bada.

Argi dago, bada, nolabaiteko printzipio bateraino iristen dela, baina honek ezin atzera-bueltarik egin. Hauxe izango da, beraz, suertatzen denaren printzipioa, eta ez da bestelako printzipio honen genesiaren kausarik izango.

Baina ikertu beharra dago, bereziki, nolako printzipiorantz eta nolako kausarantz eramaten duen honelako atzera-bideak, ea materia den 15) aldetiko kausarantz, edo helburu den aldetiko kausarantz, edo mugiarazlea den aldetiko kausarantz.

#### IV

Utz dezagun akzidentalki den-a, nahikoa zehaztuta baitago. Izan ere, den-a, egiazkoa den aldetik, eta ez-dena, faltsua den aldetik 20) konposaketari eta zatiketari dagozkio, eta bien artean dute kontraesana partitzen. (Izan ere, egiari konposatutakoaren gaineko baieztapena zein zatitutakoaren gaineko ezeztapena dagozkio, eta faltsukeriari, berriz, bi hauen kontraesana. Baina aldi berean batuz eta bereiziz bi gauza pentsatzea 25) nola litekeen beste kontu bat da; aldi berean eta bereiziz diot, baina ez serie bat osatzeko moduan, bat den zerbait sortuz baizik).

Faltsukeria eta egia ez dira gauzetan ematen, ongia egiazko eta gaizkia faltsua bailiran, pentsamenduan baizik; eta gauza soilei eta zerkiari dagokienez, ezta pentsamenduan ere.

Horrela, bada, honela den-az eta ez den-az ezagutu beharreko guztia geroago<sup>37</sup> ikertu beharko da. Gainera, elkar-lotzea eta zatiketa 30) pentsamenduan eta ez gauzetan ematen direnez, eta honela den-a eta goren zentzuan den-a desberdinak direnez (pentsamenduak batu edo zatitu egiten baititu zerkia, nolakotasuna, zenbatekotasuna, edo bestelako zerbait),



den-a, akzidentea den aldetik eta egiazkoa den aldetik ere, albo batera utzi behar dugu, lehenengoaren kausa zehaztugabea delako, eta 1028a) bestearena pentsamenduaren afekzioen bat delako; biak ala biak falta den beste den-aren generoari dagozkio, eta honetaz kanpo ez dute adierazten den-aren bestelako naturarik dagoenik. Gauzak horrela, utz ditzagun albo batera eta azter ditzagun denaren -den-a den aldetik- beraren kausak eta printzipioak.

[Bestalde, gauza bakoitza zenbat zentzutan esaten den zehaztu 5) genuen hartan agerian geratu zen den-a zentzu askotan esaten dela].

ZAZPIGARREN LIBURUA (Z)

I

10) "Den-a" zentzu askotan esaten da, Zentzuei buruzko pasartean azaldu genuen bezala. Izan ere, alde batetik zerkia eta zehaztutako zerbait adierazten du, eta beste alde batetik, koalitatea, kantitatea eta horrela predikatzen diren gainerakoak. Eta den-a zentzu hauetan guztietan esaten bada, agerian dago denetan lehena zerkia dela, honek substantzia adierazten 15) duelarik (zehaztutako zerbait nolakoa den esaten dugunean, ona ala txarra esan ohi baitugu, baina ez "hiru okondokoa" ala "gizakia" denik; alabaina, zer den esaten dugunean, ez dugu esan ohi zuria, edo beroa, edo hiru ukondokoa, gizaki bat edo jainko bat baizik); eta gainerakoak "direnak" izendatzen dira honelako den-aren kantitateak, koaliteteak, afekzioak edo 20) bestelako zerbait izateagatik.

Horregatik sor liteke aporia hau, ea paseeran ibiltzeak, sendatzeak eta esertzeak "den zerbait" ala "ez den zerbait" adierazten duten ala ez, eta berdin honelako beste edozeinetan. Izan ere, hauetako bat bera ere ez da berez, eta substantziazatik bananduta ere ezin izan; aitzitik, izatekotan, neurri handiagoz izango dira "direnak" paseeran dabilena, eserita dagoena 25) eta sendatzen duena. Eta hauek neurri handiagoz dirudite "direnak", zehaztutako azpigairen bat dutelako (hots, substantzia eta banakoa) eta hori kategoriatik jakin batean adierazten da, "ona" edo "eserita dagoena" ezin baitira hori gabe esan. Argi dago honengatik direla haietako kategoriatik bakoitza; beraz, "Den Lehena" -ez "den zerbait", baizik eta "den-a" soil-soilik-, substantzia izango da.

30) Hala ere, "lehena" zentzu askotan esaten da, baina denetan lehena substantzia da, bai nozioari, bai ezagutzari, bai denborari dagokienez. Horrela, bada, predikatzen diren gainerako gauzen artetik bat bera ez da banangarria: bera da bakarra.

Eta nozioari dagokionez ere substantzia da lehena (beharrezkoa 35) baita gauza bakoitzaren nozioan substantziarena ematea); azken batean, gauza bakoitza ezagutzen dugula uste dugu gizakia edo sua zer den ezagutzen dugunean bereziki, nolakoa edo zenbatekoa edo nongoa den 1028b) ezagutzen dugunean baino, gauza hauek ere ezagutzen baititugu kantitatea eta koalitatea zer diren ezagutzen dugunean.

Gauzak horrela, antzina, orain eta beti bilatzen dena eta beti aporia sortzen duena - "den-a" zer den, alegia-, substantzia zer den galderaren baliokidea da (izan ere, batzuek substantzia bat dela esaten dute, beste batzuek, bat baino gehiago; batzuek, kopuru aldetik mugatuak direla eta beste batzuek, mugagabea); horregatik guk ere aztertu behar dugu lehenengoz eta nagusiki eta, nolabait esateko, bakarrik, honelako "den-a" zer den.

## II

Badirudi substantzia gorputzetan ematen dela nabarien (horregatik esaten dugu animaliak, landareak eta hauen zatiak substantziak 10) direla,

baita gorputz naturalak ere; adibidez, sua, ura, lurra eta honelakoak, eta hauen zatiak edo hauetaz osaturik diren horiek -bakar batzuez nahiz horietaz guztietaz osaturikoak-; adibidez, ortzia eta bere zatiak: izarrak, ilargia eta eguzkia). Bestalde, aztertu behar dugu ea hauek bakarrik diren substantziak ala bestelakorik ba ote den; horietako batzuk bakarrik diren edo 15) bestelako batzuk ere badiren; edo horietako bat bera ere ez den eta bestelako batzuk, bai.

Zenbaiten iritziz gorputzen mugak -esate baterako azalera, lerroa, puntua eta unitatea- dira substantziak, gorputza eta solidoa baino neurri handiagoz.

Gainera, batzuek ez dute uste sentimenezko gauzez aparte honelako ezer dagoenik, eta beste batzuek, betiereko gauzak onartzen 20) dituzte, hauek bereziki eta neurri handiagoz direlarik; adibidez Platonek, Ideiak eta Errealitate Matematikoak bi substantziazat hartzen ditu, eta hirugarren substantzia sentimenezko gorputzena; Espeusipok, bestalde, Batetik abiatuz, substantzia bat baino gehiago eta hauen printzipioak ezartzen ditu: bat zenbakiena, beste bat luze-zabalena eta, ondoren, arimarena. Eta horrela handitzen du substantzien kopurua.

25) Beste batzuek, berriz, Ideiek eta Zenbakiek natura bera dutela baieztatzen dute, eta gainerako gauzak hauetatik ateratzen direla -lerroak eta azalerak- ortziaren substantziara eta sentimenezko gauzetara iritsi arte. Beraz, aztertu behar dugu iritzi hauetatik zeintzuk diren zuzenak eta zeintzuk okerrak, zeintzuk diren substantziak, eta sentimenezko gauzez aparteko substantziarik ba ote dagoen ala ez, eta hauek nolakoak diren, eta 30) ea badagoen banandutako substantziarik, eta zergatik eta nola, edo bat bera ere ez dagoen sentimenezko gauzez aparte.

Baina hau dena substantzia oro har zer den azaldu ondoren.

### III

"Substantzia" gutxienez lau zentzutan esaten da bereziki, zentzu gehiagotan ez bada. Izan ere, gauza bakoitzaren substantzia esentzia, 35) unibertsala eta generoa omen dira, eta laugarren zentzuan, azpigaia.

Eta azpigaia da hura, zeinaz gainerakoak esaten diren, bera beste 1029a) batez inoiz esaten ez delarik. Horregatik zehaztu behar da lehenengoz haren izaera, azpigai lehena bereziki baita substantzia, antza denez.

Azpigai esaten zaio, lehenengo zentzu batean, materiari; beste zentzu batean, formari, eta hirugarren zentzuan, bi hauetaz osaturikoari (materia deitzen diot, adibidez, brontzeari; forma, idearen irudiari eta bi 5) hauetaz osaturikoa, giza irudi osoari). Beraz, espeziea materiaren aurrekoa eta neurri handiagoz baldin bada, argumentu beraren arabera espeziea biez osaturikoaren aurrekoa ere izango da.

Esana dago, jada, labur, substantzia zer den: azpigai batez esaten ez dena, baizik eta hura, zeinaz gainerakoak esaten diren. Hala ere, ez dugu honekin konformatu behar, ez baita nahikoa. Izan ere, hau, berez, iluna da, 10) eta gainera materia suertatzen da substantzia. Eta bera ez bada substantzia, beste zer izan daitekeen ihesi joaten zaigu, gainerakoak ezabatuta ez baitirudi besterik geratzen denik.

Hain zuzen ere, gainerakoak gorputzen afekzioak, ekintzak eta potentziak dira, eta luzera, zabalera eta sakonera kantitateak dira, baina ez 15) substantziak (kantitatea ez baita substantzia); substantzia da, nagusiki, lehenengo hori, non hauek guztiak ematen diren.

Baina, bestalde, luzera, zabalera eta sakonera ezabatuta ez dugu ikusten ezer galtzen denik, haiek zehaztutako zerbait izan ezik, baldin badago.

Beraz, horrela ikertzen dutenei materia iruditu behar zaie, nahitaez, substantzia bakarra. Eta materia izendatzen dut berez zehaztutako 20) ezer ez den hori, ez kantitatea, ezta den-a zehazten duten horietakorik ere; materia baita zerbait, zeinaz beste guztiak predikatzen diren, haren izatea kategoria guztien izateaz beste delarik (gainerakoak substantziaz predikatzen baitira eta hau, materiak). Beraz, azpigai azkena ez da berez, ez zehaztutako ezer, ez kantitatea, ezta bestelakorik ere. Eta hauen ezeztapenak 25) ere ez, hauek ere akzidentalki ematen baitira.

Horrela ikertzen dutenek materia hartuko dute substantziazat. Baina hau ezinezkoa da. Izan ere, banangarria eta zehaztutako zerbait izatea substantziari omen dagozkio bereziki; horregatik espeziea eta formaz eta 30) materiak osaturikoa, materia baino neurri handiagoz lirarteke substantzia.

Baina utz dezagun albo batera biez osaturiko substantzia, hots, materiaz eta formaz osaturikoa, ondorengoa eta ezaguna delako; eta materia ere bai, nolabait ezaguna delako. Ikertu behar dugu, bada, hirugarrena, hau baita aporetikoena.

Onartuta dago sentimenezko gauza batzuk substantziak direla; beraz, hauekin hasi behar dugu gure azterketa.

1029b) 3) [Onuragarria da ezagungarrien denerantz abiatzea, ikastea, kasu guztietan, honela gauzatzen baita: naturaz gutxien ezagutzen 5) diren gauzetatik ezagungarriagoak direnetara; eta hau da egin beharrekoa:

ekintzetan norberarentzat onak diren gauzetatik abiatuz, unibertsalki onak diren gauzak norberarentzat onak izan daitezela egin behar den bezala, era berean berarentzat ezagungarrien diren gauzetatik abiatuz, naturaz ezagungarrien diren gauzak berarentzat ezagungarrien izan daitezela egin behar da. Baina askotan norberarentzat ezagungarriak eta lehenak diren 10) gauzak ez dira ia ezagungarriak izaten, eta ezer edo ezer gutxi dute den-arekin. Hala eta guztiz ere, berez ezagutzen zailak baina norberarentzat ezagungarriak diren gauzetatik abiatuz, unibertsalki ezagungarri direnak ezagutzen saiatu behar da, haietan zehar ibiliz, esana dagoen bezala.]

#### IV

Substantziari ematen dizkiogun zentzuak bereizten hasi garenez, 13) eta zentzu hauetako bat esentzia omen denez, hau aztertu behar dugu. Eta egin ditzagun, lehenengoz, honen inguruko azalpen logiko batzuk: 15) gauza baten esentzia da gauza hori dena, gauza hori den aldetik; horrela, bada, zure izatea ez da musikariaren izatea, ez baitzara musikaria zeu zaren aldetik; beraz, zure esentzia da zu zeu zaren aldetiko hori; eta hori guztia ere ez, esentzia ez baita gauza hori -hori den aldetik- zuria azalera batean den bezala, azaleraren izatea ez delako zuriaren izatea.

Baina, bestalde, azaleraren izatea ez da biez osaturikoarena, hots, azalera zuriaren izatea, esakune honetan definitu behar dugun horixe bera sartzen delako.

20) Horrela, bada, gauza bakoitzaren esentziaren definizioa definitu beharrekoa esan gabe horixe bera azaltzen duen esakunea da. Beraz, azalera zuriaren izatea eta azalera leunaren izatea gauza bera baldin badira, "zuriaren izatea" eta "leunaren izatea" gauza bat eta gauza bera izango dira. Baina gainerako kategorien arabera osaturiko gauzak daudenez gero (bakoitzarentzat azpigairen bat baitago, adibidez, kantitatearentzat, 25) kalitatearentzat, noiz eta non bakoitzarentzat, eta mugimenduarentzat), ikertu behar dugu ea bakoitzaren esentziaren definiziorik ba ote dagoen, eta osaturiko gauza hauek esentziarik ba ote duten, adibidez "gizaki zuriak" [gizaki zuriaren izatea]. Izenda dezagun hau "jantzia". Zer da "jantziaren izatea"? Hau ere ez da "bera den aldetik" izendatzen ditugun horietakoa, "ez-bera den aldetik" esakunea bi zentzutan esan ezean: bata gehitzearen 30) bidez eta bestea ez. Lehenengo zentzuan, definitzen den hori bera beste zerbaiti gehituz esaten da; adibidez, "zuriaren izatea" definitzean "gizaki zuriaren" esakunea esaten bada; bigarren zentzuan, definitzen den horri berari beste zerbait gehituz; adibidez, "jantziak" "gizaki zuria" adierazten duela onarturik jantziaren definizioa "zuria" balitz bezala. Orduan, bada, 1030) gizaki zuria zuria da, baina ez "zuria izatearen esentzia".

Dena dela, jantziaren izatea benetako esentzia da ala ez? Esentzia zerkia baita, eta gauza bat beste gauza batez esaten denean ez da berez 5) zehaztutako zerbait; adibidez, "gizaki zuria" ez da berez zehaztutako zerbait, zehaztutakoa substantzietan bakarrik ematen bada, behintzat.

Beraz, esentzia izango dute gauza horiek, zeintzuen esakunea definizioa den; baina ez da definizioa izenak eta esakuneak gauza bera adierazteagatik (kasu honetan esakune guztiak lirake definizioak, edozein esakuneri izen bat egokituko baitzaio eta horrela, Iliada ere definizio bat 10) izango da), lehenengoa den zerbaitena izateagatik baizik.

Eta lehenengoak dira bata besteaz predikatu gabe esaten diren horiek. Orduan, genero baten espezie ez diren horiek ez dute esentziarik izango, baina bai diren hauek (hauek ez omen dira esaten ez partehartzez eta afekzioz, ezta akzidentalki ere). Baina gainerako guztientzat ere, izena 15) baldin badute, izango da honako hau adierazten duen esakune bat: "hau honetan ematen da"; edo esakune arrunt honen ordeztu, beste bat zehatzagoa. Hala ere ez da, ez definiziorik, ez esentziarik izango.

Edo, agian, zerkia bezalaxe definizioa ere zentzu askotan esaten da? Esentziak ere, hain zuzen, zentzu batean, substantzia eta zehaztutako zerbait adierazten ditu, baina beste zentzu batean, kategoria guztiak: 20) kantitatea, koalitetea eta gainerakoak. Eta "da" kategoria guztietan ematen den bezala -baina ez modu berean: kasu batean nagusiki, eta besteetan, bigarren mailako bezala-, horrela zerkia ere ematen da erabat substantzian eta, nolabait, gainerakoetan. Izan ere, galde genezake koalitetea 25) zer den; beraz, koalitetea zerkia da, baina ez erabatekoa; aitzitik, batzuek "ez-denaz" hitz egitean, esateko moduen arabera, "ez-dena badela" baieztatzen duten bezala -ez erabateko modu batez, "ez-den" zerbait den bezala baizik-, horrelakoxea da koalitetea.

Aztertu behar dugu, bada, gauza bakoitzaz nola hitz egin behar den, baina ez nolakoa den baino gehiago.

Horregatik orain, esandakoa begi-bistakoa denez, esentzia ere 30) substantzian emango da erabat eta nagusiki; ondoren, beste kategorietan, zerkia ematen den bezala: ez erabateko esentzia, koalitetearen esentzia edo kantitatearen esentzia baizik. Esan behar da hauek badirela izan, edo izenkidetasunez, edo <substantziari> gehitu edota kendu egiten zaizkiolako, ezagutezina ezagungarria dela esaten den bezala, zeren ez baita zuzena ez izenkidetasunez, ez substantzia den aldetik direla esatea; aitzitik, 1030b) sendakuntzari dagokiona esaten da gauza beraren eta gauza baten arabera emateagatik, eta ez gauza bera eta gauza bat izateagatik, ezta izenkidetasunez ere, ez baitzaie "sendakuntzari dagokiona" esaten gorputzari, ekintza bati eta tresna bati izenkidetasunez, ezta esanahi bakar bat izateagatik ere, gauza bakar baten arabera izateagatik baizik. §§ 134

Hala ere, gauza hauetaz nola hitz egin gutxienekoa da. Baina gauza 5) bat, behintzat, argi dago: definizioa -erabatekoa eta nagusia- eta esentzia substantziei dagozkie; haatik, gainerako kategoriei ere badagozkie berdintsu <definizioa eta esentzia>, baina ez nagusiki. Eta hau onartuta ere, ez da beharrezkoa definizioa izatea hitz batek esakune jakin baten esanahia bera duenean, esakune jakin baten esanahia bera duenean baizik; eta hau, esakunea batasuna duen zerbaitena denean, ez jarraia izateagatik -Iliada edo elkar-loturik dauden horiek bezala-, "bata" esaten den zentzuetan esateagatik baizik.

10) Eta "bata" "den-a" esaten den bezala esaten da: "den-ak", alde batetik, zehaztutako zerbait adierazten du; beste alde batetik, kantitate bat edo koalitate bat. Horregatik gizaki zuriak ere izango ditu esakunea eta definizioa, baina ez zuriak eta substantziak dituzten bezala.

V

Norbaitek gehiketaz osaturiko esakunea definizioa denik onartzen 15) ez badu, aporia sortzen da: bakunak izan beharrean, bi osagaiz osaturiko gauzen artean, zeinek izango du definizioa? Hau argitu behar da gehiketa abiapuntutzat hartuz. Esan nahi dut, adibidez, sudurra eta ahurtasuna; eta sudur motza ere bai, hau aurreko biez osaturikoa, bata bestean emateagatik; eta sudur moztasuna eta ahurtasuna ez dira akzidentalki ematen diren sudurraren afekzioak, berezkoak baizik; eta ez dira <ematen> "zuria" 20) Kaliasengan <ematen den> bezala, edo gizakiarengan -zuria den Kaliasengan akzidentalki ematen baita gizakia izatea-, baizik eta "arra" animaliarengan, berdintasuna kantitatean eta berez ematen direla esaten diren horiek guztiak <ematen diren> bezala. Eta berez ematen dira gauza horiek, zeintzuetan ematen den, edo esakunea edo hura, zeinaren izena afekzioa den, hau berezirik eman ezin daitekeelarik.

25) Horrela, "zuria" gizakirik gabe eman daiteke, baina "emea", animaliarik gabe, ez. Beraz, gauza hauek esentziarik eta definiziorik ez dute, edo, izatekotan, beste modu batez, esana dugun bezala<sup>38</sup>.



Beste aporia bat sortzen da honen inguruan. Izan ere, "sudur motza" eta "sudur ahurra" gauza bera baldin badira, 30) "motza" eta "ahurra" gauza bera izango dira. Eta horrela ez bada, "motza" gauza hura, zeinaren berezko afekzioa den, gehitu gabe aipatzea ezinezkoa denez ( "motza" sudurrean ematen den ahurtasuna baita), "sudur motza" esatea ezinezkoa izango da edo bi aldiz errepikatuko da gauza bera, "sudur-sudur ahurra", alegia (sudur motza "sudur-sudur ahurra" izango baita). Horregatik da lekuz kanpokoa gauza jakin hauek esentzia izatea. 35) Bestela, prozesua amaigabea izango da, sudur-sudur motz batean beste 1031a) sudur bat izango baita.

Argi dago, beraz, substantziak bakarrik duela definizioa. Eta gainerako kategoriek baldin badute, gehiketaz izango dute nahitaez; adibidez, kantitateak eta bakoitiak, hau ezin baita definitu zenbakia gehitu gabe, ezta emea animalia gehitu gabe ere ( "gehiketaz" osaturikoaz ari naiz 5) gauza batean gauza bera bi aldiz esaten denean, aurreko kasuetan bezala).

Eta hau egia baldin bada, bi osagaiz osaturikoek ere ez dute definiziorik izango, esate baterako zenbaki bakoitiak. Baina ez gara honetaz konturatzen esakuneak zorrotz azaltzen ez ditugulako. Eta gauza hauek ere definizioa baldin badute, hau beste modu batekoa izango da edo, esana dagoen bezala, definizioa eta esentzia zentzu askotan esaten direla onartu beharko da.

10) Beraz, zentzu batean, ezerk ez du ez definiziorik, ez esentziarik izango, substantziek izan ezik; baina beste zentzu batean, bai.

Argi dago, bada, definizioa esentziaren esakunea dela, eta esentzia substantzietan bakarrik ematen dela, edo substantzietan neurri gorenez, nagusiki eta erabat.

VI

15) Ikertu behar da banako bakoitza eta esentzia gauza bera ote diren ala gauza desberdinak, hau baliabidea baita substantziaren inguruko ikerketarako.

Izan ere, banako bakoitzak ez dirudi bere substantziaz beste denik, eta esentzia banako bakoitzaren substantzia dela esaten da.

Akzidentalki ematen diren gauzetan desberdinak dirudite; 20) adibidez, "gizaki zuria" eta "gizaki zuriaren izatea". (Gauza bera balira, "gizakiaren izatea" eta "gizaki zuriaren izatea" gauza bera lirateke, "gizakia" eta "gizaki zuria" gauza bera baitira batzuen ustez; beraz, "gizaki zuriaren izatea" eta "gizakiaren izatea" ere gauza bera izango dira. Edo akzidentalki ematen diren gauzak eta beraien esentziak ez dira, nahitaez, gauza bera, <silogismoaren> bi muturrak ez direlako zentzu berean gauza 25) bera suertatzen. Hala ere, baliteke gauza bera direla iruditzea, hots, akzidentalki suertatzen diren silogismoaren muturrak gauza bera direla iruditzea, adibidez "zuriaren izatea" eta "musikariaren izatea". Baina ez dirudi horrela denik).

Berez ematen direla esaten ditugun gauzetan, adibidez aurretiko beste substantziarik edo beste naturarik ez duten substantzia batzuk baldin 30) badaude, batzuen ustez Ideiak dauden bezala, nahitaez ote dira gauza bera <banako bakoitza eta bere esentzia>? Izan ere, "Ongia Bera" eta "Ongiaren izatea", "animalia" eta "animaliaren izatea" eta "den-a" eta "den-aren izatea" gauza desberdinak baldin badira, aipaturikoez aparteko beste 1031b) substantzia, natura eta ideia batzuk izango dira, eta gainera haien aurrekoak eta substantzia neurri handiagoz, esentzia substantzia baldin bada. Eta batzuk eta besteak elkarrengandik bereizita baldin badaude, batzuen zientziarik ez da izango eta besteak ez dira izango. (Eta "bereizita 5) egotea" diot Ongiaren Beraren Baitan ongiaren izatea ematen ez bada, edo Ongiaren Izatearen Baitan on izatea ematen ez bada).

Izan ere, banako bakoitzaren ezagutza banakoaren esentzia ezagutzen dugunean izaten da, eta berdin Ongiari eta gainerakoei dagokienez; beraz, Ongiaren izatea ona ez bada, orduan Den-aren izatea ere ez da "Den-a", ezta Bataren izatea Bata ere. Eta esentzia guztiak, edo berdin 10) ematen dira edo ez da bat bera ere ematen; honen ondorioz, den-aren izatea "den-a" ez baldin bada, gainerakoena ere ez da izango.

Gainera, gauza bat ez da ona izango bere baitan ongiaren izatea ematen ez bada. Horrela, bada, nahitaez izango dira bat bera Ongia eta Ongiaren izatea, Ederkia eta Ederkiaren izatea, baita beste baten arabera izan beharrean berez eta nagusiki direla esaten diren guztiak ere. Eta hau guztia emanez gero, 15) nahikoa da, nahiz eta Formarik izan ez eta, are gehiago Formak baldin badira, agian. (Aldi berean, argi dago ideiak baldin badira, batzuek esaten duten bezala, azpigaia ez dela substantzia izango, Ideiak izango baitira, nahitaez, substantziak, eta ez dira azpigai batez predikatuko; <banako bakoitza> partehartzez izango da-eta).

Esandako honetatik guztitik ateratzen da banako bakoitza eta bere 20) esentzia gauza bat eta gauza bera direla, eta ez akzidentalki, eta banako bakoitza ezagutzea bere esentzia ezagutzea dela; beraz, indukzioz ere biak bat bera direla <erakusten da>. (Aکزidentalki ematen direnei dagokienez, esate baterako "musikaria" edo "zuria", ez da egiazkoa banakoa eta bere esentzia gauza bera direnik, "akzidenteak" dituen bi esanahiengatik: "zuria", 25) akzidente hau duenari dagokio, baita akzidenteari berari ere. Beraz, zentzu batean gauza bera dira <banakoa eta esentzia>, baina bestean, ez. Zuriaren izatea ez da gizakiaren izatea, ezta gizaki zuriaren izatea ere, baina bada afekzioa.)

Eta esentzia bakoitzari banakoaz aparteko izena jartzea ere lekuz kanpo irudituko litzateke, haietako bakoitzaz aparteko beste bat izango 30) bailitzateke, esate baterako zaldiaren esentziari [zaldiaren] beste esentzia bat.

Alabaina, zerk eragozten du gauza batzuk eta beren esentzia zuzenean gauza bat bera izatea, esentzia substantzia baldin bada? Izan ere, bat bera izan ezezik, haien esakuneak ere bat bera dira, esandakoarengatik 1032a) argi geratu den bezala; Bata eta Bataren izatea ez baitira bat akzidentalki.

Gainera, esentzia desberdina baldin bada, amaigabeko prozesua izango da: batetik, Bataren esentzia izango da eta, bestetik, Bata; hortaz, arrazonamendua bera izango da hauentzat.

Honen ondorioz, argi dago lehenak eta berez direla esaten diren 5) gauzei dagokienez, banako bakoitzaren izatea eta banako bakoitza gauza bat eta gauza bera direla.

Eta proposizio honen kontrako sofisten errefusapenak konpontzeko, begi-bistakoa da konponbidea: "Sokrates bera" eta "Sokratesen izatea" bat bera ote diren arazoarekin bezalaxe, ez baitago inolako alderik, ez galdetzeko har daitezkeen abiapuntuetan, ezta irtenbide eman dezaketen erantzunetan ere.

10) Beraz, esana dago banako bakoitza eta bere esentzia zein zentzutan diren gauza bera eta zeinetan ez.

## VII

Sortuak diren gauzetatik, batzuk naturaz dira sortuak, beste batzuk, artez eta beste zenbait, bere kasa; baina denak sortzen dira zerbaiten bidez, denek dute abiapunturen bat eta denak izango dira zerbait; "zerbait" diot edozein kategoriari dagokionez, denak izango baitira edo hau, edo 15) zenbateko bat, edo halakoren bat edo nonbaiteko zerbait. Naturaz sortuak diren gauzak naturatik sortzen direnak dira; abiapuntua materia izendatzen duguna dute, eta naturaz den zerbaiten bidez sortzen dira; bestalde, sortzen dena "gizakia" edo "landarea" edo honelako beste zerbait izango da, hots, nagusiki direla substantzia 20) izendatzen ditugun horietakoa. -Eta naturaz edo artez sortzen diren gauza guztiek dute materia; izan ere, litekeena da banako bakoitza izatea eta ez-izatea, eta haxe da banako bakoitzaren materia-.

Orokorrean, duten abiapuntua natura da, naturaren arabera sortzen dira (sortua denak natura baitu, esate baterako landarea edo animalia) eta naturaren bidez sortzen dira, natura hau espezie bereko formaren arabera hartuta (espezie hau beste baten baitan ematen da, gizaki 25) batek beste gizaki bat sortzen du-eta). Horrela, bada, sortzen dira naturaren bidez sortuak diren gauzak. Gainerako generazioak ekoizpenak izendatzen dira. Eta ekoizpen guztiak sortzen dira artez, potentziaz edo pentsamenduz. Baina batzuk bere kasa eta kasualitatez ere

30) sortzen dira, naturaz sortzen direnen antzera; hemen ere, hain zuzen, sortzen baitira batzuk hazi batetik eta beste batzuk hazirik gabe. Dena dela, honen inguruan geroago ikertuko dugu.

1032b) Artearen bidez sortzen dira forma ariman duten horiek (forma izendatzen dut banako bakoitzaren esentzia, hots, substantzia lehena); izan ere, kontrakoen forma, forma bera da, nolabait, ezaren substantzia, substantzia kontrajarria baita; adibidez, gaixotasunarena 5) osasuna da, honen eza baita gaixotasuna, eta osasuna ariman dagoen nozio bat da, hots, ezagutza.

Egoera osasuntsua, bestalde, honela arrazoituz sortzen da: osasuna honako gauza jakina denez, nahitaez eman beharko da honako hau osasuntsu izango bada, adibidez, oreka jakin bat; eta hau emango bada, berotasuna; eta horrela arrazoitzen jarraitu behar du <sendagileak> azkenean berak ekoiz lezakeen hartara iristeraino. Hemendik aurrera 10) emango den mugimenduari -osasuna lortzeko mugimenduari, alegia- ekoizpena deitzen zaio.

Beraz, osasunak, nolabait, osasuna du abiapuntua eta etxeak, etxea; materiadunak materiagabea, sendagintza eta etxegintza osasunaren eta etxearen espezie baitira. Eta esentzia materiari gabeko substantziari esaten diot.

15) Generazioen eta mugimenduen lehen pausua pentsamendua da eta bigarrena, ekoizpena; pentsamendua, abiapuntuak printzipioa eta forma dituen, eta ekoizpena, abiapuntua pentsamendu burutua duena. Eta berdin sortzen dira bitarteko ekoizpen guztiak; esan nahi dut, sendatzekotan, orekatu beharko litzatekeela. Eta, zer da orekatzea? Honako hau. Eta honako hau emango bada, berotu egin behar.

20) Eta honako hau, zer da? Beste hori. Baina hori potentzian ematen da eta, jada, haren menpe dago.

Horrela, bada, artea baldin badu abiapuntua <kausa> ekoizlea, hots, osasunerako mugimenduaren abiapuntua den hori, ariman dagoen forma izango da; baina bere kasa sortzen bada, abiapuntua izango da artez ekoizten duenaren ekoizpenaren abiapuntu bera, sendabidean, agian, 25) abiapuntua berotzea den bezala (hau igurtzien bidez lortzen da). Beraz, gorputz-berotasuna osasunaren zati da, edo haren ondoren - <zuzenean> edo bitarte batzuetan zehar- osasunaren zati den antzeko zerbait ematen da. Eta hau da azkeneko <kausa> ekoizlea, osasunaren zati dena, eta etxearena 30) (harriak, adibidez) eta gainerako guztiarena.

Gauzak horrela, esan bezala, ezinezkoa da generazioa lehendik zerbait izan ezean. Agerikoa da derrigorrez eman behar dela zatiren bat, materia zati bat baita (izan ere, gauzaren baitan ematen da eta bilakatu 1033a) egiten da). Baina <materia> esakunearen zati al da? Izan ere, bi modutan esaten dugu brontzezko zirkuluak zer diren: materia aipatuz, brontzea eta forma aipatuz, honelako irudia dela, hau lehenengoz egokitzen zaien generoa delarik. Horrela, bada, brontzezko zirkuluak materia du bere esakunean.

5) Gauza batzuk sortu ondoren, abiapuntua materia izan dutelarik, abiapuntuaren arabera izendatzen dira, eta ez "zer", "zerezko" baizik; adibidez, giza irudia ez da "harria", "harrizkoa" baizik. Aitzitik, sendatzen den gizakia ez da sendatze-abiapuntuaz izendatzen. Honen arrazoia zera da, sortuak diren gauzak ezatik eta materiatic izendatzen dugun azpigaitik sortzen direla (adibidez, izaki osasuntsu, gizakia nahiz gaixorik dagoena 10) bilakatzen da), baina genesia, bereziki,

ezatik sortzen dela esaten da, adibidez, gaixorik egotetik osasuntsu izatera, ez gizaki izatetik osasuntsu izatera. Horregatik ez zaio osasuntsu denari "gaixo" esaten, baina bai "gizaki", eta gizakiari, "osasuntsu". Baina eza iluna eta izengabea denean -esate baterako, 15) brontzean irudirik ez, edo adreilu eta egurretan etxerik ez-, badirudi materialeotatik sortzen direla gauzak, "osasuntsua" "gaixorik" dagoenarengandik bezala. Horregatik osatuak bere abiapuntutik izena jasotzen ez duen bezala, kasu hauetan ere ez da giza irudia "egurra" izendatzen, "egurrezkoa" baizik eta ez "brontzea", "brontzezkoa" baizik, ez "harria", "harrizkoa" baizik eta etxea "adreiluzkoa", ez "adreilua". Izan ere, 20) arretaz kontsideratuz gero, ezin esan liteke erabateko moduan giza irudia harritik sortzen denik, ezta etxea adreiluetatik ere, haien abiapuntu denak bilakatu behar lukeelako eta ez bere hartan iraun. Hortik esateko modu hau.

### VIII

Sortuak direnak zerbaiten bidez sortzen direnez (generazioaren 25) abiapuntuaz ari naiz), eta zerbaitetik sortzen direnez (ez bedi "eza" "zerbaitzat" har, baizik eta materia, zehaztuta baitago jada zein zentzutan esaten dugun hau<sup>39</sup>), eta zerbait izatera iristen direnez (esfera, zirkulua edo beste zer edo zer), <kausa ekoizleak> azpigaia ekoizten ez duen bezala 30) brontzeak ere ez du esfera ekoizten, akzidentalki ez bada, esfera baita brontzezko esfera, eta hau bai ekoizten duela.

Izan ere, zerbait zehaztua ekoiztea, erabateko zentzuan azpigai den zerbaitetik zerbait zehaztua ekoiztea da, hain zuzen (esan nahi dut brontzea borobil egitea ez dela borobiltasuna edo esfera egitea, beste zerbait ekoiztea baizik, adibidez, forma hau beste zerbaitetan. Eta <forma> egitekotan, beste 1033b) zerbaitetik abiatuz egingo litzateke eta hau, hain zuzen ere, azpian zegoen; adibidez, brontzezko esfera bat honela egiten da: brontze den honako honetatik esfera den honako hau egiten da). Beraz, <kausa ekoizleak> bere burua ere egingo balu, argi dago berdin egingo lukeela, eta genesiak prozesu amaigaberantz zuzenduko lirateke.

5) Agerikoa da, beraz, forma -edo sentimenezko gauzetan ematen den konfigurazio delako hori- §§ ez dela ez sortu, ezta bere

baitatik ezer sortzen ere, eta esentzia ere ez (hau beste zerbaitean artez, naturaz edo potentziaz sortua dena baita). <Kausa ekoizleak> brontzezko esfera izatea ekoizten du, hau brontzetik eta 10) esferatik sortzen baitu: forma honako honetan jarri eta hau brontzezko esfera izango da. Baina esferaren izate orokorraren genesia izatekotan, zerbaitetik sorturiko zerbait izango da.

Izan ere, sortutakoak zatigarria izan behar du beti: zati bat, honako hau izango da eta bestea, beste hori, hots, bata materia eta bestea forma.

Eta esfera zirkunferentziaren puntu guztiak erditik distantziakide dituen irudia baldin bada, haren zati bat izango da hori, non kausa ekoizlea 15) dagoen, eta bestea, hartan ekoizten dena, eta bere osotasunean, sortua dena izango da, brontzezko esfera, adibidez.

Esandakoarengatik begi-bistakoa da forma edo substantzia deiturikoa ez dela sortzen, baina bai honen arabera deituriko osatua dena; eta sortua den guztian materia dago, zati bat materia eta bestea forma direlarik.

Alabaina, sentimenezko esferez aparteko esferarik, edo adreiluez 20) aparteko etxerik ba al dago? Horrela balitz, inoiz ezer zehazturik sortuko ez litzatekeela ez ote? Aitzitik, zerbait "honelakoa" dela adierazten da, ez zerbait zehaztua; eta, gainera, ez al da zerbait honetatik "honelako zerbait" sortzen eta, behin hau sortuta, "honelako hau" izango? Bestalde, zehaztua den oro -Kalias edo Sokrates- brontzezko esfera zehaztu hau bezalakoak 25) dira, eta gizakia eta animalia, berriz, brontzezko esfera orokorra bezalakoak.

Beraz, agerian dago banako bakoitzaz aparteko formarik baldin badago -batzuek Formez hitz egin ohi duten bezala-, Formen kausak ez duela generazioak eta substantziak azaltzeko inongo baliorik izango.



Eta horregatik, <Formak> behintzat, ez dira berezko substantziak izango.

30) Zenbait kasutan ere agerikoa da sortzailea sortutakoa bezalakoa dela, nahiz eta gauza bera izan ez, ezta gauza bat ere kopuruz, espeziez baizik; adibidez, naturazko generazioak -gizakiak gizakia sortzen baitu-, naturaz aparte zerbait sortzen ez bada, behintzat, hala nola zaldiak mandoa (eta kasu hauetan ere berdin gertatzen da, zaldiak eta astoak baterako 1034a) luketen horrek, generorik gertuenak, alegia, izenik ez duelako, baina ziurraski biak izango dira, esate baterako, mando).

Beraz, argi dago ez dela zertan ezaririk eredu izango den Formarik (eta behar izanez gero, naturazko errealitateotan bereziki, hauek 5) baitira substantzietan substantzienak); aitzitik, nahikoa da sortzaileak sortu eta materiaren baitako espeziearen kausa baldin bada. Eta, azkenik, osoa den hori -haragi eta hezurrotan gauzatzen den espezie jakin hau, alegia- Kalias eta Sokrates dira, hauek materiaz bereizi egiten direlarik (desberdina baita hau), baina espeziez gauza bera izanda (espeziea zatiezina baita).

## IX

Honako aporia hau ere azal liteke: zergatik sortzen dira gauza 10) batzuk -osasuna, adibidez- artez eta bere kasa, eta beste batzuk -etxea, esate baterako-, ez? Honen arrazoia zera da: Genesiari hasiera ematen dion materia, batzuetan, zerbait artez sortu eta ekoizten denean, eta sortutakoaren zatiren bat bere baitan mantentzen denean, orduan honelako materia, batzuetan berez izaten da mugitzeko gai, beste batzuetan, ez. Eta lehenengo kasuan, honelako gauza bat modu jakin batez mugitzeko gai 15) izaten da eta beste gauza bat, ez. Izan ere, asko dira berez mugitzeko gai direnak, baina ez modu jakin batez, adibidez, dantza egiteko. Orduan, honelako materia duten gauzek -harriek, adibidez- ezinezkoa dute modu jakin batez mugitzea beste baten eraginez ez bada, baina beste modu batez mugitzeko gai dira, [hala nola sua]. Horregatik gauza batzuk ez dira izatera iritsiko arte duen hori gabe, eta beste batzuk, ordea, bai; izan ere, hauek mugiaraziko dituzten eragileak arterik ez duten eragileak dira, baina arterik 20) ez duten beste eragile batzuk mugiaraziak dira, edo bestela <mugimendua> zatiren batetik sortuko da.

Esandakoarengatik ere argi dago gauza guztiak, nolabait, izenkide den zerbaitetik sortzen direla, naturazko errealitateak bezala [edo izenkide den zati batetik] (adibidez, etxea etxe batetik, hau adimenean dagoelako, artea forma baita); edo <izenkide den> zati batetik edo zatiren bat 25) duen zerbaitetik, generazioa akzidentalki suertatzen ez bada, behintzat.

Izan ere, ekoiztearen kausa berez eta lehena den zatia da, mugimenduan sortzen den beroa gorputzaren berotasuna eragiten duelako. Bestalde, berotasun hau osasuna edo osasunaren zati bat da, edo bestela honekin batera ematen den zerbait, osasunaren zati bat edo osasuna bera. Eta horregatik esaten da ekoiztu egiten duela, osasunarekin batera ematen 30) den hori, zeinaren akzidentea den, horixe delako.

Beraz, silogismoetan bezala, substantzia da gauza guztien printzipioa, "zerkia"tik sortzen direlako silogismoak, eta hortik ere, genesiak.

Naturaz sortutakoak, halaber, berdin ekoizten dira, haziak artez ekoizten dutenak bezala ekoizten baitu, espeziea potentzian duelako eta 1034b) haziaren abiapuntu den hori, nolabait, izenkide delako; hala ere, izenkidetasuna ez da beti bilatu behar gizaki batengandik gizakia sortzen den bezala, gizon batengandik emakume bat ere sortzen baita, [akastun den zerbait izan ezean: hortik mandoarengandik mandoa ez sortzea].

Eta bere kasa sortzen diren gauzak berdin sortzen dira, baldin eta 5) haien materia bere buruari haziak sortzen duen mugimendu bera emateko gauza bada; gauza ez baldin bada, orduan beren buruaren bidez baino ezin sortuak izan.

[Forma sortua ez dela argi uzten duen arrazonamenduak, substantziari buruzkoa izan ez ezik, berdin balio du zehaztasun lehenentzat 10) ere, esate baterako kantitate, koallitate eta gainerako kategorientzat.

Izan ere, brontzezko esfera -baina ez esfera, ezta brontzea ere- sortzen den bezala, eta berdin brontzeari dagokionez, hau sortzen baldin bada (beti aurreizan behar baitute materiak eta formak), horrelaxe zerkiari, koallitateari, kantitateari eta gainerako kategoriei dagokienez, ez baita 15) "koallitatea" sortzen, "honetako egurra" baizik, ezta "kantitatea" ere, "honenbesteko egurra edo animalia" baizik.

Baina hemendik ateratzen da substantziaren ezaugarri bat: hau sortu ahal izateko derrigorrez aurreizan behar duela burutua den beste substantzia batek, adibidez, animalia bat animalia sortuko bada; aitzitik, koallitateak eta kantitateak ez dute nahitaezko aurreizan behar, potentzian izan ezik.]

X

20) Definizioa esakune bat denez, esakune orok zatiak dituenek, eta esakunea gauzarekiko esakunearen zatiak gauzaren zatiekiko bezalakoa denez, berehala sortuko da aporia hau: zatien esakunea osoaren esakunearen bere baitakoa den ala ez, kasu batzuetan bere baitakoa baitirudi, 25) baina beste batzuetan, ez; izan ere, zirkuluaren esakunearen baitan ez dago segmentuen esakunea, baina silabaren esakunearen baitan badago beraren osagaiena. Alabaina, zirkulua ere zatitzen da segmentuetan, silaba bere osagaitan bezala. Gainera, zatiak osoaren aurrekoak baldin badira, eta angelu zorrotza angelu zuzenaren zati baldin bada, eta hatza gizakiarena, orduan angelu zorrotza angelu zuzenaren aurrekoa izango da, eta hatza 30) gizakiarena. Hala eta guztiz ere, hauek dirudite aurrekoak: haien esakunea hauen bidez egiten da eta, gainera, hauek aurrekoak dira beste haiek izan gabe hauek izan daitezkeelako.

Edo, agian, "zati" zentzu askotan esaten da eta horietako bat "kantitatearen arabeko neurria" da. Baina utz dezagun hau albo batera, aztertu beharrekoa substantzia osatzen duten zatiena da-eta.

1035a) Horrela, bada, gauza bat materia baldin bada, beste bat forma, eta beste bat, bi hauez osaturikoa; eta materia, forma eta bi hauez osaturikoa substantzia baldin badira, kasu batzuetan materia ere zerbaiten zati dela esaten da, eta beste batzuetan ez, <zatiak> formaren esakunearen osagai diren horiek direla baizik. Adibidez, haragia ez da ahurtasunaren zati 5) (hura baita materia non hau sortzen den), baina bai sudur-moztasunarena. Eta brontzea giza irudiaren zati da, hau multzoa den aldetik, baina ez gizairudiaren zati, hau formaren esakunea den aldetik (forma eta gauza bakoitza -honek forma duen aldetik- azaldu behar baitira, baina materialazko dena, berez, ez da inolaz ere azaldu behar). Horregatik ez dago zirkuluaren esakunearen baitan segmentuen esakunea, baina silabaren 10) esakunearen baitan bai haren osagaiena; izan ere, letrak formaren esakunearen zati dira, ez materia, baina segmentuak zati dira, ez materia, baina segmentuak zati dira materia -non <zirkulua> sortzen den- diren aldetik; hala ere, segmentuak brontzea baino gertuago daude formatik borobiltasuna brontzean sortzen denean.

Dena dela, zentzu batean, silabaren osagai guztiak ez dira 15) esakunearen baitan ematen; adibidez, argizarian grabaturikoak edo haizeak eramandakoak, hauek ere, dudarik gabe, silabaren zati badira, baina sentimenezko materia diren aldetik.

Eta lerroa zatitzean azpillerrotan banatzen bada ere, edo gizakia hezur, nerbio eta haragitan, horregatik ez dira hauek osagaiak 20) substantziaren zati diren aldetik, materia diren aldetik baizik, eta osaturiko denaren zati dira, baina ez formarenak, ezta esakuneak adierazten duenarenak ere; horregatik ez dira esakunaren baitan ematen. Horrela, bada, honelako zatien esakunea zenbait esakuneren baitan emango dira, baina beste zenbaitetan ez da eman behar [osaturiko zerbait ez baldin bada].

Hau dela eta, batzuetan zatitzean sortzen diren osagaiak berak 25) izango dira zenbait gauzaren printzipioak, baina beste batzuetan, ez. Beraz, formaz eta materiaz osaturikoak -esate baterako, sudur motza edo brontzezko zirkulua- beraietan banatzen dira, materia haietako zati izanik. Aitzitik, materiaz osaturik ez diren horiek, materiari gabe osaturikoak, alegia, zeintzuen esakuneez forma bakarrik adierazten duten, horiek ez dira 30) inola ere banatzen edo, banatzekotan, beste modu batez. Beraz, osagai hauek <osaturiko> horien printzipioak eta zatiak dira, baina ez dira formaren, ez printzipio, ez zati. Horregatik buztinezko giza irudia buztinetan banatzen da, esfera <brontzezkoa> brontzetan eta Kalias, hezur eta haragitan; baita zirkulua segmentuetan ere, hain zuzen, nolabaiteko 1035b) materiaz osaturiko zirkulu bat badago-eta. Izan ere, zirkulua zentzu absolutuan eta banako zirkulua izenkidetasunez izendatzen dira, banako zirkuluentzat izen berezirik ez dagoelako.

Esandakoa zinez da egia; hala ere, argiago azalduko dugu gaiari berriz ekiten badiogu.

5) Esakunearen zatiak, zeintzuetan esakunea banatzen den, esakunearen aurrekoak dira, edo denak edo horietako batzuk. Baina angelu zuzenaren esakunea ez da angelu zorrotzaren esakunean banatzen, zorrotzaren esakunea zuzenarenean baizik, angelu zorrotza definitzeko angelu zuzena behar delako, zorrotza zuzena baino txikiagoa baita. Eta berdin zirkuluari eta zirkuluerdiari dagokienez, zirkuluerdia zirkuluaren 10) arabera definitzen delako; baita hatza osoaren arabera ere, "honetako gizaki-zatia" hatza baita. Beraz, materia diren zatiak, zeintzuetan -materia diren aldetik- osoa zatitzen den, osoaren ondorengoak dira. Aitzitik, esakunaren zatiak, hots, esakunearen araberako substantziaren zatiak, osoaren aurrekoak dira, edo denak, edo haietako batzuk. 15) Gero,

animalien arima (arimadunen substantzia berau baita) esakunearen arabera substantzia da, hots, gorputz jakin baten forma eta esentzia (banako zati bakoitza ongi definitzekotan, hain zuzen, ez da prozedurarik gabe izango, eta prozedura ezin sentsaziorik gabe eman); beraz, arimaren zatiak -denak edo haietako batzuk- animalia osatuaren aurrekoak 20) dira, eta berdin banako animalia bakoitzaren kasuan. Aitzitik, gorputza eta bere zatiak substantzia honen ondorengoak dira eta materia den aldetik zatitan banatzen da, baina ez substantzia, osaturikoa baizik.

-Zati hauek osaturikoaren aurrekoak dira, zentzu batean, baina beste zentzu batean, ez (banaturik ezin izan baitaiteke; izan ere, animalia baten hatza ez da edonola hatza, hilik dagoen hatza izenkidetasunez baino ez delako hatza). 25) Eta zati batzuk <osaturikoarekin> batera ematen dira: nagusi direnak eta hori, non forma eta substantzia lehenengoz ematen den; adibidez, bihotza edo burmuinak, horrelakoak baldin badira, bata zein bestea berdin duelako.

Bestalde, gizakia eta zaldia, baita banako bakoitzaz horrela esaten diren unibertsal guztiak ere, ez dira substantzia, forma eta materia jakin 30) batzuez osaturiko unibertsalak baizik. Baina banakoei dagokienez, Sokrates azkeneko materiaz osaturikoa da jadanik, eta berdin gainerakoak.-

Horrela, bada, zatia izango da formarena (forma esaten diot esentziari), formaz eta materiaz osaturikoarena eta materia berarena ere bai. 1036a) Baina esakunearen zatiak formarenak bakarrik dira, eta esakunea berriz, unibertsalarena. Izan ere, zirkulua eta zirkuluaren izatea gauza bera dira, eta arima eta arimaren izatea ere bai. Baina osaturiko zerbaitek, adibidez, zirkulu jakin honek edo banako zirkuluren batek, hau sentimenezko nahiz adimenezkoa delarik -adimenezko zirkuluak matematikoak izendatzen ditut, esaterako,

5) eta sentimenezkoak brontzezko edo egurrezko zirkuluak, alegia-, hauek ez dute definiziorik; aitzitik, hauek pentsamenduaren edo sentimenezko pertzepzioaren bidez ezagutzen dira, eta beren entelekiatik alde egiten dutenean ez dago argi diren ala ez diren. Baina beti esan eta ezagutzen dira esakune unibertsalaren bidez; eta materia, berez, ezagutezina 10) da. [Eta materia, edo sentimenezkoa, edo adimenezkoa da: sentimenezkoa, adibidez brontzea, egurra eta mugikor diren horiek; adimenezkoa, sentimenezkoetan ematen dena, baina ez sentimenezko diren aldetik, adibidez, errealitate matematikoak].

Horrela, bada, nolabait esana dago osoari eta zatiari, aurrekoari eta ondorengoari dagokiena. Eta norbaitek galdetzen badu ea angelu zuzena, 15) zirkulua eta animalia beraien zatien -beraiek banatzen diren eta osatzen dituzten zatien- aurrekoak diren ala ez, erabateko ezetza eman behar da.

Arima animalia edo biziduna baldin bada, edo banako bakoitzaren arima banako hori baldin bada, eta zirkuluaren izatea zirkulua baldin bada eta angelu zuzenaren izatea -substantzia, alegia-, angelu zuzena baldin bada, orduan onartu behar da osoa, nolabait, zatiaren ondorengoa dela, zentzu 20) batean; adibidez, ondorengoak dira esakunearen zatiak eta angelu zuzen batenak (hau materiaduna baita: brontzezko angelu zuzena eta banako lerroek osatua); alabaina, materia gabea esakunearen zatien ondorengoa da, baina banakoaren zatien aurrekoa. Halere, ez da hau guztiz onartu behar. Eta arima animalia ez den beste zerbait baldin bada, berdin erantzun behar (25) da, batzuk aurrekoak direla eta beste batzuk ez, esana dagoen bezala.

## XI

Jakina, aporia hau sortzen da: zeintzuk dira formaren zatiak eta zeintzuk ez dira formarenak, osaturikoarenak baizik? Izanak izan, aporia hau argitzen ez bada, ezin da ezer definitu, definizioa unibertsalarena eta formarena baita. Beraz, zati materiadunak zeintzuk diren eta zeintzuk ez argi ez badago, 30) gauzaren esakunea ere ez da argi izango.

Horrela, bada, badira espezie desberdineko gauzetan ematen diren errealitateak, hots, zirkulu bat brontzean, harrian edo zurean; kasu hauetan guztietan argi omen dago brontzeak eta harriak ez dutela zer ikusirik zirkuluaren substantziarekin, hau haietan banangarria izateagatik. 35) Eta, bestetik, banangarri ikusten ez diren gauza horiei ezerk ez die 1036b) eragozten beste haiek bezalakoak izatea. Horrela gertatuko litzateke ikusten ditugun zirkulu guztiak brontzezkoak balira ere; izan ere, brontzea ez litzateke horregatik formaren zati izango, baina zaila litzateke pentsamenduaren bidez kentzea. Adibidez, gizakiaren forma beti ematen da haragian, hezurretan eta honelako gorputz-ataletan. Orduan, ba al dira 5) hauek ere formaren eta esakunaren zatiak ala ez? Edo materia dira, baina gainerako gauzetan ez emateagatik gizakiaren formatik ezin banandu?

Eta hau horrela omen denez, baina noiz den argi ez dagoenez, batzuek zalantzan dute zirkuluan eta triangeluan ere lerroen bidez eta jarraian definitzea zuzen ote den ala ez; aitzitik, hauen ustez gauza hauek 10) guztiak ere gizakiaren haragia eta hezurak, eta gizairudiaren brontzea edo harria bezala esaten dira. Eta gauza guztiak zenbaki bihurtzen dituzte, eta lerroaren esakunea diadarena dela baieztatzen dute. Eta Ideiak baieztatzen dituztenen artean, batzuek Diada Lerroa Bera dela esaten dute 15) eta beste batzuek Lerroaren forma, beraien ustez kasu batzuetan forma eta hori, non forma ematen den, gauza bera baita (adibidez, Diada eta Diadaren forma), baina Lerroaren kasuan, jadanik ez. Beraz, gauza askoren Forma bat bakarra dela gertatzen da, horien forma desberdina dela nabaria izanik (hauxe da Pitagorikoei ere gertatzen zitzaiena); eta litekeena da hauen guztien Forma bat eta bera ezartzea, eta besteek formak ez direla baieztatzea. 20) Baina horrela gauza guztiak bat izango dira.

Esana dago, bada, definizioei buruzko ikerketak aporia sortzen duela eta zergatik. Horregatik, gauza guztiak horrela bihurtzea



eta materia alde batera uztea ere alferrikakoa da, zenbait gauza, agian, "<forma> hau <materia> horretan" baitira, edo "zehaztasun hauek horrela" dituztelako.

25) Eta Sokrates Gazteak egin ohi zuen konparaketa, hots, animaliarena, ez da zuzena, egiaik urruntzen baita, eta gizakia zatirik gabe izan daitekeela -zirkulua brontzerik gabe bezala- suposarazten baitu. Baina ez da berdina, animalia sentimenezko den zerbait baita, eta mugimendurik gabe ezin da definitu, ezta zatiek nolabaiteko antolamendua ez badute ere. 30) Eskua, hain zuzen, ez da edonola gizakiaren zati, bere lana betetzeko gai ez bada. Beraz, bizidun izan behar du; eta bizigabea baldin bada, ez da gizakiaren zati izango.

[Bestalde, errealitate matematikoei dagokienez, zergatik ez dira esakuneak esakuneen zatiak, adibidez, zirkuluerdiak zirkuluenak? Izan ere, 35) hauek guztiak ez dira sentimenezkoak; edo ez dira ezertan bereizten? Sentimenezko ez badira ere, gauza batzuek materia izango dute-eta. Izan 1037a) ere, nolabaiteko materia izango du esentzia edo berez eta bere baitarako Forma ez den horrek guztiak, zehaztutako zerbait denak, hain zuzen. Horrela, bada, gauza hauek <zirkuluerdiak> ez dira izango <zirkulu> unibertsalaren zatiak, baina bai <zirkulu> banakoenak, lehen 5) esan bezala, materia sentimenezkoa nahiz adimenezkoa baita.]

Eta argi dago arima substantzia lehena dela, gorputza materia eta gizakia edo animalia ere unibertsalki hartutako bi hauez osaturikoa dela. Baina Sokrates eta Korisko, arima ere Sokrates baldin bada, bi zentzutan har daitezke (batzuek arimatzat eta beste batzuek osaturikotzat hartzen baitituzte). Baina zentzu bakar batean harturik "hau" arima jakin bat eta "hori" gorputz jakin bat baldin badira, 10) orduan banakoa ere unibertsala bezalakoa izango da.

Ondoren<sup>40</sup> ikertu beharko dugu substantzia jakin hauen materiaz aparte besteren bat dagoen ala ez, eta bestelako substantziaren bat -zenbakiak edo honelako zerbait, alegia- bilatu behar dugun ala ez. Hau dela eta, sentimenezko substantziak bereizten ere saiatzen gara, hauen ikerketa, 15) nolabait, fisikaren eta filosofia bigarrenaren lana baita.

Izan ere, fisikariak materiari buruz ezezik, esakuneak adierazten duen substantziari buruz ere jakin behar du bereziki. Baina definizioetan zein zentzutan diren zatiak esakunean ematen direnak, eta definizioa zergatik den esakune bakar bat (argi baitago bakar bat dela gauza; baina, 20) zergatik da bat, zatiak baldin baditu?) ondoren ikertu beharrekoa da<sup>41</sup>.

Esana dago, orokorki eta kasu guztietan, esentzia zer den eta zein zentzutan den berez bera, eta gauza batzuen esentziaren esakuneak zergatik dituen definitutakoaren zatiak eta beste batzuenak ez; halaber, 25) substantziaren esakunean ez daudela zatiak materia diren aldetik - ez baitira substantzia horren zatiak, osaturikoarenak baizik, eta honek badu esakunea zentzu batean, baina beste zentzu batean ez: materiarekin batera hartuz gero, ez dago (zehaztugabea baita), baina badago substantzia lehenari dagokionez; adibidez, gizakiaren esakunea arimarena da, substantzia bere 30) baitako forma baita, hau eta materia substantzia osatua deiturikoaren osagaiak direlarik. Adibidez, ahurtasuna. (Izan ere, hau eta sudurra, sudur motzaren eta moztasunaren abiapuntu dira, hauetan bi aldiz emango baita sudurra)-.

Baina substantzia osatuan, "sudur motz" batean edo Kaliasengan, esate baterako, materia ere izango da; <eta esana dago> substantzia eta 1037b) banakoa gauza bera direla kasu batzuetan, substantzia lehenetan

bezala; [adibidez, okertasuna eta okertasunaren izatea, hau substantzia lehena baldin bada] (lehena esaten diot beste batean edo azpigai material batean izendatzen ez den substantzia hori); baina materiadun gauzetan edo materiarekin batera ematen diren horietan guztietan, ez dira gauza bera 5) <substantzia eta banakoa>; ezta batasuna akzidentala baldin bada ere -Sokrates eta musikaria, alegia-, hauek akzidentalki baitira gauza bera.

## XII

Orain hitz egin dezagun lehenengoz definizioari buruz, Analitikoetan hitz egin ez genuen neurrian, hauetan sortutako aporia substantziaren ikerketarako baliagarria baita.

10) Hona hemen aporia: zergatik da bat hori, zeinaren esakunea, gure ustez, definizio bat den, adibidez, gizakiarena "animalia hankabikoa"? Eman dezagun hau dela haren esakunea. Orduan, hau, zergatik da bat eta ez 15) asko, animalia eta hankabikoa, hain zuzen ere? Izan ere, "gizakia" eta "zuria" asko dira, bata bestean ematen ez denean, baina bat dira bata bestean ematen denean eta subjektua -gizakia, hain zuzen- zerbaitek eragiten duenean (orduan gauza bakar bat sortzen da, "gizaki zuria", alegia). Baina hor, bata ez du bestean partehartzen, generoak ez baitu desberdintasunetan 20) parte hartzen, nonbait (kasu horretan, kontrakoetan ere partehartzea izango luke, desberdintasunak -zeintzuen bidez generoa desberdintzen den- kontrakoak baitira; eta partehartze izango balu ere, gauza bera izango litzateke, desberdintasunak bat baino gehiago baldin badira, adibidez, hankadun, hankabikoa, hegalgabea. Izan ere, hauek zergatik dira bat eta ez asko? Ez da izango genero batean emateagatik, horrela gauza guztiak gauza bakar bat izango liratekeelako.

25) Hala ere, definizioan agertzen diren horiek guztiek nolabaiteko batasuna izan behar dute, definizioa esakune bakar bat eta substantzia bakar batena baita; beraz, gauza bakar bat den zerbaiten esakunea izan behar du. Izan ere, "substantziak" bat eta zehaztua den zerbait adierazten du, esan bezala.

Baina ikertu behar dira, lehenengoz, zatiketen bideko definizioak, definizioan genero lehena deiturikoa eta desberdintasunak baino ez 30) daude-eta: gainerako generoak genero lehena eta honi gehituriko desberdintasunak dira. Adibidez, genero lehena "animalia" da; hurrengoak, "hankabiko animalia"; eta ondoren "hankabiko animalia hegalgabea". Eta 1038a) gauza bera termino gehiagoren bidez esaten badira ere. Hitz batez, ez da ezertan bereizten termino askoren bidez adierazten bada edo termino gutxiren bidez; beraz, termino askoren edo bi terminoren bidez adieraztea ere ez. Bestalde, bi hauetatik, bata desberdintasuna izango da eta bestea, generoa; adibidez, "hankabiko animalia"ren kasuan, "animalia" generoa da eta bestea, desberdintasuna.

5) Beraz, generoa beraren formez aparte ez baldin bada inolaz ere existitzen, edo existitzekotan materia bezala baldin bada (izan ere, soinu artikulatua genero eta materia da, baina desberdintasunek soinu artikulatutik espezieak sortzen dituzte, hots, osagaiak), agerian dago definizioa desberdintasunen bidez osaturiko esakunea dela.

Hala ere, desberdintasunaren desberdintasuna zatitu ere egin behar 10) da. Adibidez, "oindun" animaliaaren desberdintasun bat da; ondoren, "animalia oindun"aren desberdintasuna "oindun" den aldetik izan behar da. Beraz, zuzen hitz egitekotan, ez dago esaterik oindunen artean batzuk "hegaldunak" eta besteak "hegalgabeak" direnik (norbaitek hau esaten badu, ezjakintasunagatik izango da), batzuk "behaztunak" eta besteak "behatzgabeak" direla baizik. Hauek oinaren desberdintasunak baitira, 15) behatzak izatea nolabaiteko oinak izatea delako. Eta horrela jarraitu behar da etengabe, harik eta desberdintasunik ez duen zerbaiteira iritsi arte; orduan oin-espezieak desberdintasun beste izango dira eta "animalia oinduna" desberdintasun beste.

Baina hau horrela bada, agerian dago desberdintasun azkena 20) gauzaren substantzia izango dela, bai eta haren definizioa ere, definizioetan gauza bera errepikatzea ez baita egin behar, alferrikakoa delako. Hala ere, hau gertatzen da: "hankabiko animalia oinduna" esatean "oindun animalia bi oin dituen" baino ez da esaten; eta hau

behar bezalako zatiketaz zatitzen bada, gauza bera behin baino gehiagotan errepikatuko da, desberdintasun beste horrenbestetan, hain zuzen ere.

25) Beraz, desberdintasunaren desberdintasuna baldin badago, bakar bat -azkena, hain zuzen ere- izango da espeziea eta substantzia. Aitzitik, zatiketa akzidentalki ematen denaren arabera egiten bada -adibidez, "oinduna" "zurian" eta "beltzan" banatzen badira-, zenbat sailkapen, hainbat desberdintasun izango da. Beraz, agerian dago definizioa desberdintasunaren araberrako esakunea dela, desberdintasun azkenaren araberrako esakunea, hain zuzen ere.

30) Eta hau begi-bistakoa da definizio jakin hauen ordena aldatzen bada; adibidez, gizakiaren definizioarena, "hankabiko animalia oinduna" dela esatean, "hankabiko" esanda gero "oinduna" esatea alferrikakoa baita. Baina substantzian ez dago ordenarik. Gainera, nola pentsa liteke bata aurreko eta bestea ondorengo direnik?

Horrela, bada, zatiketaren araberrako definizioak direla eta berauen 35) izaera dela-eta, bego lehenengoz esandako hau.

### XIII

1038b) Gure ikerketa substantziari buruzkoa denez, ekin diezaiogun berriz <substantziari>.

Subjektu, esentzia eta bi hauez osaturikoari bezala unibertsalari ere esaten zaio substantzia. Lehenengo biez, jada, hitz egin dugu (bai esentziaz, bai subjektuaz, hain zuzen ere, subjektua bi modutan ematen 5) delarik: zehaztutako zerbait bezala -animalia afekzioetarako bezala- edo materia entelekiarako bezala); baina batzuen irudiko, unibertsala nagusiki da kausa, baita printzipio bat ere. Beraz, ekin diezaiogun honi ere.

Izan ere, ezinezkoa dirudi unibertsal deituriko horietako bat substantzia izateak; lehenengoz, banakoaren substantzia banakoak berezko 10) duena baita, beste <substantzia> batean ematen den horri esaten baitzaio unibertsala. Orduan, zeren substantzia izango da unibertsala? Edo gauza guztiena, edo bat berarena ere ez. Gauza guztiena izatea ezinezkoa da; baina gauza bakar batena baldin bada, gainerako gauzak ere gauza hori izango dira; izan ere, gauza horiek -zeintzuen substantzia eta esentzia bat diren- gauza 15) bakar bat dira.

Gainera, azpigai batez predikatzen ez denari esaten zaio substantzia; baina unibertsala beti esaten da azpigai batez. Edo, esentziarekin gertatzen ez den bezala, akaso unibertsala ezin izan daiteke substantzia, baina honetan

eman bai, Animalia gizakiarengan edo zaldiarengan ematen den bezala? Orduan, argi dago unibertsalak esakune bat izango duela. Eta berdin substantzian 20) ematen diren horiek guztiek esakunerik ez izan arren, unibertsala zerbaiten substantzia izango baita, gizaki jakin batengan ematen den Gizakia bezala; beraz, gauza bera gertatuko da berriro: Animalia, adibidez, <animalia> berezko zerbait bezala ematen den horren substantzia izango da.

Gainera, zehaztua eta substantzia denari dagokionez, hau osatua baldin bada, ezinezkoa eta lekuz kanpokoa da substantziez edo zehaztua den 25) zerbaitez osatua ez izatea, baina koalitetez litekeena da. Horrela izanez gero, substantzia ez dena, hots, koalitatea, substantziaren eta zehaztua denaren aurrekoa izango litzateke; baina hau ezinezkoa da, esakunea, denbora eta genesiari dagokienez, ezinezkoa baita afekzioak substantziaren aurrekoak izatea; bestela, banangarriak ere izango lirateke.

Gainera, Sokratesengan substantzia bat beste baten gainean 30) emango litzateke eta, ondorioz, bi gauzaren substantzia izango litzateke.

Eta, orokorrean, substantzia gizakia eta honela esaten diren horiek guztiak baldin badira, esakunean agertzen dena ez da ezeren substantzia izango eta ez da gauza haietaz aparte inon emango, ezta beste gauza batean ere. Esan nahi dut, adibidez, animalia zehatzez aparte ez dagoela inolako animaliarik, ezta esakuneetan agertzen diren bestelakorik ere.

35) Horrela, bada, hausnarketa hauetan ari direnentzat agerian dago unibertsalen artean bat bera ez dela substantzia, eta gauza zehatzek 1039a) baterako dituzten predikatuek ez dutela zehaztua den zerbait adierazten, "honelako zerbait" baizik. Bestela, beste arazo asko sortuko dira, eta "hirugarren gizakia".

Bestalde, ondoko honengatik ere argi dago <unibertsalak ez direla substantzia>: ezinezkoa da substantzia bat entelekia gisa dauden bere baitako substantziez osatua izatea, entelekian bi diren gauzak inoiz ez direlako 5) bakar bat entelekian; baina potentzian bi baldin

badira, bat izango dira (adibidez, lerro bikoitza potentzian dauden bi lerro-erdiz dago osatua, entelekiak bereizten dituelarik); beraz, bat baldin bada substantzia, ez da bere baitan eta honela ematen diren substantziez osatuko, Demokritok zuzen azaltzen zuen bezala. Honen 10) ustez, bi gauzez bat sortaraztea edo bakar batez bi sortaraztea ezinezkoa da, zatietzen diren magnitudeak substantzia bihurtzen baitira.

Beraz, agerian dago zenbakiekin ere berdin gertatuko dela, zenbakia, batzuek uste bezala, unitate-osaketa bat baldin bada. Izan ere, edo diada ez da bat, edo bere baitan entelekian dagoen unitaterik ez dago.

Baina ondorio honek aporia bat sortzen du. Alde batetik, 15) ezinezkoa da substantziak unibertsalez osatuak izatea unibertsalek "honetako zerbait" adierazten badute ere, zehaztutako zerbait adierazten ez dutelako. Beste aldetik, ezinezkoa da substantziak entelekian dauden substantziez osatuak izatea. Gauzak horrela, substantzia oro bakuna izango da; beraz, ez da izango inolako substantziaren esakunerik. Hala ere, denen 20) ustez, substantziari bakarrik edo nagusiki dagokio definizioa, aspaldian esana den bezala. Baina orain, ezta substantziari ere. Beraz, ez da ezeren definiziorik izango; edo zentzu batean bai eta beste zentzu batean ez. Baina hau argiago geratuko da ondoren esango dugunarekin.

#### XIV

25) Ikerketa hauen ondoren agerian geratzen da Ideiak substantzia bananduak direla eta, aldi berean, <Ideiek> forma generoaz eta desberdintasunez osatzen dutela baieztatzeak sortzen dituen ondorioak. Forma baldin badira izan, eta Animalia gizakiarengan eta zaldiarengan ematen bada, edo aritmetikoki bat eta bera da <bietan>, edo desberdina. Argi dago esakunean bakar bat dela, batean nahiz bestean definitzean 30) esakune bera adierazten baita.

Horrela, bada, Gizaki bat baldin badago, bera eta berez zehaztua eta banandua dena, bere osagaiak ere - "animalia" eta "hankabikoa", alegia- zehaztutako zerbait, bananduak eta substantziak izango dira nahitaez. Beraz, Animalia ere bai. Horrela, bada, zaldiarengan

eta gizakiarengan ematen den <animalia> bat eta bera baldin bada -zu zeuretzat bezala-, nola izan liteke bat 1039b) bananduta ematen diren gauzetan? Eta, gainera, Animalia hau, zergatik ez da bere baitatik banandua izango?

Bestalde, Animaliak hankabikotasunean eta hankaniztasunean parte hartzen badu, ezinezkoa den zerbait gertatzen da, kontrakoak diren ezaugarriak aldi berean emango baitira bakarra eta zehaztua den gauza batean. Bestela, zein zentzutan esango ote da animalia "hankabikoa" edo 5) "oinduna" dela? Agian elkar lotzea eta ukitzea izango da, edo nahastea? Baina hau guztia lekuz kanpo dago.

Aitzitik, kasu bakoitzean desberdina baldin bada, orduan substantzia Animalia dutenak amaigabeak izango dira, nolabait esateko, gizakia ez baitator akzidentalki "animaliarengatik". Gainera, Animalia Bera anitz izango da, banako bakoitzean ematen den animalia substantzia izango 10) baita (hau, hain zuzen ere, ez da beste gauza batez esaten; bestela, gizakiak gauza hori izango luke jatorria, eta hori litzateke bere generoa). Eta gizakiaren osagai guztiak izango dira Ideiak. Baina bataren Ideia eta bestearen substantzia izatea ezinezkoa da. Honen ondorioz, animalia zehatz guztiak Animalia Bera izango dira.

Gainera, zein du jatorria animalia honek eta nola izan daiteke 15) Animalia Bera? Edo, substantzia Animalia Bera duen animalia, nola izan daiteke Animalia Bera honez aparteko zerbait?

Bestalde, sentimenezko gauzetan ere arazo hauek sortzen dira, baita arazo larriagoak ere. Eta horrela izatea ezinezkoa baldin bada, argi dago haien Formarik ez dagoela, batzuek esaten duten bezala, behintzat.

XV

20) Substantzia bi hauek direnez, osatua eta forma (bata, materiarekin batera elkartutako forma, bestea, forma hutsa), lehenengo zentzuan esaten diren horiek ustelgarriak dira (genesia ere baitute);



baina formak ez du usteldurarik (genesirik ere ez baitu; izan ere, ez da 25) "etxearen izatea" sortzen, etxe zehatz honen izatea baizik); baina formak, genesirik eta usteldurarik gabe, badira eta ez dira, argi geratu baitzen<sup>42</sup> inork ez dituela errealitate hauek sortarazten, ezta egiten ere. Horregatik ezin da definitu, ezta frogatu ere, sentimenezko banakoen substantziek materia dutelako; esate baterako, materiaren izaera den bezala 30) <substantzia horiek> badaitezke izan eta ez izan. Horregatik dira ustelgarriak haien artean banakoak diren guztiak.

Beraz, frogapenak eta definizio zientifikoa beharrezko diren gauzei baldin badagozkie, eta zientzia, batzuetan zientzia eta beste batzuetan ezjakintasuna ez den bezala - ezjakintasuna esan beharrean iritzia esan behar genuke-, bestelakoa izan daitekeenaren frogapenik eta definiziorik ez 1040a) baldin badago -iritzia baizik-, argi dago sentimenezko banakoen definiziorik ez dela izango, ezta frogapenik ere.

Gauza ustelgarriak, hain zuzen ere, sentimenezko pertzepziotik urruntzen direnean ilunak dira zientzia dutenentzat, eta haien nozioak 5) ariman gorde arren, jadanik ez da haien definiziorik izango, ezta frogapenik ere. Horregatik, definizioari dagokionez, norbaitek banakoren bat definitzerakoan jakin behar du beti izaten dela hau gezurtatzea, banakoak ezin baitira definitu.

Horrela, bada, ideia bat bera ere ez dago definitzerik, Ideia, esan bezala, banakoei baitagokie, eta banandua da. Izan ere, beharrezkoa da 10) esakunea izenez osatua izatea; baina izena ez du definitzaileak asmatuko (ulertezina bailitzateke) eta diren izenak gauza guztiei dagozkie. Beraz, hauek ere egokituko zaizkio nahitaez beste edozer gauzari. Adibidez, norbaitek definitu nahi bazaitu, animalia mehea, edo zuria edo bestelako zerbait esango du, beste batengan ere emango den zerbait, alegia. Eta norbaitek esango balu izen hauek guztiak banaka harturik gauza anitzetan emateko eragozpenik ez dagoela, baina denak batera gauza bakar batean 15) soilik ematen direla, orduan erantzun behar da, lehenengoz, bi osagaietan ere ematen direla;

adibidez, "hankabiko animalia" animaliarengan eta hankabikoarengan emango da (eta hau behar-beharrezkoa izango da betiereko errealitateei dagokienez †hauek osatuaren zati izanik honen aurrekoak baitira; eta, gainera, bananduak dira, Gizakia banandua baldin bada, behintzat.

Horrela, bada, edo biak dira bananduak edo bat bera ere ez. Baina 20) bat bera ere ez baldin bada banandua, generoa ez da espeziez aparteko zerbait izango eta, izatekotan, desberdintasunak ere bai). Gainera, <biak> aurrekoak dira beren izatean, ez baitira <hankabiko animalia> baino lehenago deuseztatzen.

Bestalde, Ideiak Ideiez osatzen baldin badira (osagaiak, hain zuzen ere, sinpleagoak dira), Ideiaren osagai horiek ere - "Animalia" eta "Hankabikoa", adibidez-, gauza askotaz predikatu beharko dira. Bestela, 25) <Ideia> nola ezagut liteke? Izan ere, gauza batez baino gehiagotaz predika ez litekeen Ideiaren bat izango litzateke. Baina ez dirudi, Ideia guztiak partehartzegarriak baitira.

Horrela, bada, esana dagoen bezala, ez dira konturatzen betiereko errealitateen definizioa ezinezkoa dela, batez ere bakarrak diren 30) errealitateena, eguzkia edo ilargia bezala. Eta porrot egiten dute ezinbesteko ez diren ezaugarriak gehitzeagatik - "Lurra inguratzen du" edo "gauzez ez da ikusten", adibidez-, ezaugarri hauek ezabatu arren oraindik izango baita eguzkia. (Izan ere, geldituko balitz edo gauzez argituko balu ere, oraindik izango litzateke eguzkia, "eguzkiak" substantzia bat adierazten baitu).

Gainera, porrot egiten dute beste gauza batean eman daitezkeen ezaugarriak gehitzeagatik, beste gauza batek ezaugarri horiek izango balitu eguzkia izango litzatekeelako, zalantzarik gabe. Beraz, gauza askok baterako 1040b) luke esakunea. Baina guzkia banakoa da, Kleon edo Sokrates bezala. Bestalde, zergatik ez dute Ideiaren definizioa ematen? Saiatuko balira argi geratuko litzateke orain esandakoa egia dela.

## XVI

5) Agerian dago substantzia diruditen gauzen artean gehienak potentziak direla: animalien zatiak (hauen artean bat bera ere ez baita banandua, eta banatzen direnean materia izaten dira denak), lurra, sua eta airea;

hauen artean, hain zuzen ere, bat bera ere ez da batasun bat, multzoa 10) bezalako zerbait baizik, haietatik bat den zerbait heldu eta sortu arte. Eta, batez ere, pentsa liteke izaki bizidunen zatiak eta arimarenak bi modutan izan daitezkeela, hots, entelekian nahiz egintzan, artikulazioetan dagoen zerbaitetik mugimenduaren printzipioak dituztelako. Horregatik dirau bizirik, zatituta ere, zenbait animaliak. Hala ere, denak izango dira potentzian batasun bat eta naturaz -ez indarrez edo itsaspenez (honetako 15) zerbait murriztua bailitzateke)- jarraia den zerbait osatzen duten bitartean.

Bestalde, "den-a" esaten den zentzuetan "bata" ere esaten denez, bat denaren substantzia bat denez eta aritmetikoki bat den substantzia duten gauzak aritmetikoki bat direnez, agerian dago Batak eta Den-ak ezin dutela gauzen substantzia izan, ez eta osagaiaren izatea edo printzipioaren izatea ere. Baina printzipioa zein ote den ari gara bilatzen, ezagungarriago den 20) zerbaitera iristeko.

Horrela, bada, Den-a eta Bata gertuago daude substantziatik printzipioa, osagaia eta kausa baino; baina oraindik ez dira substantzia, baterako dutena ez baita substantzia. Substantzia, hain zuzen ere, bere baitan eta hori substantzia duen horretan ematen da. Gainera, bat dena ez da aldi 25) berean toki askotan ematen; baterakoa, ordea, bai.

Beraz, argi dago unibertsal bat bera ere ez dela banakoez aparte ematen. Baina Formak baieztatzen dituztenek hauek bananduak direla esatean zuzen daude, substantziak baldin badira, behintzat; baina oker 30) daude "bat askotan" Forma izendatzean, ez dakitelako azaltzen zeintzuk diren sentimenezko banakoez aparte ematen diren substantzia ustelezin horiek. Izan ere, <filosofo hauek> Formak gauza ustelgarrien espezie berekoak egiten dituzte (hauek ezagutzen baititugu) - "Gizakia Bera", "Zaldia Bera", alegia-, sentimenezko gauzei "Bera" hitza gehituz.

Hala ere, astroak inoiz ikusi izan ez bagenitu ere, ez litzateke ezer 1041a) aldatuko, nire ustez, betiereko substantziak izango bailirateke, guk ezagutzen ditugun horiez apartekoak, alegia. Beraz, orain ere, nahiz eta zeintzuk diren ezagutu ez, beharrezkoa da batzuk izatea, seguru asko.

Horrela, bada, argi dago unibertsal deituriko bat bera ere ez dela substantzia, eta substantzia bat bera ere ez dela substantziez osatzen.

## XVII

5) Abiapuntu berri bat hartuz, esan dezagun berriz zeri esan behar zaion substantzia eta zein duen izaera. Horrela, agian argituko dugu sentimenezko substantzietatik banandua ematen den substantzia hura. Eta substantzia nolabaiteko printzipio eta kausa denez, hemendik abiatuko 10) gara.

Zergatia zentzu honetan bilatzen da beti: Zergatik ematen da gauza bat beste batean? Izan ere, gizaki musikaria zergatik den gizaki musikaria bilatzea, edo esandakoa bilatzea da -gizakia zergatik den musikaria- edo bestelako zerbait da. Baina gauza bat zergatik den bera bilatzea ezer ez bilatzea da (aldez aurretik, hain zuzen ere, argi geratu behar 15) dira gertaera eta gauzaren izatea - "ilargia ezkutatu egiten da", adibidez-; baina "gauza bat gauza bera delako" erantzutea erantzun bakarra eta galdera guztien kausa da, adibidez "gizakia, zergatik da gizakia?" eta "musikaria, zergatik da musikaria?", banakoari berari dagokionez, banako bakoitza zatiezina dela esaten ez bada, behintzat, eta hau da bataren izatea. Baina honelako erantzun bat gauza guztiei dagokie, hain zuzen, eta laburregia da).

20) Baina galde liteke gizakia zergatik den "honelako" animalia bat. Orduan, argi dago ez dela galdetzen gizakia dena zergatik den gizakia, baizik eta zergatik ematen den "zerbait" "zerbaitetan" (eta argi egon behar du eman egiten dela; bestela ez dago galderarik); adibidez, "zergatik jotzen du trumoa?" galdetzeak "zergatik sortzen da zaratotsa lainoetan?" esan 25) nahi du; horrela, hain zuzen ere, beste gauza batean ematen den beste zerbait bilatzen da. Eta gauza hauek -adreiluak eta harriak, adibidez- zergatik dira etxea? Horrela, bada, agerian dago kausa bilatzen dela [eta hau, logikoki esanda, esentzia da],

gauza batzuetan "helburu den hori" dena -adibidez, etxe batean edo ohe 30) batean, ziurraski-, eta beste batzuetan, mugiarazle lehena, hau ere kausa bat baita. Baina kausa hau genesiari eta usteldurari dagokie, baina bestea, izateari ere bai.

Bilatutakoa aurkitzen zaila egiten zaigu, batez ere beste gauza batez predikatzen ez diren gauzetan; adibidez, "gizakia zer da?" galdetzean, 1041b) galdera bakuna delako, eta ez da definitzen "gauza hauek honako hau dira". Baina behin galdera artikulatuta gero, galdetu behar dugu, bestela zerbait galdetzea eta ezer ez galdetzea gauza bera izango dira. Baina gauzaren izatea ezagutu eta eman behar denez, argi dago materia zergatik den 5) <zehaztutako zerbait> galdetzen dela. Adibidez, "gauza hauek zergatik dira etxe bat?: haietan etxe-esentzia ematen delako"; eta "hau -edo hau duen gorputza-gizaki bat da". Beraz, materiaren kausa bilatzen da [hau forma delarik], kausa zeinarengatik materia zerbait den. Horrela, bada, agerian dago gauza bakunei dagokienez ez dagoela galderarik, ezta irakasbiderik ere; 10) aitzitik, ikertzeko bidea bestelakoa da.

Bestalde, zerbaitek osatua dena -osatua batasun bat delarik-, ez da multzo bat bezalakoa, silaba bat bezalakoa baizik; baina silaba ez da osagaia; esate baterako, "ba", eta "b" gehi "a", ez dira gauza bera; eta haragia, eta sua gehi lurra, ere ez (desegin ondoren osatuak ez baitira jadanik -haragia eta 15) silaba, alegia-, baina bai osagaiak, eta sua eta lurra). Beraz, silaba bada zerbait, ez osagaiak bakarrik -bokalak eta kontsonanteak-, baizik eta bestelako zerbait ere;

eta haragia, sua eta lurra -beroa eta hotza, alegia- izan ezik, bestelako zerbait ere bada. Honen ondorioz, "bestelako hura" ere nahitaez edo osagai bat edo 20) osagaiez osatua den zerbait denez, osagaia baldin bada, berriro sortuko da arazo bera (haragia osagai honetaz osatuko baita, eta su eta lurrez eta, oraindik ere, beste osagai batez; beraz, prozesu amaigaberantz abiatuko gara). Baina osagaiz osatua baldin bada, argi dago ez dela osagai bakar batez osatuko, batez baino gehiagoz baizik, edo gauza bera izango da. Ondorioz, kasu honetan ere haragia eta silabarekin egin dugun arrazonamendu bera 25) egin beharko dugu berriro. Baina pentsa liteke hau zerbait dela, eta ez osagaia, "honako hau" haragia eta "harako hori" silaba izateko kausa, hain zuzen ere; eta berdin gainerako gauzetan. Hau, banako bakoitzaren substantzia da (hau baita bere izatearen kausa lehena). Eta zenbait gauza substantziak ez direnez -substantzia guztiak naturaren arabera eta naturaz 30) osatzen baitira-, substantzia irudituko litzateke printzipio den natura hau, osagaia ez dena, alegia; osagaia da gauzaren materia, non gauza zatitzen den; adibidez, silabarenak, "a" eta "b".

#### ZORTZIGARREN LIBURUA (H)

##### I

1042a) Esandakoa laburtu eta ondorioa ezarri behar dugu, garrantzitsuena behin bilduta gero.

5) Esana dago gure ikerketaren gaiak substantzien kausak, printzipioak eta osagaiak direla. Substantzien artean, batzuk denek onartuak dira, baina beste zenbaiti buruz <filosofo> batzuek bereziki hitz egin dute. Onartuak dira substantzia fisikoak, besteak beste, sua, lurra, airea eta gainerako

gorputz bakunak; ondoren, landareak eta beraien zatiak, animaliak eta beraien zatiak eta, 10) azkenik, zerua eta zeruaren zatiak. Eta Forma eta Errealitate Matematikoak substantziak direla esaten dute batzuek.

Beste zentzu batean, esakuneak kontutan hartuz gero, esentzia eta azpigaia substantziak dira; gainera, beste zentzu batean generoa espezieak 15) baino neurri handiagoz da substantzia, eta unibertsala banakoak baino; eta Ideiak ere gertu daude unibertsalek eta generotik (arrazoi berarengatik, hain zuzen, substantziatzat hartzen baitira).

Eta esentzia substantzia bat da eta haren esakunea, definizioa; horregatik ikertu dugu definizioa eta, definizio den aldetik, definitzen dena. Eta definizioa esakunea denez eta esakuneak zatiak dituenek, zatiari 20) dagokionez, zeintzuk diren substantziaren zatiak eta zeintzuk ez, eta zati hauek definizioaren zatiak ere ote diren ikertu behar izan dugu.

Gainera, unibertsala ez da substantzia, ezta generoa ere; eta Ideiei eta Errealitate Matematikoei dagokienez, geroago ikertu beharko dugu, batzuek esaten baitute hauek sentimenezko substantziez aparte daudela.

Baina orain ekin diezaiegun <denek> onartuak diren substantziei, 25) sentimenezko substantziei, alegia. Sentimenezko substantzia guztiek materia dute; eta substantzia azpigaia da, zentzu batean materia (materia esaten diot egintzan zehaztutako zerbait izan gabe potentzian zehaztutako zerbait den horri), eta beste zentzu batean, forma eta konstituzioa, zehaztutako zerbait delarik definizioan banangarria dena, hain zuzen; eta 30) hirugarren zentzu batean, azken bi hauez osatua, genesia eta usteldura jasaten dituen bakarra eta erabat banangarria dena. Izan ere, formaren arabera substantzien artetik, batzuk banangarriak dira eta beste batzuk, ez.

Bestalde, materia ere substantzia dela argi dago, kontrajarritako aldaketa guztietan aldaketen azpigai den zerbait baitago; adibidez, lekuari dagokionez, orain hemen eta gero hor egongo dena; handitzeari dagokionez, orain honen handia eta gero txikiagoa edo handiagoa izango 1042b) dena; aldaketari dagokionez, orain osasuntsu eta gero gaixorik egongo dena. Eta berdin substantziari dagokionez: orain genesian eta gero ustelduran egongo dena, eta orain zehaztutako zerbait den aldetiko azpigaia eta gero eza den aldetiko azpigaia izango dena. Eta aldaketa honekin batera beste aurreko aldaketa guztiak ere ematen dira, baina haietako aldaketa batekin edo birekin ez da azken aldaketa hau ematen; esate baterako, 5) zerbaitek lekuz aldagarri den materia edukiagatik ez da beharrezkoa genesia eta usteldura jasatea. Genesi absolutuaren eta ez-absolutearen arteko aldea zein den Fisikan<sup>43</sup> azaldu zen.

## II

Azpigaitzat eta materiatzat hartutako substantzia denek onartzen dutenez eta hau potentzian dagoena denez, esateke dugu sentimenezko 10) gauzen egintzatzat hartutako substantzia zein den.

Demokritoren ustetan hiru desberdintasun daude (beraren ustez, azpigai gorpuztuna eta materia gauza bat eta gauza bera dira, proportzioan -irudian-, biraketan -posizioan- edo ukitzean -ordenean- desberdintzen 15) direlarik). Baina agerian dago desberdintasunak asko direla; adibidez, gauza batzuk beraien materiaren osaketaz esaten dira -nahasketaz osatzen diren horiek, ezti-ura bezala-; beste batzuk, loturaz, sorta bat bezala; beste batzuk, kolaz itsatsirik egoteagatik, liburu bat bezala; beste batzuk, iltzez, kutxa bat bezala; beste batzuk, hauetako zenbait desberdintasunez. Beste batzuk, posizioaz, atalasea eta ateburua bezala (hauek nolabaiteko posizioa 20) izateagatik desberdintzen baitira); beste batzuk, denboraz, afaria eta gosaria bezala, eta beste batzuk, lekuaz, haizeak bezala.



Beste batzuk, sentimenezko gauzen afekzioez, gogortasuna edo biguintasuna, trinkotasuna edo aroltasuna, lehortasuna edo hezetasuna bezala. Eta batzuk hauetako zenbaitez eta beste batzuk hauez guztiez. Eta orokorrean, batzuk gehiegiz eta besteak gutxiegi <desberdintzen dira>.

25) Beraz, agerian dago "da" ere modu hauetan guztietan esaten dela; atalasea da nolabait kokatuta dagoelako, eta "izan"ek, hain zuzen ere, "nolabait kokatuta egon" adierazten du, eta "izotza izan"ek, "nolabait kondentsatuta egon". Eta zenbait gauzaren izatea arrazoi hauengatik guztiengatik definituko da, besteak beste, nahasturik egoteagatik, 30) elkarturik egoteagatik, loturik egoteagatik, kondentsaturik egoteagatik eta bestelako desberdintasunak jasateagatik, esku bat edo oin bat bezala.

Beraz, kontutan hartu behar dira desberdintasunen generoak (desberdintasunak izatearen printzipioak izango baitira); adibidez, gehiagoa eta gutxiagoa, trinkotasuna eta aroltasuna eta beste honelako 35) desberdintasunak, hauek guztiak gehiegia eta gutxiegi baitira; baina zerbait irudian edo leuntasunean eta zimurtasunean <desberdintzen bada>, kasu guztietan zuzentasunari eta makurdurari dagozkie. Eta beste zenbait 1043a) kasutan, "izatea" nahastuta egotea izango da, eta kontrakoa, "ez-izatea". Beraz, substantzia banako bakoitzaren izatearen kausa baldin bada, agerian dago banako hauetako bakoitzaren izatearen kausa desberdintasunotan bilatu behar dela. Desberdintasun hauetatik bat bera ere 5) -ezta beste zerbaitekin lotuta ere- ez da substantzia; alabaina, desberdintasun bakoitzean substantziaren antzekoa den zerbait dago. Eta substantzietan materiaz predikatzen dena egintza bera den bezala, beste definizioetan ere neurri handiagoz. Adibidez, atalasa definitu beharko bagenu, "honela" jarritako egurra edo harria dela esango genuke, eta etxe bat, "honela" jarritako adreiluak eta egurrak (edo zenbait kasutan, "helburu 10) den hori" gehituz), eta izotza, "horrela" solidotu edo kondentsaturiko ura, eta akordea, soinu altuz eta baxuzko nahastura "hauek". Eta berdin beste gauzetan.

Beraz, agerian dago egintza eta forma desberdinak direla materia desberdinetarako, batzuetarako osaketa baita, beste batzuetarako nahasketa, eta beste batzuetarako, aipatutako bestelako zerbait. Horregatik, etxe bat definitzerakoan harriak, adreiluak eta egurrak aipatzen dituztenek 15) potentzian dagoen etxea deskribatzen dute, gauza horiek materia baitira; ondasunak eta pertsonak babesten dituen aterpea edo honelako beste zerbait dela esaten dutenek egintzan dagoen etxea deskribatzen dute; eta bi deskripzio hauek lotzen dituztenek hirugarren substantzia adierazten dute, osagai hauez osatutakoa, alegia (desberdintasunetan oinarritzen den definizioa formarena eta egintzarena omen da, eta osagaietan oinarritzen 20) dena, materiarena, bereziki).

Eta berdin Arkitasek onartu zituen definizioak, bi deskribapenak barne hartzen baitituzte. Adibidez, zer da haize-eza? Aire-hedadura handi batean ematen den lasaitasuna, airea materia baita, eta lasaitasuna, egintza eta substantzia. Zer da barealdia? Itsasoaren ura geldirik egotea; materiatzat 25) hartutako azpigaia itsasoa da, eta egintza eta konstituzioa, gelditasuna.

Agerian dago, beraz, sentimenezko materia zer den eta nolakoa den: bata, materia da; bestea, konstituzioa eta egintza eta hirugarrena, biez osatutakoa.

### III

Kontuan hartu behar da batzuetan ilunpean dagoela izenak 30) substantzia osatua edo egintza eta forma adierazten duen; adibidez, "etxeak" errealitate konposatua - "honela jarritako adreiluzko eta harrizko aterpea", alegia-, edo egintza eta forma - "aterpea", alegia- adierazten duen; eta "lerroak", "diada luzetara" edo "diada"; eta animaliak, "arima gorputz batean" edo "arima", azken hau gorputzen baten substantzia eta egintza 35) baita. Baina "animalia" bi zentzuotan eman liteke, ez esakune bakar baten bidez esana den aldetik, gauza bakar bati egokitzen zaion aldetik baizik. Baina hau, "bestelako gaiak ikertzeko garrantzitsua dena", ez da 1043b) garrantzitsua sentimenezko substantziaren ikerketarako, esentzia forman eta egintzan ematen baita.

"Arima" eta "arimaren izatea" gauza bera da, baina "gizakia" eta "gizakiaren izatea", ez, animari "gizaki" esaten ez badiogu, behintzat. Horrela, bada, kasu batzuetan gauza bera dira eta beste kasu batzuetan, ez.

Silaba ikertzen badugu, ez du ematen hau osagaiez eta hauen 5) konposaketaz osatua denik, ezta etxea adreiluak eta hauen konposaketa denik ere; hau zuzena da, osaketa eta nahasketa ez baitatoz beraiek osatu eta nahastutako osagai horietatik. Eta gainerako gauzetatik ere ez; adibidez, atalasea kokapenarengatik baldin bada atalasea, kokapena ez dator atalasetik, 10) hau kokapenetik baizik. Beraz, gizakia ez da "animalia" eta "hankabikoa"; aitzitik, hauek materia baldin badira, haiez aparteko zerbait egon behar, ez osagaia edo osagaiz osatua, substantzia baizik. Hau ezabatzen dutenek materia ezartzen dute. Beraz, zerbait hori -izatearen kausa dena- substantzia baldin bada, orduan ezin izango dute substantziaz beraz hitz 15) egin.

(Horrela, bada, beharrezkoa da "zerbait hori" betierekoa izatea, edo ustelgarria izatea usteldua izan gabe eta izatera iristea sortua izan gabe. Hala ere, beste toki batean<sup>44</sup> dago argituta eta azalduta inork ez duela forma egiten edo sortarazten, "honako hau" egiten dela eta gauza osatua sortzen dela baizik.

Baina ustelgarri diren gauzen substantziak banangarriak ote diren 20) ala ez, oraindik ez da argitu, kasu batzuetan izan ezik, banakoez aparte -etxe batez edo tresna batez aparte, alegia- existitu ezin diren gauza horien substantziak, hain zuzen ere; kasu honetan argi dago substantziek ezin dutela banangarriak izan. Hala ere, agian ez dira substantziak, ez hauek berauek, ezta naturaz osatu ez diren horietako bat bera ere, pentsa bailiteke natura bakarrik dela substantzia ustelgarri diren gauzetan).

Beraz, Antistenesen jarraitzaileek eta hauek bezalako ezjakinek 25) plazaratu zuten aporia -esentzia definitzerik ez dagoela

(definizioa esakune luzea baita)- egokia da, nolabait: gauza bat -zilarra, adibidez- nolakoa den adieraz daiteke, eztaingaren antzekoa dela esatean, baina ez zer den. Horrela, bada, substantziaren batek definizioa eta esakunea izan ditzake -osatuak, adibidez-, hau sentimenezko nahiz adimenezko izan; 30) baina beraren osagai lehenek ez, esakune definitzaileak "zerbait beste zerbaitez" adierazten baitu, eta bata materiatzat hartu behar da, eta bestea formatzat.

Eta substantziak, nolabait, zenbakiak baldin badira, agerian dago zergatik diren horrela eta ez monadak, batzuek esaten duten bezala. Izan ere, definizioa nolabaiteko zenbakia da, zatigarria baita -zatiezin diren 35) zatietan, hain zuzen (esakuneak ez baitira mugagabeak)- eta zenbakia honelakoa da.

Eta zenbaki bati bere osagairen bat kenduta edo gehituta gero, jadanik zenbaki bera ez den bezala -beste zenbaki bat sortzen baita kendutakoa edo gehitutakoa gutxi izan arren-, definizioa eta esentzia ere 1044a) jadanik ez dira definizio eta esentzia berak izango zerbait kenduta edo gehituta gero. Eta zenbakia bat izateko zerbait izan behar da; baina orain haiek ez dakite zer dela eta den bat [bat baldin bada]. Horrela, bada, edo ez da bat, multzo bat bezalakoa baizik, edo bat izatekotan, esan bahar da zer den 5) bat egiten duena osagai askotatik abiatuta.

Definizioa ere bat da, baina hau ere ezin dute azaldu. Hau normala da, arrazoi berarengatik; eta substantzia horrela da bat, esan bezala, ez batzuek esaten duten bezala, nolabaiteko unitatea edo puntu bat bezala, hain zuzen ere; aitzitik, substantzia bakoitza entelekia bat edo nolabaiteko natura da.

Eta zenbakiak gehiago eta gutxiagoa onartzen ez dituen bezala, 10) formaren araberako substantziak ere ez; eta, onartzekotan, materiarekin batera ematen dena izango da.

Azalpen honekin adierazita dago zein zentzutan eman daitezkeen substantzia deiturikoen genesia eta usteldura, eta zein zentzutan ez, eta substantziak zenbaki bihurtu ote daitezkeen.

#### IV

15) Substantzia materialari dagokionez, gauza guztiak osagai lehen berberatik edo osagai lehentzat hartutako osagai berberatik etorri arren, eta sortzen diren gauzetarako printzipioa materia berbera izan arren, ez dugu haatik ahaztu behar gauza bakoitzarako berezkoa den materia bat dagoela; adibidez, flemaren materia lehena gozokiak eta gantzak dira, eta 20) behazunarena, gauza mingotsak edo hauen antzekoak; hala ere, gauza hauek agian datoz osagai berberatik. Eta gauza berberaren materia anitz izaten da bata bestearen materia denean; adibidez, flema gantzatik eta gozokitik dator gantza gozokitik baldin badator, eta behazunetik, behazuna materia lehenean desegiteagatik. Gauza bat, hain zuzen ere, bi modutan etor daiteke beste gauza batetik: edo bata bestearen aurrekoa delako, edo hau 25) bestearen printzipioan desegiten delako.

Baina materia bakar bat izanda ere, litekeena da gantza desberdinak sortzea kausa mugiarazlearengatik; adibidez, egurretik kutxa bat eta ohe bat. Baina gauza batzuen materia desberdina da nahitaez, gauza horiek desberdinak baitira; adibidez, zerra bat ez da egurrez egingo, eta hau ez datza kausa mugiarazlearen baitan, inork ez baitu zerra bat egingo egurrez edo artilez.

30) Beraz, gauza bera materia desberdinez egin badaiteke, agerian dago artea eta mugimenduaren printzipioa gauza bera izango direla; izan ere, materia desberdina bada eta mugiarazlea ere bai, sortutakoa ere desberdina izango da.

Horrela, bada, kausa bilatzen denean, kausak zentzu batzuetan esaten direnez, ahalezko kausa guztiak aipatu behar dira. Adibidez, zein da 35) gizakiaren materiatzat hartutako kausa? Agian menstruazioak? Eta zein mugiarazletzat hartutakoa? Hazia, agian? Eta formatzat hartutakoa? Esentzia. Eta zein helburutzat hartutakoa? Xedea. Baina azken bi hauek 1044b) agian gauza bera dira. Beharrezkoa da kausa gertuenak adieraztea. Zein da materia? Ez sua edo lurra, berezko duena baizik.

Naturazko eta generagarri diren substantziei dagokienez horrela ikertu behar dira zuzen ikertu nahi izanez gero, 5) kausak, hain zuzen

ere, horiek eta horrenbeste baitira, eta ezagutu behar dira. Naturazko baina betierekoak diren substantzietarako prozedura bestelakoa da, batzuek agian ez baitute materiari, edo ez horrela, tokiko mugimenduari dagokiena baizik. Eta naturaz izanda ere substantzia ez diren horiek materiari ere ez dute, haien substantzia subjektua izanik. 10) Adibidez, zein da eklipse baten kausa? Eta bere materia? Materiari, jakina, ez dago; aitzitik, ilargia da eklipsea jasaten duena. Eta zein da argia ezabatzen duen kausa mugiarazlea? Lurra. Bestalde, helbururik ez dago, dudarik gabe. Eta formatzat hartutako kausa esakunea da, baina hau ez dago argi berarekin batera kausa ematen ez bada. Adibidez, zer da eklipse bat? 15) Argi-eza. Baina "Lurra erdian kokatzen delako" gehitzen badugu, orduan esakune honekin batera kausa ematen da.

Ametsari dagokionez ez dago argi zein den afektatu lehena. Agian animalia? Bai; baina, zein organotan eta, organoetan, zein da afektatu lehena? Bihotza, edo besteren bat. Zeinek eragina? Gainera, zein da organo horretan eta ez gorputz osoan ematen den afekzioa? Honelako mugiezintasuna. Bai; baina mugiezintasun hau, organo lehenak zer jasateagatik?

V

20) Zenbait errealitate genesirik eta usteldurarik gabe izan eta ez izan daitekeenez -puntuak, adibidez (existitzen baldin badira, behintzat), eta, orokorrean, formak (ez baita sortzen zuria, egur zuria baizik, sortua den oro zerbaitetik sortu eta zerbait izatera iristen bada, behintzat)-, kontrako guztiak ez dira elkarrengandik sortuko, gizaki zuri bat gizaki beltz 25) batengandik eta zuria beltzetik modu desberdinez sortzen baitira. Bestalde, gauza guztiek ez dute materiari, genesia eta elkarrenganako aldaketa dituzten gauza horiek bakarrik dute. Aldatu gabe izan eta ez izan daitezkeen horiek ez dute materiari.

Kontrakoen eta banako bakoitzaren materiaren arteko harremanak ikertzen ditugunean aporia bat sortzen da. Adibidez, gorputza 30) potentzian osasuntsua baldin bada, eta gaixotasuna osasunaren kontrakoa baldin bada, agian gorputzak potentzian ditu bi egoerak? Eta ura, ardoa eta ozpina al da potentzian? Edo bataren materia al da edukiaren eta formaren arabera, eta bestearena naturaren kontrako ezaren eta ustelduraren arabera?

Eta beste aporia bat sortzen da: ardoa zergatik ez den ozpinaren materia, 35) ezta ozpina potentzian ere (ozpina hartatik sortu arren) eta biziduna hilotza bat potentzian. Edo agian usteldurak akzidentalak dira eta 1045a) bizidunaren materia bera usteldurarengatik hilotza baten potentzia eta materia da, eta ura ozpinarena, hauek haien bilakaera baitira gaua egunarena den bezala.

Beraz, horrela elkar bilakatzen diren horiek guztiak beraien 5) materia bihurtu behar dira; adibidez, hilotz batetik bizidun bat sortzeko, lehenengoz bere materia bihurtuko da, eta ondoren bizidun bilakatuko da; eta ozpina ur bihurtuko da eta ondoren ardo bilakatuko da.

## VI

Definizioei eta zenbakiei buruz aipatutako aporia dela eta, zein da bat izatearen kausa? Izan ere, gauza osatua multzo bat bezala izan beharrean zati-multzoa baino zerbait gehiago izaten denean, zatiz osaturiko gauzak 10) kausaren bat du, gorputzetan ere bat izatearen kausa bat izaten baita, besteak beste elkar-ukitzea zenbait gorputzetan, likatasuna edo beste honelako afekzioen bat beste zenbait gorputzetan. Baina definizioa bat den esakunea da, ez loturaz, Iliada bezala, bat den gauza batena izateagatik baizik. Orduan, zer da gizakia bat egiten duena eta zergatik da bat gizakia eta 15) ez asko, "animalia" eta "hankabikoa", adibidez, batez ere -batzuek esaten duten bezala- Animalia Bera eta Hankabikoa Bera existitzen badira? Eta zergatik ez da gizakia Animalia Bera eta Hankabikoa Bera? Honela balitz gizakiak ez lirateke izango Gizakian edo Forma bakar batean parte hartzeagatik, bi Formatan parte hartzeagatik baizik, Animalian eta Hankabikoan, hain zuzen. Beraz eta laburbilduz, gizakia errealitate bakar bat 20) izan beharrean ez al litzateke bat baino gehiago izango, animalia eta hankabikoa?

Agerian dago horrela ikertzen dutenek erabili ohi dituzten definizioen eta esakuneen bidez ezin dutela aporia konpondu eta askatu. Baina, esan bezala, alde batetik materia eta forma bereizten baditugu, eta bestetik potentzia eta egintza, orduan gure aztergaia ez zaigu jadanik 25) aporetikoa irudituko.

Aporia bera sortuko da jantziaren definizioa "brontze borobila" baldin bada, izen hau esakunaren adirazpena izango baita; beraz,

helburua izango da borobil denaren eta brontzearen bat izatearen kausa aurkitzea. Horrela, bada, aporia desagertu egiten da, bata materia eta 30) bestea forma delako. Orduan, genesisia jasaten duten gauzetan, zein da potentzian delarik egintzan izatearen kausa, eragileaz aparte? Izan ere, potentzian dagoen esfera egintzan izatearen kausa bataren eta bestearen esentzia baino ez da.

Baina materia adimenezkoa edo sentimenezkoa izan daiteke, eta esakuneak beti izaten du, alde batetik, materia, eta bestetik, egintza. 35) [Adibidez, zirkulua azaleko irudia da.] Eta materiari ez duten horietako gauza bakoitza -ez adimenezko materiari, ezta sentimenezkorik ere- bat 1045b) den zerbait eta den zerbait da: "honako hau", "nolakoa" eta "zenbatekoa". Horregatik ez dira agertzen definizioetan, ez "da", ezta "bat da" ere. Eta esentzia bat den zerbait da, baita den zerbait ere. Horregatik 5) hauetako batek berak ere ez du bat den zerbait eta den zerbait izatearen bestelako kausarik, bakoitza zuzenean baita den zerbait eta bat den zerbait, ez Den-aren eta Bataren generoan egongo bailiran, ezta banakotatik banangarriak izango bailiran ere.

Aporia honengatik aipatzen dute batzuek "parte hartzea", baina ezin dute azaldu parte hartzearen kausa zein den, ezta parte hartzea zer den ere. Bste batzuek arimaren "aldi bereko izatea" aipatzen dute: Likrofonen 10) ustez zientzia, adibidez, jakitearen eta arimaren aldi bereko izatea da. Beste batzuen ustez, bizitza arima baten eta gorputz baten arteko konposaketa edo lotura da. Hala ere, esakune hau edozertarako eman liteke, osasuntsu egotea, arimaren eta osasunaren arteko aldi bereko izatea, edo lotura, edo konposaketa izango bailitzateke, eta brontzea triangelu bat izatea, 15) brontzearen eta triangeluaren arteko konposaketa bat, alegia, eta zuria izatea, azalera baten eta zuritasunaren arteko konposaketa bat.



Hau gertatzen da filosofo hauek potentziaren eta entelekiaren bateratzailea eta, aldi berean, bereizgarria den esakune bat bilatzen dutelako. [Baina, esan bezala<sup>45</sup>, materia azkena eta forma gauza bat eta bera da, bata potentzian eta bestea egintzan; beraz, batasunaren kausa edo bat izatearen 20) kausa bilatzea berdina da, banako bakoitza bat den zerbait baita, eta bai potentzian izatea, baita egintzan izatea ere bat izatea da, nolabait; honela, bada, bestelako kausarik ez dago, potentziatik egintzara mugiarazten duen kausarik ez badago, behintzat. Eta materiarik ez duten gauza guztiak zentzu absolutuan bat den zerbait dira].

#### BEDERATZIGARREN LIBURUA (Q)

I

Lehenengo zentzu batean "den" horretaz hitz egin dugu, hau da, horretaz zeinari Denaren beste kategoria guztiak dagozkion, hots, substantzia (den gainerako guztia - kantitatea, koalitatea eta horrela esaten 30) diren gainerakoak, hain zuzen ere-substantziaren esakunearen arabera esaten baita, kategoria guztiek substantziaren esakunea dutelako beren baitan, gure ikerketaren hasieran esan dugun bezala). Baina Den-a "zerbait" edo "koalitatea" edo "kantitatea" adierazteaz gain, potentziaren eta egintzaren arabera -ekintzaren arabera, alegia- esaten denez, defini ditzagun 35) potentzia eta entelekia ere; eta lehenengoz, neurri gorenean esaten den potentzia, orain nahi dugunerako baliagarriena ez bada ere. Izan ere, 1046a) potentzia eta egintza, mugimenduaren arabera bakarrik esaten diren gauzei ezezik errealitate gehiagori ere badagozkio. Baina potentzia honi buruz hitz egin ondoren, egintzari buruzko azalpenetan beste potentziak ere argituko ditugu.

"Potentzia" eta "ahaldun izatea" zentzu askotan esaten direla 5) beste leku batean<sup>46</sup> azaldu dugu. Alabaina, utz bitez alde batera izenkidetasunez esaten diren potentzia horiek. (Izan ere, batzuk antzekotasunaren batez esaten dira; geometrian, adibidez, gauzak ahaldunak edo ahalgeak direla esaten dugu nolabaiteko erlazioan izateagatik edo ez izateagatik). Baina forma berberari dagozkion potentzia guztiak printzipioak dira eta lehenengo potentzia baten arabera esaten dira, 10) potentzia hau beste gauza batean dagoen aldaketaren printzipio bat izanik, edo bere baitan, hau beste bat den aldetik. Potentzia bat, hain zuzen ere, potentzia pasiboa da, jasailearen beraren baitan beste batek eraginiko aldaketaren printzipio dena, edo berak eraginikoa, berau beste bat den aldetik. Beste potentzia da aldaketaren printzipiotzat hartutako beste batek eraginiko - edo berberak, berau beste bat den aldetik- okerduraren eta 15) ustelduraren kontrako inmunitatearen gaitasuna. Definizio hauetan guztietan potentziaren kontzeptua lehenengo zentzu batean ematen da. Bestalde, potentzia hauei "potentzia" deitzen zaie zerbait eragin edo jasateagatik, edo ongi eragin edo jasateagatik; beraz, potentzia hauen kontzeptuetan ere, nolabait, beste aurreko potentzien kontzeptuak ematen dira.

Beraz, agerian dago egitearen eta jasatearen potentziak potentzia bat 20) bera direla zentzu batean (gai baita gauza bat beronek zerbait jasateko potentzia duelako, edota berak eraginda beste batek jasan dezakeelako), baina beste zentzu batean desberdinak dira. Izan ere, bata jasailearen baitan dago (printzipioren bat edukitzeagatik eta materia ere printzipioren bat izateagatik jasaten du jasaileak, eta nolako eragile, halako jasaile; adibidez, koipetsu dena erregaia da. Honelakoetan etsitzen duena, hauskorra, eta 25) berdin gainerako gauzetan), eta bestea eragilearen baitan; adibidez, beroa eta arkitektura: bata berotzen duen horretan dago, eta bestea arkitektoarengan. Horregatik, berezko batasun den aldetik, ezerk ez du bere burua jasaten, hau bakarra baita, eta ez beste bat.

Eta "inpotentzia" eta "ahalgera dena" potentzia honen kontrako 30) eza da; beraz, potentzia oro berberarako eta berberaren arabera inpotentziaren kontrakoa da. Baina "eza" zentzu askotan esaten da: gauza batek nolabaiteko eza dauka zerbait edukitzen ez duenean edo, berez eduki

behar duen arren, edukitzen ez duenean, erabat edo nolabait. Eta zenbait gauzatan, baldin 35) eta berez eduki beharko luketen zerbaite indarrez falta badute, gauza horiek hori falta <eza> dutela esaten dugu.

## II

Bizigabeetan honelako printzipioak ematen direnez, eta 1046b) bizidunetan, ariman eta arimaren arrazoizko zatian, agerian dago potentzien artean ere batzuk irrazionalak izango direla eta beste batzuk, arrazoizkoak. Horregatik arteak eta zientzia ekoizleak potentziak dira, beste batean ematen diren aldaketaren printzipioak baitira, edo bere baitan, hau 5) beste bat den aldetik. Eta arrazoizko potentzia guztiak berak kontrakoetara zuzentzen dira, baina potentzia irrazionalak kontrako bakar batera; adibidez, beroak berotu besterik ez du egiten, baina medikuntzak gaixotasuna eta osasuna eragin ditzake. Eta honen arrazoiak da zientzia esakune bat dela, eta esakune berberak gauza eta eza adierazten dituela, baina ez zentzu berean; zentzu batean biak adierazten ditu, baina beste zentzu batean ematen den 10) hori, bereziki. Beraz, honelako zientziek ere nahitaez izango dituzte aztergai bi kontrakoak, bata zientziek berez eta bestea ez. Izan ere, arrazoizko ezagutzak berez adierazten du kontrako bat, eta bestea, nolabait, akzidentalki, kontrakoa ezeztapenaren eta ezabapenaren bidez adierazten baitu: eza, lehenengo zentzuan, kontrakoa da, eta kontrakoa bestearen ezabapena da.

15) Baina kontrakoak gauza berean sortzen ez direnez, eta zientzia arrazoizko den aldetik potentzia denez, eta arimak mugimenduaren printzipio bat duenez, osasuntsuak osasuna besterik ez du sortaraziko, eta berotzen duenak beroa, hozten duenak, hotza; baina zientziadunak, berriz, 20) bi kontrakoak. Izan ere, arrazoizko ezagutza bi kontrakoena da -modu berean ez izan arren-, eta ariman dago, arimak mugimenduaren printzipio bat duelarik; beraz, printzipio beretik mugiaraziko ditu bi kontrakoak, gauza berarako behin elkartuta. Horregatik, potentzia irrazionalekin alderatuz, arrazoizko potentziek kontrakoak sortarazten dituzte, bi kontrakoak printzipio bakar batek hartzen dituelako: arrazoizko ezagutzak. Bestalde 25) agerian dago ongi egiteko edo jasateko potentzia, egiteko edo jasateko potentziarekin batera ematen dela;

baina azken potentzia hau beste potentziarekin ez beti, ongi egiteko egin egin behar baita, baina egiteko bakarrik ez da beharrezkoa ongi egitea.

### III

Batzuek -megatarrek, esaterako- baieztatzen dute ekinean bakarrik ematen dela potentzia, eta ekinean iharduten ez duenean potentziarik ez 30) dagoela. Adibidez, eraikitzen ez duenak eraikitzeiko potentziarik ez duela, baino bai eraikitzen duenak, eraikitzen ari den bitartean; eta berdin gainerako gauzetan. Hauei suertatzen zaizkien arazoak ez dira zailak ikusten. Izan ere, argi dago eraikitzaile bat ez dela eraikitzaile izango eraikitzen ez duenean (eraikitzailearen izatea, hain zuzen, eraikitzeiko gai 35) izatea da), eta berdin gainerako arteetan.

Horrela, bada, ezinezkoa baldin bada inoiz ikasi eta ulertu ez dituenak arte hauek edukitzea, eta ezinezkoa baldin bada arteak galdu gabe 1047a) (ahaztu izanarengatik, edo afekzio batengatik edo denboraren poderioz, baina ez gauzaren usteldurarengatik, gauza izan beti izaten baita) arteak ez edukitzea, ez al du artea edukiko ekiteari uzten dionean? Eta berriro eraikitzen hasten den momentuan, nola berreskuratuko ote du artea?

Eta berdin gertatuko da bizigabeekin, ezer ez baita izango, ez hotza, 5) ez beroa, ez goxoa ezta, orokorrean, sentimenezko ezer ere sentsaziorik ez badago; beraz, hau baieztatzen dutenak bat etorriko dira Protagorasen iritziarekin. Bestalde, inork ez du sentimenik izango sentitzen ez duen bitartean. Horrela, bada, itsua baldin bada ikusmenik ez duena -naturaz izatea dagokion arren-, berez edukitzen duenean eta existitzen den bitartean, haiek, egunean zehar, askotan izango diraitsuak, eta gorrak ere bai.

10) Gainera, ezinezkoa potentzia-eza duena baldin bada, ezinezkoa izango da sortu ez dena sortzea; eta sortzeko ezinezkoa dena badela edo izango dela esaten duena oker egongo da (hauxe baita "ezinezkoak" adierazten zuena); beraz, doktrina hauek mugimendua eta genesia ezabatzen

dituzte, 15) zutik dagoena beti egongo baita zutik, eta eserita dagoena, beti eserita; izan ere, eserita baldin badago ez da altxatuko, altxatu ezin duena altxatzea ezinezkoa izango baita.

Horrela, bada, hau guztia baieztatu ezin bada, agerian dago potentzia eta egintza desberdinak direla (doktrina haiek, berriz, potentzia eta egintza gauza bera egiten dute, eta hau dela eta, huskeria ez den zerbait 20) ezabatu nahi dute). Beraz, litekeena da izan litekeen zerbait ez izatea, eta ezin litekeena izatea, eta berdin gainerako kategorietan: ibili ahal izanda ere ez ibiltzea, eta ezin ibil daitekeena ibiltzea.

Zerbait ahalezkoa da potentzia duenaren egintza ematen denean 25) ezinezko den ezer ematen ez bada. Adibidez, norbait eserita egotea ahalezkoa bada eta eserita egon badaiteke, benetan esertzen denean, ezinezko den ezer ez da emango; eta berdin mugitu edo mugiarazteko gai baldin bada, gelditu edo geldiarazteko, izan edo sortzeko, eta ez izan edo ez sortzeko gai baldin bada.

30) "Egintza" hitza, entelekiari egokituta, beste gauza batzuetara ere heldu da, mugimenduetatik abiatuz, bereziki; izan ere, badirudi egintza, nagusiki, mugimendua dela. Horregatik ez diren gauzei ez zaie mugimendurik ematen, baina bai bestelako kategoriak, pentsagarriak eta 35) desiragarriak izatea, alegia; baina mugikorrak izatea ez, egintzan ez 1047b) direlarik, egintzan izango liratekeelako. Izan ere, ez diren gauzen artean, zenbait potentzia izaten dira; baina ez dira existitzen, entelekian ez direlako.

#### IV

Ahalezkoa, eman daitekeen aldetik, esandakoa baldin bada, † agerian dago ez dela egia "hau ahalezkoa da baina ez da gertatuko"

5) esatea, hau egia izanez gero "ezinezkoa izatea" zer den ez bailitzateke ulertuko; adibidez, norbaitek baieztatzen badu diagonalak neur daitekeela baina ez dela neurtuko - ezinezkoa izatea zer den kontutan hartu gabe-, zerbait izatea edo sortzea ahalezkoa izanik, zerbait hori izatea edo sortzea ezerk eragozten ez duelako. Baina ezarritakoaren arabera, orain ez den 10) arren, ahalezko den hori badela edo sortua dela suposatzen badugu, beharrezkoa da ezinezko den ezer ez gertatzea; baina kasu horretan, behintzat, gertatuko da, diagonalak neurtzea ezinezkoa baita. Horrela, bada, gezurra eta ezintasuna desberdinak dira: zu orain zutik zaudela esatea gezurra da, baina ez ezinezkoa.

Aldi berean, A izanda B izatea beharrezkoa baldin bada, A izatea 15) ahalezko izanda B izatea ere ahalezkoa izango da nahitaez, ahalezko izatea beharrezkoa ez baldin bada, ezerk ez baitu eragozten izatea ezinezko izatea. Horrela, bada, eman dezagun A ahalezkoa dela; A izatea ahalezko izanik, A baieztatuko bagenu ezinezko den ezer ez litzateke gertatuko. Baina 20) orduan beharrezkoa litzateke B izatea; eta hau ezinezkoa zen. Bego, bada, ezinezkoa dela. Baina B izatea ezinezkoa baldin bada nahitaez, A izatea ere beharrezkoa izango da. Alabaina, lehenengoz esan dugu B izatea ezinezkoa zela; orduan, ondorengoa ere ezinezkoa izango da. Baina A ahalezkoa baldin bada, B ere ahalezkoa izango da, A izatek B izatea nahitaez ondorioztatzen bada, behintzat.

25) Beraz, Aren eta Bren arteko lotura horrela izanik, B ezinezkoa bada, orduan Aren eta Bren arteko lotura ez da esandakoa izango. Eta A ahalezko izanik B ere ahalezko baldin bada nahitaez, orduan A baldin bada, B ere izango da nahitaez. Izan ere, "A ahalezko bada, B izatea ere ahalezko izango da nahitaez" esateak hauxe adierazten du: A baldin bada -A izatea ahalezkoa 30) den momentuan eta moduan-, orduan B ere izango da nahitaez momentu eta modu berean.

V

Potentzia guztiak sortzetikoak -sentimenenak bezala- edo praktikaz eskuratuak -txirula jotzearena bezala- edo ikasketaz eskuratuak -arteenak bezala- izanik, praktikaz edo ikasketaz lortzen diren horiek edukitzeko aurretik praktikatu egin behar dira; baina honelakoak ez direnak 35) eta pasiboak ez dira praktikatu behar.

Bestalde, gai dena zerbaitetarako gai denez -momentu zehatz 1048a) batean, modu batez eta definizioan nahitaez ematen diren gainerako zehaztasun horiekin batera-, eta gauza batzuek arrazoiez mugiaraz dezaketenez eta beraien potentziak arrazoizkoak direnez, eta lehenengoak, nahitaez, izaki animadun baten baitan ematen direnez baina besteak 5) arimadunetan nahiz arimagabeetan, azken potentzia hauek, eragilea eta jasailea elkarrengana hurbiltzen direnean, egin eta jasan egiten dute nahitaez, eta beste potentzia haiek, berriz, ez. Izan ere, azken potentzia hauek gauza bakar batean dute eragina, baina beste potentzia haiek, ordea, kontrakoetan, aldi berean kontrako ondorioak sortaraziko dituztelarik; 10) baina hau ezinezkoa da.

Beraz, nagusitasuna bestelako zerbaiti egokituko zaio nahitaez; esan nahi dut desioari edo erabakiari. Bi kontrakoetatik nagusiki desiratzen duena, hain zuzen, egingo du eragileak, potentzia garatzeko egoera egokian aurkitzen denean eta jasaitetik gertu. Horrela, bada, arrazoiez eragiteko gai den orok egingo du hori, zeinarentzat potentzia duen, desiratzen duenean 15) eta potentzia duen neurrian; eta eragileak potentzia du jasailea aurrean eta nolabait baldin badago; bestela, ezin izango du egin.

(Ez dugu gehiago zehaztu behar "kanpoko ezerk eragozten ez badu" gaineratuz, egiteko potentzia den aldetik baitu potentzia; baina potentzia ez da beti ematen, zenbait baldintzatan baizik, eta baldintzetan

kanpoko eragozpenak ere baztertuak izango dira, 20) definizioan ematen diren zenbait baldintzak baztertzen baitituzte).

Horregatik, aldi berean bi ondorio edo kontrako ondorioak egin nahi edo desiratu arren, ez ditu egingo, bi kontrakoentzako potentzia esandako moduan ez duelako, eta, bestalde, potentzia ez delako aldi berean egiteko potentzia. Horrela, bada, egingo ditu haientzako potentzia den aldetik, honi dagokion moduan.

## VI

25) Mugimenduari dagokion potentziari buruz hitz egin dugunez, azal dezagun egintza zer den eta nolakoa den. Aldi berean, ahalezkoa definitzen dugunean hura argi geratuko da: berez beste zerbait mugitzeko gai denari edo beste zerbaitek mugitua izateko gai denari -erabat edo nolabait- deitu ez ezik, "ahalezkoa" bestela ere erabil dezakegu; horregatik landu genituen arazo hauek gure ikerketarako.

30) Egintza, hain zuzen ere, gauzaren gauzatzea da, baina ez potentzian dagoenean esaten dugun bezala; potentzian dagoela esaten dugu, adibidez, Hermes egurran dagoen bezala, eta lerro-erdia lerro osoan, hura honetatik bereiz litekeelako; eta ikertzen ez duena ere jakintsua dela esaten dugu, ikertzeko gai baldin bada; baina bestea, ordea, egintzan dago.

35) Azaldu nahi duguna agerian dago banakoetan indukzioz, eta ez da behar guztiaren definizioa bilatu, analogia ulertu baizik. Izan ere, eraikitzailearen eta eraikuntzaren artean ematen den erlazioa, esna 1048b) dagoenaren eta lo dagoenaren artean ere ematen da, eta ikusten duenaren eta begiak itxita izanda ere ikusmena duenaren artean, eta materiatic banandua denaren eta materiaren artean, eta zehaztuta dagoenaren eta zehaztugabe dagoenaren artean ere bai. Eta desberdintasun 5) honetatik, bego, bada, alde batean egintza eta beste aldean ahalezko dena.



Baina "egintzan dago" ez da kasu guztietan modu berean esaten, modu analogoan baizik: hau horretan edo horretarako ematen den bezala, hori horretan edo horretarako ematen da, zenbait gauza mugimenduaren eta potentziaren artean ematen den erlazioan ematen baitira, eta beste zenbait, substantziaren eta materia baten artean ematen den erlazioan.

10) Bestalde, hutsa, amaigabea eta † antzeko errealitateak ez da esaten potentzian edo egintzan daudela beste zenbait erralitate esaten den moduan -ikusten duena, ibiltzen dena edo ikusia dena, alegia-; azken erralitate hauek, hain zuzen ere, egiatan esan daitezke noizbait zentzu absolutuan (esaten baitugu zerbait ikusgarria dela ikusten delako edo ikus daitekeelako); baina amaigabea ez dago potentzian banandua egintzan 15) izango delako, pentsamenduan dagoelako baizik. Izan ere, zatiketa ez gauzatzeagatik egintza potentzian dago, ez bananduta.

[Mugatuak diren ekintzetan bat bera ere ez da helburua, helbururako baizik; adibidez, argaltzearen helburua argaltasuna bera da, eta 20) gorputz-atalak, argaltzen direnean, mugimenduan daude, mugimenduaren helburu diren ondorioak gauzatzen ez diren bitartean. Honen ondorioz, prozesu hauek ez dira ekintzak -ez ekintza burutuak, behintzat-, helburuak ez baitira. Aitzitik, ekintza da hori non helburua ematen den. Adibidez, ikusten ari denak dagoeneko ikusi egin du, pentsatzen du eta pentsatu egin du,

ulertzen du eta ulertu egin du; baina ikasten ari denak ez du, aldi berean, ikasi egin, ezta sendatzen ari denak sendatu egin ere; ongi bizi dena, aldi 25) berean, ongi bizi izan da, eta zoriontsua dena, zoriontsua izan da. Bestela, prozesuan eten egin beharko luke noizbait, argaltzen denean bezala; baina orain, berriz, bizi da eta bizi izan da.

Horrela, bada, prozesu hauen artean zenbait mugimendu izendatu behar dira, eta beste zenbait, egintza. Izan ere, mugimenduak ez dira burutuak, besteak beste, argaltzea, ikastea, ibiltzea, eraikitzea; hauek, hain zuzen ere, mugimenduak dira, eta honen ondorioz ez dira burutuak, 30) dabilena ez baita oraindik heldu, eta eraikitzen ari denak oraindik ez du eraiki, eta bilatzen ari dena oraindik ez da gauzatu, eta mugitzen ari dena ez da oraindik heldu, prozesu hauek desberdinak baitira, mugitzea eta mugitu izana bezala. Baina, bestalde, ikusi izana eta aldi berean ikustea gauza bera da, baita pentsatzea eta pentsatu izana ere. Azken prozesu honi egintza 35) deitzen diot, baina besteari, mugimendua.]

Horrela, bada, azalpen hauen eta antzeko azalpenen bidez argi gera bekigu egintza zer den eta nolakoa den.

## VII

Zehaztu behar dugu, bada, gauza bat noiz dagoen potentzian eta 1049a) noiz ez, beti ez baitago potentzian. Lurra, adibidez, gizaki bat potentzian al da? Agian ez, lurra oraindik hazi bihurtu ez bada; edo, agian, kasu honetan gizakia ere ez dago potentzian. Era berean, dena ezin da sendakuntzak edo patuak osatua izan; hala ere, badago zerbait sendatua 5) izateko gai dena, potentzian osasuntsua dena, hain zuzen ere. Eta hauxe da adimenaz potentzian izatetik entelekian izatera iristen denaren definizioa: "nahi izanda gero, eta kanpoko eragozpenik gabe izatera iristen dena"; eta hor, osatua denaren kasuan, bere baitako eragozpenik ez badago. Etxe bat ere modu berean ematen da potentzian: honetan -materian- etxea 10) izatera iristea eragozten duen ezer ez badago, ezta gehitu, kendu edo aldatu behar den ezer ere, orduan hori da etxe bat potentzian;

eta berdin genesiaren printzipioa kanpoan duten gainerako gauzetan. Eta genesiaren printzipioa beren baitan duten horien artean, kanpoko ezerk eragotzi gabe berez izatera iritsiko diren horiek; adibidez, hazia oraindik ez <da gizakia potentzian> (beste batengan jarri behar baitu eta aldatu), baina 15) bere printzipioarengatik berarengatik hori izaten den momentuan, orduan hori bada potentzian; baina lehenengo momentuan beste printzipio bat behar du, lurra, lehenengo momentu batean, giza irudia potentzian oraindik ez den bezala (behin aldatuta brontzea izango baita).

Bestalde, zerbaiti buruz "zer" den esan beharrean "zerezkoa" den esaten dugunean - adibidez, kutxatila ez da egurra, egurrezkoa baizik, eta 20) egurra ez da lurra, lurrezkoa baizik, eta lurrarekin ere berdin gertatzen bada, ez da bestelako hori, horretazkoa baizik-, zerbait hori, beti potentzian dagoen azkenekoa omen da zentzu absolutuan. Adibidez, kutxatila ez da ez lurra, ez lurrezkoa, egurrezkoa baizik, egurra baita kutxatila bat potentzian eta kutxatila baten materia: egurra kutxatilaren potentzia, eta egur zehaztu hau kutxatila zehaztu honen potentzia, hain zuzen ere.

Baina baldin badago zerbait lehena zeinaz beste zerbaitera bidalita 25) "horretazkoa" dela esan ezin den, zerbait hori materia lehena izango da. Adibidez, lurra airezkoa bada, eta airea ez bada sua, suzkoa baizik, orduan sua materia lehena izango da eta ez da zehaztua izango.

Honetan, hain zuzen ere, bereizten dira subjektua eta azpigaia, zehaztutako zerbait izatean ala ez izatean. Adibidez, afekzioetarako 30) subjektua gizaki bat da -gorputza eta arima-, eta afekzioa, musikaria eta zuria (gizaki honengan musika sortu denean ez zaio "musika" deitu, "musikaria" baizik; eta ez da esaten gizakia zuritasuna denik, gizakia zuria dela baizik; eta ez da esaten ibilaldia edo mugimendua denik, dabilela edo mugimenduan dagoela baizik, zerbait zerbaitezkoa dela esaten dugun bezala). Hau horrela bada, azkeneko subjektua substantzia bat da; bestela 35) -predikatzen dena espezie bat eta zehaztutako zerbait bada-, azkeneko subjektua materia eta substantzia materiala da.

Horregatik esaten da "horretazkoa" materiaren eta afekzioaren arabera, 1049b) bata eta besteak zehaztugabeak baitira.

Esana dago, bada, noiz esan behar den zerbait potentzian dagoela eta noiz ez.

### VIII

"Aurrekoa" zenbat zentzutan esaten den zehaztu dugunez<sup>47</sup>, 5) agerian dago egintza potentziaren aurrekoa dela. Eta beste batean -edo honetan, hau beste bat den aldetik-dagoen aldaketaren printzipio deituriko potentzia zehaztua ezezik, orokorrean mugimenduaren edo gelditasunaren printzipio oro ere aipatu nahi dut. Natura, hain zuzen ere, subjektuarengan berarengan sortzen da -potentziaren genero berean baitago-, eta printzipio mugiarazlea da, ez beste batean, subjektuarengan berarengan baizik, berau 10) den aldetik.

Horrela, bada, potentzia hauen guztien aurrekoa da egintza, bai kontzeptuari dagokionez, baita substantziari dagokionez ere; baina denborari dagokionez, zentzu batean bai eta beste zentzu batean, ez. Kontzeptuari dagokionez aurrekoa dela argi dago (lehenengoz potentzian dagoena egintzaratu ahal izateagatik baitago potentzian; adibidez, eraikitze potentzian dago eraikitze gai dena, eta ikusteko potentzian dago ikusteko gai dena, eta ikusia izateko potentzian dago ikusia izateko gai 15) dena; eta berdin gainerako kasuetan. Beraz, egintzaren kontzeptua eta ezagutza, potentziarenak baino lehenago emango dira nahitaez).

Baina denborari dagokionez honela da aurrekoa: egintzan izanda espezifikoki bera dena aurrekoa da, baina aritmetikoki ez. Eta hau, honengatik diot: materia, hazia eta ikusteko gai dena -potentzian gizaki bat, 20) garia eta ikuslea direnak, alegia, baina egintzan oraindik ez- egintzan dagoeneko ematen diren gizaki honen, gariaren eta ikuslearen aurrekoak direlako denboran; baina denboran <potentzia> horien aurrekoak dira egintzan diren beste gauzak, zeintzuetatik potentziak sortu diren, egintzan dagoena beti sortzen baita potentzian egonda egintzan dagoen zerbaitetik; 25) adibidez, gizaki bat beste gizaki batengandik sortzen da, eta musikari bat beste musikari batek sortua da, mugiarazle bat izanik beti, mugiarazlea dagoeneko egintzan delarik.

Substantziari buruzko ikerketetan esana geratu zen<sup>48</sup> sortzen den oro zerbaitetik eta espeziekide den zerbaitek sortua dela. Horregatik

dirudi ezinezkoa eraikitzailea izatea ezer eraiki izan gabe, edo 30) zitara-jolea izatea zitara jo izan gabe, zitara jotzen ikasten duenak zitara joz ikasten baitu zitara jotzen; eta berdin gertatzen zaie gainerakoei. Hemendik zetorren argumentu sofistiko hau: "ezagutzarik izan gabe, ezagutza honi dagokion gaia praktika daiteke; hau ikasten ari denak, hain 35) zuzen ere, ez du ezagutzarik". Baina sortzen ari denaren zerbait dagoeneko sortua delako eta, orokorrean, mugitzen ari denaren zerbait 1050a) mugitua delako (hau argi geratu zen mugimenduari buruzko ikerketan<sup>49</sup>), ikasten duenak ere, nahitaez, ezagutzaren zerbait izango du, dudarik gabe. Horrela, bada, hemen argi ikusten da zentzu horretan ere ekintza potentziaren aurrekoa dela genesiari eta denborari dagokienez.

Baina substantziari dagokionez ere bai; lehenengoz, genesiari 5) dagokionez ondorengoa dena espezieari eta substantziari dagokienez aurrekoa delako (adibidez, gizona haurraren aurrekoa da eta gizakia haziaren aurrekoa, bata dagoeneko baduelako espeziea eta besteak, ez), eta sortzen ari den oro printzipio baterantz eta helburu baterantz abiatzen delako (helburu den hori, hain zuzen ere, printzipio bat da, eta genesia helburu batengatik ematen da); bestalde, egintza helburu bat da, eta 10) horregatik ematen da potentzia.

Izan ere, animaliek ez dute ikusten ikusmena edukitzeko; aitzitik, ikusmena ikusteko dute. Era berean, eraikuntza eraikitzeke, eta teorizatzeke gaitasuna teorizatzeke; baina ez da teorizatzen teorizatzeke gaitasun edukitzeko, teorizatzen ikasten ari direnen kasuan izan ezik; baina hauek ez dute benetan teorizatzen, esandako moduan ez bada [edo teorizatu behar ez dutelako].

15) Gainera, materia potentzian dago espeziera hel daitekeelako; baina egintzan dagoenean, orduan espeziean dago. Eta berdin bestelako gauzetan, helburutzat mugimendu bat duten horietan ere; horregatik, ikasten dutenek ekitean dabilen ikaslea erakusten dutenean uste dute helburua lortu dutela; eta berdin gertatzen da Naturarekin. Horrela ez bada, 20) ikaslea Pausonen Hermesa bezalakoa izango da: honekin gertatzen den bezala, ilunpean geratuko da zientzia bere baitan duen edo kanpoan.

Izan ere, obra helburu bat da, eta egintza obra da; horregatik "egintza" hitza obraren arabera esaten da, eta entelekiarantz jotzen du.

Eta zenbait potentziaren azkenekoa erabilera denez (adibidez, 25) ikusmenaren azkenekoa ikuskina da, eta honetaz aparte bestelako obrarik ez da sortzen ikusmenetik), baina beste zenbaitetan zerbait sortzen denez (adibidez, eraikuntzan, eraikinaz aparte, etxe bat sortzen da), lehenengo kasuan egintza helburua da, eta bigarreanean potentzia baino zentzu handiago batez da helburua, hemen eraikina eraiki egiten den horretan baitago, eta etxearekin batera sortzen eta izaten da.

30) Horrela, bada, potentziaren ekoizpena erabileraz aparte bestelako zerbait baldin bada, bere egintza ekoiztutako horretan dago (adibidez, eraikina eraikitako honetan, ehunkina ehotako horretan, eta berdin gainerako gauzetan; eta, orokorrean, mugimendua mugitutako hartan). Baina egintzaz aparte bestelako obrarik ez badago, egintza 35) egileengan beraiengan ematen da (adibidez, ikuskina ikusten duenarengan, teoria teorizatzen duenarengan eta bizitza ariman; horregatik 1050b) dago ariman zoriontasuna, hau nolabaiteko bizitza baita).

Beraz, agerian dago substantzia eta espeziea egintzan direla. Eta arrazonamendu honen ondorioz, agerian geratzen da substantziari dagokionez egintza potentziaren aurrekoa dela, eta, esan bezala<sup>50</sup>, denborari dagokionez beti dagoela egintza bat beste egintza baten aurrekoa 5) dena, beti nagusiki mugiarazten duenaren egintza iritsi arte.

Baina zentzu nagusiago batean ere bai, substantziari dagokionez betiereko gauzak ustelgarrien aurrekoak baitira, eta ezer ez da betierekoa potentzian. Arrazoia hau da: potentzia oro, aldi berean, kontraesanaren 10) potentzia da. Izan ere, izateko ezinezko dena ezin da ezertan eman, eta, bestalde, ahalezko den oro egintzan ez ematea ahalezkoa da. Horrela, bada, ahalezko dena baliteke bai izatea, bai ez izatea; beraz, gauza bera izateko eta ez izateko gai da. Baina ez izateko gai dena baliteke ez izatea, eta ez izatea litekeena ustelgarria da, edo erabat, edo ez izatea litekeena esaten den

moduan, 15) edo lekuari, kantitateari edo koalitateari dagokionez. Eta erabat, substantziari dagokionez usteltzen dena. Horrela, bada, erabat ustelgabe diren gauzen artean bat bera ere ez da erabat potentzian (ezerk ez du eragozten, berriz, zerbaiti dagokionez potentzian izatea, koalitateari edo lekuari dagokionez, alegia); beraz, denak daude egintzan. Ezta nahitaez izaten diren gauzen artean ere (hauek, hain zuzen ere, lehenak dira, hauek 20) izan ezean ezer izango ez bailitzateke). Ezta mugimendua ere, betiereko den mugimenduren bat baldin badago; eta betiko mugitua den ezer baldin badago, ez da potentziaren arabera mugitua izango, leku batetik bestera ez bada (eta honen materia ematea ezerk ez du eragozten); horregatik daude beti egintzan eguzkia, astroak eta ortzi osoa, eta noizbait geldituko den beldur ez da izan behar, fisikariak beldur diren arren. Eta errealitate hauek 25) ez dira nekatzen <betiereko mugimendua> egiteagatik, haientzat mugimendua ez baita kontraesanaren potentzia -ustelgarri direnentzat den bezala- eta mugimenduaren jarraipena ez zaie neketsua; izan ere, substantzia da -materia eta potentzia izanik, ez egintza- neke honen kausa.

Gauza ustelgabeek aldaketari lotuak diren gauzak ere imitatzen dituzte; adibidez, lurrak eta suak. Hauek, hain zuzen ere, beti daude ekitean, 30) berez eta beren baitan baitute mugimendua. Baina gainerako potentziak, lehen azaldu den bezala, denak dira kontraesanarenak, nolabait mugiarazteko gai denak bestela ere mugiaraz baitezake, arrazoizko potentziak baldin badira, behintzat; eta irrazionalak, berberak direnak, emateagatik edo ez emateagatik izango dira kontraesanarenak. Beraz, 35) batzuen ustez, Ideien moduko izaerak edo substantziak baldin badaude, Zientzia Bera baino ezagungarriago den zerbait izango da, baita Mugimendua baino mugituago den zerbait ere, haiek neurri handiago batez baitira egintzak, eta hauek haien potentziak.

1051a) Horrela, bada, agerian dago egintza potentziaren eta mugimenduaren printzipio ororen aurrekoa dela.

## IX

Azalduko dugunaren arabera, argi dago potentzia baliotsu baten egintza 5) potentzia bera baino hobea eta preziatuagoa dela. Zerbaiterako

potentzia duen horrek berak, kontrakorako potentzia ere badu; adibidez, osasuntsu egon daitekeena gaixorik ere egon daiteke, bi potentziek aldi berean izanik, osasuntsu egoteko eta gaixorik egoteko potentzia, potentzia bera baita eta, era berean, geldirik egoteko eta mugitzeko potentzia, eta eraikitze eta abailtze potentzia eta eraikina izateko eta suntsitua izateko 10) potentzia. Horrela, bada, kontrakoetarako potentzia aldi berean ematen da; baina ezinezkoa da kontrakoak aldi berean ematea, eta egintzak aldi berean ematea ere ezinezkoa da (adibidez, osasuntsu egotea eta gaixorik egotea); beraz, haietako bat ongia izango da nahitaez; potentzia, berriz, biak 15) izango dira ala bat bera ere ez. Ondorioz, egintza da hobe. Baina gauza txarretan ere helburua eta egintza potentzia baino okerragoak izango dira nahitaez, bi kontrakoetako potentzia potentzia bera baita. Horrela, bada, argi dago gaizkia ez dagoela gauzez aparte, gaizkia potentziaren ondorengoa baita berez. Beraz, jatorrizko gauzetan eta betierekoetan ez dago, ez gaitzik, ez 20) akatsik, ezta usteldurarik ere (usteldura ere gaitz bat baita). Irudi geometrikoak ere egintzan dira aurkituak, zatiketaren bidez aurkitzen baitira; zatiturik balira, argi ikusiko lirateke, baina zatitu aurretik potentzian ematen dira. Zergatik ditu bi angelu zuzen triangeluak? Puntu 25) baten inguruko angeluak bi angelu zuzen direlako; aldeko paraleloa marraztuko balitz ikusleak berehala ulertuko luke; eta, zergatik izaten da beti angelu zuzen zirkuluerdian inskribaturiko angelua? Hiru lerro berdin marraztuz gero -bi oinarrian eta erdigunetik perpendikularra den lerro zuzena- ikusten ari denarentzat agerikoa izango delako,



hura <triangeluak bi angelu zuzen ditu> ezagutzen badu. Beraz, agerian 30) dago potentzian diren irudi geometrikoak egintzara eramaten direnean aurkitu egiten direla; eta hau horrela da pentsamendua egintza delako. Ondorioz, potentzia egintzatik dator, eta horregatik ezagutzen dira irudiak berauek egiten direnean (genesiarri dagokionez banako bakoitzaren egintza ondorengoa baita).

X

"Den-a" eta "Ez Den-a", zentzu batean, kategorien irudien arabera 35) esaten direnez, beste zentzu batean kategoria hauen potentziaren edo 1051b) egintzaren arabera, edo kontrakoen arabera, eta beste zentzu batean (berezkoa dena), "egiazkoa" edo "faltsua" - hain zuzen ere, gauzetan lotuta edo bereizita ematea, bereizita dagoena bereizita dagoela eta lotuta dagoena lotuta dagoela pentsatzen duena egiari egokitzen zaiolako, eta gauzekiko 5) kontraesanetan dagoena oker dagoelako-, orduan noiz ematen da eta noiz ez da ematen "egiazkoa" edo "faltsua" deiturikoa? Ikertu behar da, hain zuzen ere, zer esaten dugun. Izan ere, zu ez zara zuria guk zuria zarela benetan pentsatzeagatik; aitzitik, zu zuria izateagatik gu, hau baieztatzen dugunok, egiari egokitzen gatzazkio.

Beraz, baldin eta zenbait gauza beti badaude lotuta eta ezin badira 10) bereizi, eta beste zenbait gauza beti badaude bereizita eta ezin badira lotu, eta beste zenbaitek kontrakoak onartzen badituzte, orduan "izatea" lotuta ematea eta bat izatea izango da, eta "ez izatea" lotuta ez ematea eta gauza anitz izatea izango da. Horrela, bada, kontrakoak onartzen dituzten gauzei dagokienez, iritzi bera eta esakune bera batzuetan faltsuak izaten dira eta beste batzuetan, egiazkoak, eta batzuetan egiari egoki dakizkioke eta beste 15) batzuetan, gezurrari. Baina bestela izaterik ez duten gauzei dagokienez, ez dira batzuetan egiazkoak eta beste batzuetan faltsuak izaten;

aitzitik, iritzi bera eta esakune bera beti egia edo beti gezurra izaten dira.

Baina konposatuak ez diren gauzei dagokienez, zer da izatea eta ez izatea, egiazkoa eta faltsua? Izan ere, hauek ez dira konposatuak -hauek, lotuta ematen direnean izaten dira, eta bereizita ematen badira, ez dira, 20) "egurra zuria da" edo "diagonala neurtezina da" kasuetan gertatzen den bezala-. Eta egiazkoa eta faltsua jadanik ez dira emango lehen aipatu ditugun gauzetan ematen diren bezala. Eta azken hauetan egiazkoa gauza bera ez den bezala, izatea ere ez. Konposatuak ez diren gauzetan haxe da egiazkoa eta faltsua: lortzea eta esatea egiazkoa da (zerbaitetaz zerbait 25) baieztatzea eta esatea ez baita gauza bera), eta ez-jakitea ez-lortzea da (zerkiari buruz engainatua izaterik ez baitago, akzidentalki ez bada; eta berdin gertatzen da konposatuak ez diren substantziei dagokienez, engainatua izaterik ez baitago; eta denak dira egintzan, ez potentzian, bestela sortu eta usteldu egingo bailirateke. Baina gauza bera dena ez da sortu ezta usteldu ere egiten, zerbaitetik sortuko bailitzateke. Horrela, bada, benetako 30) izana duenari eta egintzak direnei buruz engainatua izaterik ez dago, pentsatuak izatea ala ez baizik; eta haiei buruz bilatzen duguna zerkia da, ea honelakoak diren ala ez). Eta izatea -egiazkotzat hartutakoa- eta ez izatea -faltsutzat hartutakoa-, bata, egiazkoa, lotura baldin badago ematen da eta 35) bestea, faltsua, loturarik ez badago. Eta bata, benetan baldin bada, 1052a) horrelakoa da eta horrelakoa ez bada, orduan ez da. Bestalde, "egia", gauza hauek pentsatzea da, eta ez dago gezurrik ezta engainurik ere, ezjakintasuna baizik; baina ez itsutasuna bezalakoa, itsutasuna norbaitek pentsatzeko erabateko ezintasuna izango bailuan baita. Eta geldiak diren gauzei buruz, denboraren araberrako engainurik ez dagoela ere agerian dago, 5) geldiak suposatzen badira. Adibidez, norbaitek triangelua aldatzen ez dela pentsatzen badu,

ez du pentsatuko batzuetan bi angelu zuzen dituenik eta beste batzuetan, ordea, ez (orduan aldatuko bailitzateke); baina pentsa lezake zerbaitek ezaugarriren bat baduela eta beste zerbaitek, ordea, ez; adibidez, bikoiti bat bera ere ez dela zenbaki lehena, edo batzuk bai eta besteak, ez; eta zenbaki 10) jakin bati buruz, ezta hori ere, ez baitu pentsatuko "zenbait bai eta beste zenbait, ez"; aitzitik, egiari egokituko zaio edo oker egongo da, gauza beti berdin ematen baita.

#### HAMARGARREN LIBURUA (I)

##### I

15) "Bat" zentzu askotan esaten dela lehendik esana dago <hitzen> esanahi desberdinei buruzko ikerketan<sup>51</sup>. Hala ere, zentzu gehiagotan esaten bada ere, laburbilduz lau dira nagusiki berez eta ez akzidentalki bat esaten diren gauza lehenen zentzuak.

Orokorrean, jarraia dena da bat, batez ere naturaz baldin bada, eta 20) ez elkar-ukitzez edo loturaz. (Eta jarraiak diren haietatik, lehenengoz eta bereziki da bat mugimendua zatietzena eta bakunagoa duen hori).

Bestalde, neurri handiagoz da bat osoa dena eta nolabaiteko konfigurazio eta forma dituen, batez ere naturaz baldin bada, eta ez indarrez -itsatirik, iltzeturik edo loturik daudenak bezala-, jarraia izatearen 25) kausa bere baitan duelarik. Eta honelakoa da beraren mugimendua bat eta denboran eta lekuan zatietzena izateagatik. Beraz, naturaz zerbaitek mugimenduaren printzipioa badu, mugimendu lehenaren printzipio lehena, hain zuzen ere -esaterako mugimendu zirkularra translazio-mugimenduari dagokionez-, orduan agerian dago hori bat den magnitude lehena dela.

Horrela, bada, zenbait gauza dira bat jarraiak diren aldetik edo 30) osoak diren aldetik. Beste batzuk, beraien esakunea bat den aldetik. Eta honelakoak dira beraien nozioa bat baldin bada, hots, zatietzena. Eta zatietzena da zatietzena den nozioa, espezifikoki zein aritmetikoki.

Aritmetikoki banako bakoitza da zatiezina eta espezifikoki, ezagutzarentzat eta zientziarentzat zatiezina dena. Beraz, lehenengo zentzu batean "bat" izango da substantziak bat izatearen kausa dena. Horrela, bada, 35) "bat" zentzu hauetan guztietan esaten da: naturaz jarraia dena, osoa dena, banako bakoitza eta unibertsala; eta hauek denak dira "bat" zatiezinak izateagatik, beraien mugimenduari dagokionez zein nozioari edo 1052b) esakuneari dagokionez.

Argi ibili behar da ez nahasteko "bat" izendatzen ditugun gauzak zein diren, eta "bataren izatea" zer den eta zein beronen esakunea. Izan ere, "bat" aipatutako zentzu hauetan guztietan esaten da, eta bat izango da 5) zentzu hauetariko batean ematen den edozer. Baina "bataren izatea", batzuetan, azken hauetako baten batean emango da, eta beste batzuetan "bat" izenetik gertuago dagoen bestelako zerbaitean, lehenengoak "bataren izate" hori potentzian dutelarik. Gauza bera "osagai" eta "kausa"ri dagokienez, baldin eta honela izendaturiko gauzen arteko desberdintasunak esan behar badira eta, bestalde, "osagai" eta "kausa" izenen definizioa eman behar bada. Izan ere, zentzu batean sua osagaia da (eta baliteke Zehaztugabea 10) ere berez izatea osagaia, edo antzekoa den beste edozer), baina beste zentzu batean, ez: "suaren izatea" eta "osagaiaren izatea" ez baita gauza bera; aitzitik, sua zehaztutako zerbait den aldetik eta natura den aldetik da osagaia, baina izenak adierazten du bere baitako lehena den zerbait izatea suertatu zaiola berari.

Eta berdin "kausa", "bat" eta honelako beste gauza guztiei 15) dagokienez. Horregatik "bataren izatea" "zatiezinarekin izatea" da, hots, zehaztua den haxe izatea eta berez banangarria izatea lekuaren, espeziearen eta adimenaren arabera; edo, bestela, "bataren izatea" osoa eta zatiezina izatea, baina, batez ere, genero bakoitzaren neurri lehenaren izatea eta, nagusiki,

kantitatearena. Izan ere, azken hau izan da gainerako <kategorien> abiapuntua.

20) Neurria, hain zuzen ere, kantitatea ezagutzeko baliabidea da. Eta kantitatea - kantitatea den aldetik-, bataren edo zenbakiaren bidez ezagutzen da. Baina, bestalde, bataren bidez ezagutzen da zenbaki oro; beraz, kantitate oro -kantitatea den aldetik- bataren bidez ezagutzen da, eta kantitateak ezagutzeko lehen baliabidea bata bera da. Horregatik bata zenbakiaren (hau zenbakia den aldetik) printzipioa da. Hau abiapuntutzat harturik izendatzen da "neurria": banako bakoitza ezagutzeko <baliabide> 25) lehena, eta banako bakoitzaren neurria bat da, luzeran, zabaleran, sakoneran, pisuan, abiaduran (pisua eta abiadura baterako baitituzte kontrakoek: biek esanahi bikoitza dute. Adibidez, pisuduna da pisua duen edozer, baita gehiegizko pisua duena ere; eta abiadura du dozein mugimendu duen orok, baita gehiegizko mugimendua duenak ere, motela 30) denak ere nolabaiteko mugimendua baduelako eta arina duenak, nolabaiteko pisua).

Horrela, bada, hauetan guztietan neurria eta printzipioa "bat eta zatiezina den zerbait" da, bertso-lerroetan ere zatiezina den aldetik "oina" erabiltzen da-eta. Izan ere, kasu guztietan bilatzen da neurritzat "bat eta 35) zatiezina den zerbait", eta honelakoa da bakuna dena, kantitatearen zein kalitatearen arabera. Eta hura, non ezer gehitzea edo kentzea ezinezkoa dirudien, huraxe da neurri zehatza. Horregatik da zehatzena zenbakiarena, 1053a) unitate zatiezin absolututzat hartzen delako. Bestalde, gainerako kasuetan hau imitatzen da, estadio bati eta talento bati -edo beste neurri handiagoko zerbaiti- zer edo zer gehitu edo kentzen bazaie, neurri txikiagoko beste edozeri egiten bazaio baino gutxiago nabarituko baita.

5) Beraz, nabaria izan gabe <zer edo zer gehitu edo kendu> egiterik ez dagoen lehenengo hori hartzen da beti neurritzat, likido, solido, pisu edo magnitudeentzat. Eta kantitatea ezagutzen delako ustea izaten dugu neurri honen bidez ezagutzen dugunean. Era berean, mugimendua mugimendurik sinpleenaren eta azkarrenaren bidez neurtzen da (hau denborarik laburrenean ematen baita). Horregatik astronomian honelako 10) unitatea da printzipio eta neurria (mugimendu uniforme eta azkarrena Ortziarena dela ezartzen baitute, eta horren arabera gainerakoak), eta musikan diesia,

hau bitarterik txikiena delako, eta soinu artikulatuan, letra. Eta hauek guztiak bat den zerbait dira, ez bata baterako dutelako, aipatu dugun moduan baizik.

15) Hala ere, neurria ez da beti aritmetikoki bat, batzuetan bat baino gehiago baizik; adibidez, diesian bi dira -entzumenaren bidez ezagutzen ez direnak, teoriarik baizik-, eta bat baino gehiago dira neurtzeko erabiltzen ditugun soinu artikulatuak; eta diametroa eta alde bat neurtzeko ere bi dira neurriak, baita magnitude guztiak neurtzekoak ere.

Horrela, bada, bata diren guztien neurria da, substantziaren osagaiak substantzia zatituz -kantitatearen zein formaren arabera- 20) ezagutzen baititugu. Eta horregatik da zatiezina bata, banakoetan lehena zatiezina baita. Baina ez da dena zentzu berean zatiezina, oin bat eta monada bat, esaterako, monada absolutuki baita zatiezina, eta oina, berriz, sentimenentzat zatiezinak diren zatietan <banatzen da>, jada esana dugun bezala. Izan ere, baliteke jarraia den oro zatiezina izatea.

Bestalde, neurria beti izaten da homogeneoa: magnitudeen 25) neurria magnitude bat da, eta, konkretuki, luzeerarena luzera, zabalerarena zabalera, soinu artikulatuena soinu artikulatua, pisuarena pisua eta monadarena monada. Horrela ulertu behar da, baina ez zenbakien neurria zenbaki bat denik (nahiz eta horrela beharko lukeen gauza bera balitz); baina ez da berdintzat hartu behar, baizik eta monaden neurria monaden multzo bat -eta ez monada- bailitzan. Haatik, zenbakia monaden 30) multzo bat da.

Eta arrazoi berarengatik zientzia eta sentimena ere diren guztien neurria direla esaten dugu, haien bidez zer edo zer ezagutzen dugulako, nahiz eta neurtu baino neurtuak diren. Baina beste batek gure neurria hartzean geure gorputz-ataletan ukondoa jarritz gure altuera ezagutuko 35) bagenu bezala gertatzen zaigu. Eta Protagorasek "gizakia guztiaren neurria" dela esaten du, dakiena edo sentitzen duena <neurria dela> esango 1053b) bailuen; izan ere, gizakietan batek sentimena eta besteak zientzia izateagatik, hauek azpigaien neurria direla esaten dugu.

Alabaina, zerbait adirazten dutela dirudi, baina ez dute ezer berezirik esaten.

Gauzak horrela, eta hitzaren esanahiaren arabera definitzen 5) duenarentzat agerian dago "bataren izatea" bereziki nolabaiteko neurria dela, nagusiki kantitatearen neurria, eta ondoren koalitategarena. Eta halakoa izango da, lehenengo kasuan, kantitatearen arabera baldin bada zatiezina, eta bigarren kasuan koalitategaren arabera baldin bada. Horregatik da zatiezina bata, edo absolutuki edo bat den aldetik.

## II

Aporiei buruzko azalpenetan Bata zer den eta nola ulertu behar 10) den aztertu genuen bezala, substantziaren eta naturaren arabera Batak nolako izaera duen ikertu behar dugu: Bata Bera nolabaiteko substantzia bat ote den, Pitagorikoek aurrena eta Platonek ondoren esan zuten moduan, edo izaeraren bat ote duen azpigai, eta nola azaldu behar den argiago gera 15) dadin eta naturaren filosofoek azaltzen dutenarekin bat etor dadin. Izan ere, hauetako batentzat Adiskidetasuna da Bata, beste batentzat Airea eta beste batentzat Zehaztugabea. Baina baldin eta unibertsaletan batek berak ere ezin badu substantzia izan -substantziari eta "den-ari" buruzko azalpenetan esana dagoen bezala-, eta unibertsalak berak ezin badu aniztasunaz aparte nolabaiteko substantzia izan (baterako den zerbait baita), 20) predikazio bat baizik, orduan argi dago Batak ere ezin duela substantzia izan, "Den-a" eta Bata predikaziorik unibertsalenak direlako. Braz, generoak ez dira gainerako gauzez aparteko substantziak edo naturak, ez eta "bata" genero izan ere, "den-ak" eta substantziak ere generoa izan ezin duten arrazoi berberengatik.

Gainera, berdin gertatuko da nahitaez kasu guztietan. "Den-ak" eta 25) Batak esanahi kopuru bera dute; beraz, koalitategetan Bata zerbait denez -hots, naturaren bat-, eta kantitateetan ere zerbait denez, argi dago orokorrean ere Bata zer den ikertu behar dela, bai

eta "den-a" zer den ere, ez baita nahikoa bere izaera horixe bera dela esatea.

Alabaina, koloreetan bata kolore bat da, esate baterako, zuria; gero, 30) gainerakoak honetatik eta beltzetik sortuak omen dira, beltza zuriaren eza izanik, iluntasuna argitasunarena den bezala [hau argitasunaren eza baita]. Beraz, diren guztiak koloreak balira, diren guztiak nolabaiteko zenbaki bat lirатеke, baina, zerena? Koloreena, jakina, eta Bata bat den zerbait izango litzateke, adibidez, zuria. Eta berdin diren guztiak melodiak 35) balira, nolabaiteko zenbaki bat bailirateke, diesi-zenbakia, hain zuen ere; baina beraien substantzia ez litzateke zenbakia izango; eta Bata izango litzateke bat den zerbait, zeinaren substantzia ez litzatekeen "bat", diesia 1054a) baizik.

Eta berdin soinuuen kasuan: diren guztiak nolabaiteko osagai-zenbakia lirатеke eta Bata, soinu artikulatuaren osagai bat. Eta <diren guztiak> lerro zuzenez osaturiko irudiak balira, nolabaiteko irudi-zenbaki bat izango lirатеke, eta Bata, triangelua.

Gainerako generoetarako ere arrazonomendu berak balio du; 5) beraz, afekzioetan, koalitateetan, kantitateetan eta mugimenduetan zenbakiak eta nolabaiteko batasuna ematen baldin badira, hauetan guztietan zenbakia zenbait gauzarena izango da, eta Bata nolabaiteko bata; baina substantzia ez da hau bera izango; eta substantzietan gauza bera gertatuko da nahitaez, gauza guztietan berdin gertatzen baita.

10) Horrela, bada, agerian dago genero guztietan Bata nolabaiteko izaera bat dela, eta Bata Bera ez dela izaera horietako substantzia; aitzitik, koloreetan Bata Bera kolore batean bilatu behar den bezala, substantzietan ere substantzia bat bilatu behar da.

Batak eta "Den-ak", zentzu batean, gauza bera adierazten dutela argi ikusten da, Bata kategoria guztietan berdin ulertzen delako, haietan 15) beraietan ematen ez delarik (adibidez, ez Zerkian, ezta koalitatean ere, Den-a ematen den moduan baizik), eta "gizaki bat" esakuneak



"gizakia" esakuneari ez diolako ñabardurarik gehitzen ( "izateak" "honelako zerbait <izateari>" edo "hainbestekoari" edo "honelakoari" ezer gehitzen ez dien bezala), eta bataren izatea banakoaren izatea delako.

### III

20) "Bata" eta "Anitza" zenbait modutan dira kontrajarriak. Horietako baten arabera, bata eta anitza "zatiezina" eta "zatigarria" bezala dira kontrajarriak. Izan ere, zatitua edo zatigarri dena aniztasun bat dela esaten da, eta zatiezina edo ez-zatitua dena, berriz, bat.

Kontrajartzeko moduak lau direnez, eta kontrajarritako bat ezaren arabera esaten denez, [kontrakoak izango dira eta] ez kontraesanak, ezta 25) erlatiboak izendaturikoak bezalakoak ere. "Bata", hain zuzen, esan eta argitu egiten da bere kontrakotik abiatuz, eta zatiezina, zatigarritik, sentsazioaren bidez anitza eta zatigarria "zatiezina" baino hobeki ulertzeagatik. Beraz, definizioari dagokionez, sentsazioaren bidez zatiezinaren aurrekoa da aniztasuna.

30) "Kontrakoen Zatiketan" idatzi genuen bezala, Batari dagozkio Gauza Bera, Antzeko Dena eta Berdin Dena, eta Aniztasunari, berriz, Beste Dena, Ez-Antzeko Dena eta Desberdin Dena.

Bestalde, "gauza bera" zentzu askotan esaten denez, zentzu batean batzuetan esaten dugu zerbait aritmetikoki dela "gauza bera"; beste zentzu 35) batean, aritmetikoki eta definizioaren arabera zerbait bat dela esaten da, adibidez, zu zeu bat zara zeurekiko espeziearen eta materiaren arabera. Beste 1054b) zentzu batean, substantzia lehenaren definizioa ere bat izaten denean, adibidez, lerro zuzen berdinak lerro bera dira, bai eta alde eta angelu berdineko karratuak ere, bat baino gehiago izan arren, kasu hauetan guztietan berdintasuna batasuna baita.

"Antzekoak" dira zentzu absolutuan "gauza bera" izan gabe eta 5) beren substantzia osatuaren arabera desberdinak izan arren, formaren arabera "gauza bera" direnak; handiagoa den tetragono bat, esaterako, txikiagoa den beste baten antzekoa da, eta lerro zuzen

desberdinak ere antzekoak dira; izan ere, lerro hauek antzekoak dira, baina ez dira "lerro bera" zentzu absolutuan. <Antzekoak dira> forma bera izanik eta gehiago/gutxiago beraien baitan onarturik elkarrekiko "ez gehiago-ez gutxiago" ez diren horiek. Baita bat eta 10) espezifikoki bera den afekzioa dutenak ere; adibidez, zurtasuna, neurri handiagoz nahiz txikiagoz izanik ere, <hori dutenak> antzekoak direla esaten da, afekzioen espezia bat delako. Eta, azkenik, antzekoak dira <afekzio> berak bestelako <afekzioak> baino gehiago dituzten horiek, bai esentziari dagokionez, bai zentzu arruntari dagokionez; adibidez, eztainua zilarren antzekoa da (zuria den aldetik) eta urrea suaren antzekoa, oria eta gorria den aldetik.

Beraz, argi dago "Beste bat" eta "Ez-Antzekoa" ere zentzu askotan esaten direla. Horregatik, zentzu batean "beste bat" "gauza berari" 15) kontrajartzen zaio, eta gauza oro, gauza ororekiko da, edo gauza bera, edo beste bat; beste zentzu batean, materia eta forma bat ez direnean -horregatik da "beste bat" hurkoa zurekiko-; hirugarren zentzu batean, matematiketan erabiltzen den bezala. Horrela, bada, gauza oro -gauza ororekiko- gauza bera edo beste bat dela esaten da, bat eta den zerbait diren gauzei dagokienez, "beste bat" ez baita "gauza beraren" kontraesana; 20) horregatik ez da predikatzen ez-diren gauzez (haatik, "ez gauza bera" predikatzen da hauetaz), baina bai predikatzen dela diren guztiez. Izan ere, "den oro" eta "bat den oro" edo bat edo ez-bat da naturaz.

Horrela, bada, "bera" eta "beste bat" honela kontrajartzen dira. Baina "desberdintasuna" eta "bestetasuna" ez dira gauza bera; izan ere, "beste bat" ez da nahitaez "beste bat" izango bestetasun jakin batengatik, den 25) guztia, baldin eta den zerbait bada, edo "beste bat" edo "bera" baita. Aitzitik, desberdin dena desberdintasun jakin batengatik izango da zerbaiten desberdina eta, ondorioz, nahitaez izango da bietan "gauza bera" den zerbait, zeinetan desberdintzen diren; hau genero bera edo espezie bera izango da, desberdintzen den oro, edo generoan edo espeziean desberdintzen baita: generoan desberdintzen dira baterako materiari ez dutenak, eta elkarrengandiko sorrerarik ez dutenak ere; adibidez, beste kategoria baten 30) tankera dutenak; espeziean desberdintzen dira genero berekoak direnak

(genero esaten zaio substantziaren arabera desberdinak diren bi gauzei dagokien izenari).

Bestalde, kontrakoak desberdinak dira, eta kontrakotasuna nolabaiteko desberdintasuna da. Hipotesi honen zuzentasuna argi dago indukzioz, kontrako guztiak desberdinak ere badirela ikusten baita, eta ez 35) bakarrik "beste batzuk"; aitzitik, batzuk "beste batzuk" dira generoari 1055a) dagokionez, eta beste batzuk, berriz, kategoriaren zutabe berekoak dira eta, beraz, genero berekoak eta generoari dagokionez gauza bera dira.

Generoari dagokionez "gauza bera" eta "beste bat" zein diren zehaztuta dago jadanik beste leku batean<sup>52</sup>.

#### IV

Desberdinak diren gauzak gehiago ala gutxiago desberdin daitekeenez, desberdintasun gorena ere izango da eta hau "kontrakotasuna" 5) izendatuko dut. Desberdintasun beteak badela argi dago indukzioz. Izan ere, generoari dagokionez desberdinak direnak ez dira elkarrengana biltzen; aitzitik, elkarrengandik urrunago daude eta bilduezinak dira. Bestalde, espeziean desberdinak diren gauzak kontrakoetatik -muturretatik- sortzen 10) dira, eta muturrekoen arteko tartea handiena denez, kontrakoen artekoa ere bai. Baina "gehiena", genero bakoitzean "bete-betea" da: "gehiena" da gaindi ezin daitekeena eta "bete-betea" da hori, zeinetatik kanpo ezer ulertzerik ez dagoen. Izan ere, "desberdintasun beteak" burutapen azkena du bere baitan (gainerako guztiak ere "beteak" izendatzen dira burutapen azkena izateagatik), eta "burutapen azkenetik" kanpo ez dago ezer, hau den 15) guztiaren muturra baita, eta dena biltzen du; horregatik ez da zer "burutapen azkenetik" kanpo, eta horregatik ez du ezer behar beteak denak. Honetatik guztitik ateratzen da kontrakotasuna "desberdintasun beteak" dela, eta kontrakoak zentzu askotan esaten direnez, haietan kontrakotasuna ematen den neurrian beteak izatea egokituko zaie.

Gauzak horrela, agerian dago kontrako bakar bat baino ezin duela 20) gauza batek izan (ezinezkoa baita muturra baino harantzagoko muturrik izatea, ezta tarte baterako bi mutur baino gehiagorik ere);

orokorrean, kontrakotasuna desberdintasuna baldin bada, eta desberdintasuna biren artean ematen bada, desberdintasun betea ere bai <emango da biren artean>.

Kontrakoen gainerako definizioak ere nahitaez izango dira egiazkoak. Izan ere, desberdintasun betea da gehien desberdintzen dena (generoari eta espezieari dagokienez desberdintzen diren gauzetan ez 25) baitago <desberdintasun beteaz> aparteko desberdintasunik; izan ere, frogatuta dago jadanik generoaz aparte diren gauzei dagokienez ez dagoela desberdintasunik, eta genero berekoen artean ematen dela desberdintasun gorena), eta kontrakoak direla -genero berekoak izanik- gehien desberdintzen direnak (desberdintasun betea haien arteko desberdintasun handiena -gorena- baita), eta subjektu berean ematen direlarik, kontrakoak 30) dira gehien desberdintzen direnak (kontrakoe materia bera baitute) eta potentzia beraren arabera, kontrakoak dira gehien desberdintzen direnak (bakar bat baita genero bakar batez arduratzen den zientzia). Kasu hauetan guztietan desberdintasun betea <desberdintasun> gorena da.

Kontrakotasun lehena edukitzea eta eza da, baina ez eza oro ( "eza" 35) zentzu askotan esaten baita), eza betea baizik. Eta gainerako guztiak kontrako hauen arabera izendatzen dira kontrako: batzuk, hauek edukitzeagatik; beste batzuk, hauek ekoizteagatik edo ekoizteko gai izateagatik; beste zenbait, hauek edo beste kontrako batzuk gaineratzeagatik edo galtzeagatik.

Horrela, bada, kontraesana, eza, kontrakotasuna eta erlatiboak 1055b) direnak kontrajartzeko moduak baldin badira, eta hauetako lehena kontraesana baldin bada, eta kontraesanaren baitan bitartekorik ez baldin badago -kontrakoen artean egon daitekeen bezala-, argi dago kontraesana eta kontrakoak ez direla gauza bera.

Bestalde, "eza" nolabaiteko kontraesan bat da, inolaz ere ezer eduki ezin dezakeena edo berez zerbait eduki dezakeena baina ez duena, 5) erabat edo nolabait (hau ere zentzu askotan esan ohi dugu, beste leku batean ezarri genuen bezala<sup>53</sup>). Beraz, "eza" nolabaiteko kontraesan bat da, ezintasun jakin bat edo subjektuarekin batera lotutako bat. Horregatik, kontraesanaren baitan ez dago bitartekorik, baina eza jakin baten baitan bai, gauza oro "berdin" edo "ez-berdin" delako, baina ez "berdin" edo 10) "desberdin"; aitzitik, izatekotan, berdintasunaren subjektua bakarrik izango da.

Bestalde, baldin eta genesiak -materiari dagokionez- kontrakoetatik sortzen badira -sortu ere formatik, hots, forma edukitzetik zein formaren eta egituraren ezaren batetik-, argi dago kontrakotasun

oro eza izango dela, baina eza oro ez da, 15) ziurraski, kontrakotasuna izango (zerbaiten eza duenak zentzu askotan izan dezakeelako zerbaiten eza), kontrakoak baitira muturrekoak, zeintzuetatik aldaketan sortzen diren. Hau ere indukzioz da begi-bistakoa, kontrakotasun orori baitagokio kontrako baten eza, baina ez berdin kasu guztietan. Izan ere, desberdintasuna berdintasun eza da, ez-antzekotasuna antzekotasunarena, eta gaizkia 20) bertutearena, baina desberdintasunak ere badira, esan bezala. Batzuetan eza ematen da une jakin batean edo zati jakin batean bakarrik -adibidez, adin zehatz batean edo nagusia den zatiren batean-, edo erabat. Horregatik, eza batzuen kasuan bada bitartekorik, eta gizaki bat izan daiteke ez zintzoa, ez gaiztoa, baina beste eza batzuen kasuan 25) ez dago; adibidez, <zenbaki bat> nahitaez izango da bikoitia ala bakoitia.

Gainera, eza batzuek zehaztutako subjektua dute, eta beste batzuek, ez. Beraz, agerian dago kontrakoetariko bat beti esaten dela ezaren arabera. Eta nahikoa da horrela izatea kontrako lehenen kasuan, kontrakotasunaren generoen kasuan -esaterako, "batasuna" eta "aniztasuna"- alegia, gainerakoak hauetara zuzentzen baitira.

V

30) Gauza bakoitzak kontrako bat bakarrik duenez, aporia hau sor liteke: nola kontrajartzen dira "bat" eta "anitz"? Eta nola kontrajartzen zaio "berdina" "handiagoari" eta "txikiagoari"? Izan ere, beti galdetzen dugu kontraposizioz; adibidez: "zuria ala beltza?" eta "zuria ala ez-zuria?" (alabaina, ez dugu galdetzen "gizakia ala zuria?", baldin eta hipotesizat 35) kontrajarritasun bat hartzen ez badugu, hots, "Kleon etorri zen, ala Sokrates?", esaterako, baina kontrajarritasun hau ez da nahitaezkoa inolako generotan eta, gainera lehengo kontrajarritasun hartatik dator hau.

Izan ere, kontrajarriak dira aldi berean eman ezin daitezkeen bakarrak, eta honetan oinarritzen da lehengo galdera hori: "Zein etorri 1056a) zen?", biak batera etortzea zitekeena baldin bazen, barregarria baitzatekeen galdera. Eta biak batera etortzea litekeena bada ere, kontraposizio berbera suertatuko litzateke, "bat" eta "anitz"ekin suertatzen den bezalaxe: "Biak etorri ziren ala bietako bat?").

Horrela, bada, kontrajarritakoetan galdera beti aukeran egiten bada 5) eta, bestalde, "handiagoa, txikiagoa ala berdina?" galdetzen bada, zein da "berdinaren" eta besteen arteko kontraposizioa? "Berdina" ezin baita ez bataren, ez bien kontrakoa izan; izan ere, zer dela eta izango da "Handiagoaren" kontrakoa "Txikiagoarena" baino neurri handiagoz? Gainera, "berdina" "desberdinaren" kontrakoa da eta, ondorioz, bakar baten baino gehiagoren kontrakoa da. Eta "desberdinak" biak batera adierazten 10) badu, "berdina" biei kontrajarriko zaie (eta aporiak "desberdintasuna" Diada dela baiztatzen dutenei laguntzen die); baina horrela bada, bakar batek bi kontrako izango ditu eta hau ezinezkoa da.

Gainera, "berdinak", "handiagoaren" eta "txikiagoaren" bitartekoa dirudi, baina ez dago bitartekoa dirudien kontrakotasunik, ezta definizioz izan daitekeenik ere, bitartekoa balitz hau bete-betea izango ez litzatekeelako; aitzitik, kontrakotasunak behar omen du beti bitartekoren bat.

15) Beraz, "berdina" kontrajarriko zaie < "handiagoari" eta "txikiagoari"> edo ezeztapenez, edo ezaz. Alabaina, ezin biotako bakar bati (zergatik "handiagoari", bereziki, eta ez "txikiagoari"?); orduan, bien ezeztapena pribatiboa da. Horregatik galdetzen da biekiko erlazioan ez bakar batekiko erlazioan (ez da galdetzen, adibidez, "handiagoa ala berdina?", edo "berdina ala txikiagoa?", baizik eta hirurak aipatuz, beti). Baina ez da, nahitaez, eza. Izan ere, berdina ez da handiagoa nahiz txikiagoa ez den oro, 20) berez horrelakoak direnak baizik.

Horrela, bada, "berdina" da ez-handia, ez-txikia dena, berez handia edo txikia delarik. Eta biei kontrajartzen zaie ezeztapen pribatiboa den aldetik, eta horrexegatik da bitartekoa. Bestalde, ez-ona eta ez-txarra ez dena 25) ere kontrajartzen zaie batari zein besteari, baina honek ez du izenik. Izan ere, honelakoak zentzu askotan esaten dira eta subjektua ez da bat; ez-zuria eta ez-beltza ez denak izan beharko luke, baina ez da izen bakar batez adierazten, nahiz eta ezeztapen hau pribatiboki kolore mugatu batzuei ezartzen zaien, derrigorrez izango baitira edo grisa edo horixka, edo honelako beste bat.

30) Beraz, kontrako iritzia dutenak oker daude dena berdin esaten dela pentsatzean - zapataren eta eskuaren bitartekoa izango da ez-zapata eta ez-eskua dena, alegia-, ez-on eta ez-txar dena ere onaren eta txarraren bitartekoa bailitzan, kasu guztietan bitartekorik bailegoan. Baina 35) honela izatea ez da beharrezkoa. Izan ere, batean, berez bitartekoren bat edo tarteren bat duten kontrajarritako batzuen baterako ezeztapena izango 1056b) da; bestean, berriz, ez dago desberdintasunik. Izan ere, batera ezeztatzen direnak genero desberdinetakoak izaten dira eta, ondorioz, haien subjektua ez da bat.

## VI

Batari eta Askori buruz ere antzeko aporia sor liteke: Asko Batari zentzu absolutuan kontrajartzen bazaio, zenbait ezintasun suertatuko da. 5) Izan ere, "bata" "gutxi" edo "urriak" izango da, "asko" "urriei" ere kontrajartzen zaio eta. Gainera, bi ere "asko" izango da, bikoitza anizkoitza delako eta biari dagokiolako. Beraz, "bata" gutxi izango da. Izan ere, zeren arabera izan daiteke "ugariak" bi, bataren eta gutxiren arabera ez bada? Ezer txikiagorik ez dago eta. Gainera, baldin eta luzeran "luze" eta "motz" bezala 10) aniztasunean "asko" eta "gutxi" kontrajartzen badira, eta "ugariak" "asko", eta "asko" "ugariak" badira (moldagarri ona den jarrai batean eman daitekeen desberdintasuna ez bada), orduan "gutxi" nolabaiteko aniztasuna izango da, eta honen ondorioz "bata" ere bai, "bata" nolabaiteko "gutxi" baita. Eta hau nahitaez, "bi" "ugariak" baldin bada.

15) Alabaina, "asko" ere erabiliko da agian "ugariak" adierazteko, baina beste zentzu batean; adibidez, "ur asko" esaten da, ez "ugariak". "Askok" esaten da gauzak zatigarriak direnean; zentzu batean, gehiegizko aniztasuna -erabatekoa nahiz erlatiboa (eta, era berean, "gutxi" aniztasun urria da)- osatzen badute; beste zentzu batean, zenbaki bat osatzen badute; hau da "batari" kontrajartzen zaion kasu bakarra.

20) "Bat edo asko", hain zuzen ere, horrela esaten dugu, "bat eta batzuk" edo "zuri bat eta zuri batzuk" esango bagenu bezala, eta neugarri diren gauzak neurriaren [eta neurrigarritasunaren] arabera. Anizkoitzez ere berdin hitz egiten da. Izan ere, zenbaki bakoitza "ugariak" da, "batez" osatua eta "bataren" arabera neurgarria delako, eta "batari" kontrajartzen zaion aldetik, ez "gutxiri".

25) Horrela, bada, bi ere "ugariak" dira, baina ez gehiegizko aniztasunaren -erlatiboa zein erabatekoa- zentzuan, aniztasun lehenaren zentzuan baizik. Bestalde, bi, "urriak" dira, zentzu absolutuan, aniztasun urri lehena direlako. (Horregatik, Anaxagorasek ez zuen asmatu "diren guztiak" batera eta aniztasunean eta txikitasunean mugagabe direla esatean; 30) "urritasunean" esan behar zuen, ez "txikitasunean", ez baitira mugagabeak). Gainera, "gutxi" ez da bataren araberakoa, batzuek esaten duten bezala, biaren araberakoa baizik.

Beraz, neurria neugarri denari kontrajartzen zaion bezala kontrajartzen dira "bat" eta "ugariak" zenbakietan. Haiek erlazioan kontrajartzen dira, berez erlatiboak ez direnen moduan. Jadanik bereizi dugu beste leku batean<sup>54</sup> erlatibo direnak bi zentzutan esaten direla: batzuk, kontrakoak bezala, eta beste batzuk, zientzia ezagungarri denarekiko bezala, berarekiko erlatibo den aldetik beste zerbait aipatzen den neurrian.

1057a) Gero, ezerk ez du eragozten "bat" zerbait baino txikiagoa izatea, konparazio baterako, bi baino txikiagoa, txikiagoa izateagatik ez baita "gutxi" ere izango. Aniztasuna, berriz, zenbakiaren generoa bezalakoa da; izan ere, zenbakia bataren bidez neur daitekeen aniztasuna da, eta zentzu batean "bata" eta "zenbakia" kontrajartzen dira, ez kontrakoak 5) <kontrajartzen diren> bezala, erlatibo diren zenbait kontrajartzen direla esan dugun moduan baizik. "Bata" eta "zenbakia" kontrajartzen dira lehenengoa neurri eta bigarrena neurgarri diren aldetik, eta horregatik "bat" den oro ez da zenbakia; adibidez, "zatiezina", horrelakorik baldin badago. Eta berdin esaten da zientzia ezagungarri denarekiko, nahiz eta erlazioa modu berean eman ez. Itxura batean, hain zuzen, zientzia neurria omen da



10) eta ezagungarri dena, berriz, neurgarri dena; baina zientzia oro ezagungarria da, eta ezagungarri den oro, ordea, ez da zientzia, hau, nolabait, ezagungarri denaren bidez baita neurria.

"Aniztasuna" ere ez da "gutxiren" kontrakoa -honen kontrakoa "asko" da, "gehiagizko aniztasuna" "aniztasun urriaren" kontrakoa den 15) aldetik-, ezta "bataren" kontrakoa ere, hau zentzu guztietan esanda. Aitzitik, esana dagoen bezala < "aniztasuna" eta "bata"> bi zentzuotan kontrajartzen dira: batetik, zatigarri-zatiezin diren aldetik; bestetik, zientzia eta ezagungarri dena kontrajartzen diren bezala, erlatibo diren aldetik, baldin eta "aniztasuna" zenbaki bat eta "bata" neurria badira.

## VII

Kontrakoen artean bitartekoren bat egon daitekeenez -eta kasu batzuetan egon badago-, beharrezkoa da bitartekoak kontrakoetatik sortuak 20) izatea. Izan ere, bitarteko guztiak eta horiek, zeintzuen bitartekoak diren, genero berekoak dira. "Bitartekoak", hain zuzen ere, izendatzen ditugu horiek, zeintzuetan ematen den, nahitaez, aldagarri denaren lehenengo aldaketa (adibidez, soinu baxuenetik altuenera pixkanaka pasatuz gero, aurrena bitarteko soinuetatik pasa behar da, eta koloreetan, zuritik beltzera pasa nahi izanez gero, beltzera iritsi aurretik purpura edo 25) grisara iritsi beharko da; eta berdin gainerako kasuetan.) Baina aldaketa ezin eman genero batetik beste genero batera, akzidentalki ez bada, esate baterako koloretik irudira. Horrela, bada, bitartekoak beraien artean eta haiek, zeintzuen bitartekoak diren, nahitaez izango dira genero berekoak.

30) Hala ere, bitarteko guztiak dira kontrajarritako batzuen artean, hauetatik bakarrik abiatuz eman baitaiteke aldaketa (horregatik da ezinezkoa kontrajarriak ez direnen arteko bitartekorik, aldaketa kontrajarrietatik abiatu gabe emango litzateke-eta). Kontrajarrien artetik, kontraesanak ez du bitartekorik (hauxe baita kontraesana: kontraposizioa, 35) zeinaren termino bat gauza orotan ematen den, izanak izan, inolako bitartekorik gabe); gainerako kontrajarriak dira erlatibo direnak, eza adierazten dutenak eta

kontrakoak. Eta kontrakoak ez diren erlatiboek ez dute bitartekorik; honen arrazoia da ez direla genero berekoak. Izan ere, zein bitarteko eman daiteke zientziaren 1057b) eta ezagugarri denaren artean? Alabaina, handiaren eta txikiaren artean, bai.

Beraz, baldin eta bitartekoak genero berekoak badira, frogatua dagoen bezala, eta bitartekoak kontrakoen artekoak badira, <bitartekoak> nahitaez izango dira kontrako horietaz osatuak. Izan ere, kontrakoak, edo genero berean emango dira, edo ez. Eta generoan baldin badaude, hau 5) kontrakoen aurrekoa delakoan, kontrako espezieak sortzen dituzten desberdintasunak aurrekoak izango dira, genero baten espezie diren aldetik, espezieak generoaz eta desberdintasunez osatuak baitira. (Adibidez, baldin eta zuria eta beltza kontrakoak badira, eta bata kolore banantzailea eta bestea kolore biltzailea badira, desberdintasun hauek -banantzaile/biltzaile- 10) aurrekoak izango dira eta, ondorioz, elkarren arteko kontrakotasuna zuriaren eta beltzaren artekoa baino lehenagokoa izango da). Baina kontrakotasunez desberdintzen diren <espezieak> neurri handiagoz dira kontrakoak eta gainerakoak -bitartekoak, alegia- generoaz eta desberdintasunez osatuko dira (adibidez, zuriaren eta beltzaren arteko koloreak esan behar da generoaz -generoa kolorea da- eta desberdintasun 15) jakin batzuez osatuak direla. Alabaina, desberdintasun hauek ez dira kontrako lehenak izango. Bestela, kolore guztiak edo zuria edo beltza lirateke. Beraz, bestelakoak dira desberdintasunak: hauek desberdintasun lehenen bitartekoak izango dira, eta desberdintasun lehenak, "banantzailea" eta "biltzailea").

Beraz, aztertu behar dira genero berean ematen ez diren kontrako 20) lehen hauen bitartekoak eta zerez osatuak diren. (Izan ere, genero bereko kontrakoak nahitaez izaten dira edo generoarekin bat egiten ez diren terminoen osaketak, edo beraiek dira ez-osatuak). Kontrakoak, hain zuzen ere, ez dira elkarren artean osatzen eta, ondorioz, printzipioak dira. Baina bitartekoak, edo denak <dira elkarren artean osatuak>, edo bat bera ere ez. Baina bada zerbait kontrakoetatik sortua dena, eta hau dela eta, 25) aldaketak lehenago eragiten dio honi kontrakoei baino. Eta "hori" izango da kontrakoetako bata baino gutxiago eta bestea baino gehiago. Beraz, kontrakoen bitartekoa izango da, eta gainerako bitartekoak ere osatuak izango dira. Izan ere, zerbait baino gehiago dena eta zerbait baino gutxiago dena, neurri batean, bi horietaz osatua da, hots,

bata baino gehiago eta bestea baino gutxiago dela esaten diren horietaz, hain zuzen ere. Gainera, genero berean kontrakoen aurretiko ezer ez 30) dagoenez, bitarteko guztiak izango dira kontrakoez osatuak; beraz, menpeko guztiak -kontrakook zein bitartekook- kontrako lehenez osatuak izango dira.

Horrela, bada, argi dago bitarteko guztiak genero berean ematen direla, denak kontrakoen bitartekook direla eta kontrakoez osatuak direla.

### VIII

35) "Bestetasuna", espezieari dagokionez, zerbaitekiko beste zerbait da, hau bietan eman behar delarik; adibidez, animalia bat baldin bada "beste bat" espezieari dagokionez, biak izango dira animaliak. Beraz, espezieari dagokionez "beste bat" direnak nahitaez emango dira genero berean. Eta "genero" honako hau izendatzen dut: hura, zeinarengatik biak gauza bat eta 1058a) gauza bera direla esaten den, desberdintasuna -materiala zein bestelakoa- ez-akzidentala izanik. Izan ere, bietan baterako dutena eman ezezik (adibidez, biak animaliak izan), "animalia izatea" bera ere bestelakoa izan behar da haietako bakoitzean, adibidez, bata zaldia eta bestea, gizakia. Horregatik batean eta bestean baterako dutena "beste bat" da espezieari 5) dagokionez. Horrela, bada, berez, bata "honetako animalia" izango da eta bestea, "horrelako animalia"; adibidez, bata zaldia eta bestea, gizakia. Beraz, desberdintasun hau nahitaez izango da generoaren "bestetasuna", "generoaren desberdintasuna" izendatzen baitut generoa bera "beste bat" bilakatzen duen bestetasuna.

Horrela, bada, <desberdintasun> hau kontrakotasuna izango da (indukzioz ere argi dago), gauza oro kontrajarritan zatitzen baita, eta 10) kontrakook genero berean ematen direla jadanik frogatuta dago. Izan ere, kontrakotasuna "desberdintasun betea" zen, eta desberdintasun espezifiko oro "zerbaitekiko zerbait da"; beraz, hau gauza bera eta bien generoa da (horregatik espeziearen arabera -eta ez generoaren arabera- desberdintzen diren kontrako guztiak kategoriatan beraren zutabearen aurkitzen 15) dira, eta elkarren arteko "bestetasuna" gorena da -desberdintasuna betea baita-, eta ez dira aldi berean eta batera sortzen).

Horrela, bada, desberdintasuna kontrakotasuna da, espezieari dagokionez "beste bat" izatea haxe baita: genero berean ematen direlarik, kontrakotasuna dute zatietan izanda (eta espezieari dagokionez gauza bera dira kontrakotasunik ez dutenak zatietan izanda); 20) kontrakotasunak

lehenago sortzen baitira zatiketaren bitartekoetan, hots, zatiezin direnetara heldu baino lehen.

Beraz, agerikoa da espezieak -genero baten espezieak diren aldetik- eta genero izendatzen dugun hori ez direla gauza bera, ezta espezieari dagokionez "beste bat" direnik ere (eta hau zuzen esana dago, materia ezeztapen bidez agertzen baita, eta generoa genero izendatzen den horren materia da, ez "heraklitoarren generoa" ulertzen den moduan, naturan ematen denaren antzera baizik); eta gauza bera genero beraren baitan 25) ematen ez direnei dagokienez: hauetan desberdintasunak generoari dagozkio, baina genero berean ematen direnetan, <desberdintasunak> espezieari dagozkio.

Beraz, kontrakotasuna izango da, nahitaez, espezieari dagokionez desberdintzen direnen desberdintasuna. Eta desberdintasun hau genero berekoen artean bakarrik ematen da.

## IX

Honako aporia hau ere sor liteke: emakumezkoa eta gizonezkoa kontrakoak izanik eta desberdintasuna kontrakotasuna delarik, zergatik ez 30) da emakumea gizonarengandik espeziez desberdintzen? Alabaina, animalia emea eta arra ez dira espeziez desberdinak, nahiz eta animaliak desberdintasun hau berezkoa duen, ez zurtasuna edo belztasuna bezala; aitzitik, emea eta arra animalia baten baitan ematen dira, hau animalia baten aldetik.

Aporia bera da kontrakotasun batzuek zergatik sortzen dituzten 35) gauza desberdinak espezieari dagokionez eta beste batzuek, berriz, ez. Adibidez, oinduna izateak eta hegaduna izateak, bai; zurtasunak eta belztasunak, ez. Hau ez ote da izango batzuk generoaren afekzioak direlako 1058b) eta besteak, ez? Gainera, batetik forma eta bestetik materia direnez, forman diren kontrakotasunek espezieari dagokion desberdintasuna sortzen dute, eta forman eta materian batera diren kontrakotasunek, ez. Horregatik gizakiaren zurtasunak eta belztasunak ez dute <honelako desberdintasunik> sortzen, eta gizaki zuriak beltzarekin alderatuz duen desberdintasuna ez da espezieari dagokion desberdintasuna, ezta izen bakar 5) bat biei jarrita ere. Gizakiak, hain zuzen ere, materia baten aldetik ez du honelako desberdintasunik sortzen. Eta gizabanakoak ere ez dira horregatik gizaki-espezieak, nahiz eta honen eta horren gizabanakoen haragi eta hezurak desberdinak izan; aitzitik, osatua dena bereizi egiten da, baina ez espezieari dagokionez, forman kontrakotasunik ematen ez delako. Forma, 10) hain zuzen, zatiezina den azkenekoa da. Kalias, bada, materiarekiko forma da, baita gizaki zuria ere, Kalias zuria baita. Beraz, gizakia akzidentalki da zuria.

Espezieari dagokionez, brontzezko zirkulua eta zurrezkoa ere ez dira desberdintzen. Eta brontzezko triangelu bat eta egurrezko zirkulu bat ez dira espezieari dagokionez desberdintzen materiagatik, forman ematen den kontrakotasunagatik baizik.

15) Horrela, bada, materiak -hau, nolabait, bereizia delarik- ez al ditu espeziaari dagokionez gauza bereiziak sortzen? Edo ba al dago sortzen dituen materiarik? Izan ere, zer dela eta honelako zaldia, espezieari dagokionez, bereiztea horrelako gizakiarengandik? Beren formak, halaber, materiarekin batera ematen dira. Agian, forman kontrakotasunen bat ematen delako ote? Izan ere, gizaki zuria eta zaldi beltza ere bereizi egiten 20) dira, hau espezieari dagokionez, baina ez bata zuria eta bestea beltza direlako, biak zuriak balira ere bereizi egingo lirateke-eta.

Bestalde, arra eta emea animaliaari dagozkion afekzioak dira, baina ez substantziaren arabera; aitzitik, materialen eta gorputzean ematen dira, eta horregatik hazia bera bilakatuko da emea edo arra afekzio baten eraginez.

Esana dago, beraz, zer den espezieari dagokionez bereizia izatea eta zergatik bereizten diren batzuk <espezieari dagokionez> eta beste batzuk, 25) ordea, ez.

X

Kontrakoak espeziearen arabera bereiziak direnez, eta ustelgarri/ustelgaitz direnak kontrakoak direnez (eza ezintasun zehatza baita), ustelgarri dena eta ustelgaitz dena, nahitaez, kontrakoak izango dira.

Orain arte izen unibertsalez beraiez hitz egin dugu, eta baliteke 30) ustelgarri/ustelgaitz diren horiek espeziearen arabera nahitaez bereiziak ez direla pentsatzea, zuria eta beltza ez diren bezala (gauza bera <bi kontrakoak> izan baitaiteke aldi berean, unibertsalki hartzen bada; adibidez, gizakia zuria eta beltza izan daiteke; eta berdin gizabanakoa bada, gizabanako bera zuria eta beltza izan baitaiteke -aldi berean ez bada ere- zuria beltzaren 35) kontrakoa izan arren)

Hala ere, badira kontrakoetan akzidentalki ematen direnak -esate baterako, arestian aipatu direnak eta beste asko-, baina beste batzuk ezinezkoa da <akzidentalki ematea>, 1059a) eta hauetakoak dira

"ustelgarria" eta "ustelgaitza". Izan ere, ezer ez da ustelgarria akzidentalki, litekeena baita "akzidentala dena" ez ematea, baina "ustelgarria" nahitaez suertatzen da ematen den gauzetan. Edo, bestela, gauza bera eta gauza bat izango ote da "ustelgarria" eta "ustelgaitza", baldin eta "ustelgarria" ez izatea litekeena 5) bada?

Horrela, bada, ustelgarri diren guztietan, "ustelgarria" edo substantzia da, edo nahitaez emango da substantziaren baitan. Eta arrazonamendua bera da ustelgaitz direnentzat, biak ala biak baitira nahitaez ematen direnetakoak. Izan ere, horixe diren aldetik kontrajartzen dira, eta, lehenengoz, bata ustelgarria eta bestea ustelgaitza dira; beraz, 10) nahitaez izango dira generoaren arabera bereiziak.

Gauzak horrela, agerikoa da ezinezkoa dela batzuek baieztatzen dituzten moduko Formak izatea, honen arabera gizaki ustelgarri bat eta gizaki ustelgaitz bat ere izan beharko lirateke-eta. Hala ere, espeziearen arabera Formak eta gizabanakoak gauza bera -eta ez izenkide bakarrik- direla baieztatzen da. Baina generoaren arabera bereiziak direnak, espeziearen arabera bereiziak direnak baino urrutiago daude elkarren artean.

## XI. LIBURUA (K)

### I

Jakinduria printzipioei buruzko zientzia bat dela argi ateratzen da hasierako ikerketetatik<sup>55</sup>; hauetan, printzipioei buruz besteez 20) esandakoak sortzen dituen aporiak aztertu ditugu. Baina aporia hau sor daiteke: jakinduria zientzia bakar bat ulertu behar ote den ala zientzia asko. Izan ere, zientzia bakartzat hartu behar bada, zientzia bakar bat izango da beti kontrakoena; baina printzipioak ez dira kontrakoak. Eta zientzia bakar bat ez bada, zein dira onartu behar diren zientzia horiek?

Gainera, printzipio erakusleak ikastea, zientzia bati ote dagokio, 25) ala zientzia bat baino gehiagori? Izan ere, zientzia bakar bati

badagokio, zergatik zientzia honi eta ez beste edozeini? Eta zientzia bati baino gehiagori badagokio, zein dira pentsatu beharreko zientzia horiek?

Bestalde, substantzia guztiak izango ditu aztergai, ala ez? Izan ere, substantzia guztiak ez badira aztergai, zaila izango da adieraztea zein diren. Baina substantzia guztiena zientzia bakar bat baldin bada, iluna da zientzia bera nola izan daitekeen aztergai askorena. Gainera, substantziei buruzko 30) demostrazioa besterik ez al da, ala akzidenteei buruzkoa ere bai? Izan ere, akzidenteei buruz demostrazio bat, behintzat, baldin badago, orduan ez da substantziei buruz demostraziorik izango. Baina zientzia desberdinak baldin badira, zein da bata eta zein bestea, eta biotatik zein jakinduria?

Erakusle den aldetik, hain zuzen ere, akzidenteei buruzkoa izango da jakinduria; baina gauza lehenei buruzkoa den aldetik, substantziena. 35) Alabaina, ez da pentsatu behar bilatzen ari garen zientzia Fisikan<sup>56</sup> aipatutako kausei buruzkoa denik, ez baitu helburu den hori ikertzen (hau, hain zuzen ere, Ongia da, eta Ongia ekintzetan eta mugimenduan dauden gauzetan ematen da; eta hau mugiarazle lehena da -honelakoa baita helburua-, baina mugiarazle lehena ez dago geldiak diren gauzetan).

1059b) Eta, orokorrean, aporia hau sor daiteke: orain bilatzen ari garen zientzia, ea sentimenezko substantziei buruzkoa ala bestelako zenbaiti buruzkoa den. Izan ere, bestelako errealtateei buruzkoa izatez gero, Formei buruzkoa edo Errealitate Matematikoei buruzkoa izango da. Hala ere, argi dago Formarik ez dagoela (eta hauek badirela izan suposatzen 5) baldin bada ere, Forma duten gainerako gauzekin Errealitate Matematikoekin bezala zergatik ez den gertatzen azaltzerakoan sortzen da aporia; esan nahi dut Errealitate Matematikoak Formen eta sentimenezko gauzen bitartean kokatzen dituztela, Formez eta hemengo gauzez aparteko hirugarrenak izanik;

baina Gizakiaz eta Zaldiaz Beraz eta Banakoez aparte ez dago hirugarren gizakirik, ezta hirugarren zaldirik ere. Baina, bestalde, esaten duten bezala 10) ez bada, zertaz arduratzen ote da matematikaria? Hemengo gauzez ez, jakina, hauetako bat bera ere ez baita zientzia matematikoak ikertzen duena bezalakoa). Baina Errealitate Matematikoei buruzkoa ere ez da bilatzen ari garen zientzia (haietako bat bera ere ez baita banangarria). Eta sentimenezko substantziei buruzkoa ere ez, ustelgarriak direlako.

15) Eta, orokorrean, aporia hau sor liteke: zein zientziari dagokio Errealitate Matematikoen materiaren inguruko arazoak aztertzea? Izan ere, ez dagokio Fisikari, fisikariaren iharduera osoa bere baitan mugimenduaren eta gelditasunaren printzipio bat duten gauzei buruzkoa delako; ezta 20) demostrazioa eta ezagutza aztertzen dituenari ere, beraren ikerketa genero honi berari buruzkoa baita. Beraz, proposaturiko filosofiari dagokio haiei buruzko ikerketa egitea.

Bestalde, aporia hau sor liteke: onartu behar ote da bilatzen dugun zientzia batzuek "osagaiak" deituriko printzipioei buruzkoa denik? Denek baieztatzen dute printzipio hauek osatuak diren gauzetan bere baitakoak 25) direla; hala ere, badirudi bilatzen ari garen zientzia unibertsalei buruzkoa izan beharko litzatekeela, bereziki, definizio oro eta zientzia oro unibertsalei buruzkoa baita, eta ez errealitate azkenei buruzkoa. Horrela, bada, genero lehenei buruzkoa litzateke, hauek Den-a eta Bata izanik, hauek bereziki har baitaitezke den guztiaren errealitate biltzailatzat eta 30) printzipio nagusitzat, naturaz lehenak izateagatik. Izan ere, hauek ustelduz gero, besteak ere suntsitzen dira aldi berean, dena baita den zerbait eta bat den zerbait. Baina Den-a eta Bata generotzat hartzen badira, desberdintasunek parte hartuko dute haietan, nahitaez, generoan desberdintasun batek berak ere parte hartzen ez duen arren; hau dela eta, 35) badirudi ez direla generotzat edo printzipiotzat hartu behar. Gainera, sinpleago dena, honen sinplea ez dena baino neurri handiagoz baldin bada printzipio,



espezie azkenak generoak baino sinpleagoak direnez (espezieak zatiezinak diren bitartean, generoak zenbait espezie desberdinetan zatitzen baitira), badirudi espezieak generoak baino neurri handiagoz izango direla printzipioak.

Baina generoekin batera espezieak suntsitzen diren aldetik, generoek antzekotasun handiagoa dute printzipioekin, printzipioaren 1060a) suntsidurak bestearen suntsidura ekartzen baitu. Horrela, bada, hauek eta honelako beste batzuk dira gai aporetikoak.

## II

Gainera, bilatzen ari garen zientziaren aztergaia hauek direlarik, onartu behar ote da banakoez aparte zerbait dagoela, ala ez? Baina hauek 5) amaigabeak dira; hala ere, banakoez aparte generoak eta espeziak daude, eta bilatzen ari garen zientzia ez da ez lehenengoena, ez besteen ere. Hau zergatik den ezinezkoa esana dago<sup>57</sup>. Eta orokorrean, aporia hau sortzen da: mundu honetako sentimenezko substantziez aparte banangarri den substantziaren bat dagoela suposatu behar ote den ala ez, haiek den guztia 10) eta jakinduriaren aztergaia direlarik. Badirudi, hain zuzen ere, bestelako bat bilatzen ari garela, eta interesatzen zaiguna hau da: berez banangarri den baina sentimenezko gauzetan ematen ez den zerbait dagoen ala ez ikustea.

Bestalde, sentimenezko substantziez aparte bestelako substantziaren bat baldin badago, substantzia hau zein sentimenezko 15) gauzatatik izango da banandua? Izan ere, zergatik suposatu behar da substantzia hau gizakiengandik edo zaldiengandik dela banandua, eta ez gainerako animalienengandik edo, orokorrean, bizigabeetatik? Hala ere, sentimenezko eta ustelgarri diren substantzia adina betiereko diren substantziak ezartzea ez litzateke arrazoizkoa. Baina bilatzen ari den 20) printzipioa gorputzetatik banandua ez bada, zein beste printzipio ezarriko litzateke, materia ez bada? Hau, hain zuzen ere, ez da egintzan, baina bai potentzian; beraz, baliteke forma eta konfigurazioa hau baino printzipio nagusiagoa iruditzea. Hala ere, materia ustelgarria da; beraz, ez dago inolaz ere berez eta banandua den betiereko substantziarik. Baina hau zentzugabekeria da,

25) agerikoa omen baita eta, dudarik gabe, dohainduenek bilatua, halako printzipio eta substantzia dagoelakoan. Izan ere, nola izango ote litzateke ordenarik betiereko, banandu eta iraunkor den ezer ez badago?

Gainera, bilatzen ari garen substantzia eta printzipio hauek bezalakorik baldin badago naturaz -hau gauza guztietarako printzipio bakarra eta betiereko diren gauzetarako eta ustelgarri direnetarako 30) printzipio bera izanik-, aporia hau sortzen da: printzipio bera izanda, printzipioaren menpe dauden gauzen artean, zergatik dira batzuk betierekoak eta beste batzuk, ez? (Hau, hain zuzen ere, zentzugabekeria da) Eta ustelgarri diren gauzena printzipio bat eta betiereko direnena beste printzipio bat izanez gero, aporia bera sortuko da, ustelgarri diren gauzen printzipioa ere betierekoa baldin bada (izan ere, printzipioa betierekoa 35) baldin bada, honen menpe dauden gauzak ere zergatik ez dira betierekoak?), eta printzipioa ustelgarria baldin bada, printzipio honen beste printzipio bat izango da, eta azken printzipio honen beste bat, eta prozesua amaigabea izango da.

Bestalde, geldien omen direnak -Den-a eta Bata- printzipiotzat 1060b) hartzen badira, lehenengoz batak eta besteak, ez zehaztua den ezer, ezta substantziarik ere adierazten ez badute, nola izango dira bananduak eta berezkoak? Hala ere, halakoak dira bilatzen ari garen printzipio betierekoak eta lehenak. Eta batak eta besteak zehaztutako zerbait eta substantzia bat adierazten badute, den guztia izango da substantzia, Den-a gauza guztiez 5) predikatzen baita (eta zenbait gauzaz Bata ere bai). Baina den guztia substantzia dela faltsua da.

Gainera, nola izango da egia Bata printzipio lehena eta substantzia bat dela esaten dutenena, Batetik eta materiatik zenbaki lehena sortarazten eta hau substantzia bat dela baieztatzen dutenena, alegia? Izan ere, nola 10) pentsatu behar da Diada eta osatuak diren gainerako zenbakiak bat direla? Honi buruz, hain zuzen ere, ez dute ezer esaten, eta ez da erraza esatea. Hala ere, lerroak eta hauen ondorengo irudiak (luze-zabalera lehenak, alegia) hartzen badira printzipiotzat, hauek, behintzat, ez dira substantzia

bananduak, 15) mozketak eta zatiketak baizik -batzuk luze-zabalerarenak, beste batzuk gorputzenak (eta puntuak lerroenak)-, baita irudi hauen beraien mugak ere; gauza hauek guztiak beste gauza batzuetan ematen dira, eta bat bera ere ez da banandua.

Gainera, nola suposatu behar da Bataren eta Puntuaren substantzia bat dagoela? Substantzia orok, hain zuzen ere, badu generazioa, baina puntuak ez, puntua zatiketa bat baita.

20) Bestalde, zientzia oro unibertsalena eta koalitate zehatz bat duen horrena da, baina substantzia ez da unibertsal bat, zehaztua eta banandua den zerbait baizik; beraz, printzipioei buruzko zientzia bat baldin badago, nola suposatu behar da printzipioa substantzia bat dela? Zirkunstantzia honek aporia sortzen du.

Gainera, ba al dago ezer osatuaz aparte (materia eta honekin batera 25) ematen dena, alegia), ala ez? Ezer ez badago, materialen ematen den guztia ustelgarria izango da; baina zerbait baldin badago, hau forma eta konfigurazioa izango da. Hala ere, hau zein gauzatan ematen den eta zein gauzatan ez den ematen zehaztea zaila da. Zenbait gauzatan agerian dago forma ez dela banagarria, etxe batean, adibidez.

Gainera, espezifikoki ala aritmetikoki dira berak printzipioak? 30) Izan ere, aritmetikoki bat baldin badira, gauza guztiak izango dira gauza bera.

### III

Filosofoaren zientziak Den-a den aldetik aztertzen duenez, unibertsalki aztertuko du eta ez zati bati begira; baina Den-a zentzu askotan esaten da eta ez modu bakar batean; beraz, izenkidetasunez esaten bada eta ez baterako duten ezereen arabera, zentzu hauek guztiak ez zaizkio zientzia 35) bakar bati egokituko, genero berekoak ez direlako. Baina baterako duten zerbaiten arabera esanez gero, zientzia bakar bati egokituko zaizkio. Hala ere, badirudi azaldutako moduan esaten dela, "sendagarri" eta "osasuntsu" bezala, bi hauetako termino bakoitza ere zentzu askotan esaten baitugu. Eta 1061a) termino bakoitza modu honetan esaten da, medikuntza, edo osasuna, edo bestelako zerbait,

nolabait aipatzeagatik, termino bakoitzak aipaturikoa gauza bera izanik.

"Sendagarri", hain zuzen ere, arrazonamenduari eta bisturiari esaten zaie, batari medikuntzatik sortzeagatik, besteari, honetarako 5) baliagarri izateagatik. Eta antzeko moduan esaten da "osasuntsu": honi, osasunaren seinale delako; hari, ekoiztu egiten duelako. Eta gainerako kasuetan ere gauza bera esan daiteke.

Beraz, modu berean esaten da errealitate guztiak "direla", hauetako bakoitza den-aren afekzioa, edukia, antolakuntza, mugimendua edo halako beste zerbait izateagatik esaten baita "dela".

10) Eta den guztia bat eta baterakoa den zerbaitera murrizten denez, kontrakotasun bakoitza ere den-aren kontrakotasun eta desberdintasun lehenetara izango da murriztua, den-aren desberdintasun lehenak Aniztasuna eta Batasuna, Antzekotasuna eta Desberdintasuna nahiz beste edozein badira ere. Hala ere, ikertutzat eman ditzakegu gai hauek.

15) Baina den-aren biderapena den-era izatea edo bat den horretara izatea ez da ezertan bereizten; eta hauek gauza bera ez badira, bestelakoak baizik, biak erabil daitezke, behintzat, bat dena, nolabait, den zerbait baita, eta den-a, bat den zerbait.

Eta kontrako guztiak ikertzea bat eta bera den zientzia bati 20) dagokionez, eta haietako bakoitza <bere kontrako> ezari lotuta esaten denez -bitartekoren bat duten zenbait kontrako ezari lotuta esatea (zuzena eta zuzengabea, adibidez) aporetikoa bada ere- kasu hauetan guztietan eza ezarri behar da, ez esakune osoarena, azkeneko formarena baizik. Adibidez: pertsona zuzenak joeraren bati jarraiki legeen esana betetzen badu, 25) zuzengabea ez da esakune osoaren guztiz faltan egongo; hau legeen esana betetzeko arduragabea izango da nolabait, eta hau dela eta, eza emango da bere baitan; eta berdin gainerako kasuetan ere.

Eta matematikariaren ikerketa errealitate abstraktuei buruzkoa 30) da (sentimenezko koalitate guztiak -hots, pisua eta arintasuna, gogortasuna eta bere kontrakoa, baita beroa eta hotza eta gainerako

sentimenezko kontrakotasunak ere- ezabatu ondoren ikertzen du, eta kantitatea eta jarraia besterik ez du uzten -bai batean, bitan edo hiru dimentsiotan-, eta errealtate hauen afekzioak ere ikertzen ditu, 35) kantitate eta magnitude jarraiak diren aldetik, eta ez beste inolako zentzutan; eta zenbait gauzatan elkarrekiko kokapenak eta hauetan ematen 1061b) dena hartzen ditu kontuan, beste zenbaitetan neurgarritasuna eta neurrigabetasuna, eta beste zenbaitetan, proportzioak, baina, hala ere, gauza hauek guztiak bat eta bera den zientzia bati dagokiola baieztatzen dugu: geometriari, hain zuzen); eta Den-ari dagokionez gauza bera gertatzen da, beraren akzidenteak eta kontrakotasunak, "den" aldetik, Filosofiaren ikergai 5) baitira, eta ez bestelako zientzia batenak. Fisikaren ikergaitzat ere har litezke, baina "diren" aldetik ez, mugimenduan parte hartzen duten aldetik baizik.

Bestalde, Dialektikak eta Sofistikak diren gauzen akzidenteak dituzte aztergai, baina diren aldetik, ez; eta Den-a bera den aldetik, ere ez. 10) Beraz, filosofoa izango da esandako gauzak, diren aldetik, ikertuko dituen.

Eta den guztia, zentzu askotan esanda ere, bat eta baterako den zerbaiten arabera esaten denez, eta berdin kontrakoak (Den-aren kontrakotasun eta desberdintasun lehenetara murrizten baitira), eta 15) honelako gauzak zientzia baten menpe izan daitekeenez, orduan hasieran aipaturiko aporia konpon daiteke, hots, zientzia bakar bati nola egokituko zaizkion generoz desberdinak diren gauza anitz.

#### IV

Matematikariak ere axiomak berezko modu batez erabiltzen dituenek, hauen printzipioak ikertzea ere Filosofia lehenari egokituko 20) omen zaio. Izan ere, kopuru berdinei kopuru berdina kenduta

ondoren suertatzen diren kopuruak berdinak izatea baterako du kantitate den orok; baina matematikak bere berezko materiaren zatiren bati buruz egiten du ikerketa; adibidez, lerroak, angeluak, zenbakiak edo bestelako kantitateen bat, diren aldetik ez, hauetako bakoitza jarraia den aldetik 25) baizik, batean, bitan edo hiru dimentsiotan.

Filosofoak, berriz, ez ditu banakoak ikertzen hauetako bakoitza akzidenteren bat duen aldetik; aitzitik, Den-a ikertzen du, haietako bakoitza den aldetik.

Eta Fisikari buruz ere, Matematikari buruz esandako horixe bera esan daiteke, Fisikak diren guztien akzidenteak eta printzipioak, 30) mugimenduan dauden aldetik, ikertzen baititu, baina ez ditu diren aldetik ikertzen (baina esana dugu Zientzia Lehena errealitate hauen zientzia dela, hauek "diren gauzak" diren aldetik, eta ez bestelako zerbait diren aldetik). Horregatik baieztatu behar da Fisika eta Matematika ere Jakinduriaren zati direla.

V

Diren guztietan badago printzipio bat zeinari buruz engainatua 35) izaterik ez dagoen; aitzitik, nahitaez kontrakoa egiten da beti, egia aurkitu, hain zuzen ere. Adibidez, "gauza bera aldi berean izatea eta ez 1062a) izatea ezinezkoa da", eta berdin beraien baitan honelako kontrajarritasunak dituzten gainerako baieztapenak.

Honelako printzipioei buruz ez dago erabateko demostraziorik, baina bai kontrakoaren gezurtapena. Izan ere, printzipio hau bera ez dago printzipio konbentzigarriago batetik silogistikoki deduzitzerik, absolutuki 5) frogatzeko hau beharrezkoa izanik. Baina baieztapen kontrajarriak egiten dituenaren kontra, honek esandakoa faltsua dela frogatu nahi duenak, "gauza bera aldi berean izatea eta ez izatea ezinezkoa dela" baieztatzen duen axioma bezalako zerbait proposatu behar du, baina gauza bera ez balitz 10) bezala, horrela bakarrik gezurtatuko baitu subjektu berari buruzko kontrajarritako baieztapenak egia izan daitezkeela esaten duenaren kontra.

Horrela, bada, eztabaida batean parte hartu nahi dutenek bat etorri behar dute zerbaitetan. Izan ere, hau gertatu ezean, nola hartuko dute parte elkarrekin eztabaida batean? Beraz, hitz bakoitzak ulergarria izan 15) behar du eta zerbait adierazi behar du, esanahi bakar bat, hain zuzen ere, eta ez asko. Eta esanahi bat baino gehiago izatekotan, argitu behar da hauek zeini dagokion hitza. Horrela, bada, "hau bada eta ez da" esaten duenak baieztatzen duen hori ukatu egiten du; beraz, hitzak adierazten duena adierazten ez duela baieztatzen du, eta hau ezinezkoa da. Beraz, "hau izateak" zerbait adierazten badu, ezinezkoa da kontrako esakunea egia izatea.

20) Gainera, hitzak zerbait adierazten badu eta hau egia bada, hau nahitaez izan behar da; baina nahitaezkoa dena ezin da inoiz ez izan. Beraz, ezinezkoa da gauza berari buruz kontrajarritako baieztapenak eta ezeztapenak egia izatea.

Gainera, baieztapena ezeztapena baino egiazkoagoa ez baldin bada, "hau gizaki bat da" esatea ez da "hau ez da gizaki bat" esatea baino 25) egiazkoagoa izango. Hala ere, pentsa daiteke "gizaki bat ez da zaldi bat" esaten duenak "gizaki bat ez da gizaki bat" esaten duenak baino zentzu handiagoz esaten duela egia, edo ez zentzu gutxiagoz, behintzat; beraz, "gizaki bat zaldi bat da" esaten badu ere egia esango du (kontrajarritako esakuneak bezain egiazko omen ziren). Kontua da, orduan, subjektu bera gizakia eta zaldia, edo gainerako beste edozein animalia dela.

30) Horrela, bada, ez dago printzipio hauen inolako demostrazio absoluturik, baina bai halako gauzak baieztatzen dituenaren kontrako gezurtapena. Eta norbaitek horrela galdetu izan balu, Heraklito bera behartuko zukeen berehala onartzera gauza berei buruz kontrajarritako 35) baieztapenak egia izatea guztiz ezinezkoa dela.

Baina

berak esaten zuena ulertu ere egin gabe ontzat eman zuen. Dena dela, berak esandakoa egiazkoa baldin bada, hau bera ere ez litzateke 1062b) egiazkoa izango, hots, gauza bera eta aldi berean izan eta ez izan daitekeela. Izan ere, bata eta bestea bananduta, baieztapena ezeztapena baino 5) neurri handiagoz egiazkoa ez den bezala, era berean, bien batasuna eta lotura baieztapen bakar batean ematen bada, honen ezeztapena ere ez da baieztapentzat hartutako esakune osoa baino neurri handiagoz egiazkoa izango.

Gainera, egiaz ezer baieztatzerik ez badago, hau bera ere litzateke faltsua, egiazko baieztapenik ez dagoela esatea, alegia. Baina egiazko 10) baieztapenen bat baldin badago, halako zailtasunak aurkezten dituztenek eta elkarriketa erabat deuseztatzen dutenek esandakoa gezurtaturik geratzen da.

## VI

Protagorasek esandakoa ere azalduko iritzietatik gertu dago. Honek, hain zuzen ere, gizakia gauza guztien neurria dela esan zuen, hau 15) da, norberari iruditzen zaiona, horixe dela egiatan. Baina hau horrela izanez gero, gauza bera badela eta ez dela suertatzen da, eta txarra eta ona dela, eta baieztapen kontrajarrietan agerturiko gainerako predikatuak, -sarritan honelako bat batzuei ederra iruditzen zaielako eta beste batzuei, kontrakoa-, neurria norberari iruditzen zaiona delarik. Hala ere, aporia hau 20) konpon daiteke iritzi honen abiapuntua nondik etorri zen kontutan hartzen bada: batzuen ustez, hain zuzen ere, fisiologoek iritzitik da sortua, eta beste batzuen ustez, gauza berei buruz denek ezagutza bera ez izatearen zirkunstantziatik, batzuei gauza hau gozoa iruditzen baitzaie, eta beste batzuei, kontrakoa.



25) Izan ere, ez-denetik ezer sortzen ez dela eta den guztia den-etik sortzen dela, Natura ikertzen duten filosofo gehienek baterako iritzia da.

Horrela, bada, guztiz zuria dena -eta inolaz ere ez-zuria- zuria izateko bilakatzen ez denez, zuria izatera iritsi dena zuria ez-denetik sortuko da. Beraz, haien ustez, ez-denetik sortuko da, gauza bera zuria eta ez-zuria ez bada, behintzat.

30) Baina aporia hau konpontzea ez da zaila: Fisikan<sup>58</sup>, hain zuzen ere, esana dago sortuak diren gauzak zein zentzutan sortzen diren ez-denetik eta zein zentzutan den-etik. Bestalde, haien artean bat ez datozenen iritziak eta fantasiak modu berean kontutan hartzea lelokeria da, argi 1063a) baitago haietako batzuk oker daudela nahitaez. Eta hau agerikoa da sentimenezko pertzepzioan gertatzen denarengatik, gauza bera iruditzen baitzaie batzuei gozoa eta beste batzuei, kontrakoa, bakar batzuek aipaturiko zaporeak sentitzen eta bereizten dituen ahalmena usteldurik edo hondaturik ez badute, behintzat. Eta hau horrela bada, onartu beharko da batzuk neurria direla, eta onartu beharko da besteak ez direla. Eta onari eta 5) txarrari, ederrari eta itsusiari eta gainerako ezaugarriei buruz ere gauza bera esan daiteke. Izan ere, hau ontzat ematea eta hatzaz begi azpian sakatzen dutenei iruditzen zaiena onartzea ez da ezertan bereizten; hauek, hain zuzen ere, gauza bakar batetik bi gauza agerrarazten dute, eta bi gauza agertzen direnez, bi gauza izan behar dira. Baina, aldi berean, gauza bakar bat izan behar da, begia sakatzen ez dutenei gauza bakar bat dena gauza bakar bat dela iruditzen baitzaie.

10) Orokorrean, lekuz kanpokoa da egiari buruzko iritzia beren egoeran inoiz irauten ez omen duten hemengo gauza aldakorretatik osatzea,

egia beti egoera berean aurkitu eta inolako aldaketarik jasaten ez duten gauzetan bilatu behar baita. Eta honelakoak dira gorputz zerutarrak. 15) Gorputz hauek, hain zuzen ere, ez dira agertzen batzuetan honelako ezaugarriekin eta berriro beste horiekin; aitzitik, beti berdin eta inolako mugimendutan parte hartu gabe.

Gainera, mugimendurik baldin bada, mugitzen den zerbait ere bada, eta mugitzen den guztia zerbaitetik eta zerbaitera mugitzen da. Beraz, mugitzen dena bere mugimenduaren sorburu den horretan egon behar da 20) eta horretan bertan egon behar ez, eta horko horretarantz mugitu eta horretan agertu; eta hau guztia kontraesanak aldi berean egiazkoak izan gabe, haiek uste bezala.

Eta hemengo gauzak kantitateari dagokionez etengabe aldatu eta mugituz gero -eta hau egia ez bada ere norbaitek onartuko balu-, zergatik ez iraun koaliteteari dagokionez? Dirudenez, gauza berari buruz esakune kontraesankorrak predikatzen dituzte, gorputzetan kantitateak irauten ez 25) duela uste dutelako; eta hau dela eta, gauza bera lau ukondoko dela eta ez dela baieztatzen dute. Baina substantzia koalitetearen arabera da, eta hau zehazturiko izaerakoa da; kantitatea, ordea, izaera zehaztugabekoa da.

Gainera, sendagileak jaki jakin bat hartzeko agintzen duenean, 30) zergatik hartzen da? Eta honako hau, zergatik da ogia eta ez ez-ogia? Ondorioz, jatea eta ez jatea ez lituzke ezerk bereiziko. Baina honi buruzko egia onartzen dutenez eta agindu zaien jakia hau dela dakitenez, jakia hartzen dute. Hala ere, ez lukete hartu behar izango, sentimenezko gauzetan inolako izaerak tinko irauten ez duelako; aitzitik, denak mugitu eta aldatzen dira etengabe.

35) Gainera, etengabe aldatzen bagara eta inoiz irauten ez badugu gu geu izaten, zergatik harritu gauzak inoiz ez bazaizkigu berak

iruditzen, gaixoei gertatzen zaien bezala? (Hauei, hain zuzen ere, osasuntsu zeudeneko egoera berean ez 1063b) aurkitzeagatik sentimenezko gauzak ez zaizkie berdin iruditzen; baina sentimenezko gauzek ez dute, arrazoi horrengatik, behintzat, inolako aldaketatan parte hartzen, nahiz eta gaixoei bestelako sentsazioak eragin eta 5) ez berak. Eta, ziurraski, gauza bera gertatzen da nahitaez aipaturiko aldaketa ematen denean). Baina aldatzen ez bagara, baizik eta gu geu izaten jarraitzen badugu, irauten duen zerbait izango da.

Aipaturiko aporiak hitzezko argumentuetan oinarritzen dituztenen aurrean, aporiak ez dira konpontzen errazak, ez baitute ezer onartzen, ezta arrazoirik eskatzen ere, argumentu oro eta demostrazio oro 10) horrela sortzen delarik. Hala ere, haiek ezer onartzen ez dutenez, elkarrizketa ezabatzen dute eta, orokorrean, arrazoibidea. Beraz, hauen aurrean ez dago arrazoitzerik; tradiziozko aporiek harrituak daudenei, berriz, erraz erantzuten zaie, eta erraz ezabatzen dira beraiengan aporia sortarazten duten arazoak; eta hau argi dago esandakoarengatik.

15) Beraz, agerian dago esandakoarengatik gauza berari buruzko esakune kontrajarriak ezin direla aldi berean egiazkoak izan, ezta kontrakoak ere, kontrakotasun oro ezaren arabera esaten baita; hau agerikoa da kontrakoen nozioak beren printzipiora murrizten badira. Era berean, bitartekoak ezin dira bat eta bera den subjektuaz predikatu, subjektua zuria 20) izanda "ez da ez zuria, ez beltza" esaten badugu, gezurra esango baitugu; kasu honetan, hain zuzen ere, subjektua zuria izango litzateke eta ez litzateke zuria izango, subjektu berari buruzko adierazpen osoaren predikatu bat egiazkoa izango baita, eta hau zuriaren kontraesana da.

Horrela, bada, Heraklitoren iritzia onartzen dutenek ezin dute 25) egia esan, ezta Anaxagorasena onartzen dutenek ere; bestela, subjektu berari buruz kontrakoak predikatzen direla gertatuko da.

Izan ere, Anaxagorasek denetan denetik dagoela esaten duenean, neurri handiagoz gozoa edo mikatza edo beste edozein kontrako koalitatezko den ezer ez dagoela esan nahi du, dena denetan potentzian eman ez ezik, 30) egintzan eta bereizita ere ematen baldin bada, behintzat. Era berean, esakune guztiak gezurra izatea ezinezkoa da, baita egiazkoak izatea ere, baieztapen honek bestelako arazo larri ugari ekartzeagatik eta arazo hau sortzen duelako: esakune guztiak faltsuak baldin badira, hau baieztatzen duenak ere ez du egia esango; baina egiazkoak baldin badira, esakune 35) guztiak faltsuak direla esaten duenak ere ez du gezurrik esango.

## VII

Zientzia orok bilatzen du dagokion ikergai bakoitzerako zenbait printzipio eta kausa, adibidez, Medikuntzak, Gimnastikak eta beste 1064a) gainerakoek, ekoizleek zein matematikoek. Hauetako bakoitzak, hain zuzen ere, genero bat bere baitarako mugatu eta gero, berau ikertzen du, den zerbait eta ematen den zerbait dela kontuan harturik; baina zientzia bakoitzak ez du generoa ikertzen generoa den zerbait den aldetik, den-a den aldetik ikertzen duena bestelako zientzia bat baita, zientzia haietaz apartekoa.

5) Aipaturiko zientzia hauetako bakoitza, genero bakoitzean zerkia nolabait hartu eta gero, gainerakoa erakusten saiatzen da, zorrotasun gehiagoz ala gutxiagoz. Eta zerkia, batzuek sentsazioaren bidez hartzen dute, eta besteek, hipotesien bidez. Horregatik, indukzio honetatik ere agerian geratzen da substantziaren eta zerkiaren demostraziorik ez dagoela.

10) Bestalde, Naturari buruzko zientzia bat dagoenez, agerian dago zientzia hau praktikoen eta ekoizleen desberdina izango dela. Zientzia ekoizleari dagokionez, mugimenduaren printzipioa ekoizlearen baitan dago, eta ez emaitzan, printzipioa arteren bat edo beste potentziaren bat delarik. Era berean, zientzia praktikoari dagokionez ere, mugimendua ez 15) dago ekintzan bertan, egileen baitan baizik. Fisikariarena, berriz, mugimenduaren printzipioa beren baitan duten gauzen zientzia da. Horrela, bada, agerian dago esandakoarengatik zientzia fisikoa, nahitaez, ez dela ez praktikoa, ez ekoizlea, teoretikoa baizik (genero hauetako batean suertatu

behar baitu). 20) Eta zientzia orok, nolabait, zerkia ezagutu eta printzipio gisa erabili behar duenez, beharrezkoa da ez ahaztea fisikariak nola definitu behar duen eta substantziaren definizioa nola hartu behar duen, zapala dena bezala edo bestela, ahurra dena bezala. Izan ere, zapala denaren definizioa gauzaren 25) materiarekin batera esaten da, eta ahurra denaren definizioa, berriz, materiarik gabe; zapaltasuna, hain zuzen ere, sudurrean ematen da, eta horregatik hartzen da sudurrekin batera beraren definizioa, "zapala dena" "sudurmotza" baita. Beraz, agerian dago haragiaren definizioa, begiarena eta gainerako atalena materiarekin batera eman behar direla beti.

Bestalde, Den-aren zientzia bat dagoenez -Den-a den eta banandua 30) den aldetik- aztertu behar da hau eta Fisika berdintzat jo behar ote diren ala, aitzitik, bestelakoa den. Hau dela eta, Fisika mugimenduaren printzipioa beren baitan duten gauzen zientzia den bitartean, Matematika bananduak ez diren gauza iraunkorren zientzia teoretikoa da. Beraz, 35) bestelako zientzia batek ikertzen du banandua eta geldia dena, honelako substantziarik -banandua eta geldia, alegia- baldin badago, behintzat. Hauxe da frogatu nahi duguna.

Eta diren guztien artean honelako izaeraren bat baldin badago, 1064b) ziurraski hor izango da jainkozkoa, eta hura izango da printzipio lehena eta gorena.

Argi dago, bada, zientzia teoretikoen generoak hiru direla: Fisika, Matematika eta Teologia. Horrela, bada, generorik onena teoretikoena da, eta hauen beraien artean, azkenean aipaturikoa, diren guztietan gauzarik 5) gorena ikertzen baitu, eta <zientzia> bakoitza bere berezko ikergaiaren arabera da hobe edo okerragoa.

Bestalde, aporia hau sor liteke: Den-a den aldetik ikertzen duen zientzia, unibertsaltzat hartu behar da, ala ez? Izan ere, zientzia matematiko bakoitza genero zehatz batez arduratzen da; unibertsala, ordea, 10) genero guztiez. Horrela, bada, substantzia fisikoak diren guztietan lehenak badira,

Fisika ere zientzia lehena izango da; baina, banandua eta geldia den beste izaera eta substantzia bat baldin badago, zientzia hau bestelako bat izango da nahitaez, Fisikaren aurrekoa eta, lehena izateagatik, unibertsala.

#### VIII

15) "Den-a", besterik zehaztu gabe, zentzu askotan esaten denez, eta hauetako bat "akzidentalki" dela esatea denez, orduan den-a zentzu honetan aztertu behar da lehenengoz. Akzidenteaz ohiko zientzia bat bera ere arduratzen ez dela agerikoa da (Arkitekturak, hain zuzen ere, ez du kontuan hartzen etxean bizi izango direnei akzidentalki gertatuko zaiena; 20) adibidez, desgogora bizi izango diren ala kontrakoa; eta ehungintzak, larrugintzak eta sukaldaritzak ere ez, zientzia hauetako bakoitzak berez dagokiona besterik ez baitu kontuan hartzen, bere berezko helburua, alegia. Eta zientziatzat harturiko horietako batek berak ere -Sofistika izan ezik- ez ditu ikertzen musikariaren eta gramatikariaren arteko harremanak, ezta ondorengo argumentua ere: musikaria dena, gramatikari izatera iritsi 25) zelako, biak batera izango da, lehenago ez izan arren; hala ere, den hori, beti izan ez bada izatera iritsi denez, orduan aldi berean iritsi zen musikaria izatera eta gramatikaria izatera. Akzidentala denaz, hain zuzen ere, Sofistika bakarrik arduratzen da. Horregatik ez zebilen oker Platon Sofistikak ez-denari buruz eztabaidatzen duela esan zuenean<sup>59)</sup>

30) Akzidentearen zientzia bat izatea ezinezkoa dela agerikoa izango da akzidentea zer den ulertzen saiatu direnentzat. Gauza oro, edo beti eta nahitaez da (ez indarrez hartutako nahitaezkoa, demostrazioetan erabiltzen

dugun hori baizik), 35) edo gehienetan, edo ez gehienetan, ezta beti eta nahitaez ere, halabeharrez baizik; adibidez, udabetean hotza egin dezake, baina hau ez da beti eta nahitaez gertatzen, ezta gehienetan ere, noizean behin baizik. 1065a) Horrela, bada, akzidentea suertatu egiten dena da, baina ez beti, ez nahitaez ezta gehienetan ere.

Beraz, esana dago akzidentea zer den; eta argi dago honen 5) zientziarik ez dagoela. Izan ere, zientzia oro beti edo gehienetan denaz arduratzen da, baina akzidentea ez da ez batean, ez bestean egokitzen. Bestalde, argi dago akzidentalki denak ez duela berez denak dituen kausa eta printzipio bezalakorik; bestela, gauza guztiak nahitaez gertatuko lirateke. Esate baterako, honako hau horko hori izaten denean izaten bada eta horko hori hango hura izaten denean, eta hango hura halabeharrez gertatu ez 10) bazen, nahitaez baizik, orduan hori zeinaren hango hura kausa zen ere nahitaez izango da, azkeneko ondoriora heldu arte (akzidentalki omen zena, alegia); beraz, gauza guztiak nahitaez izango dira, eta zerbait bi modutan halabeharrez gertatzea, baita sortzeko eta ez-sortzeko posibilitatea ere, erabat ezabatuta geratzen dira sortuak diren gauzen artean. Eta kausa oraindik ez dela, baizik eta sortzen ari dela suposatzen bada, gauza bera 15) gertatuko da, gauza oro nahitaez sortuko baita.

Izan ere, biharko eklipsea hau gertatzen bada gertatuko da, eta hau beste hori gertatzen bada, eta beste hori beste edozer gertatzen bada. Eta horrela, une honetatik bihar arteko denbora mugatuari denbora kenduz, jadanik den horretaraino iritsiko da noizbait; beraz, hau baldin bada, honen 20) ondorengo gauza guztiak nahitaez sortuko dira, hots, gauza guztiak nahitaez sortuko dira.

Egiazkotzat hartutako denari eta akzidentalki denari dagokienez, bata pentsamenduaren konbinazio batean ematen da eta honen afekzio bat da (horregatik ez dira zentzu horretan denaren printzipioak bilatzen, kanpotiko eta banandua denarenak baizik), eta bestea - akzidentalki dena, 25)

alegia- ez da beharrezkoa, zehazgabea baizik, eta beraren kausak nahasiak eta amaigabeak dira.

Bestalde, helburu dena naturaz edo pentsamenduaz sortzen diren gauzetan ematen da, eta hauetako gauza bat akzidentalki sortzen denean halabeharra ematen da. Izan ere, den-a berez nahiz akzidentalki den bezala, 30) kausa ere bai. Eta zoria kausa akzidentala da helburu direnak aukeratu ondoren sortzen diren gauzetan; horregatik dira gauza berei buruzkoak zoria eta pentsamendua, pentsamendurik gabe aukerarik ez baitago.

Bestalde, halabeharrez sortzen diren gauzak sortaraz ditzaketen kausak amaigabeak dira, eta hau dela eta, zoria ilun egiten zaio giza pentsamenduari, eta akzidentalki da kausa, baina zentzu absolutuan ez da 35) ezeren kausa. Eta zoria ona edo txarra da ongi bat edo gaizki bat 1065b) suertatzen denean; eta zorte ona edo zorte txarra ongia eta gaizkia handiak direnean.

Akzidentalki dena berez denaren aurrekoa ez denez, kausa akzidentala ere ez. Beraz, zoria eta bat-batekotasuna ortziaren kausa balira ere, aurrekoak lirateke adimena eta natura.

## IX

5) Zenbait gauza egintzan bakarrik ematen dira, beste zenbait, potentzian eta beste zenbait, potentzian eta egintzan, den-aren, edo kantitatearen, edo gainerako beste kategoria baten arabera. Bestalde, gauzetatik kanpo ez dago mugimendurik, aldaketa den-aren kategorien arabera ematen baita beti, eta kategoriek baterako duten guztia kategoriaren batean ematen da. Hala ere, gauza guztietan kategoria bakoitza bi modutan 10) ematen da (adibidez, "honako hau", alde batetik forma da, eta beste aldetik beraren eza; eta koalitetearen arabera, zuria eta beltza; eta kantitatearen arabera, betea eta osagabea; eta translazioaren arabera, gorantz eta beherantz, edo arina eta astuna). Horrela, bada, mugimenduaren eta aldaketaren espezieak den-aren espezie adina dira.



15) Eta potentzian dagoena eta entelekian dagoena genero bakoitzaren arabera bereizten direnez, potentzian -potentzia den aldetik- dagoenaren egintzaratzeari mugimendu deitzen diot. Eta egia esaten dugula ondorengoan argitzen da: eraikigarri dena -honelakoa dela esaten dugun 20) aldetik- egintzan dagoenean, eraikia da, eta hau da eraikitzea; eta berdin ikastea, sendatzea, ibiltzea, salto egitea, zahartzea eta heltzea. Eta mugimendua, entelekia bera ematen denean gertatzen da, ez lehenago edo geroago. Horrela, bada, mugimendua potentzian dagoenaren egintzaratzea da, entelekian izanda egintzaratzen denan, ez hura bera den aldetik, mugikorra den aldetik baizik. "Den aldetik" honela ulertzen dut: brontzea, 25) hain zuzen ere, giza irudia da potentzian; hala ere, brontzearen entelekia -brontze den aldetik- ez da mugimendua, brontzea izatea eta potentziaren bat izatea ez baitira gauza bera. Izan ere, definizioaren arabera guztiz gauza bera balira, brontzearen entelekia mugimendu bat izango litzateke. Baina ez dira gauza bera (eta hau argi dago kontrakoetan: sendatu 30) ahal izatea eta gaisotu ahal izatea ez dira gauza bera -sendatzea eta gaixotzea gauza bera izango bailirakete-; baina subjektua, osasuntsu nahiz gaixorik, humoretik zein odoletik, bat eta bera da). Eta gauza bera ez direnez -kolorea eta ikusgarri dena ere gauza bera ez diren bezala-, mugimendua da ahalezko -ahalezko den aldetik- denaren entelekia. Horrela, bada, agerikoa 35) da mugimendua hau dela, eta mugitzea entelekia bera ematen denean -eta ez lehenago edo geroago- gertatzen dela.

1066a) (Izan ere, gauza bakoitza batzuetan eman daiteke egintzan eta beste batzuetan, ez, adibidez, eraikigarria, eraikigarri den aldetik; eta

eraikigarri denaren egintza -eraikigarri den aldetik- eraikuntza da, egintzaratzea, eraikitzea edo etxea baita. Baina etxea eraikita dagoenean, jadanik ez da eraikigarria, eraikigarri 5) dena eraikitzen baita. Beraz, egintzaratzea eraikitzea da nahitaez, eta eraikitzea nolabaiteko mugimendua da. Eta azalpen berak balio du gainerako mugimenduetarako).

Argi dago esandakoa zuzena dela, hau mugimenduari buruz besteek esaten dutenagatik eta bestela definitzea erraza ez izateagatik. Izan 10) ere, ezin liteke beste generoren batean egokitu, eta hau argi dago esaten dutenagatik: batzuek, hain zuzen ere, "bestelakotasuna" eta "desberdintasuna" eta "ez den zerbait" definitzen dute mugimendua; hala ere, kontzeptu hauek ez dute nahitaez inplikitzen mugimendua, eta, bestalde, aldaketa ez da ez haietarantz, ez haietatik ere bideratzen beraien kontrajarrietatik baino neurri handiagoz. Bestalde, kontzeptu hauetan 15) kokatzen da, mugimenduak zehazgabe den zerbait dirudielako, eta beste zutabeko printzipioak, ezak izateagatik zehazgabeak dira; izan ere, hauetako bat bera ere ez da ez "hau", ez "horrelakoa", ezta bestelako kategoriaren bat ere. Eta mugimenduak zehazgabea dirudi, bera ez dagoelako diren guztien ez potentzian, ez egintzan ere kokatzerik. Izan ere, kantitatea izan 20) daitekeena ez da nahitaez mugitzen, ezta egintzan den kantitatea ere, eta mugimenduak nolabaiteko egintza bat dirudi, baina osagabea, potentzia -zeinaren egintza mugimendua den- osagabea delako.

Eta horregatik da zaila mugimendua zer den ulertzea, ezen edo potentzian edo egintza hutsean kokatu behar baita nahitaez, honek ezinezkoa badirudi ere.

25) Beraz, esandakoa behar da: egintza eta ez egintza, azaldu dugun moduan, hots, ikusten zaila baina litekeena dena.

Bestalde, argi dago mugimendua mugitua den gauzaren baitan ematen dela, honen entelekia baita, mugitzeko gai denaren eraginpean; eta honen egintza ez da bestelako bat, honek bataren eta bestearen entelekia izan behar baitu. Izan ere, mugitzeko gai da mugitzeko potentzia duelako 30) eta mugiarazten du ekinean delako; baina mugitua denaren egintzalea da; beraz, batarena eta bestearena egintza bera da, batetik birako tarte eta bitik baterakoa tarte bera diren moduan, edo aldapa gora eta aldapa behera. Baina bere izatea ez da bat. Gauza bera gertatzen da mugiarazten duenaren eta mugitua denaren kasuan.

X

35) Amaigabea da, edo zeharka ezin daitekeena beraren izaerak onartzen ez duelako - ahotsa ikustezina den moduan-, edo amaigabeko bidea duena, edo nekez zeharkatzen dena, edo biderik edo mugarik ez duena, naturaz egokitu arren. Gainera, amaigabea gehiketaz, murrizketaz edo bi 1066b) modu hauez izan daiteke.

Horrela, bada, ez da posible banandua den zerbait izatea. Izan ere, baldin eta magnitude bat ez bada, ez zenbaki bat, eta amaigabea bera substantzia bada, eta ez akzidentea, orduan zatiezina izango da ( "zatigarria", 5) edo magnitude bat, edo zenbaki bat baita). Alabaina, zatiezina bada, ez da amaigabea izango, ahotsa ikustezina den moduan ez bada, behintzat. Baina amaigabea ez dute zentzu honetan hartzen, zeharkaezina den neurrian baizik.

Gainera, amaigabea nola izan daiteke berez, zenbakia eta magnitudea ere berez ez badira, eta amaigabea hauen afekzioa izanik? Bestalde, akzidentalki bada, amaigabe den aldetik ez da diren guztien 10) osagaia izango, ahotsa ikustezina den arren, "ikustezina" hizkuntzarena izango ez den bezala.

Eta argi dago amaigabea egintzan ezin eman dela, beraren edozein zati hartuz gero amaigabea izango baita (amaigabea substantzia bat baldin bada eta subjektu batez predikatzen ez bada, amaigabearen izatea eta amaigabea gauza bera izango baitira); beraz, edo 15) zatiezina izango da edo, zatiduna izatekotan, zati amaigabetan zatigarria. Baina gauza berak amaigabe anitz izatea ezinezkoa da (aire zati bat airea den bezala, amaigabe den zati bat amaigabea izango da, substantzia eta printzipioa bada). Beraz, zatirik gabea eta zatiezina da. Hala ere, entelekian dena amaigabea izatea ezinezkoa da (kantitatea izan behar baita nahitaez); beraz, akzidentalki ematen da. Baina horrela bada, esana dago ezin duela 20) printzipioa izan; aitzitik, printzipioa izango da hori, non amaigabea akzidentalki ematen den, hots, Aire edo Bikoitia.

Orain arte orokorki garatu dugu ikerketa hau. Baina amaigabea sentimenezko gauzetan ematen ez dela argi dago ondorengoarengatik: gorputzaren definizioa "gainazalez mugatua dena" bada, ez da gorputz amaigaberik izango -ez sentimenezkorik, ez adimenezkorik-, ezta 25) bananduriko zenbaki amaigaberik ere, zenbakia, edo zenbakiduna, neurgarria baita.

Amaigabearen izaera kontuan hartuz gero, argi dago ondorengoarengatik: amaigabea, hain zuzen ere, ezin da izan ez konposatua, ez bakuna. Izan ere, ez da gorputz konposatua izango beraren osagai-kopurua mugatua bada (kontrakoak berdinduta egon behar baitira, eta hauetako bat bera ere ezin da amaigabea izan; hau dela eta, gorputz baten potentzia bestearena baino txikiagoa bada, mugatua amaigabeak ezabatuko 30) du. Baina, bestalde, gorputz guztiak amaigabeak izatea ezinezkoa da, gorputza norabide guztietarako zabalera duena baita, eta amaigabea, mugarik gabe zabaltzen dena; beraz, gorputz bat amaigabea baldin bada, norabide guztietarako amaigabea izango da). Bestalde, amaigabea ezin da 35) gorputz bakarra eta bakuna izan; ezta, batzuek dioten bezala,

berak sorturiko osagaiez aparte egon ere (osagaiez aparteko honelako gorputzik ez baitago. Izan ere, gauza oro desegiten da bere osagaietan, eta ez 1067a) dirudi gorputz bakunez aparte hori dagoenik); eta sua ere ezin da izan, ezta gainerako osagaien bat ere. Izan ere, hauetako baten bat amaigabea izatea ezinezkoa izateaz gain, ezinezkoa da Osotasuna, mugatua izan arren, haietako bat izatea edo bihurtzea, Heraklitok -gauza guztiak 5) noizbait su bihurtzen direla esaten duenak- baieztatzen duen bezala. Eta gauza bera esan daiteke fisikariek osagaiez aparte jartzen duten Bataz, gauza oro kontrako batetik aldatzen baita, adibidez, bero izatetik hotz izatera.

Gainera, gorputz sentikorra nonbait badago, eta osatuaren eta zatiarena leku bera da, adibidez, lurrarena; beraz, espeziekidea baldin bada, 10) edo geldirik, edo beti mugimenduan egongo da. Baina hau ezinezkoa da. (Izan ere, zergatik beherantz, eta ez gorantz, edo beste edozein norabiderantz? Adibidez, zokor bat balitz, non mugituko edo geldituko litzateke? Genero bereko gorputzaren lekua, hain zuzen, amaigabea da. Orduan, leku osoa beteko du? Nola, baina? Zein izango da, bada, geldialdia eta mugimendua? Edo nonahi geldituko da -beraz, ez da mugituko-, edo nonahi mugituko da -beraz, ez da geldituko-).

15) Baina Osotasuna heterogeneoa baldin bada, lekuak ere heterogeneoak izango dira eta, hasteko, Osotasunaren gorputza ez da bat izango, elkar-ukitzez ez bada; eta, gainera, beraren zatiak mugatuak edo espezifikoki amaigabeak izango dira. Hala ere, ezin dira mugatuak izan (Osotasuna amaigabea bada, batzuk amaigabeak izango dira, baina beste batzuk, ez, sua edo ura, adibidez; baina halako osagaiak kontrakoen 20) suntsidura

ekarriko luke). Baina amaigabeak eta bakunak badira, lekuak ere amaigabeak izango dira, eta amaigabeak izango dira osagaiak. Hala ere, hau ezinezkoa bada eta lekuak mugatuak badira, Osotasuna ere mugatua izango da nahitaez.

Laburbilduz, gorputz sentikor orok pisua edo arintasuna badu, gorputz bat amaigabea izatea ezinezkoa izango da, baita gorputzen lekua 25) amaigabea izatea ere, gorputza erdirantz edo gorantz mugituko baita. Baina amaigabea -osoa nahiz erdia- bi modu hauek afektatua izatea ezinezkoa da. Izan ere, nola zatituko da? Edo amaigabeak nola izango du goiko eta beheko alderik, edo erdirik edo muturrik? Gainera, gorputz sentikor oro leku batean dago, eta leku-espezieak sei dira; baina hauek 30) gorputz amaigabe batean ematea ezinezkoa da. Eta, laburbilduz, leku amaigabe bat izatea ezinezkoa bada, gorputz amaigabe bat izatea ere bai, leku batean dagoena nonbait baitago, hots, goian, behean edo beste kokaguneren batean, eta hauetako bakoitza muga bat da.

Bestalde, ez dira gauza bera magnitudeari dagokion amaigabea, mugimenduari dagokiona eta denborari dagokiona, izaera bakar bat balitz 35) bezala; aitzitik, ondorengo dena aurreko denaren arabera esaten da; adibidez, mugimendua, lekualdatzearen, aldaketaren edo handitzearen magnitudearen arabera, eta denbora, mugimenduaren arabera.

## XI

1067b) Aldatzen dena, zenbaitetan, akzidentalki aldatzen da; adibidez, musikaria dabilela esaten denean. Beste zenbaitetan, aldatu egiten dela baino ez da esaten, subjektuaren zerbait aldatzen delako; adibidez, subjektuaren zatiren bat aldatzen denean (begia sendatzen denean gorputza 5) sendatzen baita); gainera, badago berez lehendabizi mugitua dena, hau da, berez mugikor dena. Eta berdin gertatzen da mugiarazten duenarekin, honek akzidentalki, edo bere zatiren baten arabera, edo berez mugiarazten baitu.

Badago, orduan, lehendabizi mugiarazten duen zerbait eta, bestalde, mugitua den zerbait; eta, gainera, denbora, zeinean zehar mugitzen 10) den abiapuntu den hori eta helmuga dena. Baina formak, afekzioak eta lekua -mugitua denaren helmugak diren horiek- geldiak dira; adibidez, zientzia eta beroa: mugimendua ez baita beroa, berotze-prozesua baizik. Eta akzidentalki ematen ez den aldaketa ez da gauza guztietan ematen, baizik eta kontrakoetan, bitartekoetan eta kontraesanetan. Honen demostrazioa 15) indukzioz egin daiteke. Izan ere, aldatzen dena, edo subjektutik subjektura, edo ez-subjektutik ez-subjektura, edo subjektutik ez-subjektura edo ez-subjektutik subjektura aldatzen da (subjektua baieztapen baten bidez adierazten dena izanik); beraz, hiru izango dira, nahitaez, aldaketa-mota; izan ere, ez-subjektutik ez-subjektura ez dago aldaketarik, ez baitago ez 20) kontrakorik, ez kontraesanik, kontrakotasunik ez dagoelako. Horrela, bada, ez-subjektutik subjektura zuzentzen den aldaketa -hauen arteko kontraesanaren bidez ematen dena- genesia da, hau erabatekoa izanik baldin eta aldaketa erabatekoa bada, eta partziala aldaketa partziala bada. Bestalde, subjektutik ez-subjektura zuzentzen dena suntsidura da, hau erabatekoa aldaketa erabatekoa baldin bada, eta partziala aldaketa partziala baldin bada.

25) Beraz, "ez den-a" zenbait zentzutan esaten bada, eta konposiziotzat edo zatiketatzat harturikoa ezin bada mugitu, ezta zentzu absolutuan den-ari kontrajartzen zaion potentziazat harturikoa ere (ez-zuria edo ez-ona dena akzidentalki mugi omen daiteke, ez-zuria dena gizaki bat izan baitaiteke; baina "hau" zentzu absolutuan ez dena, ezin da inolaz 30) ere mugitu), ez-dena mugitzea ezinezkoa da (eta hau horrela bada, genesia mugimendu bat izatea ere bai, ez-dena sortzen baita; eta, azken finean, akzidentalki sortuko balitz ere, absolutuki sortzen den horretan ez-dena ematen dela esatea egia izango da).

Eta berdin gertatzen da egonkortasunarekin; beraz, hauek dira suertatzen 35) diren zailtasunak, eta hauez gain, beste hau: mugitzen den oro leku batean dago, eta ez-dena, berriz, ez dago leku batean, nonbait egongo bailitzateke. Horrela, bada, usteldura ere ez da mugimendua. Izan ere, mugimendu baten kontrakoa beste mugimendu bat da, edo gelditasuna, baina genesiaren kontrakoa suntsidura da.

1068a) Baina mugimendu oro aldaketaren bat denez, eta aipaturiko hiru aldaketa-mota horietatik genesiaren eta ustelduraren arabera -kontraesanaren bidez ematen direnak, alegia- mugimendu ez direnez, subjektutik subjektura ematen dena izango da, nahitaez, 5) mugimendu bakarra. Subjektu hauek, edo kontrakoak, edo beren bitartekoak dira (eza ere kontrakotzat har daiteke), eta baieztapen baten bidez adierazten dira; adibidez, "biluzik", "horzgabetua" eta "beltza".

## XII

Kategoriak substantzian, koalitatean, edukitzean edo jasatean, erlazioan eta kantitatean bereizten direnez, mugimendu-motak hiru izango 10) dira nahitaez: koalitate, kantitate eta leku-mugimenduak. Baina ez dago substantziaren arabera mugimendurik -substantziak kontrakorik ez duelako-, ezta erlazioaren arabera (bi terminoetako bat aldatuz gero, baliteke bestea faltsua izatea, ezertan aldatu ez arren, eta horrela beraien mugimendua akzidentala izatea), ez egilearen eta jasalearen arabera mugimendurik, ezta mugiarazlearen eta mugitua denaren arabera ere, 15) mugimenduaren mugimendurik ez dagoelako, ezta genesiaren genesirik ere: orokorrean, ez dago aldaketaren aldaketarik.

Izan ere, bi modutan eman liteke mugimenduaren mugimendua: edo mugimendua bera subjektu bezala (adibidez, gizakia mugitu egiten da beltza izatetik zuria izatera aldatzen denean; beraz, honela, mugimendua berotu edo hoztu ere egiten da, edo lekualdatzen da, edo handitzen da; 20) baina hau ezinezkoa da, mugimendua ez baita subjektua), edo beste subjektuaren bat mugimendu batetik beste forma batera aldatzeagatik; adibidez, gizaki bat gaixotasunetik osasunera aldatzean. Baina hau ere ezinezkoa da, akzidentalki ez bada,



mugimendu oro gauza batetik beste gauza batera aldatzea baita; eta berdin 25) genesia eta usteldura, hauek eta mugimendua termino kontrajarrietarantz modu desberdinez jo izan ezik. Horrela, bada, aldi berean aldatzen da osasunetik gaixotasunera, eta aldaketa honetatik beste batera. Beraz, agerian dago gaixotu egin bada beste edozein aldaketatara aldatu izana beharko dela (aldatu gabe jarrai baitezake), eta, gainera, beti 30) ezustekoa ez den aldaketa batera, eta hau ere gauza batetik beste gauza batera izango da; beraz, aldaketa kontrajarria suertatuko da -sendamena, alegia-, baina akzidentalki, egoera hauen subjektua ahaztetik oroitzera aldatzen den bezala aldatzen delako, batzuetan ezagutza aldera eta beste batzuetan, ezjakintasunera.

Gainera, aldaketaren aldaketa eta genesiaren genesirik baleude, amaigabeko prozesua suertatuko litzateke; izan ere, ondorengoa sortuko 35) balitz, lehenengoa ere sortuko litzateke nahitaez. Adibidez, zentzu 1068b) hertsian harturiko genesia noizbait sortu bazen, beraren genesia ere sortu zen; beraz, ez zen izango zentzu hertsian sortu zena, sortzen ari zen zerbaiten genesia baizik; baina hau ere noizbait sortu zenez, zentzu hertsian sortu zena oraindik ez zen izango. Eta amaigabeko prozesuek termino 5) lehenik ez dutenez, ez da lehenengorik izango eta, orduan, ondorengorik ere ez. Horrela, bada, ezinezkoa izango da ezer sortzea, mugitzea edo aldatzea.

Gainera, subjektu berari dagozkio mugimendu bat eta kontrakoa (geldialdia), genesia eta usteldura; beraz, sortzen dena bere genesia sortzearekin batera usteltzen da, ez sortzerakoan, ezta geroago ere. Izan ere, usteldu egiten denak existitu behar du.

10) Gainera, sortzen eta aldatzen denaren azpian materia bat izan behar da. Orduan, zein izango da, gorputz aldakorra edo arima

bezala, mugimendu edo genesi bilakatzen den hori? Are gehiago, zer ote da haien mugimenduaren helmuga den hori? Izan ere, hau zerbaitetik zerbaitera zuzentzen den zerbaiten mugimendu bat edo genesi bat izan beharko da. Nola, baina? Ikaskuntzaren ikaskuntzarik ezinezkoa da; beraz, geniaren genesisia ere bai.

15) Eta substantziaren mugimendurik ez dagoenez, ez erlazioarenik ezta edukitzearen edo jasatearenik ere, mugimendua koalitetearen, kantitatearen eta lekuaren arabera izatea gertatzen da (hauetako bakoitzean kontrakotasuna ematen baita); baina koaliteteaz hitz egiten dudanean ez naiz substantzian ematen denaz ari (desberdintasuna ere koalitate bat baita), afekzio denaz baizik; honen arabera, hain zuzen ere, esaten da zerbait afektatua dela ala ez.

20) Bestalde, mugiezina ondorengoari esaten diot: inolaz ere mugi ezin daitekeenari, denbora luzean zehar nekez mugitzen denari edo mugitzen astiro hasten denari, eta izaeraz mugikorra eta mugitzeko gai izanda, dagokion aldera, dagokionean eta dagokion moduan mugitzen ez denari. Eta mugiezintasun-egoera hauetatik, azkenekoari bakarrik esaten diot "gelditasuna", gelditasuna mugimenduaren kontrakoa baita eta, beraz, 25) mugitzeko gai den subjektuaren eza bat da [ezintasun bat da].

"Lekuaren arabera elkarren ondoan" daude leku bakar batean segituan dauden horiek, eta bananduta, beste leku batean dauden guztiak. "Elkar-ukitzean" daude muturrak elkarren ondoan dituzten horiek. "Bitartekoa" da hori, nora aldatzen dena bere aldaketa jarraiazen berezko amaierara iritsi aurretik naturaz iristen den.

30) "Lekuaren arabera kontrakoa" da lerro zuzenean urrutien dagoena. Eta zerbaiti "segidakoa" esaten zaio hasierako termino baten atzean delarik eta posizioz, espeziez edo beste modu batez definitua izanda, termino honen eta aurrekoaren artean genero bereko bitartekorik ez dagoenean;

adibidez, lerroak lerro artean, monadak monaden artean edo etxe bat etxe artean (hala ere, ez du ezerk eragozten beste genero bateko bitartekoak 35) izatea). Izan ere, segidakoa zerbaiten atzean dago eta honen 1069a) ondorengoa da; horrela, bada, bata ez da biaren segidakoa, ezta lehenengo ilberri-eguna bigarrenarena ere.

Bestalde, "ondokoa" da zerbaiten segidan izanda <aurrekoarekin> elkar-ukitzean dagoena. Baina aldaketa oro kontrajarrietan ematen denez, eta hauek kontrakoak eta kontraesanak direnez, eta kontraesanak bitartekorik ez duenez, argi dago kontrakotasuna kontrakoetan ematen dela.

5) Bestalde, "jarraia" ondokoa den zerbait da, eta "jarraia" esaten dut elkar-ukitzean eta jarraian dauden bi gauzen muga bat eta bera izaten denean; beraz, jarraian izango dira gauza horiek, zeinetatik elkar-ukitzearen bidez batasun naturala sortzen den. Eta lehendabizikoa segidakoa dela argi dago (segidakoa izateak ez baitu elkar-ukitzerik suposatzen; eta jarraia baldin bada, elkar-ukitzea ematen da, baina elkar-ukitzeak ez du 10) jarraitasunik suposatzen; eta elkar-ukitzean ez dauden gauzen artean ezin da natura-batasunik eman). Beraz, puntu bat eta monada bat ez dira gauza bera, haietan elkar-ukitzea baitago, baina hauetan ez, segidan badaude ere; eta haien artean bitartekoren bat eman daiteke, baina hauen artean, ez

HAMABIGARREN LIBURUA (L)

I

Ondorengo azterketa substantziari buruzkoa da, substantzien printzipioak eta kausak bilatzen baitira. Izan ere, Ortziaren gauzek osotasun 20) bat osatzen badute, substantzia zati lehena izango da. Eta Ortzian jarraian ematen diren gauzak baino ez bada, orduan ere lehenengoa izango da substantzia, gero koalitatea eta, ondoren, kantitatea. Aldi berean, azken hauek, gainera, ez dira substantziak zentzu absolutuan, nolabait esateagatik, nolakotasunak eta mugimenduak baizik;

bestela, ez-zuria eta ez-zuzena ere izango lirateke, hauetaz ere esaten baitugu badirela, adibidez "bada zerbait ez-zuria" esaten dugunean. Bestalde, 25) gainerako guztiak ez dira banagarriak; antzinakoek ere horrela adierazten dute egitez, substantziaren printzipioak, osagaiak eta kausak bilatzen baitzituzten. Gaur egungoek, ordea, nahiago dute unibertsalak ezarri substantziazat (unibertsalak generoak baitira, eta hauei neurri handiagoz dagokiela printzipioak eta kausak izatea esaten dute, beraien ikerketa logikoa baita); antzinakoek, ordea, banakoak hartzen zituzten substantziazat -sua eta lurra, esate baterako-, baina ez baterako dena: Gorputza.

30) Substantziak hiru dira. Bat sentimenezkoa da, betierekoa edo ustelgarria; azken hau -landareak eta animaliak, adibidez- denek onartzen dute; [ bestea betierekoa da] eta honen osagarriak -bat izan edo anitz izan- ezagutu behar dira. Hirugarrena geldia da, eta badira hau bananduta dagoela esaten dutenak: batzuek bitan banatzen dute; beste batzuek Formak eta Errealitate Matematikoak natura bakar batean biltzen dituzte; eta beste 35) batzuek Errealitate Matematikoak bakarrik onartzen dituzte. Lehenengo biak Fisikari dagozkio (mugimenduz ematen baitira), baina hirugarrena beste zientzia bati egokituko zaio, baldin eta guztiei dagokien 1069b) baterako printzipiorik ez badago.

Bestalde, sentimenezko substantzia aldakorra da. Eta aldaketa kontrajarrietatik sortzen bada, edo bitartekoetatik, baina ez edozein kontrajarrietatik (soinu artikulatua ere ez-zuria baita), kontrakotik baizik, nahitaez izango da kontrakorantz aldatzen den azpigairen bat, kontrakokoak ez baitira aldatzen.

## II

Gainera, bada irauten duen zerbait, baina kontrakokoak ez du irauten; beraz, kontrakoez gain, hirugarren bat ere badago: materia.

Beraz, aldaketak lau badira -zerkiaren, koalitetearen, 10) kantitatearen eta kokapenaren arabekoak- eta genesia eta usteldura zentzu absolutuan "honako honen" arabera ematen badira, handitzea eta gutxitzea kantitatearen arabera, aldakuntza koalitetearen arabera eta lekualdaketa kokapenaren arabera ematen badira, aldaketak banako bakoitzari dagokion

kontrakorantz gertatuko dira. Ondorioz, materia izango da, nahitaez, aldatzen dena, potentzian bi kontrakoak delarik.

15) Eta "den-a" bi modutan ematen denez, aldaketa oro potentzian izatetik egintzan izatera ematen da (adibidez, zuria potentzian izatetik zuria egintzan izatera, eta berdin handitzeari eta gutxitzeari dagokienez); beraz, ez-den zerbaitetik akzidentalki sortzea litekeena izan ezezik, den zerbaitetik dena sortzea ere litekeena da, hots, potentzian den eta egintzan ez-den 20) zerbaitetik. Hau da Anaxagorasen Bata; hau dela eta, "den guztia batera" (eta Enpedoklesen eta Anaximandroren nahastura eta Demokritok esandakoa) baino hobea da "den guztia batera potentzian, baina ez egintzan" esatea. Filosofo hauek, beraz, nolabaiteko materia batez jabetu ziren.

Eta aldatzen den orok badu materia, baina desberdina; baita 25) genesirik ez duten betiereko gauzek ere: hauek bertako mugimendua dutelarik ez dute, haatik, sortzeko materiari, lekualdatzekoa baizik.

[Ez-dena hiru zentzutan esaten denez, galde genezake nolako "ez-denetatik" eman daitekeen genesia]. Eta potentzian dagoen zerbaitetik sortzen bada, ez da, alabaina, edozeretatik, potentzian desberdinak direnetatik gauza desberdinak sortzen direlako. Eta ez da nahikoa esatea 30) gauza guztiak batera zeudela, materiaz desberdintzen baitira; bestela, zergatik sortu ziren gauza anitz eta ez bakar bat? Izan ere, Adimena bat da eta, ondorioz, materia ere bat bakarra balitz, egintzan emango zatekeen materiak potentzian sor zezakeen bakarra.

Horrela, bada, hiru dira kausak eta hiru dira printzipioak: bi kontrakotasunari dagozkio -bata, kontrakotasunaren esakunea eta forma da; bestea, haren eza-. Hirugarrena materia da.

### III

35) Ondoren, esan dezagun ez dela sortzen ez materia, ez forma; materia eta forma azkenez ari naiz. Izan ere, aldatzen den oro bada zerbait, 1070a) zerbaitek eraginda eta zerbaiterantz zuzendua. Aldaketa eragiten duen hori, mugiarazle lehena da; aldatzen dena,

materia da; hura, norantz zuzentzen den, forma da. Eta prozesua amaigabea izango da brontzea borobil egitea ezezik, brontzea edo borobiltasuna ere egiten bada. Beraz, ezinbestekoa da eten egitea.

Ondoren, esan dezagun substantzia bakoitza izenkide den 5) zerbaitetik sortzen dela (bai naturaz direnak substantzia, bai bestelakoak), artez, edo naturaz, edo halabeharrez edo automatikoki sortzen direlarik. Horrela, bada, artea, beste batean dagoen printzipio bat da; natura, ordea, bere baitan dagoen printzipio bat (gizakiak gizakia sortzen du) eta gainerako kausak aipaturiko hauen eza dira.

Substantziak hiru dira: materia, zehaztutako zerbaiten itxura dena 10) (elkar-ukitzez -eta ez naturaz- lotutako gauzak materia eta azpigaia dira-eta); natura, zehazturiko zerbait eta generazioaren helburu dena; eta hirugarrena, aurreko biez osaturiko banakoa, Sokrates edo Kalias, esate baterako.

Kasu batzuetan, hain zuzen, ez dago substantzia osatuaz aparteko "zehaztutako zerbait" -etxe baten forma, adibidez-, artea izan ezik (eta forma horien generazio zein usteldurarik ere ez; aitzitik, materiari gabeko etxea, 15) osasuna eta arteari dagokion guztia beste modu batez dira eta ez dira); baina aparte izatekotan, naturaz ematen direnetan bakarrik izango litzateke. Horregatik ez zebilen oker Platon esan zuenean naturazko substantzia adina Forma dagoela, baldin eta hauetaz aparteko Formarik badago, hots, sua, haragia, burua. Izan ere, hauek denak dira materia, eta materia gertua, 20) substantziarena, bereziki.

Bestalde, mugiarazle diren kausak aurrekoak dira, eta forma bezalakoak direnak, berriz, aldi berean ematen dira, gizakia sendatzen denean osasuna ere orduantxe ematen baita. Eta brontzezko esferaren figura eta brontzezko esfera ere aldi berean ematen dira. [Ondoren ikertu beharko da zerbaitek irauten duen ala ez: zenbait kasutan ez du ezerk 25) horrelakorik eragozten, adibidez, arimaren kasuan; baina ez arima osoa, Adimena baizik. Oso-osorik irautea izango da, agian, ezinezkoa].

Beraz, arrazoi hauengatik, behintzat, agerikoa da ez dagoela Ideiak izateko inolako beharrik. Izan ere, gizakiak gizakia sortzen du, banako jakin batek beste banako bat. Eta berdin artei dagokienez, sendagile-arte 30) osasunaren kontzeptua baita.

#### IV

Desberdinak diren gauzen kausak eta printzipioak desberdinak dira, zentzu batean; baina beste zentzu batean, unibertsalki eta analogiaz hitz eginez gero, berak dira gauza guztienak. Izan ere, galde liteke ea berak ala beste batzuk diren substantzien eta erlazioen printzipioak eta osagaiak, eta 35) berdin kategoria bakoitzarenak.

Baina zentzugabekeria litzateke diren guztienak berak izatea, 1070b) erlazioek eta substantziak osagai berak izango lituzketelako. Eta zein ote osagai hau? Izan ere, substantziaz eta gainerako kategoriez aparte ez dago baterako ezer, eta osagaia berak osatutakoaren aurrekoa da. Baina substantzia ere ez da erlazioen osagaia, ez eta hauetako bat bera ere 5) substantziarena. Gainera, nola liteke gauza guztiek osagai berak izatea? Izan ere, ezinezkoa da osagai bat eta osagaiez osatutakoa bera izatea; adibidez, B edo A eta BA ez dira gauza bera [eta adimenezkoen artean ere ez dago osagarririk, esate baterako, "den-a" edo "bata", hauek osaturikoetan ere ematen direlako]. Beraz, <osagarri> horietako bat bera ere ez da, ez substantzia, ez erlazio izango. Baina izan beharko litzateke. Ondorioz, diren 10) guztien osagaiak ez dira osagai berak.

Alabaina, esan bezala, hauek badira zentzu batean eta beste zentzu batean, ez; adibidez, agian beroa sentimenezko gorputzen formatzat har daiteke eta hotza, berriz, haren ezatzat; eta materia, bestalde, hauetan potentzian lehenengoz eta berez ematen dena, eta substantziak berauek izango dira, baita hauetatik -hauek printzipioak izanik- sortzen direnak ere, edo berotik eta hotzetik bat den zerbait sortzen bada -haragia edo hezurra, 15) adibidez-, desberdinak izan behar direlako, nahitaez, sorturikoa eta printzipioak.

Horrela, bada, <sentimenezko gorputzen> osagaiak eta printzipioak berak dira (gauza desberdinenak, berriz, desberdinak), baina ezin esan gauza guztiez honela, analogiaz baizik, printzipioak hiru direla esan litekeen antzera: forma, eza eta materia. Haatik, hauetako bakoitza 20) desberdina da genero bakoitzarentzat; adibidez, kolorearentzat, zuria, beltza eta azalera; argia, iluntasuna eta airea, eguna eta gaua sortzeko.

Gainera, bere baitako direnak ezezik, kanpoaldeko batzuk ere -mugiarazlea dena, esaterako- dira kausa; beraz, argi dago printzipioa eta osagaia desberdinak direla, biak ala biak kausa badira ere [eta printzipioa bietan banatzen da <bere baitako zein kanpoaldeko direnetan>], eta mugiarazlea nahiz geldiarazlea nolabaiteko printzipio bat eta substantzia bat 25) direla. Beraz, osagaiak hiru dira analogiaz, eta kausak eta printzipioak, lau. Eta desberdinak diren gauzetan, hauek ere desberdinak dira, eta kausa mugiarazle lehena desberdina da desberdin direnetan. Osasuna, gaixotasuna, gorputza: mugiarazlea Medikuntza da; Forma, honelako desordena, adreiluak: mugiarazlea Eraikuntza da [eta hauetan banatzen da printzipioa].

Gero, naturazkoetan, adibidez, gizakiaren kasuan, mugiarazlea 30) gizakia denez, baina arrazoizkoetan <mugiarazlea> forma edo kontrakoa denez, kausak, zentzu batean, hiru izango dira, baina beste zentzu batean, lau. Izan ere, Medikuntza, nolabait, osasuna da; Eraikuntza, etxearen forma,



eta gizakiak gizakia sortzen du. Eta kausa hauetaz gain, ororen mugiarazle lehena.

V

Gauza batzuk bananduta ematen dira eta beste batzuk, banandu 1071a) gabe; beraz, lehenengoak dira substantziak. Eta horregatik dira hauek gauza guztien kausa, substantziarik gabe ez dagoelako ez afekziorik, ez mugimendurik. Gainera, kausa hauek, agian, arima eta gorputza izango dira, edo adimena, desira eta gorputza.

Honez gain, baina beste zentzu batean, berauek dira printzipioak 5) analogiaz; adibidez, egintza eta potentzia. Alabaina, hauek gauza desberdinetan desberdinak izan ezezik, modu desberdinez ere ematen dira. Zenbait kasutan gauza bera, hain zuzen, batzuetan egintzan eta beste batzuetan potentzian izaten da; adibidez, ardoa, edo haragia, edo gizakia.

(Egintza eta potentzia ere aipaturiko kausen artean kokatzen dira; izan ere, forma egintzan ematen da, banangarria baldin bada, eta formaz eta materiaz osaturikoa ere bai; eza, berriz, iluntasuna eta gaixotasuna bezalakoa da. 10) Baina materia potentzian dago, berau baita biak izatera irits daitekeena). Baina beste modu batez ere bereizten dira egintzaz eta potentziaz materia berekoak ez diren gauzak, espezie berekoak ez direnak, bestelakoak direnak; horrela, bada, gizakiaren kausa osagaiak dira -sua eta lurra, hauek materia diren aldetik- eta berezko duen forma; baita kanpoko eragileren bat ere, aita, 15) esate baterako; eta hauetaz gain, Eguzkia eta Ekliptika, hauek ez materia, ez forma, ez eza, ezta espeziekide ere ez direlarik: kausa mugiarazleak dira.

Gainera, kontuan hartu beharrekoa da gauza batzuk unibertsalki izan daitezkeela, baina beste batzuk, ez. Gauza guztien printzipio lehenak lehenengo "honako hau" dira egintzan, eta potentzian den beste zerbait; 20) horrela, bada, unibertsal haiek ez dira existitzen, banakoa banakoen printzipioa baita.

Izan ere, gizakia da gizaki unibertsalaren printzipioa, baina ez dago honelakorik; aitzitik, Peleo da Akilesena, zure aita, zeurea eta B jakin hau, BA honena, nahiz eta B, orokorrean, BA silabarena izan. Gainera, substantzien kausak <gauza guztienak> diren arren, hala ere, esan bezala<sup>60</sup>, kausak eta printzipioak desberdinak dira genero berekoak ez 25) diren gauza desberdinetan -koloreak, soinuak, substantziak eta kantitatea, esate baterako-, analogiaz ez bada. Eta espezie berekoenak desberdinak dira, ez espezifikoki, banako bakoitzarenak desberdinak direlako baizik, zeure materia, zeure forma eta zeu mugiarazten zaituena eta neureak, nozio unibertsalari dagokionez, berberak diren arren. Bestalde, substantzien, erlazioen eta koalitteen printzipioak eta 30) osagaiak zein diren aztertzeari dagokionez -ea berak ala beste batzuk diren-, argi dago banako bakoitzarenak berak direla, hauek zentzu askotan esaten diren aldetik; baina zentzu hauek bereiziz gero, ez dira berak, beste batzuk baizik, baina gauza guztienak berak direlarik honako modu hauetaz: modu batez, analogiaz, berak dira, materia, forma, eza eta mugiarazlea direlako; beste modu batez, substantzien kausak gauza guztien kausak diren 35) aldetik, lehenengoak ezabatuz gero dena ezabatzen delako; gainera, entelekian dagoen lehenena. Beste modu batez, ordea, desberdinak dira kausa lehenak: kontrako direnak -ez genero bezala, ez zentzu askotan esaten ez 1071b) direnak- eta, hauez gain, materiak ere bai.

Honela, bada, esana dago zein eta zenbat diren sentimenezko gauzen printzipioak eta zein zentzutan diren printzipio berak eta zein zentzutan diren beste batzuk.

## VI

Substantziak hiru zirenez -bi, naturazkoak eta bat, geldia dena-, azken honi buruz esan behar da nahitaezkoa dela betiereko den substantzia 5) geldiren bat izatea. Izan ere, diren guztien lehenak dira substantziak, eta denak ustelgarriak balira, diren guztiak ustelgarriak lirateke.

Baina ezinezkoa da mugimendua (betidanik existitu izan baita) zein denbora, edo sortzea edo usteltzea, denbora existitu ezean aurrekoa eta ondorengoa ezin izango liratekeelako. Eta mugimendua, hain zuzen, 10) denboraren modura da jarraia, denbora, edo gauza bera, edo mugimenduaren afekzio bat baita. Alabaina, ez dago jarraia den mugimendurik, bertakoa izan ezik, eta bertakotik, zirkularra.

Bestalde, mugiarazle edo eragile den zerbait baldin badago, baina ezer ekoizten ez badu, ez da mugimendurik izango, litekeena baita potentzia duenak ez ekoiztea. Beraz, betiereko substantziak ezarriko 15) bagenitu ere, ez genuke ezer lortuko, Formak ezarritzen dituztenak kasu, aldaketak eragiteko gai den printzipioren bat ez badago. Baina hau ere ez litzateke nahikoa, ezta Formez aparteko bestelako substantzia bat ere, honek ekoizten ez badu ez baita mugimendurik izango; are gehiago, ekoiztuko balu ere, beraren substantzia potentzia baldin bada, betiereko mugimendua izango ez litzatekeelako. Izan ere, litekeena da potentzian 20) dena ez izatea. Beraz, beharrezkoa da bere substantzia egintzan duen printzipioren bat izatea.

Gainera, substantzia hauek materiari gabeak izan behar dira, betierekoak izan behar direlako, baldin eta betiereko den bestelako zerbait badago. Egintza dira, beraz.

Baina aporia hau sortzen da: badirudi ekoizle orok, hain zuzen, potentzia duela, baina potentzia duen orok ez duela ekoizten eta, ondorioz, potentzia aurrekoa dela. Alabaina, hau honela balitz, ez litzateke diren 25) guztietatik bat bera ere existituko, litekeena baita izan daitekeen zerbait oraindik ez izatea. Eta teologoek esaten duten moduan balitz -hauek Gautik sortarazten dute dena-, edo naturaren filosofoek diotenaren arabera balitz ere - "gauza guztiak batera zeuden"-, ezintasun bera sortuko litzateke. Bestela, nola izango da mugimendua egintzan dagoen kausaren bat egon ezean?

Izan ere, materiak, behintzat, ez du bere burua mugiarazten, 30) eraikitzeke arteak mugitzen du; eta hilekoak edo lurrak ere ez, haziak eta sortzapenak baizik. Hau dela eta, batzuek betiereko ekoizpena suposatzen dute; esate baterako, Leuzipok eta Platonek, hauek

mugimendua beti izaten dela esaten baitute. Baina ez dute esaten zergatik eta nolakoa den, ezta honelakoa edo horrelakoa izatearen kausa ere; izan ere, ez dago halabeharrez mugitzen den ezer, beti izan behar da 35) arrazoiaren bat; adibidez, orain naturaz mugitzen da honela, baina indarrez edo adimenez edo bestelako eragile baten eraginez, horrela mugitzen da. Gainera, nolakoa da mugimendu lehena? (Honek berebiziko garrantzia du). Bestalde, Platoni ere honetan ez zaio zilegi batzuetan ezarri 1072a) ohi duen printzipioa, hau da, bere burua mugitzen duena, Arima ondorengoa baita eta Ortziaekin batera sortua, berak esaten duenez.

Potentzia egintzaren aurrekotzat hartzea zuzena da zentzu batean, baina beste zentzu batean, ez. (Esana dago zein zentzutan<sup>61</sup>). Egintza 5) aurrekoa dela adierazi dute Anaxagorasek (Adimena egintza baita) eta Enpedoklesek -Maitasuna eta Gorrotoa ezarri-, baita mugimendua betirekoa dela esaten dutenek ere, Leuzipok, kasu.

Beraz, egintza potentziaren aurrekoa baldin bada, ez ziren denboraldi mugagabeen emango Kaosa eta Gaua; aitzitik, gauza berak beti, periodikoki edo beste modu batez <emango zen>. Eta gauza bera periodikoki ematen bada beti, izan beharko da beti egintzan eta berdin 10) ekoizten irauten duen zerbait. Eta genesia eta usteldura eman behar badira, izan beharko da beti egintzan baina modu desberdinez ekoizten duen zerbait: honela, berez; horrela, beste zerbaiti jarraiki. Beraz, bestelako den zerbaiti jarraiki edo errealitate lehenari jarraiki. Horrela, bada, honi 15) jarraiki ekoiztu behar du, nahitaez, hau baita kausa beste horientzat. Beraz, hobe da kausa lehena. Izan ere, haxe da beti eta berdin ekoizten duenaren kausa, eta modu desberdinez ematen denarena, berriz, beste bat da; halaber, biak ala biak dira, argi eta garbi, beti eta modu desberdinez ematen denarenak.

Honelakoak dira, bada, mugimenduak. Orduan, zergatik bilatu behar bestelako printzipiorik?

## VII

Honela gertatzea litekeena denez, eta honela izan ezean dena 20) gautik, gauza guztien nahasturatik eta ez-denetik sortuko litzatekeenez, beude aporia hauek guztiak konponduta. Eta badago beti etengabeko mugimenduz mugitzen den zerbait, eta mugimendu hori zirkularra da (hau arrazonamenduaz ezezik, egitez ere bistakoa da). Beraz, lehenengo Ortzia ere betirekoa izango da eta, ondorioz, mugiarazten duen zerbait ere badago.

Eta mugimenduan dagoena eta mugiarazten duena bitartekoa denez, bada zerbait mugimenduan egon gabe mugiarazten duena, hain zuzen, hau 25) betierekoa, substantzia eta egintza delarik.

Alabaina, honela mugiarazten dute desiragarri denak eta ulergarri denak, beraiek mugitu gabe mugiarazten dutenak. Eta denetan ulergarrienak eta desiragarrienak berberak dira. Izan ere, desiragarria da ona dirudiena, baina adimenaren nahiarentzat, ordea, lehenengoz, ona dena. Horrela, bada, desiratzen dugun hori, ontzat hartzen dugulako da, neurri 30) handi batean, ez desiratzen dugulako ontzat hartu, ulermena printzipioa baita. Bestalde, ulergarri denak mugiarazten du adimena, eta berez da ulergarria zutabe bietako bat, zeinaren termino lehena substantzia den eta honetatik, bakuna eta egintzan dagoena. (Bestalde, "bat" eta "bakuna" ez dira gauza bera, "batek" neurria adierazten duelako eta "bakunak" hori bera nolakoa den).

Baina ongia eta berez hautagarri dena zutabe berean aurkitzen 35) dira; eta lehena beti izaten da onena edo onenaren antzekoa. Bestalde, 1072b) geldiak diren gauzetan "helburu den hori" existitzen dela agerian uzten du honako bereizketa honek: "helburu den hori" zerbaiterako da eta zerbaitena da; azkeneko kasu honetan, "helburu den hori" izan daiteke geldien diren gauzetan, baina bestean, ez. Eta maitatua den aldetik mugiarazten du; gainerakoek, ordea, beraiek mugituak diren aldetik mugiarazten dute. Horrela, bada, mugitzen den zerbait baldin badago, litekeena da 5) hau beste modu batez izatea; beraz, egintza bertako mugimendu

lehena baldin bada, mugitzen den neurrian izan daiteke beste modu batez lekuari dagokionez, substantziari dagokionez aldatu gabe.

Gainera, mugiarazten duen zerbait dagoenez, bera geldia eta egintzan delarik, ezinezkoa da hau beste modu batez izatea, inondik inora. Izan ere, aldaketetan lehena translazioa da eta hauetan, mugimendu zirkularra: hau da, hain zuzen, geldia den mugiarazleak sorturikoa. Beraz, 10) beharrezkoa den zerbait da. Eta beharrezkoa den aldetik, ezin hobe da, eta horrela da printzipioa. Izan ere, "beharrezkoa" honako zentzu hauetan guztietan esaten da: indarrez egiten dena, joeraren kontrakoa izanik; hori, zeinaren ezak ongia eragozten duen; eta beste modu batez izaterik ez duena, dena absolutuki baizik.

Horrela, bada, honelako printzipio batetik zintzilik daude Ortzia eta Natura. Eta printzipio horren egitekoa guk denboraldi labur batean egin 15) dezakegun onena bezalakoa da, hura beti baitago berdin (eta hau, guretzat, ezinezkoa da), haren egintza plazerra delako (horregatik dira hain atsegingarriak esna egotea, sentsazioa eta ulertzea, eta hauei jarraiki, itxaropenak eta oroitzapenak). Bestalde, berezko ulertzea berezko onenaz arduratzen da, eta Ulertze Gorena, onenetan onenaz.

Eta adimenak ulergarri dena bereganatuz ulertzen du bere burua, 20) bereganatuz eta ulertuz suertatzen baita ulergarri; beraz, adimena eta ulergarria gauza bera dira.

Adimena da, hain zuzen, ulergarria dena -substantzia, alegia- jasotzeko gaitasuna, baina egintzan dagoela jasotzen du; beraz, egintzari dagokio bereziki adimenak omen duen jainkozko den hura, eta kontenplazioa da ezin hobe den egintza atsegingarriena.

Horrela, bada, Jainkoa beti egoten bada gu batzuetan egoten garen 25) bezain ongi, zoragarria da; baina oraindik hobeto egoten bada, are zoragarriago. Eta honela egoten da. Eta bizirik dago, adimenaren egintza bizia baita, eta Jainkoa eta egintza gauza bera dira. Eta beraren egintza da, berez, ezin hobe eta betierekoa den bizia. Beraz, Jainkoa ezin hobe eta betierekoa den biziduna dela baieztatzen dugu; ondorioz, Jainkoari dagokio jarraia eta betierekoa den bizialdia: hauxe baita Jainkoa.

30) Bestalde, oker daude ederrena eta ezin hobe dena printzipioan ez dagoela uste dutenak -Pitagorikoak eta Espeusipo, adibidez-,

hauen ustez landareen eta animalien printzipioak ere kausak baitira, baina ederra eta burutua dena haietatik sortuak direnetan aurkitzen da. Izan ere, hazia aurrekoak eta burutuak diren beste batzuetatik sortzen da, eta 35) lehenengoa ez da hazia, burutua dena baizik; adibidez, esan liteke 1073a) gizakia haziaren aurrekoa dela, baina ez hazi honetatik sortuko den gizakia, hazi hau sortarazi duen gizakia baizik.

Esandakoarengatik agerian dago badela betierekoa, geldia eta 5) sentimenezko gauzetatik bereizia den substantziaren bat. Gainera, substantzia honek inolako magnituderik ez duela ere frogatuta dago<sup>62</sup>: ez du zatirik eta zatiezina da. (Izan ere, denbora amaigabe mugitzen du, eta amaiera duen ezerk ez du potentzia amaigaberik; gainera, ezin du ez magnitude amaigabe, ez amaiera duen magnituderik izan, ez baitago inolaz 10) ere magnitude amaigaberik). Eta honekin batera, ikaragaitz eta aldaezina dela ere frogatuta dago, gainerako mugimendu guztiak bertako mugimenduaren ondorengoak baitira.

Begi-bistakoa da, beraz, gauzak honelakoak direla.

## VIII

Honelako substantzia bat ala bat baino gehiago -eta zenbat- ezarri 15) behar den ez da ahaztu beharreko kontua; aitzitik, gogoratu behar da besteen adierazpenek ez dutela ezer garbirik esan aniztasun horretaz. Izan ere, Ideiei buruzko nozioak ez du horren inguruan ezer berririk adierazten (Ideiak baieztatzen dituztenek Ideiak zenbakiak direla esaten dute, baina zenbakiei buruz, batzuetan amaigabeak balira bezala hitz egiten dute eta, 20) beste batzuetan, berriz, dekadara mugatuko bailiran; baina zenbakien aniztasunaren muga honen kausaz ez da ezer zorrotzasun erakuslez gehitzen). Guk, gure aldetik, jadanik ezarritako eta definitutako gauzetan oinarritu behar dugu.

Horrela, bada, Printzipioa, diren guztien lehena, geldia da, bai 25) berez, bai akzidentez, baina mugimendu lehena -betierekoa eta bakararra den mugimendua- sortuz mugitzen du. Gero, mugitzen dena zerbaitek

mugiarazia behar denez eta mugiarazle lehena berez geldia behar denez, eta betiereko 30) mugimendua betiereko den mugiarazle batek sortua behar denez eta, bestalde, geldia den substantzia lehenak eragindako Oroaren translazio sinpleaz gain betiereko diren bestelako translazioak -planetenak, hain zuzen ere- (mugimendu zirkularra duen gorputza betierekoa eta etengabea da; honen demostrazioa Fisikan dago<sup>63</sup>) ikusten ditugunez, nahitaezkoa da translazio hauetako bakoitza ere berez geldia den substantzia betiereko 35) batek mugitua izatea. Izan ere, astroen natura betiereko substantzia bat delarik, mugiarazten dituen ere betierekoa eta mugitua denaren aurrekoa da, eta substantziaren aurrekoa nahitaez da substantzia.

Beraz, esandakoarengatik<sup>64</sup> agerian dago beste horrenbeste substantzia -naturaz betierekoak, berez geldiak eta magnitude gabeak- izan 1073b) behar dela. Gauzak horrela, begi-bistakoa da substantziak direla eta astroen translazioen ordenaren arabera, haietako bat lehenengoa dela eta beste bat, bigarrena.

Bestalde, translazioen kopurua azertu behar da zientzia matematikoetan egokiena den jakinduriaren bidez: Astronomiaren bidez, 5) alegia. Izan ere, hau sentimenezko substantziaz arduratzen da, baina betiereko den aldetik; besteak -aritmetika eta geometria, kasu-, ordea, ez dira inolako substantziaz arduratzen.

Horrela, bada, translazioak, lekualdatuen kopurua baino gehiago direla agerikoa da, baita oso adituak ez direnentzat ere (planeta bakoitzak translazio bat baino gehiago jasotzen baitu).

10) Eta hauen kopurua antzemateko hasiko gara matematikari batzuen teoriak azaltzen; horrela, hain zuzen ere, arrazoituz, zenbaki zehatz bat eman ahal izango dugu. Honez gain, zenbait gauza gu geu aztertuz eta beste zenbait ikertzaileek aztertzen dituztenetatik hartuz, hauxe egingo 15) dugu: azterketa hauei ekiten dietenek guk esandakoaz aparteko iritzia baldin badute, bi iritzia hartu beharko ditugu aintzakotzat; baina jarraitu, zorrotzeneri.



Eudoxok Eguzkiaren eta Ilargiaren translazioak hiruna esferatan jarri zituen: lehenengoa, izar finkoena da; bigarrena, Zodiakoaren 20) erditik pasatzen den zirkuluaren arabera, eta hirugarrena, Zodiakoaren zabalera zeiharka egiten duen zirkuluaren arabera (ilargiaren mugimenduaren zirkulua eguzkiaren mugimenduarena baino zeiharkiago egiten duen zabalera batean dago). Bestalde, planeten 25) mugimendua launa esferatan jarri zuen: lehenengoa eta bigarrena aurreko berak dira (izar finkoen esfera baita denak mugitzen dituen, eta beraren azpian dagoen eta Zodiakoaren erditik pasatzen den zirkuluaren arabera mugimendua duena, hori denek baterako duten esfera da); hirugarren esferak Zodiakoaren erditik pasatzen den zirkuluan ditu poloak; 30) laugarren esferaren mugimendua hirugarrenaren erdiaren arabera zeiharka egiten duen zirkuluaren mugimendua da. Eta hirugarren esferaren poloak berberak dira Afroditararen eta Hermes kasuan, baina gainerako planetek berezko poloak dituzte.

Kalipok, bestalde, Eudoxoren esferen posizio bera ezarri zuen [hots, elkarren arteko distantzien ordena] eta kopuruari dagokionez, 35) Eudoxok beste esleitu zien Zeusi eta Kronosi, baina fenomenoaren azalpena eman ahal izateko, Eguzkiari eta Ilargiari beste bi esfera gehitu behar zitzaizela uste zuen Kalipok, eta gainerako planeta guztiei, esfera bana.

Baina esfera guztiak batera direlarik fenomenoaren azalpena eman 1074a) ahal izateko, nahitaezkoa da planeta bakoitzeko beste horrenbeste esfera ken bat izatea, hauek alderantzizko mugimendua izatea eta azpian dagoen izarraren esfera beti beraren posizio berera eramatea. Izan ere, hau da modu bakarra esfera hauek guztiek planeten translazioak eragin ahal 5) izateko.

Horrela, bada, esferak -non planetak mugitzen diren-, alde batetik, zortzi eta, beste aldetik, hogeita bost dira, eta hauetatik alderantzizko

mugimendua behar ez duten bakarrak dira esfera horiek, non baxuen dagoen planeta mugitzen den; beraz, lehenengo bi planetei alderantzizko mugimendua eragiten dietenak sei izango dira, eta 10) hurrengo lauri, hamasei. Eta kopuru osoa -translazio eragiten dutenak gehi alderantzizko mugimendua eragiten duten esferak- berrogeita hamabost dira. Eta Ilargiari eta Eguzkiari aipaturiko mugimenduak ezartzen ez bazaizkie, esfera guztien kopurua berrogeita zazpi izango da.

Horrela, bada, izan bedi hau esferen kopurua. Beraz, substantziak 15) eta printzipio geldiak [eta sentimenezkoak] beste horrenbeste direlako ustea zentzuzkoa da (nahitaezkoa den ala ez esatea gera bedi adituenentzat).

Eta baldin eta izar baten translazioaren arabera zuzendua ez den inolako translaziorik izatea ezinezkoa bada eta, gainera, natura eta ikaragaitz den substantzia oro eta ezin hobea dena berez lortu duena 20) xedetzat hartu behar bada, orduan ez da hauetaz aparte beste inolako naturarik izango; aitzitik, hauxe izango da, nahitaez, substantzien kopurua. Izan ere, beste batzuk baleude, hauek, translazioaren baten xedea izanik, mugitu egingo lukete. Baina ezinezkoa da aipatutakoez aparte beste translaziorik izatea. Hau zentzuzkoa da lekualdatuak direnei erreparatuz 25) gero. Hain zuzen ere, translazioa eragiten duen oro lekualdatua denari esker ematen bada berez, eta translazio oro lekualdatua den zerbaitena baldin bada, orduan ez da berez inolako translaziorik emango, ezta beste translazio bati esker ere, izarrei esker baizik.

Izan ere, translazio bat beste translazio bati esker emango balitz, azken hau ere beste bati esker eman beharko litzateke; beraz, prozesu amaigabea ezinezkoa denez, Ortzian zehar mugitzen diren gorputz jainkotiarren bat izango da translazio ororen xedea.

30) Bestalde, Ortzia bat bakarra dela begi-bistakoa da. Izan ere, ortzi asko balego -gizakiekin gertatzen den bezala- bakoitzaren printzipioa espezifikoki bat izango litzateke, baina aritmetikoki, ordea, anitz.

Baina aritmetikoki anitz diren gauzek materia dute (askoren nozioa bat 35) eta bera baita, adibidez, "gizakia", baina Sokrates bakarra da). Alabaina, esentzia lehenak ez du materiarik, entelekia baita. Beraz, Mugiarazle Lehena, berau geldia izanik, bat da, nozioari zein kopuruari dagokienez. Eta beti eta etengabe mugitua dena ere, dudarik gabe, da bat. Beraz, Ortzi bakarra dago.

1074b) Bestalde, aitzindari izan ziren aspaldikoengandik mitoen bidez jaso dugu ondorengoentzat geratu zen haien ustea: hauek jainkoak dira, eta jainkozkoak Natura osoa biltzen du. Gainerakoa mitikoki gehitu 5) egin zaio honi, jendea konbentzitu eta legeen eta denen onerako izan dadin. Izan ere, giza irudia dutela, beste animalia batzuen antza dutela, eta honelako eta antzeko baiztapenekin bat datozen beste gauza batzuk ere esaten dituzte. Baina kontu hauetatik guztietatik hasi-hasieran esandakoa bakarrik bereizi eta onartzen bada, hots, substantzia lehenak jainkoak zirelako ustea, orduan haiek jainko baten modura adierazi zutela pentsatu 10) beharko litzateke eta, dudarik gabe, gainerako arteekin eta filosofiarekin konparatuz -hauek askotan aurkitu, ahal zen neurrian, eta berriro galdu egin baitira-, antzinakoen sinesmen hauek erlikia moduan gaur egun arte gorde egin direla. Izan ere, gure arbasoen iritzia eta antzinakoen sinesmenak puntu honetaraino bakarrik ezagutzen ditugu.

## IX

15) Adimenaren inguruko kontuek zenbait aporia sortzen dute. Izan ere, Adimena omen da fenomenoetan jainkozkoena, baina honelakoa izateko nolakoa behar duen izan azaltzeak baditu zailtasun batzuk; alde batetik, ezer ulertzen ez badu, zein ote da beraren duintasuna? Alderantziz, baina: lotan dagoenaren modukoa izango litzateke-eta. Beste aldetik, ulertzen badu, baina horretarako beste zerbaiten menpe baldin badago 20) -beraren substantzia ez delako ulertze-egintza, potentzia baizik-, orduan ez litzateke ezin hobe den substantzia. Izan ere, hobeintasuna ulertze-egintzak ematen dio. Gainera, beraren substantzia ulertzeko potentzia nahiz ulertzea izan, zer ulertzen du? Edo bere burua edo beste zerbait ulertzen baitu. Eta beste zerbait ulertzen badu, edo beti gauza bera, edo beste gauza batzuk. Eta ba al dago alderik "ederra" ulertzearen eta edozer ulertzearen artean?

25) Edo, hobeki esanda, ez al da lekuz kanpokoa gauza jakin batzuk ulertzearena? Beraz, argi dago jainkozkoena eta ezin hobea dena ulertzen duela, eta aldaketarik egin gabe, aldaketa okerrera izango litzatekeelako eta, orduan, nolabaiteko mugimendua. Horrela, bada, lehenengoz eta behin, <Adimena> ulertze-egintza ez bada, potentzia baizik, orduan zentzuzkoa da ulertze-egintza jarraia nekoso suertatzea. Gainera, agerikoa da Adimena baino hobea den beste 30) zerbait egongo litzatekeela: aditua edo ulertua, hain zuzen, ulermena eta ulertze-egintza gauzarik erdeinagarriena ulertzen duenarengan ere ematen baitira; beraz, hau ekidin behar bada (hobe baita zenbait gauza ez ikustea, ikustea baino), Adimena ez litzateke ezin hobea izango. Honen ondorioz, baldin eta Adimena ezin hobea dena bada, orduan bere burua ulertzen du, eta beraren ulertzea ulertzearen ulertzea da.

Baina zientzia, sentsazioa, iritzia eta arrazoinamendua beren 35) burua ez den bestez arduratzen omen dira, eta beren buruaz, aldiberekotasunez bakarrik. Gainera, ulertzea eta ulertua izatea desberdinak baldin badira, biotako zeini dagokio Ongia? Ez baita, inolaz ere, gauza bera ulertzearen izatea eta ulertua izatea. Edo, batzuetan, zientzia al da beraren 1075a) objektua, hots, materiari gabeko <zientzia> ekoizleetan, substantzia eta esentzia, eta teoretikoetan, kontzeptua eta ulertzea? Horrela, bada, Adimena eta aditua desberdinak ez direnez, materiari gabe direnetan gauza bera izango dira, eta ulertzea eta ulertua bat etorriko dira.

5) Oraindik ere aporia bat geratzen da: ulertua konposatua ote den ala ez; izan ere, horrelakoa balitz, <ulertzea> osoaren zatietan aldatu egingo litzateke. Edo, hobeki esanda, materiari ez duen oro zatiezina al da, giza adimena bezala, edo konposatuak direnena bezala, hau zenbait momentutan (ez baitu bere ongia honako zati honetan, edo beste horretan; aitzitik, beraren desberdina den Ongi Gorena osotasun batean aurkitzen da), eta horrela aurkitzen al da, betikotasun guztian, bere buruaz arduratzen den 10) Adimena?

X

Ikertu beharra dago, gainera, nolatan dituen Oroaren naturak Ongia eta Hobezintasuna: bananduriko eta berezko den zerbait bezala,

edo ordena bezala. Edo, agian, bi moduetan, armada bat bezala? Izan ere, honetan ordena da ongia, 15) baita jenerala ere; eta hau, bereziki, jenerala ez baitago ordenari esker, ordena jeneralari esker baizik.

Bestalde, gauza guztiak -arrainak, hegaztiak, landareak- nolabaiteko ordena baten arabera daude elkarturik, baina ez modu berean; eta ez daude elkarren erlazorik ez balute bezala, zerbait bai baitago. Izan ere, gauza guztiak helburu bakar bati begira daude elkarrekin ordenaturik, baina etxe batean bezala gertatzen da: aske direnek gauza gutxi egin dezakete beren 20) kasa, dena edo gehiena ordenaturik baitago; baina esklaboek eta animaliek, ordea, ezer gutxi egiten dute denen onerako eta, askotan, beren kasa aritzen dira. Izan ere, honelakoa da banako bakoitzaren naturaren printzipioa. Esan nahi dut, adibidez, gauza guztiak deuseztatuak izatera iritsi behar direla, behintzat; eta badira, halaber, gauza guztiek baterako 25) duten Oroan parte hartzeko beste modu batzuk.

Bestalde, ez dira alde batera utzi behar hau beste modu batez azaltzen dutenei sortzen zaizkien zailtasunak, ez ongien azaldu dutenen iritzia, ezta aporiak noiz diren arinagoak ere.

Izan ere, denek sortarazten dute dena kontrakoetatik, baina ez dira adierazpen zuzenak ez "dena" eta ez "kontrakoetatik", eta kontrakoetan 30) ematen diren gauzak kontrakoetatik nola sortuko diren ere ez dute esaten; izan ere, kontrakoek ez dute elkar afektatzen. Guk, berriz, hirugarren termino baten bidez konpontzen dugu hau.

Bestalde, batzuek beste kontrakoa hartzen dute materiatzat, hala nola Desberdina Berdinarena, edo Anitz Batarena. Baina hau ere berdin konpontzen da, materia, bat delarik, ez baita ezeren kontrakoa. Gainera, 35) Batak izan ezik, gauza guztiek hartuko dute parte Gaizkian, Gaizkia Bera baita osagaietako bat. Beste horiek, berriz, ez dute ez Ongia, ez Gaizkia printzipiotzat hartzen. Alabaina, Ongia da printzipioetan printzipioena.

Beste batzuek zuzen hartzen dute Ongia printzipiotzat, baina ez dute esaten nolatan den printzipio: xedea bezala, mugiarazle bezala edo 1075b) forma bezala. Enpedoklesen azalpena ere zentzugabea da;

honen ustez, Ongia Adiskidetasuna da, hau printzipio mugiarazle (bildu egiten du) zein materia (nahasturaren zatia da) izanik. Baina, akzidentalki, 5) printzipio materiala eta printzipio mugiarazlea gauza berean bat izanda ere, bataren eta bestearen izatea, behintzat, ez dira bera. Orduan, biotatik zeinetan da printzipio Adiskidetasuna? Bestalde, lekuz kanpoko da Gorrotoa ustelgaitza izatea, berari baitagokio Gaizkiaren natura.

Anaxagorasek, hain zuzen ere, printzipio mugiarazlea hartu du Ongitzat, Adimenak mugitu egiten baitu. Baina honek "zerbaitetarako" mugitzen du; beraz, Ongia beste zerbait da, guk esaten dugun moduan ez 10) bada, hots, Medikuntza, nolabait, Osasuna dela. Bestalde, Ongiari -Adimenari, alegia- kontrakorik ez jartzea ere lekuz kanpoko da.

Baina kontrakoak baieztatzen dituztenak ez dira kontrakoez baliatzen, norberak zehazten ez baditu. Eta zergatik diren gauza batzuk ustelgarriak eta beste batzuk ustelgaitzak ez du inork ere esaten, printzipio beretatik sortarazten baitituzte diren guztiak. Gainera, badira batzuk diren 15) guztiak ez-denetik sortarazten dituztenak eta beste batzuk, hartara behartuak ez izateko, diren guztiak bakar bat bilakatzen dituztenak. Gainera, inork ez du azaltzen zergatik izango den beti genesia, ezta zein ote den honen kausa ere. Eta bi printzipio ezartzen dituztenentzat derrigorrez egon beharko da nagusiagoa den beste printzipio bat. Eta Formak ezartzen dituztenentzat, are nagusiagoa den beste bat; izan ere, zer dela eta 20) parte hartu izana edo parte hartzea? Eta gainerako guztientzat derrigorrezkoa da Jakinduriak eta Zientzia Gorenak kontrakoren bat izatea, baina guretzat, ez; izan ere, Lehenak ez du inolako kontrakorik, kontrako guztiek materia baitute eta potentzian ematen dira. Bestalde, kontrako ezjakintasuna †kontrakoari dagokio, baina Lehenak ez du inolako kontrakorik.

Gainera, sentimenezko gauzez aparte ezer ez balego, ez litzateke 25) izango ez printzipiorik, ez ordenarik, ez genesiarik, ez ortzirik; aitzitik, beti izango litzateke printzipioaren printzipio bat, teologo eta fisikari guztiei gertatzen zaien bezala. Bestalde, Formak edo Zenbakiak existituko balira, hauek ez lirateke ezeren kausa izango; eta zerbaiten kausa balira, ez, behintzat, mugimenduarena.

Gero, nola sortuko lirateke magnitudea eta jarraia magnituderik ez duten gauzetatik? Zenbakiak ezin baitu jarraia den ezer 30) sortu, ez mugiarazle bezala, ez forma bezala. Bestalde, kontrakoetatik bati berari ere ez dagokio ekoiztea edo mugiaraztea, litekeena baita ez existitzea; horrela, bada, ekoiztea potentziaren ondorengoa litzateke. Beraz, direnak ez lirateke betierekoak izango. Baina, hala ere, badira; ondorioz, lehenago aipaturiko zerbait ezabatu beharko da. Eta esana dago nola<sup>65</sup>.

Gainera, zenbakiak zergatik diren bat, edo zergatik den bat arima 35) eta gorputza, edo, orokorrean, forma eta gauza; kontu hauez guztiez ez du inork ezer ere esaten. Eta esatea ere ezinezkoa da, baldin eta ez badute esaten, gure moduan, mugiarazle den horrek egiten duela.

Eta lehena Zenbaki Matematikoa dela eta, ondorioz, beti izaten dela hurrengo substantziaren bat eta hauetako bakoitzaren printzipioak desberdinak direla esaten dutenek, gertakari-segida bihurtzen dute Oroaren 1076a) substantzia (substantzia batek - hau izan ala ez izan- ez baitio ezer gaineratzen beste bati) eta printzipio anitz ezartzen dute.

Baina diren guztiek ez dute gaizki gobernatuak izan nahi:

"Askoren gobernu ez da ona; izan bedi bat gobernaria"<sup>66</sup>

HAMAHIRUGARREN LIBURUA (M)

I

Sentimenezko gauzen substantzia zein den azalduta geratu zen Fisikaren materiari buruzko ikerlanean eta, ondoren, egintzat 10) hartutako substantziaz arduratu ginenean. Baina sentimenezko substantziez aparte betiereko substantzia geldirik dagoen ala ez, eta, izatekotan, hau zein den ikertzen ari garenez, lehenengoz besteek esandakoa kontuan hartu behar dugu, zerbaitetan huts egin badute akats beraietan eror ez gaitezen, eta zerbaitetan iritzi berekoak bagara, horregatik 15) atsekabe ez gaitezen. Izan ere, nahikoa da norbaitek zenbait gauza hobeki azaltzea eta besteek ez okerrago.

Bi dira gai honi buruzko iritziak: batzuen iritiz, errealitate matematikoak -zenbakiak, lerroak eta beste generokideak, alegia- dira substantziak eta, bestalde, Ideiak. Hala ere, bi errealitate horietan batzuek bi 20) genero bereizten dituzte -Ideiak eta Zenbaki matematikoak,

hain zuzen ere-; beste batzuek, berriz, izaera bakar bat ezartzen dute bietarako; eta beste batzuentzat, Errealitate matematikoak bakarrik dira substantziak. Hau dela eta, Errealitate matematikoak aztertu behar ditugu lehenengoz, hauei beste inolako naturarik gehitu gabe: ez dugu galdetu behar, adibidez, Ideiak ote diren ala ez, edo den guztiaren printzipioak edo substantziak ote diren; 25) aitzitik, galdetu behar dugu ea Errealitate matematikoak existitzen diren ala ez eta, existitzen badira, nolakoak diren, besterik ez.

Honen ondoren, bereziki arituko gara Ideiez beraiez, azaletik eta gure ikerketarako interesgarri den neurrian, gai honetaz gauza asko esan baita behin eta berriz, baita adierazpen exoterikoetan ere. Gainera, gure arrazoibideak, neurri handi batean, gai horren argitzeari ekin beharko dio 30) diren guztien substantziak eta printzipioak Zenbakiak eta Ideiak ote diren ikertzen dugunean, Ideiak aztertu ondoren hirugarren ikerketa hau geratuko baitzaigu.

Bestalde, Errealitate matematikoak existitzen baldin badira, edo sentimenezko gauzetan izango dira -batzuek esan bezala-, edo sentimenezko gauzetatik bananduak izango dira (hau ere batzuek esaten 35) dute); eta bi moduotan ematen ez badira, edo ez dira existitzen, edo bestela existitzen dira. Beraz, gure eztabaida ez da berauen existentziaz izango, existitzeko moduz baizik.

## II

<Errealitate matematikoek> sentimenezko gauzetan existitu ezin dutela eta teoria hau fantasia hutsa dela esana dago Aporiei buruzko 1076b) ikerketan<sup>67</sup>, bi solido aldi berean toki berean egokitzea ezinezkoa dela eta, arrazoi berarengatik, sentimenezko gauzetan gainerako potentziak eta naturak ere -bat bera ere banandurik izan gabe- izango liratekeela azaldu genuenean. Arrazoi hauek lehenago eman ziren; baina hauez gain, agerian 5) dago edozein gorputz zatitua izatea ezinezkoa litzatekeela, hau luze-zabalera batean zatitu beharko bailitzateke, eta hau lerro batean, eta hau puntu batean; beraz, puntua zatitzea ezinezkoa bada, lerroa zatitzea ere bai, eta hau ezinezkoa bada, gainerakoak zatitzea ere bai. Horrela, bada, hauek horrelako naturak direla baieztatzea, edo horiek horrelako naturak ez direla baina beraietan horrelako naturak ematen direla esatea, zertan bereizten 10) dira? Ondorioak, hain zuzen



ere, berdintsuak izango dira, sentimenezko gauzak zatitzean haiek ere zatituak izango baitira edo, bestela, sentimenezko gauzak ere ez dira zatituko.

Baina horrelako naturak bananduak izatea ere ezinezkoa da. Izan ere, sentimenezko gauzez aparteko solidoak izango balira -hauetatik bananduak, desberdinak eta aurrekoak-, argi dago azalerez aparte beste 15) azalera banandu batzuk ere izango liratekeela, eta puntuak eta lerroak (arrazoi berarengatik). Eta horrela bada, solido matematikoaren azalera, lerro eta puntuez aparte bestelako azalera, lerro eta puntu banandu batzuk izango dira (gauza bakunak osatuen aurrekoak baitira; eta sentimenezko ez 20) diren gorputzak sentimenezkoen aurrekoak badira, arrazoi berarengatik berezko azalerak beraiek solido geldietan ematen diren azalaren aurrekoak izango dira; beraz, azalera eta lerro hauek, solido bananduekin batera ematen direnen desberdinak izango dira, hauek solidoekin batera ematen baitira eta haiek, berriz, solido matematikoen aurrekoak dira.)

25) Eta, berriro, azalera hauek lerroak izango dituzte, baina, arrazoi berarengatik, hauen aurrean beste lerro eta puntu batzuk izan beharko dira; eta aurreko lerroen puntu hauei dagokienez izango dira beste aurreko puntu batzuk zeintzuen aurreko punturik jadanik izango ez den. Horrela, bada, metaketa zentzugabea sortzen da. (Hauxe gertatzen baita: 30) sentimenezkoez aparteko solidoak bakarrak dira, baina azalerak, berriz, hiru motakoak dira -sentimenezkoez apartekoak, solido matematikoetan ematen direnak eta azken hauetan ematen direnez apartekoak-, lerroak lau motakoak eta puntuak bost motakoak; beraz, zein izango dira zientzia matematikoen ardura? Ez dira arduratuko, jakina, solido geldian ematen diren azalerez, lerroez eta puntuez, beti aurrekoak diren gauzez arduratzen baita zientzia.)

Eta gauza bera esan daiteke zenbakiei buruz, puntu-mota bakoitzaz aparte eta errealitate-mota bakoitzaz aparte -sentimenezkoez nahiz adimenezkoez- beste unitate batzuk izango baitira; beraz, zenbaki matematikoen generoak izango dira.

Gainera, nola ebatziko dira Aporiei buruzko ikerketan azaldu 1077a) genituen aporiak?<sup>68</sup> Izan ere, astronomiak ikertzen dituen objektu

horiek sentimenezkoez aparte existituko dira, eta berdin geometriak ikertzen dituenak. Eta ortzia eta beraren zatiak, edo beste edozein gauza mugikor, nola litezke horrela existi? Eta berdin optikaren eta musika-

ren 5) objektuei dagokienez, sentimenezkoez eta banakoez aparteko soinu eta ikusmena izango baitira; beraz, argi dago gainerako sentsazioak eta gainerako sentimenezko gauzak ere existituko direla. Hau dela eta, zergatik existitu hauek eta beste horiek ez? Baina gauza hauek existituz gero, Animaliak ere existituko dira, sentsazioak existitzen baitira.

Gainera, matematikariek adierazitako zenbait axioma unibertsal 10) substantzia hauez apartekoak dira. Horrela, bada, beste bitarteko substantziaren bat izango da, Ideietatik eta Bitarteko errealitateetatik banandua, hau ez zenbakia, ez puntuak, ez magnitudea ezta denbora ere ez dena. Hala ere, hau ezinezkoa bada, argi dago haiek sentimenezko gauzez aparte existitzea ere ezinezkoa izango dela.

Eta, orokorrean, errealitate matematikoak horrelakoak direla 15) -natura banandu modukoak- baieztatzen bada, egiaren eta iritzi arruntaren kontrako ondorio bat suertatuko da, horrelakoak izateagatik, sentimenezko magnitudeen aurrekoak izango baitira nahitaez, egiatan ondorengoak badira ere. Izan ere, magnitude osagabea aurrekoa da genesiari dagokionez, baina ondorengoa substantziari dagokionez, arimagabea arimadunarekiko bezala.

20) Bestalde, noiz eta zer dela eta osatzen dute batasun bat magnitude matematikoen? Mundu honetako gauzak, hain zuzen ere, arima edo arimaren zati batengatik edo beste gauza egokiren batengatik dira batasun bat (bestela, aniztasun bat lirateke eta barreiatu egingo lirateke); baina errealitate haietarako, haiek zatigarriak eta kantitadedunak izanik, zein da batasun bat osatzearen eta elkaturik jarraitzearen kausa?

25) Gainera, beren genesiek agerian uzten dute: lehenengoz, luzeran sortzen dira, gero zabaleran eta, amaitzeko, sakonean, horrela osakuntza osoa lortzen dutelarik. Beraz, genesiari dagokionez ondorengoa dena substantziari dagokionez aurrekoa baldin bada, gorputza zabaleraren eta luzeraren aurrekoa izango da; hau dela eta, burutua ere izango da

eta, neurri handi batean, osotasun bat, arimadun izatera iristen delako. Bestalde, 30) lerro bat edo zabalera bat, nola izan litezke <arimadunak>? Horrelako ustea gure sentimenezko ezagutzatik kanpo geratzen da.

Gainera, gorputza substantziaren bat da (nolabait buruturik baitago jadanik), baina lerroak, nola izango dira substantziak? Ez, behintzat, forma eta konstituzio modura -arima omen den bezala-, ezta materia modura ere -gorputza, adibidez-, ez baitirudi lerroz, zabaleraz eta puntuz ezer osa 35) daitekeenik; hala ere, errealitate hauek nolabaiteko substantzia materiak bat izango balira, halako afekzioak jasateko gai azalduko lirateke.

Demagun, bada, definizioari dagokionez aurrekoak direla; baina 1077b) definizioari dagokionez aurrekoak diren gauza guztiak ez dira aurrekoak substantziari dagokionez. Izan ere, substantziari dagokionez, bananduak direlarik, izateari dagokionez nagusiagoak diren horiek dira aurrekoak, eta definizioari dagokionez, horiek zeinen definizioak besteen definizioetan sartzen diren; baina bata eta bestea ez dira batera ematen. Izan ere, afekzioak substantziez aparte ematen ez badira -adibidez, 5) "mugimenduan egon" edo "zuria"- "zuria" definizioari dagokionez izango da "gizaki zuriaren" aurrekoa, baina ez substantziari dagokionez, ezin baitu banandurik eman, osatuarekin batera baizik (eta "osatua" gizaki zuriari esaten diot).

Beraz, agerian dago kendutakoa aurrekoa ez dela, ezta gehitutakoa 10) ondorengoa ere; horrela, "gizaki zuria" "zuriari" <"gizaki"> gehituz adierazten da.

Horrela, bada, nahikoa azalduta dago <Errealitate matematikoak> gorputzekin alderatuta ez direla neurri handiagoz substantzia, eta ez direla sentimenezko gauzen aurrekoak izateari dagokionez, definizioari dagokionez baizik; eta, azkenik, ezin direla inolaz ere bananduta existitu. 15) Eta sentimenezko gauzetan izatea ere ezinezkoa denez, agerian dago, edo ez direla, besterik gabe, edo badirela nolabait, baina ez zentzu absolutuan. Izan ere, "izan" zentzu askotan esaten dugu.

### III

Matematikarien proposizio unibertsalak magnitudeez eta zenbakiez aparteko gauza bananduei buruzkoak ez diren bezala, magnitudeei eta zenbakiei buruzkoak baizik -baina ez horrelakoak diren 20) aldetik, hots, magnitudedunak eta bananduak-, argi dago sentimenezko magnitudeei

buruz ere esakuneak eta demostrazioak izan daitezkeela, ez sentimenezkoak diren aldetik, ezaugarri zehatzak dituzten aldetik baizik. Izan ere, sentimenezko gauzei buruzko esakune asko, horiek mugimenduan dauden aldetik bakarrik adierazten dira -gauza bakoitzaren zerkia eta akzidenteak alde batera utzirik-, baina horregatik ez da nahitaez 25) izan behar sentimenezko gauzez aparte mugitzen den ezer edo haien baitako beste natura zehazturen bat. Era berean, gauza mugikorrez ere izango dira esakuneak eta zientziak, ez mugikorrek diren aldetik, gorputzak diren aldetik baizik; eta, berriro, zabalerak diren aldetik, eta luzerak diren aldetik, eta zatigarriak diren aldetik, eta zatiezinak eta posiziodunak diren 30) aldetik, eta zatiezinak diren aldetik.

Beraz, gauza bananduak ezezik ez-bananduak ere existitzen direla, besterik gabe esatea egia denez (adibidez, gauza mugikorrek badaudela), Errealitate matematikoak existitzen direla -eta esaten duten modukoak direla- besterik gabe esatea ere izango da egia. Eta gainerako zientziak 35) objektu zehatz batez arduratzen direla -ez akzidenteaz (adibidez, ez zuriaz, osasuntsua zuria baldin bada eta zientzia osasuntsu denaz 1078a) arduratzen bada), zientzia bakoitzaren objektuaz beraz baizik (osasuntsu denaz, osasuntsu den aldetik ikertzen badu, eta gizakiaz, gizakia den aldetik ikertzen badu)-, hau besterik gabe esatea egia den bezala, geometriaz ere gauza bera esan daiteke: ikertzen dituen gauzak akzidentalki sentimenezkoak izan arren -ez baititu sentimenezkoak diren aldetik ikertzen-, zientzia matematikoak ez dira sentimenezko gauzez arduratuko, ezta, jakina, hauez aparteko beste gauza bananduez ere.

5) Bestalde, ezaugarri asko berezko akzidenteak dira gauzetarako, ezaugarri horiek gauzetan ematen diren aldetik, animaliak ere, ar eta eme diren aldetik berezko afekzioak baititu (animaliengandik "ar" eta "eme" banandurik ez egon arren). Beraz, luzerak diren aldetik eta zabalerak diren aldetik ere bai. Eta zientziaren objektua sinpleagoa eta definizioari dagokionez aurrekoagoa den neurrian, zientzia zehatzagoa izango da 10) (zehaztasuna sinpletasuna baita); beraz, magnituderik gabe magnituderekin baino zehatzagoa izango da eta are zehatzagoa mugimendurik gabe;

eta mugimendua izanez gero, mugimendu lehenaz arduratzen baldin bada, zehatz-zehatza izango da, mugimendu lehena sinpleena baita eta hauetatik, uniformea.

Eta gauza bera esan daiteke harmoniari eta optikari buruz, bata 15) eta besteak aztertzen dituztenek ez baitituzte ikusmen edo soinu diren aldetik aztertzen, lerroak eta zenbakiak diren aldetik baizik (bestalde, hauek haien afekzio partikularrak dira), eta berdin mekanikak; beraz, objektu hauek akzidenteetatik bananduak direlakoan eta horrelakoak diren aldetik ikasten badira, ez da horregatik huts egingo, lurrean oin bateko ez den lerro bat eginda oin batekoa dela esatean ere huts egiten ez den bezala, hutsegitea 20) ez baitago premisetan. Bestalde, hau da objektu bakoitza ikasteko metodarik onena -banandurik ez dagoena banandutzat hartzea, alegia-, aritmetikariak eta geometrialariak egiten dutena. Gizakia, hain zuzen ere, gizakia den aldetik bat eta zatiezina da. Hau dela eta, aritmetikariak gizakia zatiezintzat hartzen du eta, ondoren, zatiezina den aldetik ezaugarririk ote 25) dagokion ikasten du; bestalde, geometrilariak ez du ikasten ez gizaki den aldetik, ez zatiezina den aldetik, solido den aldetik baizik, zatiezina ez delarik ere harengan eman litezkeen ezaugarriak, bi ezaugarri haiek kontuan hartu gabe ere eman baitaitezke, zalantzarik gabe. Beraz, geometrialariek zuzenki hitz egiten dute, diren gauzez hausnartzen dute, eta beraien ikergaia den-a da, "den-a" bi modutan esaten baita: bata entelekian eta bestea materia 30) moduan.

Eta Ongia eta Edertasuna errealitate desberdinak direnez (hura, hain zuzen ere, ekintzan ematen da beti, eta Edertasuna, berriz, gauza geldietan ere ematen da), zientzia matematikoez Ongiaz edo Edertasunaz ezer esaten ez dutela baieztatzen dutenak oker daude. Aitzitik, haiez hitz 35) egiten dute eta neurri handian erakusten dituzte. Izan ere, aipatzen ez badituzte ere, beraien obrak eta arrazonamenduak erakusten dituztenez haiei buruz hitz egiten dute. Bestalde, Edertasunaren formarik gorenak 1078b) ordena, proportzioa eta mugatzea dira, zientzia matematikoez neurri gorenean erakusten dituztenak, alegia. Eta hauek (adibidez, ordena eta mugatzea) behintzat, gauza askoren kausa direnez, argi dago honelako kausaz ere nolabait hitz egingo dutela, hau da, Edertasuntzat hartutako kausaz.

5) Baina honi buruz zehatzago hitz egingo dut beste leku batean.

IV<sup>69</sup>

Horrela, bada, esanarekin nahikoa azalduta dago errealitate matematikoak diren gauzak direla, eta nolabaitekoak direla ere, eta zentzu batean aurrekoak direla baina beste zentzu batean, ez. Eta Ideiei dagokienez, 10) Ideiei buruzko doktrina bera aztertu behar dugu lehenengoz, Zenbakien izaeratik guztiz aparte, hasieran Ideien existentzia baieztatu zuten lehenengoek onartu zuten bezala.

Ideiei buruzko doktrina baieztatzen dutenei, hau Heraklitoren egiari buruzko argumentuekin bat etortzeagatik bururatu zitzairen; haren ustez, sentimenezko gauza guztiak betiereko isurian daude; beraz, zerbaiten 15) zientzia eta ezagutza izan behar bada, sentimenezkoek aparte beste natura iraunkorrak izan beharko dira, isurtzen diren gauzen zientziarik ez baitago.

Sokrates, bestalde, bertute etikoak bilatzeaz arduratzen zena, haiei buruzko definizio unibertsalak bilatu zituen lehenengoa izan zen. Izan ere, 20) fisikarien artean Demokritok bakarrik aztertu zuen gaia neurri txiki batean eta, nolabait, beroa eta hotza definitu zituen. Lehenago, Pitagorikoak zenbait gauza definitzeaz arduratu ziren, hauen kontzeptuak zenbakietara murriztuz; adibidez, Aukera Egokia, edo Bidezkoa, edo Lotura zer diren. Sokratesek, berriz, zerkia bilatu nahi zuen, arrazoi osoz, silogismoen bidez 25) arrazoitu nahi baitzuen, eta zerkia silogismoen printzipioa da. Dialektika, hain zuzen ere, ez zen orduan nahikoa boteretsua zerkiaz aparteko kontrakoak ikertu ahal izateko eta kontrakoena zientzia bat eta bera den ikertzeko. Horrela, bada, zuzentasunez bi gauza onar dakizkioke Sokratesi: arrazoibide induktiboak eta definizio unibertsalak; biak ala biak, hain zuzen ere, zientziaren printzipioari dagozkio.

30) Hala ere, Sokratesek ez zituen banantzen ez unibertsalak, ez definizioak, baina besteek banandu egin zituzten eta haiei "diren gauzen Ideiak" deitu zieten; beraz, arrazoi beragatik, unibertsalki esaten diren

gauza guztietatik Ideiak daudela onartu behar izan zuten, norbaitek gauzak zenbatu nahian errealitate gutxi izateagatik ezinezkoa zela pentsatuko 35) baitzukeen, eta errealitate gehiago erantsi ondoren zenbatzea baitzukeen.

Izan ere, nolabait esateko, Formak sentimenezko banakoak 1079a) -zeintzuen kausak bilatzen baitituzte eta zeintzuetatik errealitate haietara iritsi baitziren- baino ugariagoak dira, gauza bakoitzarentzat izenkide den zerbait baitago substantziez aparte, eta gainerako gauzentzat "bat askoren gainean", bai hemengo gauzentzat, bai betierekoentzat.

5) Gainera, Formak badirela frogatzeko erabiltzen diren argumentuetatik batek berak ere ez du argi adierazten, argumentu batzuetatik ez baita derrigorrez silogismo bat sortzen, eta beste batzuetatik, berriz, beren ustez <Formarik> ez duten gauzen Formak ere sortzen dira. Zientzien arrazoinamenduen arabera, zientziek lantzen dituzten gauza horien Formak izango dira, eta "bat askoren gainean" argumentuaren arabera, 10) ezeztapenenak ere bai; eta usteldutakoaz zerbait pentsatzea dagoen neurrian, ustelgarrien Formez ere bai, hauen irudikapen bat baitago.

Gainera, arrazoinamendu zorrotzenak hartuz, batzuek erlazioen Ideiak ezartzen dituzte, nahiz eta beren baitan genero izatea ukatzen duten, eta beste batzuek "hirugarren gizakia" baieztatzen dute.

Azken batean, Formei buruzko arrazoinamenduek errealitateak, 15) zeintzuen izatea Ideiena baino nahiago baitute Formak baieztatzen dituztenek, ezabatzen dituzte, gertatzen baita Diada ez dela lehenengoa, Zenbakia baizik, erlatiboa bere baitan den-aren aurrekoa dela, eta Ideien doktrinari jarraituz haien printzipioekin kontrajarriak diren ondorio horiek guztiak.

Gainera, Ideiak badirela esaten duten suposizioaren arabera, ez 20) dira substantzien Formak bakarrik izango, baizik eta beste gauza askorenak ere bai (alabaina, pentsamenduaren bata ez dagokie substantziei bakarrik, baizik eta gainerako gauzei ere bai, eta zientziak ez dira substantziarenak bakarrik, baizik eta bestelako gauzenak ere bai, eta honelako beste hamaika ondorio gertatzen da); baina haiei buruzko 25) doktrinaren ezinbesteko ondorioen arabera, Formak parte hartzeko modukoak badira, substantzien Ideiak bakarrik izango dira, ezinbestez, ez baita haietan akzidentalki parte hartzen, <Ideia> bakoitzean -azpigai batez esaten ez den aldetik- parte hartu baizik. (Esan nahi dut, adibidez, zerbaitek Bikoitza Bere Baitan den horretan parte hartzen badu, Betiereko den horretan ere parte hartzen duela, baina akzidentalki, akzidentalki baita 30) bikoitza Betierekoa). Beraz, Formak substantzia izango dira; baina substantzia adierazten dutenak gauza berberak dira han eta hemen. Bestela, zer esan nahi ote du hauetaz aparte zerbait dagoela, "bat askoren gainean" baieztatzeak? Eta Ideien espeziea eta hauetan parte hartzen duten gauzena 35) espezie bera baldin bada, zerbait baterako izango da. (Izan ere, zergatik diada ustelgarrien eta anitz eta betierekoak direnen artean ote da Diada bakarra eta bera, eta ez honen eta beste baten artean?). Baina espeziea bera ez 1079b) bada, izenkideak izango dira, norbaitek Kaliasi nahiz egur-puska bati "gizakia" deituko balie bezala, bien artean baterako ezer ere antzeman gabe. Eta gainerako gauzei dagokienez, definizio arruntak Ideietara 5) egokitzen direla ezartzen badugu -adibidez, "Bera" gehituz, "irudi



laua" eta definizioaren gainerako zatiak "Zirkulua Bera-ra" egokitzen direla- aztertu behar dugu hau guztiz hutsala ez ote den. Izan ere, zeri gehituko zaio "bera"? "Erdiari", "lauari", edo definizioaren zati guztiei? Substantzian sartzen diren gauza guztiak Ideiak izango baitira, adibidez "Animalia" eta 10) "Hankabikoa". Gainera, argi dago "Bera", "laua" bezala, zerbait izango dela, genero modura Forma guztietan emango den naturaren bat, alegia.

V

Hala ere, sortuko den aporiarik garrantzitsuena hau izango da: sentimenezko gauzei, bai betierekoei, bai sortzen eta usteltzen direnei, zer gehitzen ote diete Formek? Izan ere, haientzat ez dira kausa, ez 15) mugimenduarena, ez inolako aldaketarena. Baina, bestalde, gainerako gauzen zientziari ez diote ezertan laguntzen (Formak ez baitira hauen substantzia; izango balira, haietan emango lirateke), ezta izateari ere, beraietan parte hartzen duten gauzetan ematen ez direlako. Horrela balitz, 20) agian pentsa liteke zuriarekin nahasten den zuria bezala direla kausak, baina argumentu hau -lehenengoz Anaxagorasek eta ondoren, aporiak aztertzen zituenean Eudoxok eta beste zenbaitek aurkeztua- gezurtatzen erraza da (iritzi honen kontra arazo konponezin asko bil baitaiteke). Bestalde, gainerako gauzak <zerbait beste zerbaitetik datorrela> esan ohi den 25) beste zentzutan ere ez datoz Formetatik. Eta Formak ereduak direla eta gainerako gauzek beraietan parte hartzen dutela esatea hutsala da, metafora poetikoak esatea, besterik ez. Izan ere, zein da Ideiei begira iharduten duen egilea? Bestalde, litekeena da inongo eredurik gabe edozer izatea edo sortzea; horrela, bada, Sokrates izan

ala izan ez, Sokrates bezalako zerbait sor 30) liteke eta, jakina, berdin Betiereko Sokrates izango ez balitz ere. Eta gauza berarako eredu anitz izango da; beraz, Formak ere bai; adibidez, gizakiarentzat, Animalia eta Hankabikoa eta, aldi berean, Gizakia Bera.

Gainera, Formak sentimenezko gauzen ereduak izan ez ezik, euren ereduak ere izango dira; adibidez, espezieen generotzat hartutako generoa. Beraz, gauza bera, aldi berean, eredu eta kopia izango da.

35) Gainera, ezinezkoa dirudi substantzia eta hori, zeinaren 1080a) substantzia den, bananduak izateak. Beraz, Formak, gauzen substantziak izanik, nola izan litezke hauetatik bananduak?

Fedonen hori esaten da, Formak sortzearen eta izatearen kausak omen direla, alegia. Hala ere, Formak izanik ere, gauzak ez dira sortzen 5) kausa mugiarazlerik ez badago; eta, bestalde, Formarik ez omen dagokien beste gauza asko ere sortzen dira; adibidez, etxe bat edo eraztun bat; beraz, argi dago haien ustez Formarik ez dagokien gauza haiek ere izan eta sor daitezkeela, ez Formengatik, oraintxe aipatu ditugun gauzen kausa beraiegatik baizik.

10) Bestalde, aurkezturiko bezalako argumentu asko bil daiteke Ideiei buruz, bai honela, bai arrazoizko argumentu zorrotzagoen bidez.

VI

Gauza hauei buruz azalpen egokiak eman ditugunez, komenigarria da zenbakiei buruz substantzia bananduak eta diren gauzen kausa lehenak direla baieztatzearen ondorioak berraztertzea.

15) Batzuek esan bezala zenbakia naturaren bat baldin bada, eta beraren substantzia zenbakia bera izatea besterik ez bada, nahitaez ondorengoa gertatuko da: edo lehena den zenbaki bat eta bigarrena den beste bat izango dira -hauetako bakoitza espezifiki desberdina izanik- eta hau unitateetan beraietan ematen da, edozein unitate beste edozein unitaterekin 20) konbinaezina delarik, edo unitate guztiak jarraian

ematen dira, edozein unitate beste edozein unitaterekin konbinagarria delarik, zenbaki matematikoeekin gertatzen omen den bezala (zenbaki matematikoan unitateak ez baitira ezertan bereizten); edo zenbait unitate konbinagarriak dira eta beste zenbait ez (adibidez, Bataren ondoren Diada Lehenaren baldin 25) badator, eta jarraian Triada, eta horrela gainerako zenbakiak, eta zenbaki bakoitzaren unitateak konbinagarriak dira; adibidez, Diada Lehenarenak haien artean konbinagarriak dira, eta Triada Lehenarenak euren artean konbinagarriak, eta horrela gainerako zenbakietan, baina Diada Berarenak Triada Berarenekin konbinaezinak dira, eta berdin beste ondorengo 30) zenbakiekin. Horregatik, zenbaki matematikoa bataren ondoren bira jarritz kontatzen da, bat bati beste bat gehituz; eta biaren ondoren hirua, bi hauei beste bat gehituz, eta horrela gainerako zenbakiak. Beste zenbaki-mota honetan, berriz, Bataren ondorengo Bira desberdina da eta bere baitan ez dago Bat Lehenaren; eta Triadaren baitan ez dago Diada, eta berdin gainerako zenbakiak); edo zenbaki-mota bat lehenengoz esandakoa bezalakoa da, beste bat matematikariek esaten duten bezalakoa eta hirugarrena, azkenik aipaturikoa bezalakoa.

Gainera, zenbaki hauek, edo gauzetatik bananduak dira, edo ez 1080b) dira bananduak, sentimenezko gauzetan baizik (baina ez hasieran aztertzen genuen moduan, baizik eta zenbakiak sentimenezko gauzen osagaiak balira bezala), edo zenbait zenbaki bananduak dira eta beste zenbait ez, edo denak.

5) Horrela, bada, hauek dira, nahitaez, zenbakiak izan daitezkeen modu guztiak, eta Bata gauza guztien printzipioa, substantzia eta osagaia dela, eta zenbakia Batetik eta beste zerbaitetik datorrela baieztatu duten gehienek hauetako moduren bat aipatu dute, unitate guztiak konbinagarriak diren modua izan ezik. Eta arrazoizkoa da horrela izan dela, 10) aipaturiko moduez aparte beste modu bat izatea ezinezkoa baita.

Batzuek, hain zuzen ere, bi zenbaki-motak ematen direla baieztatzen dute, aurrekoa eta ondorengoa dituen, hots, Zenbaki Ideala, eta

Ideiez eta sentimenezko gauzez aparteko Zenbaki Matematikoa, eta bata eta bestea sentimenezko gauzetatik bananduak direla. Beste batzuek Zenbaki Matematikoa besterik ez dute onartzen, errealitate lehena eta sentimenezko 15) gauzetatik banandua. Pitagorikoek ere baieztatzen dute zenbaki-mota bat besterik ez dagoela, matematikoa, alegia, baina ez banandua; aitzitik, haien ustez sentimenezko substantziak zenbaki horretaz osatuak daude. Izan ere, ortzi osoa zenbakiz eraikitzen dute, baina ez unitatez, unitateek magnitudea 20) dutela suposatzen baitute. Hala ere, badirudi ez dakitela esaten lehenengo Bat magnitudea nola osatu zen. Beste batek lehenengo zenbakia - Ideiena, alegia- besterik ez dagoela baieztatzen du, eta beste batzuentzat azken hau Zenbaki Matematikoa bera da.

Luzerekin, azalerekin eta solidoekin ere berdin gertatzen da. Batzuek, hain zuzen ere, matematikoa eta Ideien ondorengoa 25) magnitudeak bereizten dituzte; bestalde, bestela pentsatzen dutenen artean, batzuek -Zenbaki Idealak eta Ideiak onartzen ez dituzten horiek, alegia- magnitude matematikoa onartzen dituzte eta hauek matematikoki ematen direla baieztatzen dute; beste batzuek, berriz, magnitude matematikoa onartzen badituzte ere, matematikoki ematen ez direla baieztatzen dute, haien ustez magnitude oro ez baita magnitudean zatitzen, ezta edozein unitatek diada bat osatu ere.

30) Baina diren guztien osagaia eta printzipio Bata dela baieztatzen duten guztiek zenbakiak unitateak direla ezartzen dute, Pitagorikoek izan ezik; hauek, lehen esan bezala, magnitudea hartzen dituzte<sup>70</sup>.

Horrela, bada, esandako guztiarengatik agerian dago zenbakiak zenbat modutan uler daitezkeen eta modu guztiak aipatu direla. Modu

35) hauek guztiak, hain zuzen ere, ezinezkoak dira; baina, ziurraski, batzuk besteak baino neurri handiagoz.

## VII

Lehenengoz, unitateak konbinagarriak ala konbinaezinak diren 1081a) aztertu behar dugu, eta konbinaezinak baldin badira, bereizi ditugun zein zentzutan. Izan ere, baliteke edozein unitate beste edozeinekin

konbinaezina izatea, edo Diada Berarenak Triada Berarenekin izatea eta, horrela, lehenengo zenbaki bakoitzarenak beste zenbakienekin 5) konbinaezina izatea. Horrela, bada, unitate guztiak konbinagarriak eta desberdindugabeak baldin badira, zenbaki matematikoa sortuko da -eta hau bakarrik-, eta Ideiak eta Zenbakiak ezin izango dira berdintzat jo. (Izan ere, zein Zenbaki izango da Gizakia Bera, edo Animalia, edo beste edozein Forma? Hau dela eta, gauza bakoitzaren Ideia bakarra da; adibidez, Gizakia 10) Berarena Ideia bakar bat da, eta Animaliaarena beste bakar bat. Baina zenbaki berdinak eta bereizigabeak, berriz, amaigabeak dira; beraz, triada jakin hau ez da beste edozein baino neurri handiagoz Gizakia Bera izango.) Eta Ideiak Zenbakiak ez badira, haiek existitzea ere guztiz ezinezkoa izango da. (Izan ere, zein printzipiotatik etorriko dira Ideiak? Zenbakia, hain zuzen ere, Batetik eta Diada zehaztugabetik dator, eta hauek Zenbakiaren 15) printzipioak eta osagaiak omen dira, eta ezinezkoa da Ideiak Zenbakien aurrekotzat edo ondorengotzat jartzea).

Baina unitateak konbinaezinak baldin badira -edozein unitate beste edozeinekin konbinatzea ezinezkotzat hartuz-, honelako zenbaki bat ezin da matematikoa izan (zenbaki matematikoa desberdindugabeko 20) unitatez osatzen baita, eta honi buruzko demostrazioak horrelako izaerari egokitzen zaizkio), eta Ideala ere ez. Horrela, bada, Diada ez da Batetik eta Diada zehaztugabetik sorturiko lehenengo zenbakia izango, ezta ondorengo zenbakiak Diada, Triada eta Tetrada zenbatzen diren moduan sortuko ere, Diada Lehenaren unitateak aldi berean sortzen baitira, 25) elementu desberdinetatik - <teoria hau defendatu zuen> lehenengoak esan zuen bezala- (elementu hauek berdindutakoan sortuko baitziratekeen haiek), zein bestela. Bestalde, unitate bat beste baten aurrekoa izango balitz, bi hauez osaturiko Diadaren aurrekoa ere izango litzateke, zerbait aurrekoa eta beste zerbait ondorengoa denean, biez osaturikoa ere bataren aurrekoa eta bestearen ondorengoa baita.

Gainera, Bata Bera lehenengoa denez, eta ondoren gainerako 30) zenbakiekiko lehena baina Bata Berarekiko bigarrena den beste bat dagoenez, eta, berriro, bigarrenarekiko bigarrena baina Bata Berarekiko

hirugarrena den hirugarren bat dagoenez, orduan haien izena hartzen duten zenbakien aurrekoak izango dira unitateak; adibidez, Diadan hirugarren unitate bat izango da hirua izan aurretik, eta Triadan laugarren 35) unitate bat, eta bosgarren bat, zenbakiak berak izan aurretik.

Dena dela, <filosofo> hauetako batek berak ere ez du baieztatu unitateak honela direnik konbinaezinak, baina <konbinaezinak izateko> 1081b) modu hau bat dator beraien printzipioekin, egiari dagokionez ezinezkoa bada ere. Izan ere, unitate aurrekoak eta ondorengoak izatea zentzuzkoa da, Lehena den Unitate bat eta Lehena den Bat baldin badago, behintzat; eta berdin diadak, Lehena den Diada bat baldin bada, lehenengoaren ondoren bigarren den zerbait izatea zentzuzkoa eta 5) beharrezkoa baita, eta bigarrena baldin badago, hirugarren bat izatea, eta horrela aurrerantzean. (Baina bata eta bestea aldi berean baieztatzea ezinezkoa da, hots, Bataren ondoren unitate lehen bat eta unitate bigarren bat dagoela, eta Diada Lehen bat dagoela). Baina haiek Unitatea eta Bat Lehena ezartzen dituzte, baina ez bigarrena eta hirugarrena.

10) Bestalde, unitate guztiak konbinaezinak badira, agerian dago Diada Bera eta Triada Bera izatea ezinezkoa izango dela, eta berdin gainerako zenbakiei dagokienez, unitateak bereizigabeak nahiz euren artean desberdinak izan, zenbakia, nahitaez, gehitzez zenbatuko baita; adibidez, 15) diada, batari beste bat gehituz, eta triada, biei beste bat gehituz, eta berdin tetrada. Hau horrela izanda, ezinezkoa da zenbakien genesia haiek sortarazten dituzten moduan izatea, hots, Diadatik eta Batetik, diada triadaren zati eta hau tetradaren zati bihurtzen baitira, eta berdin gertatzen 20) da ondorengo zenbakiekin. Hala ere, Tetrada Diada Lehenetik eta Diada Zehaztugabetik sortzen zen, hots, Diada Beraz aparteko bi Diadatatik; eta, bestela, zati bat Diada Bera izango da, eta honi bestelako

Diada bat gehituko zaio; eta Diada, Bata Beraz eta beste Bat batez osatuko da. Baina hau horrela 25) bada, beste osagaia ez da Diada Zehaztugabe bat izango, honek unitate bat sortarazten baitu, eta ez Diada zehaztu bat.

Gainera, Triada Beraz eta Diada Beraz aparte, nola izango dira bestelako triadak eta diadak? Eta hauek nola osatuko dira aurreko eta ondorengo unitatez? Gauza hauek guztiak, hain zuzen ere, 30) zentzugabekeriak eta alegiazkoak dira, eta ezinezkoa da Diada Lehen bat izatea eta gero, Diada Bera; hala ere, izan beharko lirateke, Bata eta Diada Zehaztugabea osagaiak izango balira, behintzat. Baina ondorioak ezinezkoak badira, printzipioak hauek izatea ere ezinezkoa izango da.

Horrela, bada, unitate guztiak haien artean desberdinak badira, 35) ondorio hauek eta antzeko batzuk emango dira nahitaez. Eta Zenbaki berarenak berdinak badira eta Zenbaki desberdinenak, berriz, euren artean desberdinak diren unitate bakarrak badira, kasu honetan ere arinagoak ez diren arazoak emango dira.

1082a) Adibidez, Dekada Beran hamar unitate daude, baina dekada unitate hauez eta, aldi berean, bi pentadaz osatuko da. Baina Dekada Bera edozein zenbaki ez denez eta edozein pentadaz osaturik ez dagoenez 5) -edozein unitatez ere osatzen ez den bezala-, Dekada honen unitateak desberdinak izango dira nahitaez, hauek desberdinak izan ezean Dekada osatzen duten Pentadak ere ez baitira desberdinak izango; baina hauek desberdinak direnez, unitateak ere izango dira desberdinak. Hala ere, desberdinak badira, Dekadan beste zenbait pentada emango al dira, ala bi hauek bakarrik? Beste pentadarik ez izatea zentzugabekeria da; baina beste 10) pentada batzuk baldin badaude, zein hamarkada sortuko da haietatik? Izan ere, hamarkadan ez dago Dekada Beraz aparteko beste dekaririk. Bestalde, Tetrada ere ezin da edozein diadaz osatu; esaten dutenez, Diada Zehaztugabeak Diada zehaztua jasotakoan egiten ditu bi Diada, hura jasotakoaren bikoiztzailea baita.

15) Gainera, nola liteke Diada bi unitateez aparteko, eta Triada hiru unitateez aparteko beste natura bat izatea? Edo bata bestean parte hartuko du, "gizaki zuria" "gizakiaz" eta "zuriar" aparteko zerbait den bezala (haietan parte hartzen baitu), edo, bestela, bata bestearen desberdintasun bat izaten denean bezala, "gizakia" "animaliaz" eta "hankabidunez" aparteko zerbait den bezala.

20) Gainera, gauza batzuek elkar-ukitzez osatzen dute batasun bat, beste batzuek nahastez, eta beste batzuek posizioz, baina modu hauek ezin daitezke eman diada eta triada osatzen dituzten unitateetan. Aitzitik, bi gizakik berenez aparteko batasun bat osatzen ez duten bezala, unitateek ere ez, nahitaez. Eta ez dugu esango zatiezinak izateagatik honi dagokionez 25) desberdinak direnik. Izan ere, puntuak ere zatiezinak dira eta, hala ere, osatzen duten diada ere ez da bi puntuez aparteko ezer.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar aurreko eta ondorengo diadak daudela, eta berdin gainerako zenbakien kasuan. Eman dezagun, hain zuzen ere, tetradaren diadak aldi berekoak direla; hala ere, hauek oktadaren 30) diaden aurrekoak dira eta Oktada Beraren tetradak sortarazten dituzte, Diadak haiek sortarazi zituen bezala. Beraz, Diada Lehenen Ideia baldin bada, haiek ere Ideiak izango dira. Eta unitateez ere gauza bera esan daiteke, Diada 35) Lehenaren unitateek tetradaren lau unitateak sortarazten baitituzte; beraz, unitate guztiak Ideiak dira, eta Ideia Ideiez osatzen da. Horrela, bada, agerian dago gauza horiek ere, zeintzuen Ideiak hauek diren, osatuak izango direla, animalien Ideiak daudenez gero norbaitek animaliak animaliaz osatzen direla esango balu bezala.

1082b) Orokorrean, unitateak edonola desberdintzea zentzugabekeria eta alegiazkoa da ( "alegiazkoa" esaten diot hipotesi bati indarrez egokitzen zaionari), ez baitugu ikusten bi edozein unitate desberdintzen direnik, ez kantitatean, ez koalitatean; eta zenbaki oro



5) berdina ala desberdina da nahitaez, baina, batez ere, unitate dena; beraz, ez bada ez handiagoa, ez txikiagoa, berdina izango da. Baina zenbakiari dagokionez, zenbaki berdinak eta guztiz bereizigabeak zenbaki beratzat hartzen ditugu. Bestela, berdinak izanda ere, Dekada Beraren diadak ere ez lirateke bereizigabeak izango. Izan ere, zein kausa eman lezake 10) bereizigabeak direla baieztatzen duenak?

Gainera, unitate bat gehi beste bat bi unitate baldin badira, Diada Beraren unitate bat eta Triada Beraren unitate bat unitate desberdineko diada bat izango dira; baina diada hau, Triadaren aurrekoa ala ondorengoa izango da? Badirudi aurrekoa izan behar dela, unitate bat Triadarekin eta 15) beste unitatea Diadarekin aldi berekoa baitira. Eta guk erabat onartzen dugu bat gehi bat -berdinak nahiz desberdinak- bi direla; adibidez, ongia eta gaizkia, edo gizaki bat eta zaldi bat. Hala ere, doktrina honen jarraitzaileek ez dute hau ezta unitateei dagokienean ere onartzen.

Bestalde, Triada Beraren zenbakia Diadarena baino handiagoa ez 20) izatea harrigarria litzateke. Baina handiagoa bada, agerian dago Triada Beran Diada bezalako zenbaki bat dagoela; beraz, zenbaki hau eta Diada Bera ez dira bereiziko. Hala ere, lehen zenbaki bat eta bigarren zenbaki bat baldin badago, hau ezinezkoa da.

Eta Ideiak ez dira zenbakiak izango. Hauxe bera, hain zuzen ere, baieztatzen dute zuzen unitateak desberdinak direla ezartzen dutenek, 25) zenbakiak Ideiak izango badira, behintzat, lehen esan bezala. Izan ere, Forma bakarra da eta unitateak bereizigabeak badira, Diadak eta Triadak ere bereizigabeak izango dira. Horregatik esan behar dute horrela zenba-

tzen dela: "bat, bi", aurreko zenbakiari ezer gehitu gabe; (bestela, zenbakia ez 30) litzateke Diada Zehaztugabetik sortuko, eta ezingo litzateke

Idea bat izan, Idea bat beste Idea batean emango bailitzateke eta Forma guztiak Forma bakar baten zatiak lirateke). Horregatik, esaten dutena bat dator hipotesiarekin baina, azken finean, oker daude. Izan ere, gauza asko ezabatzen dute ondorengoa aporetikoa dela baieztatzen dutenean: "bat, bi, hiru" zenbatzen eta esaten dugunean, unitateak gehituz edo zenbaki-klase desberdinen bidez zenbatzen dugu? Egia esanda, bi moduetan zenbatzen dugu; horregatik da barregarria desberdintasun honekin horrelako desberdintasun handia egitea.

## VIII

1083a) Ezer baino lehen, komenigarria izango da zenbakiaren eta unitatearen arteko aldea (baldin badago) zein den zehaztea. Hauek desberdinak izan behar dute, nahitaez, kantitatean zein koalitatean, baina badirudi ezin direla eman, ez bata, ez bestea. Hala ere, zenbakia den aldetik, kantitatean bereizten da zenbakia. Beraz, unitateak ere kantitatean bereiziko 5) balira, bi zenbaki, berdinak izan arren, unitate-kopuruan bereiziko lirateke. Gainera, unitate lehenak, handiagoak ala txikiagoak al dira? Eta ondorengoek, gehitu egiten al dute, ala alderantziz? Hau guztia, hain zuzen ere, zentzugabekeria da.

Baina, bestalde, koalitatean ere ezin dira bereizi, haietan afekziorik 10) ematea ezinezkoa baita; hau dela eta, zenbakietan ere koalitatea kantitatearen ondorengoa dela baieztatzen dute. Gainera, desberdintasun hau ez litzaieke sortuko ez Batetik, ez Diadatik; Batak, hain zuzen ere, ez du ezer sortzen, eta Diadak kantitatea sortzen du, beraren izaera diren guztien 15) aniztasunaren kausa baita. Baina hau bestela izango balitz, hasieratik esan beharko lukete, eta unitatearen desberdintasuna zer den azaldu beharko lukete eta, batez ere, zergatik eman behar den. Bestela, zein desberdintasun aipatzen ari dira?

Horrela, bada, agerian dago Ideiak Zenbakiak baldin badira, unitate guztiak konbinagarriak izatea ezinezkoa izango dela, baita haien artean aipaturiko moduetan konbinaezinak izatea ere.

20) Baina zenbakiei buruz beste batzuek esaten dutena ere ez da zuzena. Aipatu ditudan hauek ez dituzte Ideiak onartzen, ez absolutuki, ez zenbaki moduan, baina, bestalde, Errealitate Matematikoak badirela

uste dute, eta zenbakiak errealitate lehenak direla, eta hauen printzipioa Bata Bera dela. Izan ere, alde batetik "baten arteko Bat Lehen" izatea -haiek 25) esaten duten bezala- eta, beste aldetik, diaden arteko Diada Lehenik ez, eta triaden arteko Triada Lehenik ere ez izatea lekuz kanpoko da, arrazonamendu bera kasu guztietan eman baitaiteke.

Horrela, bada, zenbakiari dagokiona horrelakoa baldin bada eta norbaitek Zenbaki Matematikoa baizik ez dagoela ezartzen badu, Bata ez da printzipioa izango (honelako Bata eta gainerako unitateak desberdinak 30) izango baitira nahitaez; eta hau horrela bada, Diada Lehen eta gainerako diadak ere bai, eta berdin ondorengo zenbakiak) Baina Bata printzipioa bada, zenbakiei dagokien hori, neurri handiagoz, Platonek esaten zuen moduan izango da nahitaez, hots, Diada Lehen izango da, eta 35) Triada, eta zenbakiak ez dira euren artean konbinagarriak izango. Baina esana dugu gauza hauek berriro ezarriz gero zentzugabekeria asko sortzen dela. Hala ere, honela edo horrela izan behar du nahitaez; beraz, bi moduetan ez bada, zenbakia banandua izatea ezinezkoa izango da.

1083b) Bestalde, emandako azalpenetatik argi ateratzen da iritzirik okerrena hirugarrena dela, Formen zenbakia eta matematikoa zenbaki bera dela baieztatzen duena, alegia, iritzi bakar honetan bi akats batera ematen baitira nahitaez. Izan ere, zenbaki matematikoa ezin da horrela izan 5) -aitzitik, azalpena luzatu behar da hipotesi bereziak gehituz- eta, bestalde, Zenbakia Formatzat hartzen dutenei suertatzen zaizkien ondorioak aipatu behar dira.

Pitagorikoen azalpenak arestian aipaturikoek baino zailtasun gutxiago ekartzen du baina, bestalde, zailtasun bereziak ekartzen ditu. Izan 10) ere, zenbakia banandutzat ez hartzeak zentzugabekeria asko ezabatzen du, baina gorputzak zenbakiz osatuak direla eta zenbaki hau matematikoa dela pentsatzea lekuz kanpoko da, ez baita egia magnitude zatiezinak daudela baieztatzea; eta horrela izango balitz ere, unitateek, behintzat, ez lukete magnituderik izango. Bestalde, magnitude bat nola

osa liteke 15) errealitate zatiezinez? Hala ere, zenbaki matematikoa unitatez osatzen da; baina haien ustez diren guztiak Zenbakia dira; edo, behintzat, gorputzak zenbakiz osatuak balira bezala ezartzen dizkiete teoremak gorputzei.

Eta zenbakia berez den zerbait balitz, azaldutako modu horietako 20) batez izan beharko litzateke, baina hauetako moduren batez izatea ezinezkoa denez, agerian dago zenbakiaren izaera ez dela zenbakia banandutzat hartzen dutenek uste bezalakoa.

Gainera, unitate bakoitza Handiaz eta Txikiaz osatzen al da, behin 25) hauek berdinduta, edo bat Handiaz eta beste bat, Txikiaz? Honela baldin bada, zenbaki bakoitza ez da osagai guztiez osatuko eta unitateak ez dira bereizigabeak izango (batean Handia emango baita eta bestean txikia, naturaz haren kontrakoa dena). Gainera, nola izango dira Triada Beraren unitateak? Unitate bat, hain zuzen ere, bakoitia izango da. Eta, ziurraski, horregatik hartzen dute Bata Bera bakoitiaren erdikotzat. Baina bi unitateak

30) bi osagaiez osatzen badira, behin hauek berdinduta gero, Diada, natura bakar bat izanik, nola osatuko da Handiaz eta Txikiaz? Edo zertan bereiziko dira Diada eta unitatea? Gainera, unitatea diadaren aurrekoa da (hura ezabatuta diada ere ezabatzen baita). Beraz, Ideiaren Ideia izan beharko da 35) -Ideia baten aurrekoa baita- eta lehenago sortu izana. Baina nondik sortua? Diada Zehaztugabea, hain zuzen ere, bikoizlea zen.

Bestalde, zenbakia mugatua ala mugagabea izango da nahitaez, 1084a) zenbakia banandutzat hartzen baitute; beraz, ezinezkoa izango da bata ala bestea ez ematea.

Baina argi dago zenbakia ezin dela mugagabea izan (zenbaki mugagabea ez baita ez bakoitia, ez bikoitia, eta zenbakien genesia, edo zenbaki bakoiti batena edo zenbaki bikoiti batena da beti: zenbaki bikoitiari 5) bata gehitzen zaionean zenbaki bakoitia sortzen da; batari diada ezartzen zaionean, batetik sorturiko bikoiztua; eta bakoitiak ezartzen direnean, gainerako bikoitiak sortzen dira.

Gainera, Ideia oro zerbaiten Ideia baldin bada eta zenbakiak Ideiak baldin badira, zenbaki mugagabea ere zerbaiten Ideia izango da, sentimenezko gauza batena zein bestelako zerbaitena. Hala ere, hau ezinezkoa da,

bai beraien hipotesien arabera, bai arrazoiaren arabera, Ideiak horrela antolatzen dituztenentzat, behintzat.)

10) Eta mugatua baldin bada, zein mugatara iristen da? Izan ere, zenbaki mugatua nolakoa den ezezik, zergatik den ere esan behar da. Baina zenbakiaren muga dekada baldin bada -batzuek esan bezala-, hasteko, Formak agortuko dira berehala; adibidez, Triada Gizakia bera baldin bada, 15) Zaldia Bera zein zenbaki izango da? Izan ere, Zenbaki Idealak Dekadaraino iristen dira; beraz, Dekadaren zenbakiren bat izan behar da nahitaez (hauek substantziak eta Ideiak baitira). Hala ere, berehala agortuko dira (animalia-espezieak ugariago izango baitira).

Aldi berean, Triada Bera Gizakia Bera baldin bada, argi dago 20) gainerako triadak ere bai (zenbaki berberenak antzekoak baitira); beraz, amaigabeko gizakiak izango dira: triada bakoitza Ideia bat baldin bada, triada bakoitza Gizakia Bera izango da, edo, bestela, gizaki, behintzat.

Eta baldin eta zenbaki txikiena -zenbaki beraren unitate konbinagarriez osatua, alegia- handiaren zati bat bada eta, bestalde, Tetrada Bera zerbaiten Ideia bada -adibidez, Zaldiarena edo Zuriarena-, orduan Gizakia Diada baldin bada, Gizakia Zaldiaren zati bat izango da.

25) Eta Dekadaren Ideia izatea, baina Endekadaren eta ondorengo zenbakien Ideiarik ez izatea zentzugabekeria da. Gainera, Formarik ez duten zenbait gauza badira eta sortu egiten dira; orduan, zergatik ez dago gauza horien Formarik? Beraz, Formak ez dira kausak.

Gainera, Dekadaraino iristen den zenbakia Dekada Bera baino 30) neurri handiagoz errealitate eta forma izatea lekuz kanpokoak litzateke, nahiz eta hark batasun moduko genesirik izan ez, eta honek bai. Baina dekadarainoko zenbakia zenbaki burututzat hartzen dute; behintzat, ondorengo errealitateak -hutsa, neurria, bakoitia eta honelakoak, alegia- Dekadaren barnean sortarazten dituzte. Hauetako zenbait gauza, hain zuzen 35) ere, printzipioei erantsi dizkiete; adibidez, mugimendua-gelditasuna,

ongia-gaizkia; eta gainerakoak, zenbakiei. Horregatik jotzen dituzte berdintzat Bata eta Bakoitia. Hau dela eta, Bakoitia Triadan egonez gero, pentada nola litzateke bakoitia? Gainera, magnitudeak eta honelakoak 1084b) muga bateraino iristen dira; adibidez, lehenengoa lerro zatiezina da; ondoren, Diada, eta ondoren, gainerako Dekadarainoko magnitudeak.

Bestalde, zenbakia banandua izango balitz, arazoak sortuko lirateke aurrekoa zein ote den, Bata ala Triada eta Diada, jakiteko. Izan ere, zenbakia osatua den aldetik, aurrekoa Bata da; baina unibertsala eta Forma 5) aurrekoak diren aldetik, aurrekoa zenbakia da; unitate bakoitza, hain zuzen ere, zenbakiaren materia moduko zatia da eta hau, berriz, forma modukoa.

Eta angelu zuzena, nolabait, angelu zorrotzaren aurrekoa da definizioari dagokionean eta hura zehaztua delako, baina beste zentzu batean, aurrekoa angelu zorrotza da, hau zuzenaren zatia delako eta zuzena zorrotzean zatitzen delako. Horrela, bada, materiari dagokionez angelu 10) zorrotza, osagaia eta unitatea dira aurrekoak; baina formari eta definizioan azalduko substantziari dagokionez, angelu zuzena eta materiaz eta formaz osaturikoa, azken hau formatik eta definizioaren objektutik gertuago baitago, genesiari dagokionez ondorengoa izan arren. Orduan, Bata zein zentzutan da printzipio? "Zatiezina den aldetik" - esaten 15) dute. Baina unibertsala, banakoa eta osagaia ere zatietzen dira, nahiz eta modu desberdinez: lehenengoa definizioaren arabera eta hauek denboraren arabera. Bata, orduan, zein modutan da printzipio? Izan ere, esan dugun bezala, badirudi angelu zuzena zorrotzaren aurrekoa dela baina, beste zentzu batean, hau haren aurrekoa, bata eta bestea bat den zerbait izanik. Beraz, Bata bi modutan hartzen dute printzipiotzat. Baina hau ezinezkoa da, zentzu batean forma eta substantzia bailitzateke printzipio, eta beste zentzuan, zati eta materia.

20) Izan ere, zenbakiaren unitateak, nolabait, bat den zerbait dira; egia esan, potentzian dira bat (zenbakia bat den zerbait baldin bada, behintzat, ez multzo bat, baizik eta zenbaki desberdinak unitate desberdinez osatzen badira, haiek esaten duten bezala), baina entelekian ez.

Hutsegite honetan erori ziren ikerketa doktrina matematikoetan 25) eta, aldi berean, nozio unibertsaletan oinarritzen zutelako; beraz, haietan oinarriturik, Bata eta printzipioa puntutzat hartzen zituzten (unitatea, hain zuzen ere, posiziorik gabeko puntu bat da; eta beste batzuek bezala, hauek ere diren gauzak txikien denaz osatzen direla baieztatzen

zuten; horrela, unitatea zenbakien materia bihurtzen da eta, honekin batera, diadaren aurreko eta diadaren ondorengo, diada osotasun bat, batasun bat 30) eta forma bat den aldetik). Baina, bestalde, unibertsala bilatzen zutenez, predikatzen den Bata zentzu honetan ere zati bat dela esaten zuten. Hala ere, ezaugarri hauek gauza berean aldi berean ematea ezinezkoa da.

Baina Batari Berari posiziorik gabea izan besterik ez badagokio (ez baita ezertan bereizten, printzipio izatean izan ezik) eta diada zatigarria baldin bada baina unitatea ez, unitateak antza handiagoa izango du 35) Batarekin Berarekin. Eta horrela baldin bada, Batak Berak antz handiagoa izango du unitatearekin diadarekin baino. Beraz, unitateak diadaren aurrekoak izango dira. Hala ere, haiek ez dute hau onartzen edo, behintzat, lehenago sortarazten dute diada.

1085a) Gainera, Diada Bera bat den zerbait baldin bada, eta Triada Bera ere bai, biek batera diada bat osatuko dute. Baina, orduan, diada hau zerez osatua ote da?

## IX

Zenbakietan elkar-ukitzerik ez dagoenez, baina bai jarraipena, ondorengo aporia sor liteke: bitartekorik ez duten unitate horiek (adibidez, 5) diadaren edo triadaren unitateak), Batari berari jarraitzen al diote ala ez? Eta jarraitze honetan, diada da lehenengoa, ala edozein beraren unitate?

Era berean, zenbakiaren ondorengo generoen inguruan ere -lerroaren, zabaleraren eta gorputzaren inguruan, alegia- sortzen dira zailtasunak. Batzuek, hain zuzen ere, Handiaren eta Txikiaren espezieetatik 10) eraikitzen dituzte; adibidez, Luzetik eta Motzetik luzerak, Zabaletik eta Estutik zabalerak, eta Sakonetik eta Baxutik bolumenak. Hauek Handiaren eta Txikiaren espezieak dira. Baina Batari dagokion honelako gauzen printzipioa ezartzerakoan filosofo hauek ez datoz bat; eta azalpen honetan 15) hamaika zentzugabekeria, fantasia eta ezintasun agertzen da. Izan ere, printzipioak elkarren arteko loturarik gabe agertzen dira hauek elkarrekin ematen ez direnean; elkarrekin ematen direnean, berriz, Zabala eta Estua Luzea eta Motza ere izan daitezke (baina horrela bada, zabalera lerroa izango da eta solidoa, zabalera. Eta, gainera, angeluak eta irudiak eta

honelakoak 20) nola azalduko dira?) Eta gauza bera gertatzen da zenbakiaren afekzioekin; hauek, hain zuzen ere, magnitudearen afekzioak dira, baina afekzioak ez datoz haietatik, luzera Zuzenetik eta Okerretik eta solidoak Leunetik eta Zimurretik ez datozen bezala. Kasu hauetan guztietan ematen den aporia genero baten espezieztat hartutako Formen Kasuan ematen den 25) aporia bera da: unibertsalak onartzen direnean, animaliarengan ematen dena Animalia Bera al da, ala bestelako animalia bat? Hau banandua ez bada ez da aporiarik sortuko; baina, iritzi hauek onartzen dituztenek esaten duten bezala, Bata eta Zenbakiak bananduak baldin badira, aporia ez da askatzen erraza izango, ezinezkoa denari "ez erraza" deitzea egokia bada, 30) behintzat. Izan ere, baten bat diadaren edo, orokorrean, zenbakiaren bataz pentsatzen duenean, Bataz Beraz ari al da pentsatzen ala beste bat batez?

Horrela, bada, batzuek honelako materiatic sortarazten dituzte magnitudeak, eta beste batzuek puntutik (haien iritziz puntua ez da bata, bataren antzekoa baizik) eta aniztasunaren antzeko beste materiatic, baina ez aniztasunetik; errealitate hauen inguruan aporia berak ematen dira, eta 35) ez neurri gutxiagoz. Izan ere, materia bat baldin bada, lerroa, zabalera eta solidoa gauza bera izango dira (osagai beraietatik gauza bat eta gauza bera 1085b) sortuko baita); baina materiak bat baino gehiago baldin badira -bat lerroarena, beste bat zabaleraarena eta beste bat solidoarena, alegia-, orduan, edo elkarrengandik sortuak dira edo ez; beraz, kasu honetan ere emango dira ondorio berak: edo zabalera ez du lerrorik izango, edo zabalera lerro bat izango da.

5) Gainera, zenbakia Batetik eta Aniztasunetik nola etor daitekeen azaltzeko ez da inolako ahaleginik egiten, eta edonola azalduta ere, zenbakia Batetik eta Diada Zehaztugabetik eraikitzen dutenei suertatzen zaizkien zailtasun berekin topo egiten dute. Kasu batean, hain zuzen ere, zenbakia unibertsalki predikaturiko aniztasunetik sortarazten da, eta ez aniztasun zehatz batetik; beste kasuan, berriz, aniztasun zehatz batetik, Lehenetik, 10) hain zuzen ere (Diada aniztasun lehena baita); beraz, nolabait esateko, doktrina hauek ez dira zertan bereizten. Aitzitik, aporia



berak ekartzen dituzte, besteak beste, nahastea, posizioa, fusioa edo genesia, eta honelako gainerakoak. Baina, batez ere, ondorengo hau bilatu beharko litzateke: unitate bakoitza bat baldin bada, nondik dator? Izan ere, unitate bakoitza ez 15) da Bata Bera izango. Beraz, Batetik Beratik eta Aniztasun batetik edo Aniztasun baten zati batetik etorriko da nahitaez. Horrela, bada, unitatea aniztasun bat izatea ezinezkoa da, zatiezina baldin bada, behintzat. Baina Aniztasun baten zati batetik etortzeak beste zailtasun asko dakartza, zati bakoitza zatiezina izango baita nahitaez (edo aniztasun bat izango da eta unitatea, zatigarria) eta osagaiak ez dira, orduan, Bata eta Aniztasuna izango 20) (unitate bakoitza ez baita Batetik eta Aniztasunetik etorriko). Gainera, hau esaten duenak beste zenbaki bat gaineratu besterik ez du egiten, "zatiezin-aniztasuna" zenbaki bat baita.

Azalpen hau ematen dutenei zenbakia mugagabea ala mugatua ote den ere galdetu behar zaie. Izan ere, badirudi aniztasun mugatu bat ere 25) ematen dela eta unitateak aniztasun honetatik eta Batetik sortzen direla; baina badago beste bat, Aniztasuna Bera, Aniztasun mugagabe dena. Zein aniztasun da, orduan, Batarekin batera osagai dena?

Eta galdera bera egin liteke puntuari buruz -hots, magnitudeak eraikitzerakoan abiapuntutzat hartzen duten osagaiari buruz-, hau ez baita puntu bakar bat. Horrela, bada, nondik datoz gainerako puntuak? 30) Distantziaren batetik eta Batetik Beratik ez, jakina. Bestalde, distantziaren zatiak ere ezin dira zatiezinak izan -aniztasunaren zatiak, nondik magnitudeak datozen, zatiezinak diren bezala-, zenbakia zati zatiezinez osatzen baita, baina magnitudeak ez.

Arazo hauek guztiek eta honelakoek agerian uzten dute zenbakiak 35) eta magnitudeak bananduak izatea ezinezkoa dela. Gainera, zenbakiari buruzko iritzien arteko desadostasunak adierazten du iritzi hauek onartzen 1086a) dituztenei nahastea iritzien edukiak egia ez izatearen

zirkunstantziatik datorkiela. Izan ere, sentimenezko gauzez aparte Errealitate Matematikoak bakarrik onartzen dituzten horiek, Zenbaki Idealarri uko egin zioten eta Zenbaki Matematikoa ezarri zuten Formei buruzko doktrinak 5) sortzen dituen zailtasunak eta fikzioa ikusi ondoren. Bestalde, aldi berean Formak eta Zenbakiak onartu nahiago dutenek, printzipio hauek ezarriz gero Zenbaki Idealaz aparte Zenbaki Matematikoa nola eman ote daitekeen ikusi ez zutelako, definizioari dagokionez berdintzat jo zituzten 10) Ideala eta Matematikoa; baina, egia esan, Matematikoa ezabatuta geratzen da (matematikoak ez diren hipotesi bereziak erabiltzen baitituzte). Bestalde, Formak badirela, Formak Zenbakiak direla eta Errealitate Matematikoak ere badirela ezarri zuen lehenengoak arrazoiez bereizi zituen hauek eta besteak. Beraz, asmatu, denek asmatzen dute zentzu batean, baina ez erabat. Eta honetan datoz bat beraiek, ez gauza berak esaten dituztelako, 15) baizik eta kontrakoak esaten dituztelako. Honen arrazoa da abiapuntutzat hartzen dituzten hipotesiak faltsuak direla; eta faltsu denetik abiatuz gero, zuzen hitz egitea oso zaila da. Epikarmok esaten duenez:

"Esaten bukatu orduko agerian dago esanaren faltsutasuna"<sup>71</sup>.

Baina zenbakiei buruz nahikoa dira aurkezturiko aporiak eta 20) proposaturiko bereizketak (argudio gehiagorekin sinetsita dagoena gehiago konbentzituko litzateke, baina sinetsita ez dagoena konbentzitzeko ez litzateke ezer gehituko). Sentimenezko substantzia bakarrik definitu nahi dutenen printzipio lehenei, kausa lehenei eta osagaiei buruzko doktrina batzuk Fisikan azaldu dira eta beste batzuk, ordea, ez dagozkio oraingo ikerketa

25) honi. Baina sentimenezkoez aparte bestelako substantziak daudela baieztatzen dutenen doktrinak esandakoaren ondoren dagokigu aztertzea. Batzuen ustez honelako substantziak Ideiak eta Zenbakiak direnez, eta hauen osagaiak diren guztien osagaiak direnez, hauei buruz zer esaten duten eta nola esaten duten aztertu behar dugu. Ondoren, zenbakiak 30) bakarrik - zenbaki matematikoak, hain zuzen ere- onartzen dituztenak aztertuko ditugu. Eta Ideiak onartzen dituztenei dagokienez, beraien doktrina azaltzeko modua eta, aldi berean, Ideien inguruko aporiak hartuko ditugu kontuan. Izan ere, Ideiak unibertsaltzat hartzen dituzte eta, aldi berean, banandutzat eta banakotzat. Baina esana dugu ezaugarri hauek 35) edukitzea ezinezkoa dela; izan ere, substantzia unibertsalak onartzen dituztenek, ezaugarri hauek gauza berean elkartzen dituzte honelako substantziak eta sentimenezkoak berdintzat jotzen ez dituztelako; hau dela eta, sentimenezko banakoak etengabeko isurian daudela, haietako batek 1086b) berak ere ez duela irauten, unibertsala haiez apartekoa dela eta bestelako zerbait dela pentsatzen zuten. Unibertsala, lehen esaten genuen bezala, definizioen bidez sartu zuen Sokratesek, banakoez banandu ez bazuen ere; eta emaitzak ikusita, argi dago ez banantze horretan zuzen 5) arrazoitu zuela. Izan ere, unibertsalik gabe ez dago zientzia lortzerik, baina banantzeak Ideiei buruzko zailtasun guztiak ekartzen ditu. Beste batzuek, etengabeko isurian dauden sentimenezko substantziez aparte beste zenbait substantzia izatekotan, hau banandua izan behar dela pentsatu zuten, eta besterik ezean, hauek azaldu zituzten, unibertsalki predikatzen 10) direnak, alegia; beraz, unibertsalak eta banakoak ia natura berak direla gertatzen da. Hau, berez, aztertutako doktrinaren zailtasun bat litzateke.

X

Orain, adieraz dezagun Ideiak onartzen dituztenei zein 15) onartzen ez dituztenei aporia bat sortzen diena, lehen, hasieran, Aporiei

buruzko ikerketan<sup>72</sup> aipatua izan dena: substantziak bananduak direla ezartzen ez bada -eta banakoak bananduak direla esaten den moduan-, orduan guk ulertzen dugun moduko substantzia ezabatuko da; baina substantziak bananduak direla ezartzen bada, nolakoak ezarri haien 20) osagaiak eta printzipioak? Izan ere, banakoak baldin badira eta ez unibertsalak, osagai beste izango dira errealitateak, eta osagaiak ezagutezinak izango dira. (Adibidez, eman dezagun hitzaren silabak substantziak direla eta letrak, substantziaren osagaiak. Orduan, silabak unibertsalki eta espezifikoki berak ez badira, baizik eta silaba bakoitza 25) aritmetikoki bat, zehaztutako zerbait eta ez-izenkidea bada, BA silaba bakar bat izango da nahitaez, eta berdin gainerako silabak. Gainera, Den-a Bera, kasu bakoitzean, bakarra dela ezartzen dute.) Eta silabak bakarrak badira, hauen letrak ere bai. Beraz, A bat besterik ez da izango, eta berdin gertatuko da gainerako letrekin, 30) silaba bera orain hau eta gero hori izatea eragozten duen arrazoi berarengatik. Baina hau horrela bada, osagaiez aparte ez da bestelako gauzarik izango, osagaiak bakarrik baizik. Gainera, unibertsalak ez direnez, osagaiak ez dira ezagungarriak, zientzia unibertsalena baita, demostrazioek eta definizioek agerian uzten duten bezala. Hau dela eta, ez da frogatuko 35) "triangelu hau eta bi zuzen baliokideak dira", "triangelu oro eta bi zuzen baliokideak dira" ezartzen ez bada; ezta "gizaki hau animalia da" ere, "gizaki oro animalia da" ezartzen ez bada.

Bestalde, printzipioak unibertsalak baldin badira, edo hauetatik sorturiko substantziak ere dira unibertsalak edo, bestela, substantzia ez dena 1087a) substantziaren aurrekoa izango da; unibertsala, hain zuzen ere, ez da substantzia; baina osagaia eta printzipioa unibertsalak dira eta

osagaia eta printzipioa horren -zeinaren osagaia eta printzipio diren- aurrekoak dira.

5) Ideiak osagaietatik eraikitzen dituztenean eta forma bera duten substantziez aparte bat eta banandua den zerbait dagoela onartzen dutenean, logikoa da zailtasun hauek guztiak gertatzea. Baina, hitz baten letrekin gertatzen den bezala, A asko eta B asko izatea ezerk eragozten ez badu, eta hauez aparte inolako A Berarik eta B Berarik ez badago, orduan, honengatik berarengatik antzeko silabak amaigabeak izango dira.

Bestalde, zientzia oro unibertsalarena izanda, den guztiaren printzipioak unibertsalak eta substantzia ez bananduak izan behar direlako baieztapenak aipaturiko aporiarik zorrotzena dakar. Hala ere, esandakoa 15) egiazkoa da zentzu batean, baina beste zentzu batean, ez; zientzia, ezagutzea bezala, hain zuzen ere, bi modutan ematen da: potentzian eta egintzan. Potentzia, materia bezala, unibertsala eta zehaztugabe izanik, unibertsalarena eta zehazgabearena da. Egintza, berriz, zehaztua eta zehatzarena da; eta zehaztutako zerbait izanik, zehatz den zerbaitena da; baina ikusmenak kolore orokorra akzidentalki ikusten du, ikusten duen 20) kolore zehatz hau kolorea delako, gramatikariak ikasten duen A zehatz hau A den bezala.

Izan ere, printzipioak nahitaez baldin badira unibertsalak, haietatik sortzen diren gauzak ere izango dira, nahitaez, unibertsalak, demostrazioetan gertatzen den bezala. Eta hau horrela bada, ez da ezer banandurik izango, ez eta substantziarik ere. Baina argi dago zentzu batean 25) zientzia unibertsala dela, baina beste zentzu batean, ez.

HAMALAU GARREN LIBURUA (N)

I

Bego, bada, substantzia honi buruz esandakoa.

30) Kontrakoak hartzen dituzte denek printzipiotzat, errealitate fisikoetan zein substantzia geldietan. Baina gauza guztien printzipioa

baino lehenagoko ezer izatea ezinezkoa baldin bada, ezinezkoa izango da printzipio bera printzipio izatea beste zerbait baldin bada; adibidez, esan liteke zuria printzipioa dela - baina ez beste zerbait den aldetik, zuria den aldetik baizik-, subjektu batez 35) predikatzen dela eta, beste zerbait delarik, zuria dela. Orduan, "beste zerbait" hori aurrekoa izango da. Baina gauza guztiak sortzen dira kontrakoetatik baldin eta hauek subjektu bati badagozkio. Beraz, 1087b) kontrakoentzat, bereziki, ezinbestekoa da subjektua izatea.

Horrela, bada, kontrako guztiak beti predikatzen dira subjektu batez, eta bat bera ere ez da banandua existitzen; aitzitik, antza denez eta arrazoinamenduak adierazten duenez, substantziak ez du kontrakorik. Beraz, ez dago gauza guztien printzipio nagusia den kontrakorik; hori beste zerbait da.

Bestalde, hauek <Platonen jarraitzaileek> beste kontrakoa 5) materiatzat hartzen dute: batzuek Batarentzat [Berdinarentzat] Desberdina hartzen dute, hau aniztasunaren izaera delako ustetan; beste batek, Batarentzat Aniztasuna hartzen du <materiatzat> (izan ere, lehenengoen ustez, zenbakiak Diada Desberdinetik, Handitik eta Txikitik sortzen dira; bestearen ustez, Aniztasunetik; baina batzuentzat zein bestearentzat, Bataren substantziaren eraginez.)

10) Izan ere, Desberdina eta Bata osagaiak direla, eta Desberdina, bestalde, Handitik et Txikitik sortutako Diada dela baiztatzen duenak, Desberdina eta Handia eta Txikia bat bailiran hitz egiten du, bat izate hori nozioari -baina ez kopuruari- dagokiola bereizi gabe. Are gehiago, osagai deituriko printzipio horiek ere ez dituzte ongi azaltzen: Batzuek Handia eta Txikia Batarekin batera aipatzen dituzte, hirurak zenbakien osagaitzat

hartuz: 15) lehenengo biak, materia, eta Bata, forma; beste batzuek, Asko eta Gutxi, Handia eta Txikia, berez, magnitudeari dagozkiolako ustetan; beste batzuek, berriz, unibertsalago diren Gehiegizkoa eta Gabezia.

Dena dela, azalpen hauek guztiak ez dira ezertan bereizten, esate baterako, zenbait ondoriori dagokionez, baina bai saihestu nahi dituzten 20) zailtasun logikoei dagokienez, beraiek ere baliatzen baitira demostrazio logikoz. Izan ere, Gehiegizkoa eta Gabezia -eta ez Handia eta Txikia- printzipioak direla frogatzeko erabiltzen duten argumentazio berak balio du osagaietatik eta Diadaren aurretik Zenbakia sortzen dela frogatzeko, haiek <Gehiegizkoa eta Gabezia> eta hau <Zenbakia> unibertsalagoak baitira. 25) Alabaina, lehenak onartzen dituzte, baina bigarrena, ez. Beste batzuek, Batari Bestea eta Bestelakoa kontrajartzen dizkiote, eta beste batzuek, Aniztasuna. Baina baldin eta den guztia kontrakoetatik sortzen bada, haiek nahi bezala, eta Bataren kontrakorik ez badago edo, izatekotan, Aniztasuna bada, eta Berdintasunarena Desberdintasuna, Gauza Berarena Bestea eta 30) Bestelakoa badira, orduan Aniztasunari Bata kontrajartzen diotenek iritzi zuzenagoa dute, nahiz eta nahikoa ez den. Izan ere, Bata Gutxi izango da, Aniztasuna Gutxitasunari eta Asko Gutxiri kontrajartzen baitzaizkie.

Bestalde, agerian dago Batak neurria adierazten duela. Eta denetan dago beste bat den azpigai bat; adibidez, harmonian, tonu-erdia; 35) magnitudean, hatza, oina edo honelako zer bait; erritmoetan, pausoa edo 1088a) silaba. Eta pisuan ere izaten da pisu zehatza. Eta berdin kasu guztietan: koaltateetan, koaltateren bat; kantitateetan, kantitateren bat. Eta neurria zatiezina da, batzuetan formaren arabera eta beste batzuetan, sentsazioaren arabera, Bataren Beraren substantziarik ez dagoelako. Eta hau 5) zentzuzkoa da; izan ere, "batak" "aniztasunen baten neurria" adierazten du, eta zenbakiak "aniztasun neurtua" eta "neurri-aniztasuna" (horregatik da zentzuzkoa bata zenbakitzat ez hartzea, ez baitira "neurria" neurriak; aitzitik, neurria eta bata printzipioak dira).

Horrela, bada, kasu guztietan izan behar du beti neurriaren beraren arabera: neurria "zaldia" baldin bada, "zaldiak" izango dira; "gizakia" baldin bada, "gizakiak". Eta neurria "biziduna" izango da, 10) ziurraski, gizakia, zaldia eta jainkoa baldin badira, eta hauen kopurua "bizidunak" izango da. Baina "gizakia", "zuria" eta "ibiltaria" baldin badira, nekez izango da hauen "kopurua", denak ematen baitira kopuru aldetik bat den subjektu berarengan; alabaina, "genero-kopurua" izango da hauen zenbakia, edo horren antzera izendatzen den beste kopururen bat.

15) Bestalde, Desberdina nolabaiteko Bat dela eta Diada Zehazgabea Handitik eta Txikitik sortua dela baieztatzen dutenak, behar baino gehiago urruntzen dira uste orokorretik eta ahalezko denetik. Izan ere, horiek denak subjektuak izan beharrean, zenbakien eta magnitudeen afekzioak dira: Asko eta Gutxi, zenbakiarenak; Handia eta Txikia, magnitudearena, eta berdin 20) Bikoitia eta Bakoitia, Leuna eta Zimurra, Zuzena eta Makurra. Huts egite honi, gainera, gehitu behar zaio Handia eta Txikia, eta honelako beste guztiak, nahitaez direla erlazioak, eta erlazioa, [kategoria] guztietan, natura edo substantzia gutxien duena da, koalitetearen eta kantitatearen ondorengoa delarik. Eta, esana dagoen bezala, erlazioa kantitatearen afekzio 25) bat da, baina ez materia, baldin eta erlatibo denarekiko, orokorrean, nahiz honen zati eta espeziei dagokienez bestelako azpigai bat badago. Izan ere, ezer ez da ez handi, ez txiki, ez asko, ez gutxi, ez erlatibo orokorrean, baldin eta asko edo gutxi, handi edo txiki edo erlatibo den beste zerbait ez bada. Eta erlazioa inolako substantziarik edo den zerbait ez delako adierazle 30) da erlazioa genesirik, usteldurarik eta mugimendurik ez duen bakarra dela, hots, kantitatean gehiketa eta murrizketa,



koalitatean aldaketa, lekutasunean lekualdaketa, substantzian erabateko genesisia eta usteldura ematen dira, baina erlazioan, ez. Izan ere, mugimenduak afektatua izan gabe, gauza bat batzuetan handiagoa izango 35) da, beste batzuetan txikiagoa edo berdina, baldin eta bestea kantitatearen arabera aldatzen bada.

Eta gauza bakoitzaren materia da, nahitaez, gauza hori bera 1088b) potentzian dena; beraz, substantziaren kasuan, berdin. Baina erlatibo dena ez da substantzia, ez potentzian, ez egintzan. Beraz, lekuz kanpokoa da edo, are gehiago, ezinezkoa da substantziaren osagaitzat eta beraren aurrekotzat hartzea substantzia ez den zerbait, gainerako kategoria guztiak beraren ondorengoak baitira. Gainera, osagaiak ez dira beraiek osatzen dituzten gauzez predikatzen; alabaina, Asko eta Gutxi, batera eta 5) bananduta, zenbakiaz predikatzen dira; Luze eta Motz, lerroaz, eta azalera, batzuetan Zabala eta beste batzuetan Estua da. Eta baldin eta † beti "Gutxi" predikatuaz izendatzen den aniztasunen bat badago -Diada, adibidez (hau "Asko" balitz, Bata "Gutxi" izango litzateke-eta)-, orduan Asko zentzu 10) absolutuan den zerbait izango da; adibidez, dekada "asko" izango da, ez baldin badago bera baino handiagoa den aniztasunen bat, edo, bestela, hamar milakoa izango da. Orduan, nola osatuko da zenbakia "gutxitik" eta "askotik"? Izan ere, biak ala biak predikatu beharko lirateke, edo bat bera ere ez; alabaina, biotako bat bakarrik predikatzen da.

## II

Orokorrean, aztertu behar da ea betiereko diren gauzak osagaiez 15) osatuak izatea litekeena den ala ez; izan ere, horrela balitz, materia izango lukete, osagaiez osaturiko guztia konposatua baita. Horrela, baldin eta zerbait -hau betierekoa zein sortua izanik- bere osagaietatik sortua izatea nahitaezkoa bada, eta dena potentzian hori bera den horretatik sortzen bada (ez bailitzateke ez sortuko, ez izango, potentzia hori ez balego), eta 20) potentzian dena egintzaratzea edo ez egintzaratzea litekeena bada, orduan

zenbakia, edo materiadun edozer, nahiz eta betidanik existitu, ez existitzea litekeena da, egun bateko bizialdia edo urte askotako bizialdia dutenak bezala. Eta horrela bada, denboraldi mugagabea ez existitzea ere litekeena da. Orduan, hauek ez lirateke betierekoak izango, ez existitzea litekeen hori ez 25) baita betierekoa izango, beste leku batean azaldu genuen bezala. Eta arestian aipaturikoa unibertsalki baldin bada egiazkoa, hau da, ez dagoela betiereko den substantziarik egintzan ez bada, eta substantziaren osagaiak materia direla, orduan ez da izango berezko osagaiez osaturiko substantzia betierekorik.

Hala ere, batzuek Diada Zehazgabea Batarekin batera hartzen dute osagaitzat, baina baztertu egiten dute -arrazoi osoz- Desberdina, honek sortzen dituen zailtasunak direla-eta.

30) <Filosofo> hauek Desberdina eta Erlatiboa osagaitzat hartzen dituzten beste horiei nahitaez sortzen zaizkien zailtasunak bakarrik ezabatzen dituzte; alabaina, iritzi honetaz apartekoak, hauek beraiei ere badagozkie nahitaez, bai <osagai> horietatik Zenbaki Ideala sortzean, bai Zenbaki Matematikoa sortzean.

35) Eta asko dira, hain zuzen ere, kausa hauetarantz okertu izanak ulertzeko arrazoiak, baina nagusia aporiari modu zaharkituan heldu izana 1089a) da. Izan ere, haien ustez diren guztiak Batera murriztuko ziratekeen, Den Berera, baldin eta Parmenidesen esana - "ez baita inoiz honelakorik behartuko: ez direnak izan bitez"<sup>73</sup>- ebatzi eta baztertu egiten ez bazen; aitzitik, ez dena badela erakutsi behar zela uste zuten, horrela, diren guztiak 5) asko baldin badira, den-etik eta beste zerbaitetik sortuak izango dira-eta. Baina, lehenengoz eta behin, den-a zentzu askotan esaten bada (batean substantzia dela adierazten du, beste batean kalitate batekoa dela, beste batean kantitate batekoa dela, eta besteetan, gainerako kategoriak), orduan nola izango dira "bat" diren guztiak, "ez den-a" badela onartzen ez bada? 10) Agian substantziak izango dira "bat"? Edo afekzioak eta antzeko kategoriak? Edo gauza guztiak?

Eta gauza bakar bat izango al dira "honako hau", eta koalitatea eta kantitatea eta, nolabaiteko "bat" adierazten duten horiek guztiak? Baina hau zentzugabekeria da edo, are gehiago, ezinezkoa da natura bakar bat sortua izatea honen kausa izatea, hau da, den-etik zerbait "honako hau" izatea, 15) beste zerbait "honetakoa", beste hori "horrenbestekoa", hango hura "hangoa" izatea.

Gainera, nolako "den-etatik" eta "ez den-etatik" sortzen dira diren guztiak? Izan ere, "den-a" zentzu askotan denez, "ez den-a" ere bai. Eta "ez-gizakia izateak" "honakoa ez izatea" adierazten du; "ez-zuzena izateak" "horrelakoa ez izatea"; "ez-hiru ukondoko izateak" "horrenbestekoa ez izatea". Beraz, nolako "den-etatik" eta "ez den-etatik" sortzen da den guztiaren aniztasuna?

20) Dударик gabe, Faltsuari eta honen izaerari esan nahi zaio "ez den-a", eta faltsutik eta den-etik sortarazi den guztiaren aniztasuna; horregatik esaten zen hipotesizat zerbait faltsu hartu behar zela, geometrek egiten duten bezala, hots, lerroa oin batekoa dela hipotesizat hartu oin batekoa izan gabe. Baina ezinezkoa da gauzak horrela izatea; izan ere, geometrek ez dute ezer faltsurik hartzen hipotesizat ( "faltsu dena" ez baita 25) protasia haien silogismoan), eta zentzu horretan "ez den-etik" ere ez dira diren guztiak ez sortu, ez usteldu.

Baina, kasuen arabera, "ez den-a" kategoriak beste zentzutik esaten denez eta, gainera, "ez den-a" faltsuari eta potentzian denari ere esaten zaienez, genesia azkeneko honetatik sortzen da; gizakia "ez-gizakitik" baina potentzian den gizakitik sortzen da, eta zuria "ez-zuritik" 30) baina potentzian den zuritik; eta berdin da sortutakoa bat edo bat baino gehiago denean.

Bestalde, badirudi bilatzen ari dena hauxe dela: nola izan daitekeen "asko" substantziaren arabera izendatzen dugun "den-a". Izan ere, sorturiko gauzak zenbakiak, lerroak eta gorputzak dira. Baina zentzugabekeria da galdetzea nola izan daitekeen "asko" "den-a" zerkiaren arabera, eta ez galdetzea nola izan daitekeen "asko" koaliteteak edo 35) kantitateak. Izan ere, ez Diada Zehazgabea, ez Handia eta Txikia, ez dira 1089b) "bi zuri" edo kolore, zapore edo irudi anitz izatearen kausa; bestela, hauek ere zenbakiak edo monadak izango lirateke-eta. Alabaina, puntu honetaraino iritsi izan balira, ulertuko zuketena baita <substantzia> haien kausa ere, hau bera edo antzekoa baita.

Okertze hau bera da beste honen kausa: "Den-aren" eta Bataren kontrajarritakoaren bila aritzean, hortik eta hauetatik diren guztiak sortzen 5) direlakoan, Erlatiboa eta Desberdina proposatu zituzten, baina hauek ez dira beste horien ez kontrako, ez ezeztapen, diren guztien natura bat baizik, "zer" eta "nolakoa" bezalakoak. Eta hau ere ikertu beharko litzateke: zergatik dira anitz erlatiboak eta ez bakar bat? Alabaina, Bata Lehenaz aparte zergatik dagoen monada asko ikertzen da, baina ez Desberdintasunaz aparte 10) zergatik dagoen desberdintasun anitz. Hain zuzen ere, erabili eta aipatzen dituzte Handia eta Txikia, Gutxi eta Asko, zenbakiak hauetatik sortarazten dituztelarik; Luzea eta Motza, lerroa sortarazteko; Zabala eta Estua, azalerarako; Sakona eta Azalekoa, solidoak sortarazteko; eta Erlatiboaren espezie gehiago ere aipatzen dute. Beraz, zein da hauek asko izatearen kausa?

15) Horrela, bada, esan bezala, beharrezkoa da ezartzea banako bakoitzaren potentzian dena (baina hau proposatu duenak azaldu du "honako hau" eta substantzia potentzian zer den, hau berez "ez den-a" delarik, eta Erlatiboa dela ezarri du; berdin esan zezakeen koalitetea dela, hau potentzian ez baita ez Bata, ez Den-a, ezta Bataren eta Den-aren ezeztapena ere, diren guztien arteko bat baizik); are beharrezkoagoa 20) oraindik, esan bezala, diren guztiak zergatik diren asko baldin bada bilatzen dena, eta ez zergatik diren asko substantziak edo koaliteteak kategorian berean, diren guztiak zergatik diren asko baizik. Izan ere, batzuk substantziak dira; beste batzuk, afekzioak eta beste batzuk, erlatiboak. Eta gainerako kategorien kasuan beste arazo bat ere sortzen du "zergatik diren 25) asko" honek (banangarri ez izateagatik subjektua bilakatu eta ugaritu egiten denean koalitete eta kantitateak ere anitz baitira; dena dela, genero bakoitzak izan behar du materiaren bat, baldin eta hau diren guztietatik banangaitza bada). Baina "honako hau" diren guztien kasuan zergatik diren asko "honako hauek" galdetzea nahikoa zentzuzkoa da, baldin eta aldi berean "honako hau" eta "halako natura bat" den zerbait ez badago.

30) Arazoa, hain zuzen ere, beste hartatik dator, bereziki: nolatan dagoen substantzia asko egintzan, bat bakarra egon beharrean.

Alabaina, "honako hau" eta kantitatea gauza bera ez badira, ez da azaltzen nola eta zergatik diren asko diren guztiak, nolatan diren asko kantitateak baizik. Izan ere, zenbaki orok adirazten du kantitatearen bat, eta 35) monadak ere bai, baldin eta hau neurritzat eta kantitate zatiezintzat hartzen ez bada.

Horrela, bada, kantitatea eta zerkia desberdinak baldin badira, ez da 1090a) esaten zerkia ez nondik sortua den, ez nolatan den asko; alabaina, gauza bera baldin badira, kontraesan ugari jasan beharko du hau baieztatzen duenak.

Era berean, zenbakien inguruan galde liteke hauek existitzen direlako ustea zertan oinarritzen den. Izan ere, Ideiak ezartzen dituenarentzat Zenbakiak diren guztien kausaren bat suertatzen dira, baldin 5) eta zenbaki bakoitza Ideiaren bat bada eta Ideia, nolabait, gainerako guztien izatearen kausa bada (eta onar dezaiegun hau). Baina iritzi honekin bat ez datorrenari, hots, Ideien teoriaren zailtasunak ikusten dituelako Zenbaki Idealak onartzen ez dituen baina Zenbaki Matematikoa onartzen 10) duenari, honi nondik iritsi zaio horrelako zenbaki bat dagoelako ustea, eta gainerako gauzentzat zer onura lezarke? Izan ere, <Zenbaki Matematikoa> onartzen duenak ere ez du esaten ezeren zenbakia denik, berezko natura bat baizik, eta ez dirudi kausa denik. Horrela, bada, 15) aritmetikarien teorema guztiak berdin emango dira, esan bezala<sup>74</sup>, sentimenezko gauzetan.

### III

Ideiak existitzen direla eta hauek zenbakiak direla ezartzen dituztenek, banako bakoitza kanpoan ezartzearen bidez banako bakoitza bat dela baieztatzen dute eta banako aniztasunaz aparte zergatik existitzen diren azaldu nahi dute; hala ere, argudio hauek ez beharrezko, ez ahalezko ez 20) direnez, ez da hauetatik ondorioztatu behar zenbakia existitzen denik.

Bestalde, Pitagorikoek, zenbakien afekzio asko sentimenezko gorputzetan ematen direla ikusita, diren guztiak zenbakiak direla

baieztatu zuten, ez bananduak existitzen direnik, diren guztiak zenbakietatik sortuak direla baizik. Zergatik, baina? 25) Zenbakien afekzioak harmonian, ortzian eta beste gauza askotan ematen direlako.

Aitzitik, Zenbaki Matematikoa bakarrik existitzen dela baieztatzen dutenek ezin dute horrelakorik ondorioztatu beren hipotesietatik; hain zuzen ere, zientzia matematikoak horretaz arduratzen ez direla baino ez zuten esaten. Baina guk horretaz arduratzen direla baieztatzen dugu, lehenago esan bezala. Eta argi dago Errealitate Matematikoak ez direla 30) bananduak existitzen; izan ere, bananduak existituko balira, beraien afekzioak ez lirateke gorputzetan emango.

Horrela, bada, aurreko horri dagokionez, Pitagorikoei ezin zaie gaitzezpenik egin; baina beste kontu bat da gorputz fisikoak zenbakietatik sortaraztea -hots, ez pisurik ez arintasunik ez duenetik, pisua eta arintasuna duena-; izan ere, badirudi beste ortzi eta beste gorputz batzuek ari direla, ez 35) sentimenezkoez. Bestalde, <Zenbakia> banandua ezartzen dutenek hau existitu eta banandua dela onartzen dute, axiomak ez baitira sentimenezkoetan betetzen -egiazko esakune eta arimaren gozagarri diren 1090b) arren-; eta berdin matematikaren magnitudeak. Horrela, bada, argi dago kontrako argudioak kontrakoa azalduko duela, eta honelako iritzia dutenek aipaturiko arazoa konpondu behar dutela, hau da, sentimenezkoetan ematen ez baldin badira, zergatik ematen diren beraien afekzioak sentimenezkoetan.

5) Gero, badira puntua, lerroaren muga eta muturra izateagatik, lerroa, azalerarena eta azalera, solidoarena izateagatik, izaera hauek nahitaez existituko direlako ustea dutenak. Beraz, argudio hau ez ote den makalegia izango aztertu behar da, muturrak ez baitira substantziak; aitzitik, mutur hauek guztiak mugak dira (izan ere, paseoan ibiltzeak eta, 10) orokorrean, mugimenduak badu nolabaiteko muga bat;

ondorioz, <muga> "honako hau" eta substantzia izango da; alabaina, hau lekuz kanpo dago); hala ere, substantzia balira ere, denak izango lirateke sentimenezkoak (eta hauei buruzkoa zen aipaturiko argudioa). Orduan, zergatik emango dira bananduta?

Gainera, arinegi aztertzen ez bada antzematen da, zenbaki orori 15) dagokionez, aurreko errealitate matematikoez ez dutela ondorengoentzat balio (zenbakia existituko ez balitz ere magnitudeak izango liratekeelako Errealitate Matematikoez bakarrik existitzen direla baieztatzen dutenentzat; eta magnitudeak existituko ez balira, arima eta sentimenezkoak izango lirateke. Eta, antza denez, Natura ez da gertakari-segida bat, tragedia txar baten modura).

20) Bestalde, Ideiak ezartzen dituztenek saihestu egiten dute zailtasun hau -horiek materiatik eta zenbakitik sortzen dituzte magnitudeak: lerroak, Diadatik; azalerak, ziurraski Triadatik eta solidoak, Tetradatik edo beste zenbaki batzuetatik, ez du axola-, baina hauek guztiak, 25) agian, Ideiak izango ote dira? Zein ote da hauen izaera? Eta zer balio dute diren guztientzat? Ezertxo ere ez, Errealitate Matematikoez balio ez duten bezala. Bestalde, haietan ez da ezta teorema bat bera ere ematen, baldin eta matematikak aldatu eta iritzi berezi batzuk ezartzen ez badira. Baina ez da zaila hipotesi batzuk hartuta ondorio kateatuak ateratzea. 30) Horrela, bada, oker daude hauek Ideien eta Errealitate Matematikoen bat egitean.

Eta bi Zenbaki-mota (Ideala eta Matematikoa) ezartzean aurrenekoak izan zirenek ez zuten eta ezin izan zuten azaldu nola eta 35) nondik sortua den Matematikoa, hau Idealaren eta sentimenezkoaren bitartekotzat hartzen baitute. Horrela, bada, Handitik eta Txikitik sortzen baldin bada,

Ideala bera izango da 1091a) (bestelako Txiki eta Handi batzuetatik sortzen baitituzte magnitudeak); baina bestelakoren bat proposatuz gero ugaritu egiten dira osagaiak. Eta bi Zenbaki-motaren printzipioa nolabaiteko "bat" baldin bada, hau baterako duten zerbait izango da; orduan, aztertu beharko da nola litekeen Bataren aniztasun hau eta, aldi berean, harentzat <Platonentzat> ezinezkoa zen hura: Batetik eta Diada Zehazgabetik zenbakia sortua ez izana.

5) Hauek denak zentzugabekeriak dira, elkarren artean lehian eta iritzi arruntaren kontra; eta, antza denez, haietan ematen da Simonidesen hizketaldi luzea<sup>75</sup>; izan ere, esklaboek itxurazko ezer esateko ez dutenean bezala, horrela sortzen da hizketaldi luzea. Gainera, badirudi osagaiek berek -Handiak eta Txikiak- arrastaka ekarriak balira bezala egiten dutela 10) garrasi, ezinezkoa baita zenbakien genesirik, inolaz ere, Bataren bikoizketaz sortzen dena izan ezik.

Bestalde, lekuz kanpokoa da edo, are gehiago, ezinezkoa da betiereko direnen genesisia. Gainera, Pitagorikoek genesisia onartzen duten ala ez, ez da zalantzan jarri behar. Izan ere, argi eta garbi esaten dute Bata sortu 15) zenez geroztik -azaleratik, koloretik, hazitik edo zehaztu ezin dituzten beste osagai batzuetatik-, berehala izan zela Mugagaberantz arrastaka erakarria Mugagabetik gertuen zegoena, eta Mugak mugatua izan zela. Baina Ortziaren genesiaz eta fisikarien mintzairaz hitz egin nahi dutenez, zuzena da hauei Fisikari buruzko ikerketa batean azalpenak eskatzea, eta 20) oraingo honetan kontuan ez hartzea. Izan ere, geldiak direnen printzipioen bila gabiltza; beraz, honelako zenbakien genesisia ere ikertu behar dugu.

#### IV

<Platonikoek> ez dute aipatzen zenbaki bakoitiaren genesisia dagoenik, ez, behintzat, zenbaki bikoitiarena badela argi eta garbi balego bezala. Eta batzuek lehenengo bikoitia desberdintasunetik osatzen dute, 25) Handitik eta Txikitik, hauek berdindutakoan. Izan ere, nahitaezkoa da berdindu aurretik haietan desberdintasuna ematea, betidanik berdinduta izan balira ez baitziratekeen aurretik desberdinak izango



(betidanik existitzen denaren aurrekorik ez dago-eta). Beraz, agerian dago ez dutela zenbakien genesia teorizatzegatik egiten.

Bestalde, honako aporia hau sortzen da -eta arinegi konpondu 30) nahi duenak errieta merezi du-: Zein erlazio dute Ongiak eta Ederkiak osagai eta printzipioekin? Aporia hau da: horietako bat al da guk Ongia Bera eta Hobezina Bera izendatzen ditugunak bezalakoa, ala ez, hauek ondoren sortutakoak al dira?

Horrela, bada, badirudi teologo batzuk bat datozela oraingo 35) batzuekin; hauek, hain zuzen ere, ezetz esaten dute, diren guztien natura osatu ondoren agertzen direla Ongia eta Ederkia (eta hau egiten dute Bata printzipioa dela baieztatzen dutenei -batzuek hori esaten baitute- 1091b) sortzen zaien benetako zailtasuna saihestu nahian. Baina zailtasuna ez da sortzen printzipioari Ongia bere baitakoa balitz bezala ezartzeagatik, baizik eta Bata printzipio egiteagatik, Bata osagaitzat hartzeagatik eta Zenbakia Batetik sortarazteagatik).

Eta iritzi berekoak dira aintzinako olerkariak, hauen ustez agindu 5) eta gobernatu egiten dutenak ez dira lehenengoak -Gaua eta Ortzia, edo Kaosa, edo Ozeanoa, adibidez-, baizik eta Zeus. Baina gertatzen dena da hau esaten dutela agintariak "diren gauzak" bilakatzen dituztelako; izan ere, adierazpide nahastuez baliatzen direnak -dena mitoen bidez esaten ez dutenak, adibidez Ferezides eta beste batzuk-, hauek Hobezin Lehena 10) jartzen dute printzipio sortzaile, eta berdin Magoek, baita ondorengo jakintsu batzuek ere, Enpedoklesek eta Anaxagorasek, kasu: lehenengoak Adiskidetasuna hartu zuen osagaitzat eta bigarrenak, Adimena printzipiotzat.

Bestalde, substantzia geldiak badirela baieztatzen dutenen artetik, batzuek Bata Bera Ongia Bera dela esaten dute, Ongiaren substantzia, batez 15) ere, Bat izatean baitatza.

Horrela, bada, aporia hau honela gauzatzen da: Bi azalpen hauetatik zein hautatu. Izan ere, harrigarria izango litzateke Lehena, Betierekoa eta Burujabetasun Gorenekoa denak ez izatea hauexek berak, burujabetasuna eta salbazioa, bere baitako ongia bezala; hala eta

guztiz ere, ez da ez ustelgaitza, ez bere buruaren jabe, Ona delako 20) ez bada. Beraz, Printzipioa honelakoa izatea egiazkoa dela esatea zentzuzkoa da. Alabaina, berau Bata izatea edo, Bata ez bada, osagaia -eta zenbakien osagaia- izatea, behintzat, ezinezkoa da. Izan ere, zailtasun asko sortzen da (eta hauek saihestu nahian, teoria honetatik aldendu ziren batzuk, hain zuzen ere, Bata Printzipio Lehena eta Osagaia dela onartzen dutenak, baina Zenbaki Matematikoarena bakarrik), monada guztiak 25) nolabaiteko Ongia bilakatuko direlako eta Ongitasun gehiegi izango litzatekeelako.

Gainera, Ideiak Zenbakiak baldin badira, Ideia guztiak nolabaiteko Ongia izango dira. Horrela, bada, demagun nahi denaren Ideiak badirela: onak diren gauzenak bakarrik badaude, Ideiak ez dira substantziak izango; baina substantzienak ere badaude, animalia eta landare guztiak izango dira onak, baita <Ideietan> partaide diren guztiak ere.

30) Eta zentzugabekeria hauek ezezik beste hau ere suertatzen da: <Bataren> kontrako osagaia -hau Aniztasuna, Desberdina edo Handia eta Txikia delarik ere- Gaizkia bera bilakatuko da (horregatik bada bat <Espeusipo> Bata eta Ongia elkar-lotu nahi ez zituena, horren nahitaezko ondorioa Gaizkia Aniztasunaren natura izatea suertatzen baita, genesisia kontrakoetatik sortzen baita. Beste batzuen ustez, Desberdina da Gaizkiaren 35) natura). Eta Gaizkiaren partaide izango dira diren guztiak, bat izan ezik: Bata Bera, hain zuzen ere; eta zenbakiak magnitudeak baino beraren 1092a) partaide garbiagoak izango dira, eta Gaizkia Ongiaren tokian emango da, eta bera suntsitzen duenaren partaide gogotsua izango da, kontrakoa kontrakoaren suntsitzailea baita. Eta, esaten genuen bezala, gauza bakoitzaren materia gauza bera potentzian dena baldin bada -adibidez, egintzan ematen den suarena, sua potentzian dena-, Gaizkia, Ongia Bera 5) potentzian dena izango da.

Bestalde, hauek guztiak honela suertatzen dira: alde batetik, printzipio oro osagaitzat hartzeagatik; beste alde batetik, kontrakoak printzipiotzat hartzeagatik; beste alde batetik, Bata printzipiotzat hartzeagatik eta, azkenik, Zenbakiak substantzia lehenak, errealitate bananduak eta Ideiak direla esateagatik.

V

Beraz, ezinezkoa baldin bada bai Ongia printzipioetan jartzea, baita 10) jartzekotan horrela jartzea ere, argi dago ez direla zuzen azaltzen ez

printzipioak, ez substantzia lehenak. Eta Osotasunaren printzipiotzat animalienak eta landareenak hartzen dituen ere oker dabil, hobezinak diren gauzak beti zehazgabe eta burutugabe direnetatik sortuak direla esateagatik substantzia lehenen 15) kasuan ere horrela gertatzen dela esaten duelako; honen ondorioz, Bata Bera ere ez litzateke zerbait zehatza izango. Eta aipaturiko kasuan sorburu diren printzipioak ere burutuak dira: gizakiak sortzen du gizakia, hazia ez da lehena.

Era berean, lekuz kanpoko da "lekua" eta solido matematikoak aldi berekoak egitea (lekua banakoen berezitasuna baita; hau dela eta, 20) <banakoak> lekuz bereizten dira, baina errealitate matematikoak ez daude inon), baita "non" zer den zehaztu gabe "nonbait" daudela esatea ere.

Bestalde, diren guztiak osagaietatik sortzen direla eta diren guztietan lehenak zenbakiak direla esaten dutenek bereizi beharko lukete "zerbait beste zerbaitetik" zenbat modutan sortzen den, eta nola sortzen den zenbakia printzipioetatik. Nahasketaz ote? Baina dena ezin da nahastu, eta 25) sortzen dena beste zerbait da; beraz, Bata ez da banandua eta bestelako natura bat izango, haiek honela nahiko balute ere. Orduan, konposaketaz ote, silaba bezala? Baina horrek posizioa eskatzen du, nahitaez, eta Bata eta Aniztasuna bananduta ulertuko ditu Ulertzeak. Horrela, bada, hauxe izango da Zenbakia: unitatea gehi aniztasuna, edo Bata gehi Desberdina.

Gero, zerbaitetik sortua izatea batzuetan bere baitako osagaietatik 30) sortua izatea da, eta beste batzuetan, ez; beraz, zein da zenbakiaren kasua? Izan ere, bere baitako osagaietatik genesia duten gauzak bakarrik dira sortuak; orduan, hazitik bezala izango da sortua? Baina zatiezina denetik zerbait ateratzea ezinezkoa da; agian, irauten ez duen kontrako batetik bezala izango da sortua? Baina horrela sortuak direnak irauten duen beste 30) zerbaitetik dira sortuak. Horrela, bada, filosofo batek Bata Aniztasunaren 1092b) kontrakotzat eta beste filosofo batek Desberdinaren kontrakotzat hartzen dutenez -Bata Berdintzat hartuz-, Zenbakia kontrakoetatik sortua izango da. Beraz, irauten duen beste zerbait bada, eta honetatik eta bi kontrakoetako batetik existitu edo sortua da zenbakia. Gainera, kontrakoetatik sortuak diren guztiak, edo kontrakoak beren baitan 5) dituztenak, zergatik usteltzen dira -kontrako osotik sortuak badira ere-, eta zenbakia, ordea, ez? Izan ere, honetaz ez da ezer esaten.

Hala eta guztiz ere, bere baitakoa izan ala izan ez, kontrakoak usteldu egiten du; adibidez, Gorrotoak nahasketa (alabaina, ez luke horrela izan behar, hura ez baita honen kontrakoa).

Bestalde, ez da inolaz ere zehaztu zein modutan diren zenbakiak "diren guztien" eta izatearen kausa; muga diren aldetik ote (puntuak 10) magnitudeen muga diren bezala, eta Euritok gauza bakoitzari zenbaki bat ezartzen zion bezala -adibidez, hau gizakiari, hori zaldiari-, harri koskorrez izakien irudiak irudikatuz, zenbakiak irudietara eramaten dituztenek triangelua eta tetragonoa irudikatzen dituzten bezala), edo sinfonia (eta berdin gizakia eta bestelako banako bakoitza) zenbaki-proportzio bat delako ote?

15) Baina afekzioak -zuria, gozoa, beroa- nola izango dira, bada, zenbakiak? Bestalde, argi dago zenbakiak ez direla ez substantzia, ez konfigurazioen kausa, substantzia proportzioa baita eta zenbakia, berriz, materia; adibidez, haragiaren nahiz hezuraren substantzia zenbakia da, hiru zati su eta bi zati lur-proportzioa delako. Eta zenbakia beti izaten da zerbaiten proportzioa, izanak izan: su, lur edo unitate zatien proportzioa; 20) substantzia, berriz, honenbesteko honen eta horrenbesteko horren arteko proportzioa nahasketan. Alabaina, proportzioa ez da inolako zenbakia, baizik eta zenbaki gorpuztunen edo bestelakoen nahasketaren proportzioa. Beraz, zenbakia ez da, ez kausa eragilea -ez zenbakia orokorrean, ez unitatedun zenbakia-, ez materia, ez proportzio, ezta gauzen 25) forma ere. Eta helburuzkoa den kausatzat ere ezin hartu.

## VI

Ondorengo galdera hau sor liteke: nahasketa zenbaki -hau kalkulagarria zein bakoitia- baten bidez adierazteagatik, zer on dakarten zenbakiek. Izan ere, ezti-ura ez da osasungarriagoa izango hirutan hiru-proportzioan nahastuta egoteagatik; 30) aitzitik, inongo

proportziotan egon ez, baina ur-eztia baldin bada, proportzio baten arabera ezti-ura baino osasungarriagoa izango da. Gainera, nahasketen proportzioak zenbaki-batuketak dira, ez zenbakiak; adibidez, "hiru gehi bi", ez "hiru bider bi". Izan ere, biderketetan bera izan 35) behar du generoak; ondorioz, 1? ? 2? ? 3 seriea lez neurtu behar da eta 4? ? 5? ? 6 seriea, 4z, hau da, beti neurri bera erabiliz. Beraz, suaren zenbakia ez da 2? ? 5? ? 3? ? 7 izango, ezta 2? ? 3 urarena ere.

1093a) Bestalde, gauza guztiak nahitaez zenbakiaren partaide baldin badira, nahitaez suertatuko da gauza asko gauza bera direla eta zenbaki bera "honako gauza honi" eta "horko gauza horri" egokituko zaiela. Hau ote da, beraz, kausa eta gauzaren izatearen arrazoa, ala ez da honen kontu argia? Adibidez, zenbaki jakin bat eguzkiaren mugimenduei 5) dagokie; beste bat ilargiaren mugimenduei; beste bat animalia bakoitzaren biziari eta adinari. Orduan, zerk eragozten du zenbaki hauetako batzuk tetragonoak eta beste batzuk, berriz, kuboak izatea; batzuk, berdinak eta beste batzuk, ordea, bikoitzak izatea? Izan ere, ezerk ez du hau eragozten; aitzitik, nahitaezkoa da hauen artean ibiltzea gauza guztiak zenbakiaren partaide 10) baldin badira. Eta litekeena da desberdinak diren gauzak zenbaki berari egokitzea; beraz, gauza batzuei zenbaki bera egokituko balitzaie, zenbaki-forma bera izateagatik horiek ere gauza bera izango lirateke; adibidez, eguzkia eta ilargia gauza bera izango lirateke.

Baina zergatik izan behar dute hauek kausa? Zazpi dira bokalak, zazpi harmoniaren sokak, zazpi dira Pleiadeak, zazpi urte betetzean hortzak 15) erortzen zaizkie (animalia batzuei, beste batzuei, ordea, ez), zazpi izan ziren Tebasen kontra. Agian azken hauek zazpi izatearen arrazoa, edo Pleiadeek zazpi izar izatearena zenbakiaren naturan datza? Edo, hobeki esanda, haiek ez ote ziren, bada, ateengatik zazpi izango, edo beste zer baitengatik, eta Pleiadeetan zazpi eta Hartzean hamar izar zenbatzen ditugunok ez al gara gu geu, beste batzuek gehiago zenbatzen duten 20) bitartean? Hauek, gainera, X, y, eta Z kontsonantziak direla esaten dute, eta hiru direla beste horiek ere hiru direlako. Eta ez zaie batere inporta hauek bezalako milaka kontsonantzia izan ditezkeela (izan ere, G eta R letrak ere ikur bakar batez adieraz litezke). Eta baldin eta haietako bakoitza -eta ez besterik- bikoitza dela esaten bada,

arrazoia litzateke <ahoaren> lekuak hiru direnez, hiruretan s bana 25) kokatu daitekeela, eta horrexegatik direla hiru bakarrik, ez sinfoniak hiru izateagatik; izan ere, hauek hiru baino gehiago dira, baina haiek hiru baino ezin daitezke izan.

Horrela, bada, filosofo hauek ere antzinako Homeroren iruzkingileek bezala egiten dute: antzekotasun txikienei erreparatu, baina handiak alde batera utzi. Batzuek honelako antzekotasun asko dagoela esaten dute; adibidez, bitarteko sokak zortzidun eta bederatxidun 30) <bitartekoak> direla, eta bertsoa, hamazazpiduna -bi horien batuketa-, eskubiko erdian bederatzi eta ezkerrekoan zortzi silaba zenbatzen direlarik; 1093b) gainera, A eta W letren arteko distantzia eta flautaren soinu baxuenetik altuenera dagoena distantzia berdina dela esaten dute, honen zenbakia eta Ortzi osoaren harmoniarena zenbakia berdina delarik. Baina erreparatu egin behar da betiereko diren gauzetan antzekotasun hauek 5) aipatu edo aurkitzeko zailtasunik ez litzatekeela izan beharko, sentimenezkoetan ere ez dagoelako.

Baina zenbakietan ematen diren natura laudatu horiek, hauen kontrakoak eta, orokorrean, errealitate matematikoetan ematen direnak -hauek Naturaren kausatzat hartu eta azaltzen dituzten batzuen arabera-, badirudi ezabatu egiten direla honelako azterketa baten aurrean, horiek ez 10) baitira zehaztu ditugun printzipioen araberako kausa, inola ere ez. Alabaina, zentzu batean, behintzat, Ongia badela esaten dute, eta Ederraren zutabeen ere Bakoitia, Zuzena, Karratua eta zenbaki batzuen potentziak jartzen dituzte. Izan ere, urtarok bat datoz zenbaki jakin horrekin eta

15) teorema matematikoetatik aterata biltzen dituzten antzekotasun guztiek badute, denek, balio bera.

Horrexegatik dirudite aldiberekotasun hutsak. Izan ere, akzidenteak dira, baina denek dute elkarrekiko zerbait eta batasun analogikoa osatzen dute; horrela, bada, Den-aren kategoria guztietan 20) ematen da analogo dena: "zuzen" lerroarekiko, "laua" azalerarekiko bezala, eta, ziurraski, "bakoitia" zenbakiarekiko eta "zuria" kolorearekiko.

Gainera, Zenbaki Idealak ez dira harmonikoen eta honelakoen kausa (haiek, hain zuzen ere, espeziez desberdinak dira elkarren artean -baita berdinak direnak ere-, unitateak ere desberdinak direlako). Arrazoi hauengatik, behintzat, ezin esan Formak direnik.

Hauexek dira ondorioak, eta oraindik ere gehiago bil liteke. 25) Horrela, bada, zenbakien genesisia dela-eta sortzen zaizkien zailtasunek, batetik, eta hauek biltzeko ezintasunak, bestetik, frogatzen dute errealitate matematikoak ez direla sentimenezkoetatik aparte existitzen, batzuek esan bezala, eta haiek ez direla printzipioak.